eusk al dunon
Egunkaria
OSTEGUNA
2001eko maiatzaren 24a – XII. urtea – 3.249. zenbakia – Salneurria: 125 pta. 6 libera

GEHIGARRIA

/erdiko orrialdeetan

BOST EUSKAL HERRITAR EVERESTEN

Munduaren gailurrean

JUAN VALLEJO

JUANITO OIARZABAL

EDURNE PASABAN


PATXI GOÑI


JULEN REKETA

EGUN HANDIA. Juan Vallejo eta Juanito Oiarzabal gasteiztarrak, Edurne Pasaban tolosarra, Patxi Goñi irunberriarra eta Julen Reketa laudiarra Everesteko tontorrera iritsi ziren atzo, hiru espediziotan. Vallejo eta Oiartzabal oxigenorik gabe igo ziren goraino, iparraldeko maldetatik. Pasaban, berriz, Everestera igo den lehen euskal emakumezkoa da. **/26-28**

EUSKARA NAFARROAN

Gobernuak ingelesaren parean jarri nahi du euskara unibertsitatean

Pegenautek baieztatu du NUPen ez dela ikasketarik eskainiko euskaraz, Irakasletzan izan ezik

ATZERAPAUSOA. Egitasmoa NUPek berak onartutako hizkuntza plangintzaren aurkakoa da

IKASLEAK. Unibertsitateko bost ikasletik bat gai da euskaraz ikasteko **/6-7**

ATENTATUA

EHUko zinpeko guardia bati bonba bat jarri diote autoan, baina ez da lehertu

Gidariaren eserlekuaren azpian zegoen jarria, eta Ertzaintzak leherrarazi zuen **/8**

2001-05-24 aurkibidea

EUSKAL HERRIA 9
Redondo Ibarretxerekin

Juan Jose Ibarretxe EAEko jarduneko lehendakaria Nicolas Redondo Terrerosekin bildu da Ajuria Enean. Oposizio «eraikitzailea eta malgua» agindu dio PSE-EEko idazkari nagusiak Ibarretxeri.

EUSKAL HERRIA 11
Hiru zarauztarren aurkako espetxeratze agindua

Zarauzko hiru lagun espetxean sartzeko agindua eman du Donostiako Entzutegiak, duela lau urte manifestazio batean zihoazela ertzainei mehatxu egitea leporatuz.

EUSKAL HERRIA 14
Helduen euskalduntzearen IV. jardunaldiak

Helduen euskalduntzearen IV. jardunaldiak egingo dira bihar Donostiako Kursaal jauregian. Euskara irakasleen arteko komunikazio esparruak indartzea izango da horien helburua.

EKONOMIA 18
Euroa behera

Euroak behera egin du berriro ere, inflazio igoerak eta hazkunde apalak eraginda.

EKONOMIA 20
Akordiorik ez Nafarroan

Nafarroako garraiolarien sindikatuek eta Patronalak eginiko bilerak ez du emaitza onik eman, eta grebak bere horretan jarraitzen du.

KULTURA 42
Juan Mari Beltranen disko berria

Juan Mari Beltran musikari nafarrak bere azkeneko diskoa aurkeztu du. Euskal soinu tresna, hots, tinbre, erritmo eta estilo ezberdinak nahastu ditu bertan.

euskaldunon Egunkaria 3.249. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai
Kontseilari Ordezkaria: Iñaki Uria
Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Gerentea: Mikel Sorozabal
Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com
Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com
Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1. ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965
Nafarroa: Iratxe Monasterioa, 45-13.esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686
Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 BilboTel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114
Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1 503 Posta kutxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo

hizpideak

Euskal Herriko mendizaletasuna goi-goian

Egun arrakastatsua izan zen atzo euskal mendizaletasunarentzat, Himalayan. Hotzean, datuak ikusgarriak dira. Euskal Herriko sei mendizale heldu ziren 8.000 metrotik gorako gailur batetara, bost Everestera, eta beste bat Lhotsera. Lorpena zehatz aztertuta, are garrantzitsuagoa da atzoko eguna. Patxi Goñi, Julen Reketa eta Edurne Pasaban Hegoaldeko aurpegitik igo ziren Everestera (8.850), eta Juan Vallejo eta Juanito Oiarzabal, ipar-ekialdeko ertzetik. Bost mendizaleok 1993az geroztik luzatu den lehortea amaitutzat eman zuten, urte horretan igo baitzen azken aldiz Euskal Herriko mendizale bat Everestera (Juanito bera izan zen azkena). Gure alpinismoko historian, ostera, distira handiagoarekin egingo du argi Pasabanen lorpenak, Euskal Herriko lehen emakumea baita gailurrera heltzen dena. Baita ere Vallejo eta Oiarzabalena, ipar-ekialdeko isurialdetik gailurrerainoko bidea egiten duten lehen bi euskal mendizaleak baitira. Oiarzabal pozik zen, Himalayako 14 zortzimilakoak igota ere, Everest oxigenoaren laguntzarekin igo baitzuen. Atzo oxigenoa erabili gabe igo zen, orduko orbain hori betirako itxita. Zerainek ere egin zuen berea, Lhotsera igota. Goiko kanpamenduetara onik iritsi ziren guztiak. Beheko kanpamenduetara ere osasuntsu heltzea bakarrik falta da ospakizuna erabatekoa izateko.

Edurne Pasaban mendizale tolosarra artxiboko argazki batean.

Javier Solana eta Ariel Sharon, atzo, Jerusalemen.

Muga gehiago euskararendako

Nafarroako Gobernuak ingelesaren edo frantsesaren parera utzi nahi du euskara Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), ikasketen oinarria diren enborrezko edo derrigorrezko ikasketak erdara hutsean emateko asmoa baitu. NUPen euskararen egoera arautzeko prestatzen ari den Lege Proiektuak jasotzen du, horrela, espezializazio gutxien duten ikasgaiak soilik –hautazko libreak– eskainiko direla euskaraz, ingelesez edota frantsesez eskaini ahal izango diren bezala, «eskaeraren arabera». Pedro Pegenaute Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak azaldu ditu asmoak, eta zinismo ikutua ere ez zitzaion falta izan. «Ez dugu unibertsitate elebidunik nahi, baina unibertsitate eleanitza». Ikusgai da orain unibertsitarioen erantzuna. Aurrekoak antzeko asmoak geldiarazi zituen.

Bush Mitchellen alde

Mitchell Txostenak *intifada* geldiarazi eta Ekialde Hurbileko gatazka konpontzeko eskaini duen «aukera» baliatzeko galdegin zien atzo EEBBetako presidente George W. Bushek Ariel Sharon Israelgo lehen ministroari eta Jasser Arafat Palestinako Aginte Nazionaleko presidenteari telefonoz, pasa den astean Arafatek EEBBetako Kongresuari gutun baten bidez txostenaren aldeko jarrera hartzeko eskatu ondoren.

Altxamendua geldiarazteko ehuneko ehunean ahaleginduko zela agindu zion Arafatek Kongresuari. Kongresua aste honetan da txostenari buruzko iritzia plazaratzekoa, eta bitartean, Sharoni txostena oso-osorik betetzeko exijitu dio Arafatek, hark asteartean aldarrikatu zuen suetena onartzeko. Izan ere, Mitchell batzordeak eremu juduak eraikitzeari uzteko aholkatu arren, kokaguneen «hazkunde naturala» bultzatzeko asmoa baitu Sharonek

egunekoa

J. Alberto Muñoz Zufia

(EAE-ANV-ANBko kidea)

Iragarritako hauteskunde deskalabru baten kronika

Dezepzioa eta amorrua eragin dizkit ezker abertzaleak izandako hauteskunde emaitzak. Nahiz eta gertatutakoaren lehen ikuspegi batean aldi berean azpimarratu behar espainolismoaren eta Espainako Gobernuak (PSOEren laguntzarekin beti) botatako hordagoaren porrota. Ezin dugu, hala ere, ezikusiarena egin gure hauteskunde deskalabruaren aurrean. 80.000 bozken galera.

Entzun eta irakurtzen dudanaren arabera, ematen du gure kolkorako kontsolamendua zera dela, bozka abertzaleak bozka espainolistari ateratako tartea. Baina geronek ezin dugu abertzalegoaren garaipen hau gure porrota, eta porrota eragin duten arrazoiek estaltzeko erabili. Ezin dugu EAJ-EAri joan zaizkigun 80.000 bozka horiek bidaltzen diguten mezuaren ardura bizkarreratu, horren arabera jokatzeko eskatuz. Dugun lehendabiziko lana zera da, bozka galera honek zer erran nahi digun ulertzea. Ea beldurrezko utila edo zigor botoa den. Ezin dugu gure burua engainatu gure mezuetan erranez askatasunaren prozezuaren gidariak garela, gertatutakoa enbata edota udako ekaitz baten ondorioa balitz. Errealitate gordina zera dugu, hauteskunde hauek ahultasun egoeran utzi gaituztela beste indar politikoekin mintzatzeko orduan, eta bereziki edozein negoziazioren aurrean.

Nire ustez premiazkoa dugu azken garaiotan jarraitutako lerro politikoaren azterketa sakona. Baina ez soilik EH/HB mahai nazionalaren eskutik, baizik eta ezker abertzalea osatzen dugun erakunde eta talde guztien aldetik. Eta horrela, autokritika sakon bati aurre egin. Ez nuke nahi nire hitzak zentzu okerrean hartzerik. Ez naiz ari dimisioez eta kargu aldatzeaz. Are gutxiago lerro hauek idazten duena ontzia utzi behar duela esanez. Eskatzen dudana zera da: autokritika eta gogoeta.

Nire aburuz akatsa aspalditik dator. Garai batean hauteskundetan aurkezten ginen, baina ez ginen erakundeetara joaten, gero, ordea, bai. Beste une batean abstenziorako deia egiten dugu. Itunak apurtzen dizkigutenean eta gobernu akordioetatik bota, alde egiten dugu, ez erakunde guztietatik ordea, baizik eta bakar batetik. Gainera, ez diogu aurre egin beldurraren eta bozka utilaren mezuari, hori bai, gure mezua dialektikoki osatu bezain korapilatsua aireatuz. Beti dago arrazoiren baliagarri bat gaurko ezetza eta biharko baietza jendeari adierazteko. Gure oinarri sozialak eta gure bozka emaileek ulertu eta jarraitu ohi gaituzte. Baina ez, oraingo honetan ez. Zirkuloaren kuadraturaz aritzea izan da. Ez gaituzte ulertu eta ez gaituzte jarraitu.

Amorrua esaten nuen aurreneko lerroetan. Amorrua zeren eta iragarrita zegoen. Duela hilabete eta erdi Eusko Abertzale Ekintzaren batzorde eragileak gutun bat bidaltzen dio Mahai Nazionalari, dugun hondamen arriskuaren berri emanez. Ezker abertzaleko munta handiko buruzagiekin izandako bilera batean zera iragarri genien: HB/EH-k zeraman lerro politikoa 40.000-50.000 bozken galerarekin bukatzeko traza bazuela (azken hau esaten dut soilik informazio gisa). Baina hura esaten genuenok EAE-ANV-kook ginen. Jakina, «lau katu dira eta gainera danborrik gabe». Gauzak aurreikusten jakinez gero, posiblea zen galeraren zati handi bat geratzea. Eleberri eta film ospetsu horren karira zera deitu genezake egoera: «Iragarritako hauteskunde hondamendi baten kronika».

Estrategek bide erratu batean barna eraman gaituzte. Kanpainan emandako burujabetzaren aldeko mezu zentrala denok onartua bada ere, ez dio eman erantzunik Baskongadetako abertzalegoaren zalantza nagusiari, hots: zer gingo genuke Espainarrak, Mayor Oreja buru zutela, EAEko erakundeen jabeak egiteko zorian egonez gero? Gure mezua berandu heldu da, eta anbiguoa eta kontraesankorregia izan da «beldurraren bozka» efektua geratzeko. Kanpaina erdian esaten dugu lehendakariaren inbestidurara joango garela. Handik egun gutxira mezu bat igortzen diogu Mayor Orejari esanez ez dugula ametituko bere hautaketa. Azken egunean mitin batean zera adierazten zaio Ibarretxeri: ea zergatik esaten du ez dituela gure bozkak ametituko geronek ez baldin badugu sekula esan bera bozkatzeko asmoa dugunik. Anbiguotasun argia. Kalkulatua ?

Guzti horren eta beste askoren inguruan gogoeta egin behar da, zeren eta zalantza bat datorkit burura. Hondamendi honetara ekarri baldin bagaituzte gure estrategek, nora garamate Batasuna prozezuaren diseinu zein moduek? Kontuan hartzen indarrak batzeko baino sakabanatzeko prozesua dirudiela. Gauza hauei erantzun beharko diegu denon artean argi, garbi eta bete-betean asmatuz. Asko galdu dezakegu hausnarketa eta diagnostiko okerra egiten badugu, jokoan dagoena asko baita. Burujabetzaren aldeko prozesuaren motorra izan behar den ezker abertzalearen urtetako atzerapen bat, hain zuzen.

zutabea

Iban Zaldua

Ogia besapean

Goizeko hiru eta erdiak ziren. Lana nuen hurrengo goizean, baina Arantzak ukalondoarekin jo ninduen, ohi duen bezala: gupidarik gabe. «Ez duk entzuten, ala? Negarrez zegok berriro ere. Duela gutxi eman zioat biberoia: ezin duk gose egon, beraz. Badakik zer egin behar duk».

Nik Arantzari esaten nion horiek ez zirela intziriak, Maddik apenas egiten zuela negar, soinu horiek beste zerbait izan behar zutela, pasako zitzaiola. Baina Arantzarekin ez dago negoziatzerik. Aurreko gauetan bezala, haurra lepoan hartu eta telebista aurreko besaulkian eseri nintzen. Bolumena baxu-baxu jarri, eta hantxe geratzen nintzen, loak Maddi hartzen zuen arte.

Baina egun horretan, telebista piztu bai, baina soinua kendu nuen, eta irudiak ikustera mugatu nintzen. Eta orduan entzun nuen. Umearen ustezko zotinak ez ziren negar-hotsak, letania estrainio bat baizik: «peneubeogeitaamairupepeemeretzipeseeamairu...». Ezin nuen sinetsi. Behin eta berriro errepikatzen zuen. Legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzak ziruditen: baina lau egun falta ziren maiatzaren 13rako!

Hurrengo goizean, halakoetan parte hartzea gustatzen ez zaidan arren, lantegiko porran dirua jarri, eta nire iragarpena idatzi nuen arbelean: «PNV 33, PP 19, PSE 13...». Aurpegira egin zidaten barre lankideek. Bost mila duro pasatxo lortu nituen horrela. Hurrengo gauetan minutu bat galdu gabe altxatu nintzen umea lasaitzera. Ez nuen beti ulertzen murduskatzen zuena, baina egun batzuk geroago Liverpoolek Alavesi bost eta lau irabaziko ziola entzun niola uste izan nuen. Niri futbola ez zait interesatzen, baina banekien zein tabernatan egiten ziren apustuak: pare batera joan nintzen. Zer esanik ez, taberna horietan ere irribarre zabal batez onartu zuten nire iragarpena. Ez zuten halako aurpegirik jarri partidaren biharamunean.

Egun hauetan Maddik Iberdrola eta BBVri buruzko zer edo zer xuxurlatzen ari dela uste dut, erabat ziur ez nagoen arren. Baina egunkarietako burtsa informazioa arretaz aztertzen ari naiz. Badaezpada.

seiko urrea

Gaizka Aranguren

Pistolak eta pistolak

Ibarretxeren erranetan, ezin da EHrekin harreman politiko sakonik ukan ETAren bortizkeria salatzen ez duen bitartean. Arzalluzen erranetan, pistola kopuruak balio ez duelako, boto kopuruak baizik. Arnaldo Otegik dioenez ulergaitza da Ibarretxeren argudioa. Honen irudikoz onartezina da arrazoi horrengatik EHri ezetz erratea eta, ordea, inolako arazorik ez izatea «herri honen eskubideak errespetatzen ez dituztenekin» gobernua osatzeko.

Otegik aipatzen duena baino askoz ere kontraesan gordinagoa da EAJk inolako arazorik gabe defendatzen duena. Izan ere, pistola kopuruei begira, ez da hain zuzen ere, EHk salatzen ez duen erakunde armatua pistola gehien dituena (baliteke, baina biziki zaila litzateke). Pistola gehienak, bonba gehienak, liberatu gehienak (benetako mertzenarioak kasu honetan), PSOEk lehen eta PPk orain kudeatu eta gidatzen dituzten erakunde armatuen eskuetan daude (RPR-UDF-PSFren kasuan bezala). Eta bitarteko bortitz horiek, Konstituzioaren aginduz, mandatu legala daukate erabiliak izateko «lurralde batasunaren apurketa ekiditeko».

Guardia Zibila, CRS, Polizia, Jendarmeria eta bi estatuetako armadak, ETA baino handiagoak dira, pistola gehiago daukate, eta aldera ezineko bortizkeriarako gaitasuna. Baina ez dira horiek, Nafarroa Osoan, ETA baino handiagoak diren bakarrak. EAJk berak Gasteizko gobernutik gidatu eta kudeatzen duen erakunde armatu legalak, zalantzarik gabe, ETAk baino pistola gehiago baditu. Beraz, ez da afera kuantitatibo hutsa.

Argudioak bertze hauek izan daitezke: ETA da 2001. urtean, argudio politikoak erabiliz, hil duen erakunde armatu bakarra. ETA da azken urteotako hilketa politiko gehienen egilea. ETA da indarrean dagoen legeritik at dagoen erakunde armatu bakarra. Are gehiago, ETA da egungo legeriaren aurka bortizkeria erabiltzen duen erakunde armatu bakarra. Horrek ez du erran nahi, Estatuaren biolentziaren monopolioaren babesean, lehenago aipatu ditugun erakunde armatuek hil ez dutenik edo bortizkeria erabiltzen ez dutenik. Ez eta gutxiagorik ere.

EAJk ez du inoiz arazorik izan legezko erakunde armatu handienen kudeatzaile politikoekin eta ezlegezko erakunde armatuen sortzaileekin elkarrizketatu, negoziatu, itunak egin eta gobernua osatzeko.

kornerra

Mikel Elorza

Adibideak

Gure sukaldeen indarraren adibide, Elena Arzakek jaso du Sukaldari Gazte onenaren saria. Poztu nintzen beragatik, baina pena eman zidan saria jaso eta ETBri gaztelaniaz hitz egin zielako, eta pentsatu nuen aitak zartaginen hizkuntzaz gain bertzerik ere erakutsi ahal ziola. Berak ikasi, jakina. Ez dut kasua epaituko, ez dut ezagutzen, eta zinez diot pozten naizela sarituagatik («*barkatu*» esanez hasi zen). Baina azkenaldian sumatzen dudan erlaxazioaren etsenplu gisa balio du. Irudipena dut hizkuntzarekiko sentiberatasuna ahul dabilkigula, eta osagarririk gabe deus ez diren egituren bizkar utzia dagoela berreskurapenaren borroka. Kanpaina eta ondorena ere ez da adibide txarra. Hizkuntza bat ez da galtzen... topiko poetikoa egiazkoa da, eta segida ere erraza du: alegia, hizkuntza ez dela berreskuratzen dakitenak tematzen ez badira.

hondo-hondotik

Josean Belzunce

(Mendi eta Ingurugiro Zerbitzuetako teknikaria)

Gipuzkoa Parke Natural eta Nazionalen Europako Egunean

Gaur Parke Natural eta Nazionalen Europako Eguna da. Erakundeek ospakizun garrantzitsurik prestatu ez dutenez, gaurkoa gogoeta egiteko eguna izango dugu, euskal erakunde publikoek —ingurumena eta bioaniztasuna zaintzeko eskumenak dituztenak— arlo horretan egiten duten gestioari buruz.

Europan lehenengo parke naturalak Suedian izendatu zituzten, 1909an. Bestalde, Nafarroako Gobernua aitzindari dugu Euskal Herrian, lehen naturgune babestuak izendatu baitzituen, 1984an Bertizko Parke Natural kasu. EAEn beranduago ekin zioten habitatak babesteko politikak egiteari; 1989an Urdaibai biosferaren erreserba izendatu zuten; iparraldean, berriz, Abadiako itsasbazterreko babesgunea dugu Hendaian.

Alta, gauza bat natura babestu ahal izateko figura juridikoak izatea da —parke naturalak, erreserba integralak, biotopo babestuak, babes bereziko eremuak (ZEPA), itsasbazterreko babesguneak eta abar—, eta beste bat naturgune babestu horietan natura zaintzeko egiten den lana. Hala, Euskal Herrian gauza gutxi egin da naturguneak behar bezala kudeatzeko. Nafarroan Bioaniztasuna Zaintzeko Zerbitzua dugu, eta EAEko diputazioetan Mendia eta Natura Babesteko Zuzendaritza Nagusiak ditugu. Salbuespen ohoragarri batzuk kenduta, eta urte askotan bildutako esperientzia sakon aztertu ondoren, argi eta garbi ikusi dugu administrazioko sail horiek, goi erakundeetatik (Gobernua, Unesco, Brusela) naturguneak babesteko eskumenak hartu badituzte ere, ez dutela proiektu zehatzak garatzeko borondaterik agertu.

Parke naturalek gure naturguneetako eredu izan beharko lukete. Euskal gizarteak eskari berriak ditu; herritarrek paisaia aldetik balio handikoak diren naturguneak nahi dituzte, habitata, flora eta fauna zaintzeko eremu zabalak, paseatzeko eta aisialdirako tokiak. Alabaina, administrazio publikoek eginiko hainbat ekimen kaltegarriak dira; interes publikoarentzat zalantzagarriak diren hainbat proiektu egin dituzte, interes pribatuei lotutakoak dira, eta aurrekari txarrak izan daitezke etorkizunerako: esaterako, Itoizko urtegiak kalte egiten dien ZEPA eta erreserba naturalen kasua; Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Kooperazio Kontseiluak salaketa babes bereziko zoruan hiriginta proiektuak egin dituztelako; Lareoko urtegian, Aralarko Parke Natualean, Erabilera eta Gestiorako Plan Nagusia bizilekuak egiteko, eta urteko planetan egindako politika sektorial jakin batzuk.

Gipuzkoari dagokionez, hemen ere baditugu parke naturalak eta biotopo babestuak; hala ere, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen sailak natura eta parke naturalak babesteko eskainitako aurrekontua oso eskasa da. Orain arte egin duten politika sektore pribatuarena bezalakoa izan da, eta soilik zura ustiatzera, larreak era intentsiboan ustiatzera eta arrantza eta ehiza antolatzera mugatu dira. Bisitariak Gipuzkoako parke natural batera joaten direnean Europako beste edozein tokitan egiten ez diren gauzak ikusten dituzte: motoak eta noranahiko ibilgailuak nonahi, matarrasak egur ustiategietan eta aldapa handiko guneetan, zura ateratzeko bide luzeak eta urbanizazioak paisaia naturaletan. Laburbilduz, babestutako guneak baliabide naturalak ateratzeko erabili dituzte, eta ez dute ezer egin desagertzeko zorian dauden fauna eta flora espezieak eta habitat naturalak —egun oso eskasak— lehengoratzeko (basoa, ibai ertzak, padurak), ezta paisaia naturalak kudeatzeko ere. Ez dugu ahaztu behar horregatik izendatu dituztela parke natural.

Ez dago naturguneak babesteko politika publikorik, eta horrek legedian hutsune handi bat dagoela adierazten du NGPak (naturgune babestuak) gestionatzeko eta antolatzeko baliabideak ezartzerakoan: ingurumen parametroen segimendurako planak (babesteko, erabilerarako eta ikerketarako), parametro sozioekonomikoen kontrola, erabilera eta gestiorako planak gauzatzea ebaluatzea. Egoera horren adibide nabarmena Aiako Harria parke naturala dugu, Gipuzkoako ipar-ekialdean, Bidasoa eta Urumea ibaien arteko mendikatean. Duela bost urte parke natural izendatu zuten, eta bost urteotan ahaztuta eduki dute gestioaren ardura zutenek. Orain herri agintariek araudia ezartzea lortu dute foru organo gestorea presionatu ostean, eta parke naturaleko patronatua sortu dute, gestioa kontrolatzeko eta antolatzeko. Parke naturalarekin zerikusia duten bost udaletako ingurumen agintariek batera egindako azterketaren ondorioz adostasuna lortu dute. Udalerri horiek, basoaren jabe gisa, Parke Naturaleko lurraren%85aren arduradun dira. Akordio horren oinarrizko puntuaren arabera, Parke Naturala erabili eta gestionatzeko planean azaltzen dutenez, herri lurretako basoak baso natural bihurtu nahi dituzte lurraren jabeek. Gaur egun, udalen interesa —jardun ekonomiko nagusia industrian eta zerbitzuetan egiten dute— ez da egurra ekoiztea, funtzio soziala eta ingurumenaren aldekoa egitea baizik: aniztasun biologikoa eraginez, herritarrentzat aisialdirako guneak prestatuz, naturaren turismotik dirua jasoz, habitat naturalak eta kalitate oneko paisaiak zainduz. Azken batean, naturguneak berriro indartzea da helburua, eskualde bakoitzean auzoen zaharberritze urbanistikoarekin batera.

Ekimen hori, Espainiako Estatuan NGPen esperientziari dagokionez, oso garrantzitsua da, Parke Natural izendatzearen «ondorioak» jaso dituztenak baitira naturgunea babesteko politika dinamizatuko dutenak, eta ez, eskumena dela-eta dagokiona, Nekazaritza eta Ingurumenerako Foru Sailak.

Guk, Gipuzkoan natura babesteko politikaren norabidea alda dezatela eskatu nahi dugu; horretarako, diru laguntza gehiago eman beharra dago, aurrekontu duinak zehaztu bioaniztasuna zaintzeko, eta giza baliabideak eta teknikoak areagotu egin behar dira (langile teknikoak eta administrariak, hektareaka babesteko zaintza ratioak, eta abar).

Carlos Aseginolaza, Iñaki Azkarate, Ion Castañares, Olatz Urrutibeaskoa eta Mikel Zabala Irun, Oiartzun, Errenteria, Donostia eta Hernaniko Udaletako mendi eta ingurumen zerbitzuetako teknikariek ere sinatu dute idatzia.

Erredakzioan itzulia

hirusta

Itziar Madina

Ezantza edo gasolina tokian

Primaderako gau fresko euritsua etorri zen, Euskal Herriko kostaldea segitzen duen A-8 autobideko gasolina edo ezantza hartzeko toki batera. Neoien argien izpian, zalutasun handiko bidea minutu laburrentzat utzia zuten auto desberdinak baziren, ontzia erregaiz betetzen. Gizonak, emazteak, Euskal Herrikoak batzuk, kanpokoak beste batzuk; Portugal, Frantzia... Nire autoko gidaria lan horietan zebilen artean, doi bat urrunago zen jendeari begira jarri nintzen. Kamioilariak, bakoitza bere kabinan; afaria prestatzen batzuk, berriz abiatzekotan besteak. Eta eskuineko aldetik, komunetatik zetozen bi gizon. Berrogeita hamar urte ingurukoak, argalak, beltzaranak, lanak eta biziak akitzen hasiak, magrebtarrek janzten ohi duten, zenbait urte dituen jaka amerikano laukiduna soinean. Magrebtarrak ziren, Belgikarako bidean dudarik gabe, hango matrikulako kamioneta batera hurbildu baitziren. Haiek bezala beribilak ere nekatua iduri zuen. Batek daki zenbat aldiz egina zukeen bidea, Maroko eta Belgika hotzaren artean. Kamionetaren aurreko partean bi gizon zeuden, gidaria eta ondokoa. Gibelean, beste bat, jarleku batean, tokia utziz bere atzealdean, etzanik zeuden bi emazteri. Kanpotik etorri bi gizonetatik bat, aurrekoen ondora upatzekoa zen. Baina hori aitzin, kamionetaren atzeko partean denak ongi zirela segurtatu zuen. Gero, urte askotan errepikatu gestuaren usaiarekin, ezkerretik eskuinera lerrarazi zuen atea, ongi hetsia zela ikusteko kolpea eman berriz, eta kabinara igo zen. Zazpi lagun ziren autoan, gau osoa bidean pasatzeko prest, emazteak baizik ez, estalgien berotasunean... Imigrantearen bizi gordina: herria utzi eta hobeki bizitzeko, etengabe zailtasun materialen aurka borrokatzeko.

hemeroteka

■ ARGIA

Literatura bultzatzeko fundazioa

(Koldo Biguri EIZIEko lehendakaria)

«Herriotan aspalditik daukate idazle eta literaturgileentzako halako konpentsazio-sistema bat, liburutegi publikoetako maileguagatik; izan ere, mailegu publiko honek oso kultur betekizun garrantzitsua dauka gizartean, baina bestalde kalte nabaria egiten die sortzaile eta itzultzaileei, dexente gutxitzen baitituzte beraien liburuen salmentak eta, ondorioz, liburuak idazten eta itzultzen dituztenen eskubide eta irabaziak. Hala, Euskal Itzultzaileen Elkartea (EIZIE) harremanetan hasi da euskal erakunde publiko eta alderdi politikoetako ordezkari zenbaitekin Literatura Bultzatzeko Euskal Fundazioa sortzeko».

«Fundazio horrek aitortu egin beharko luke literatur sorkuntzak eta itzulpengintzak balio estrategikoa duela gure kulturarentzat, eta horrela balio beharko luke literatura sortzaile eta itzultzaileek ahalik eta modu profesionalean egin ahal izan dezaten beren lana: horretarako, laguntza, beka, aseguru eta osagarrizko pentsio sistema bat eratu beharko litzateke, literaturgileek merezi adinako irabazi duinak izan ditzaten, merkatuaren txikitasunagatik ezinezkoa izaten baita horrelakorik lortzea, batez ere euskal literatur merkatuaren kasuan».

zuzendariari

(0034) 943 300 222

zuzendariari@egunkaria.com

Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Gora Euskadi askatuta?

Ion Mintegiaga Oiarbide • IBARRA

Horixe oihukatzen zuen euforikoki EAJ-EAko jendeak M-13ko gauean. Kanpainan zehar hitz erdirik ere ez indenpendentziari buruz. Ezta Nafarroa eta Iparraldeari buruz ere. Estatutua, eta nola ez, Kontzertu Ekonomikoa omen ziren lehenbizi babestu beharrekoak. Arzalluz, Ibarretxe eta Errazti ere espainol hutsez zuzendu zitzaizkien bertan bildutako jarraitzaileei. Amorruak barrenak jan zizkidan.

Zorionak berriz koalizioa bozkatu zenuten 80.000 EHtar ohi ia guztiei. Baiezko biribila eman diozue lurralde zatiketari, enpresari boteretsu ugariri eta BBVAko sektore bati; baiezko biribila AHTren proiektuari (koalizioak kanpainako karteletan erabilitako baserria bezalako anitz txikituko dizkik honek); baiezkoa A-8 autobideko peajea ordaintzeari.

Haikaren legezkanpotzea asimilatu duzue, *Ardi Beltza* ixtea, Ekin, Xaki, AEK eta abarren kontrako eraso errepresibo krudela. Presoen eskubideei trufa egin diozue, senideei burla, torturatuei iseka (aurten jada 68; 15 Ertzaintzak, hots, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak). Bejondeizuela.

Zenbaitek usteko du nire amorrazioa EHren beherakada nabarmenak eragindakoa dela; zinez diot ezetz. Emaitzei ez diet gehiegi erreparatzen ez bainaiz demokrazia liberaletako sistema parlamentarioaren zalea. Amorrazioa, koaliziokideen hiprokesiaz aparte, estatuen eraso bortitzei kalean erantzuteko izan dugun gaitasun ezak eta alderantziz M-13an griñak sorrarazi dit. Sartreren liburuetako esku zikinek aspaldi garbitu zituzten eurenak hemen, azkazaltarte eta guzti. Sistemarekiko atxikimendua, kapitalismoaren garapena eta globalizazioaren fenomenoa etxeko sukalderaino sartu zaizkigu azken urteetan. Ondorioak lazgarriak izan daitezke hain herri txikiko kultura eta bizimoldearentzat.

Beno, esandakoa, gora Euskadi askatuta! barkatu, gora Euskal Herria askatuta...eta sozialista.

galdeiozu...

Vila-realen aurkako partiduko bigarren golean zuk emandako pasea zoragarria izan zen, aspaldi ez dut horrelakorik ikusi. Zer nahiago zenuen momentu horretan, pasea eman ala Tayfunen lekuan egotea?

Rafa Retegi (Igantzi)



XABI ALONSO

Realeko jokalaria

Momentu horretan nire lekuan egon behar nuen, hau da, Tayfun taldekideari berak gola egiteko pasea ematen. Gola nork egiten duen ez da garrantzitsua, taldeak irabaztea baizik. Badakit nire ardura ez dela golak egitea. Ahal dudan ilusio handienarekin taldeari laguntzea da nire eginkizun nagusia.

Maiatzaren 22tik aurrera **Gorka Igartua • aktorea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

Keler garagardoa bai

Luis Mari Garcia • DONOSTIA

Enpresa handiak enpresa txikiekin elkartzea ez zait batere gustatzen, enpresa txikien produktuak pixkanaka-pixkanaka desagertuko direla uste dudalako. Gainera, enpresa txikiaren merkatuan enpresa handiaren produktuak ipintzen direlako.

Orain, pentsakera hori praktikan gehiago jarri dela ikusten dut, eta adibide asko aipa daitezke (BBV-Argentaria, Repsol-Campsa...). Baina niri asko kezkatzen nauena honakoa da: Keler-Cruz Campo-Heineken elkartea.

Gaur egun, Donostiako Alde Zaharrean, eta edozein herritan, tabernetan Keler garagardoa ez da serbitzen. Ezin dut edan ez dagoelako. Hemengo produktu eder horren ordez, Heineken edo Cruz Campo serbitzen dituzte. Oso gaizki iruditzen zait, eta protesta egin nahi dut.

Mesedez, tabernariak ez zaitezte joko horretan sar eta Keler garagardoa eska ezazue. Ez itzazue tabernak edari miresgarri hori gabe utzi.

Ezkortasunik gabe, ugazaben eskaintzari mobilizazioa

Josean Cuesta

Maiatzaren erdian gaudela oraindik ez dugu hitzarmenik. Ugazabek berriro ere, hitzarmenen «negoziazioaldietan» ohi den bezala, euren «jolastokira» eraman gaituzte, egutegia eta ekoizpen gailurrak inposatu, eta oraingo honetako eskaintza eskasa baino eskasago izan da pentsatuz onartuko dugula nekearen nekez.

Langile Batzordearen estrategia negoziatzailearen balantzea ezin txarrago izan da. Gutxieneko errebindikazioekin; negoziazioaldiak luzatuz; metalgintzako, papergintzako gatazka-giroaz probetxurik ez atereaz langileon presioa erabiltzeko, eta azkenik «hartu ala utzi» aukerarik gabeko erreferenduma egiteko, proposamen mobilizatzailerik gabe emakidak lortzeko ugazabek etekin biribilak dituztenean. Jokabide honi langileengan ezkortasuna zabaltzea eta piztea deitzen zaio. Jarrera honen ondorioz, erosteko ahalmena galduko dugu, soldata-bermearen klausula kendu nahi dute, bost txandetako langileak diskriminatzen dituzte, iraunaldi luzeegia hitzarmen kaxkar batentzat, lanaldi murrizketa txepela, segurtasuna eta osasuna alde batera uzten ditu, batez ere azpikontratetako langileentzako segurtasun-planen ezinbesteko koordinazioa, zein burugabekeria asko.

ESKren atal sindikalak bere hausnarketak plazaratu nahi ditu ez gaitezen eror tranpan:

1. Hitzarmen ona lortzeko plataforma eztabaidatu egin behar da, berau gurea egin ahal izateko; bistan da Langile Batzordearen plataformak ez duela gehiengoaren nahia jasotzen lanaldiaren murrizketa eta osasunaren defentsari buruz. Sindikatu frantziarren afiliatu beharko gara eskakizun hauek aldarrikatzeko?

2. Inork ez du ezer ezeren truke ematen, eta Michelinek are gutxiago. Metalgintzako eta papergintzako mobilizazioek eragindako koiuntura ez aprobetxatzea lan-etenaldiak zein presioa egiteko, mahaiko apurrak jasotzera joatea da, Langile Batzordearen negoziazioaldiek argi eta garbi adierazten duten moduan.

Michelinek produktibitatea eta etekinak nola edo hala handitu nahi ditu, eta horretaz makinetan lan egiten dugunok inork baino hobeto dakigu; honexegatik, gure erantzuna biribila izan behar du: erreferendumean eskaintzari ez bozkatuz, lan-etenaldi eta mobilizazioei beste eskaintza berri bat mahaigaineratzeko.

Anima zaitez eta gure proposamenei babes eman, multinazionalari aurre egingo dion sindikalismoa bultzatuz. Bat egin ezazu gurekin!

montxo



EUSKARA NAFARROAN. Nafarroako Gobernuak ingelesaren eta frantsesaren parean utzi nahi du euskara Nafarroako Unibertsitate Publikoan; derrigorrezko ikasgaiak gaztelania hutsez eskainiko dituela baieztatu du Pedro Pegenaute zuzendari nagusiak.

Gobernuak frantsesaren eta ingelesaren parean jarri nahi du euskara NUPen

Pegenautek baieztatu du unibertsitatean ez dela euskarazko ikasketarik eskainiko, Irakasletza salbu, eta soilik hautazko ikasgai libreak ikasi ahal izango dira



JOXE LACALLE

Pedro Pegenaute, Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak atzerriko hizkuntzen parera jarri nahi du euskara unibertsitatean, prestatzen ari den lege proiektuaren bidez. Horretarako, ikasketen oinarriak diren adarreko ikasgaiak eta derrigorrezkoak gaztelaniaz bakarrik eskainiko ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP), eta euskarazko eskaintza, ingelesarena eta frantsesarena bezala, hautazko ikasgai libreetara mugatuko.

Gobernuak, horrela, NUPek berak iaz ezetsi zuen proiektua berreskuratuko du. Orduan, hautazko ikasgai libreen bidez euskarazko eskaintza egiteko proposamenak NUPeko bederatzi departamentu, bi ikasketa zentro eta 160 irakasleren errefusa jaso zuen, eta Hizkuntza Normalizaziorako Batzordeak beste plan bat hitzartu zuen azkenean. Plan hori lozorroan dago oraindik, NUPeko errektore Jose Antonio Perez Pradosen kaxoian.

NUPeko ikasketa guztiak, gaztelania hutsean

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusi Pedro Pegenautek atzo baieztatu zuenez, Gobernuak oso aurreratua du lege proiektua, eta, funtsean, ikasketa guztiak gaztelaniaz eskaintzeko nahia dago atzean. Euskaraz, beraz, soilik ikasgai orokorretan, irekietan, eta gutxien espezializatuen bidez ikasi ahalko da NUPen. «Ez dugu unibertsitate elebiduna nahi», adierazi zuen zuzendari nagusiak, «baina unibertsitate ele anitzekoa».

Pegenautek adierazi zuenez, soilik Irakasletza salbatuko da —egun hori da NUPen euskaraz egin daitekeen karrera bakarra—, eta euskarazko eskaintza dagoen eskaeraren araberakoa izango da, bere hitzetan. «Horrek ez du esan nahi, hala ere, adarrekoak derrigor kenduko direnik, zenbait ikasgai euskaraz, edo ingelesez edo frantsesez eskaini ahalko baitira». Egun adarreko sei ikasgai eskaintzen ditu NUPek euskaraz, eta bost ikasgai hautazko libre izenekoak.

Ikasketen muina osatzen duten adarreko eta derrigorrezko ikasgaiak euskaraz ez eskaintzeko ideia iazko otsailean jarri zuen mahai gainean NUPen osatutako laugarren Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordeak, egindako zirriborro baten bidez: «Nahikariaren eta posiblearen arteko oreka», egitasmoaren egileek berek izendatu zutenez.

HIZKUNTZA POLITIKA

On Kixote, euskararen inguruko erakusketaren ardatza

Marco Polo eta On Kixote izango dira atzotik urrira bitarte Nafarroa osoan zehar ibiliko den *Euskara eta Kultura Nafarroan* izeneko erakusketaren ardatzak. Erakusketa ia bost milioi pezeta kosta izan da, eta, Pedro Pegenautek atzoko aurkezpenean adierazi zuenez, erakusketaren bidez, «euskarak merezi duen begirunea ahaztu gabe», eskaintza «erakargarria» egin nahi izan da, «Nafarroan kultura sendotzeko». Marco Poloren eta On Kixoteren irudien inguruan zuzendari nagusiak adierazi zuen «kontzeptu berriak» sartu nahi direla «kulturaren gaiari euskara eta gaztelania lotzeko». «Izen handia duten pertsonaien bidez, euskara jarri nahi dugu kultur maila gorenetan, eta jende gehiago erakarri euskara ezagut dezan», esan zuen.

UNIBERTSITATEA

Hain zuzen ere, iaz unibertsitateak berak onartu zuen hizkuntza plangintzaren aurkakoa da gobernuaren asmoa

EUSKARAREN LEGEA

Zenbait iturrik adierazi dute gobernuak lege berria onartzeko Euskararen Legea aldatu beharko dela

EUSKALGINTZA

Pegenautek gutxietsi du euskaltzaleen artean sortutako erreakzioa, eta «garai gogorragoak» ezagutu dituela adierazi du

DATUAK

Ikasleen %18 gai dira euskaraz ikasteko

IKEI enpresak 1999an egindako ikerketaren arabera, NUPeko ikasleen %18 gai dira euskaraz ikasteko, eta zazpi titulaziotan euskaraz ondo dakitenak %20 ere badira. Matrikulazio garaian egindako inkesten arabera, gainera, ikasleen %24 prest daude euskaraz ikasteko. Halaber, egun berrogei inguru dira irakasle euskaldunak.

Gero, zirriborroa banatu zen unibertsitateko ikastegi, sail eta erakundeen artean, eta erantzuna berehalakoa izan zen: irakasleak, ikasleak zein langileak, denak agertu ziren zirriborroaren kontra. Ordura arteko erantzunik handiena izan zen.

«Euskaraz ikasteko eskubideak zanpatzea»

Hasteko, hizkuntza normalizaziorako Nafarroan indarrean dagoen legedia —Foruen Hobekuntza eta Euskararen Legea— hausten zuen zirriborroak, sinatzaileen arabera; gizartean dagoen eskaerari muzin egiten zion; trabatu egiten zuen irakasle elebidunen kontratazioa —lanpostuak ezin dira erabaki ikasgai hautazko libreen eskaeraren arabera—, eta, azkenik, ikasle euskaldunek euskaraz ikasteko eskubideak urratzea zekarren asmoa.

Erreakzioaren ondorioz, batzordeak atzera egin eta adarreko ikasgaiak ziurtatzeko plana hitzartu zuen. Gobernu Batzordearen oniritziaren zain gelditu zen proiektua, baina Gobernu Batzordeak ez zuen inoiz aztertu gaia.

Atzo Pedro Pegenautek adierazi zuenez, Gobernua prestatzen ari den lege proiektuaren bidez «NUPen izango den hizkuntza errealitateak bat egingo du gizartean dagoenarekin», eta, nahiz eta onartu zuzenean lanean ari direla Errektoretzarekin, azpimarratu zuen plangintza zehatzak NUPek berak egin beharko dituela.

«Unibertsitatearen iritzia errektoreak du», esan zuen Pegenautek, «eta berak eramango ditu erabakiak erakunde erabakitzaileetara». Gainera, nabarmendu zuen aurrekontu hitzarmenak zeresana baduela aferarekin.

«Elkar maitatu behar dugu»

PEGENAUTEREN ASMOAK. Diru laguntzak, errotulazioan aldaketak, erakundeekiko harremanak eta hizkuntza komunitatearen inguruko gogoetak.

A.B. | **IRUÑEA**

Gidoian ez egon arren, Pedro Pegenautek gogo onez erantzun zien atzo kazetarien galderei, prentsaurrekoan egin zuen aurreneko agerraldian. Banan-banan, zuzendari nagusiak jorratu egin zuen hizkuntza politikaren inguruan hainbat gai, eta nabarmendu zuen bere gobernuak dituen oinarri ideologikoen arabera egingo duela lana. «Nafarrak ez gara inozoak», esan zuen Nafarroa beste euskal lurraldeekin batzen duen hizkuntzaren inguruan galdetu zitzaionean: «Eta kalte handia ekartzen dio euskarari horrelako gaiak ateratzen dituenak».

Ironiko ere aritu zen tartean. «Nik asmo onak ditut beti, eta elkar maitatu behar dugu». Hona jorratutako hainbat gai, eta haien inguruan zuzendari nagusiak emandako azalpenak.

EUSKO JAURLARITZAREKIKO HARREMANAK. Galdera egin zitzaionean ea bere zuzendaritza nagusiak harremanetan jarraituko duen Eusko Jaurlaritzarekin egitasmo bateratuak bultzatzeko, esaterako Hizkuntza Atlasa, zera adierazi zuen Pedro Pegenautek. «Guk aurrera eramango ditugu Nafarroarekin zerikusia duten proiektu guztiak. Ez ditugu finantzatuko, ordea, beste izendapenen barruan sartuta dauden egitasmoak. Guk daukagun begirune bera eskatzen dugu guretzat».

HIZKUNTZA KOMUNITATEA. Galdetu zitzaion ea beste lurraldeekin hizkuntza bera izateak ez ote zuen baldintzatzen zenbait egitasmo aurrera ateratzeko, eta halaxe erantzun zuen. «Oso esker txarrekoa da hori pentsatzen duena, eta kalte handiak ekartzen ahal dizkio hizkuntzari. Hizkuntza bera izateagatik ez dira proiektu berak aurrera atera behar. Bestela, gaztelaniarekin gauza bera egin beharko genuke, hau da, lotu genezake Miami eta Euskal Autonomia Erkidegoa, hor biztanle gehienak erdaldunak baitira. Beraz, inork ez dezala Nafarroaz hitz egin norabide horretan, nafarrak ez baikara inozoak».

KOMUNIKABIDEEI DIRU LAGUNTZAK. Nafarroako Gobernuak aurten inoiz baino gehiago atzeratu ditu urtero euskarazko komunikabideei ematen zaizkien diru laguntzak. Beste urteetan otsailerako prest zeuden, baina aurten soilik euskara sustatu eta garatzeko kultur jarduerak eta euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitate pribatueen diru laguntzak emateko deialdiak argitaratu dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Pegenautek, horri buruz galdetuta, nabarmendu zuen diru laguntza bera izango duela deialdiak, baina aldaketa nabarmenak izango direla bertan. «Komunikabideen diru laguntzen deialdia oso ondo doa, eta atzeratu bada, hori izan da txosten juridikoak eskatu behar izan direlako, eta administrazioan, maiz, gauzak mantso doazelako. Beraz, laster argitaratuko den deialdiaren inguruan, esan dezakegu ez duela inolako mugarik izango, diru laguntzak euskarazko komunikabide nafarrentzat izango baitira, hau da, Nafarroan helbideratuta dauden komunikabideentzat. Diru laguntza, oro har, 49,5 milioi pezetakoa izango da, eta, horren bidez, Euskararen Legeak dioena bete nahi dugu, estuki bete ere. Beste inongo helbururik ez dugu ezta aztertu ere egin, jakina».

DIRU LAGUNTZAK. Nahiz eta azken urteetan hizkuntza politikarako aurrekontuak izoztu egin diren—aurrekontu orokorraren %0,34 da 1998az geroztik—, Pedro Pegenautek azpimarratu zuen aurten 16 milioi pezeta gehiago bideratuko dituela bere zuzendaritzak. Hala ere, adierazi zuenez, aldaketa garrantzitsua egin zaio diru laguntzak banatzeko aurreko sistemari. «Lehen diru laguntza zen, baina orain akordio edo hitzarmenaren bidez banatu nahi dugu dirua, eta hori garrantzitsua da. Baina esan behar dugu, gainera, inongo erakundek ez duela galdu Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin zuen hitzarmena».

ESANAK



PEDRO PEGENAUTE
(Hizkuntza Politikarako zuzendaria)

«Nafarroarekin zerikusia duten proiektuak finantzatuko ditugu, soil-soilik»

«Inongo erakundek ez du gurekin zuen harremana hautsi gu hemen gaudenez geroztik»

«Euskaltzaindiarekin eta Jaurlaritzarekin ditugun harremanak onak direla esan dezakegu»

«Gurea ez zen izan errotulazio elebiduna aldatzen hasi zen lehen departamentua»

«Erreakzioa askoz gogorragoa izan zen 1986an Euskararen Legea onartu genuenean»

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA. Galdetu zitzaionean Udako Euskal Unibertsitatearekin zer gertatu den, zera erantzun zuen zuzendari nagusiak. «Udako Euskal Unibertsitateari inoiz ez zaio ezetzik eman, baina esan zaio hau Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia dela, eta unibertsitateetarako zuzendaritzarekin negoziatu behar zela. Horra jo zuenean neronek esan nion [Xabier] Isasiri haiek unibertsitatea baziren ekartzeko dokumentazioa, agiriak. Ez zuten ekarri, eta guk ez dugu finantzatuko unibertsitatea ez den ezer».

EUSKALTZAINDIA. Pegenauteren hitzetan, Hizkuntzaren Akademiarekin harremanak «onak» dituzte. Beste horrenbeste esan zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin dituzten harremanen inguruan.

ERROTULAZIOA. Pedro Pegenautek ukatu egin zuen Hizkuntza Politikaren egoitzatik kartelak kentzea justifikaziorik gabeko keinurik dela, nahiz eta onartu zuen horrelako gai sinbolikoetan erraza dela gaia baliatzea. «Ekainean hartu nuen zuzendaritza nagusiaren kargua, baina ni hona urtarrilean etorri nintzen. Orduan ez zen Hizkuntza Politika soilik, baina baita Unibertsitateetarako zuzendaritza nagusia ere, eta kartelak aldatu behar izan genituen. Eta [administrazioan euskararen erabilerarako arautzeko] dekretua hor dago. Baina dekretua irakurri beharra dago, jakina. Hori bai, ez da egia hemen inon baino lehenago aldatu dela errotulazio elebiduna»

EUSKALTZALEEN ERREAKZIOA. Pegenautek ukatu zuen, karguan daraman hamaika hilabete hauetan, kontrako iritzi oso nabaria sumatu duela euskaltzaleen aldetik. «Askoz gogorragoa izan zen Euskararen Legea onartzekotan izan genuen 1986ko urte hartan. Orduan egunero manifestazioak izaten ziren Iruñean», esan zuen.

ATENTATUA. Ertzaintzaren arabera, Leioan jarri zioten lehergailua, eta Barakaldoraino eraman zuen berarekin

EHUko zinpeko guardia bati bonba jarri diote autoan, baina ez du eztanda egin

Lehergailua gidariaren eserlekuaren azpian jarrita zegoen eta kilo bat leherkari, detonagailua eta pilak zituen

Erredakzioa | **BILBO**

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Leioako campuseko Prosetecnisa enpresako zinpeko guardia bati lehergailu bat jarri zioten atzo bere autoan —Renault 21 marroi bat—, baina ez zuen eztanda egin. Ertzaintzak aditzera eman zuenez, guardiak campusetik Barakaldoko (Bizkaia) bere etxera arteko bidea egin zuen bonba autoan zeramala.

Gurutzeta auzoko La Paz frontoiaren inguruan autoa aparkatu ostean, gidariaren eserlekuaren azpian zerbait zegoela ohartu zen. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren arabera, zinpeko guardiak autoa arakatu zuen. Lehergailua aurkitu zuenean edukiontzi batera jaurti zuen, eta Ertzaintzako artezilariei deitu zien. Haiek, iritsi bezain laster, inguru guztia itxi zuten eta kontrolpeko leherketa baten bidez lortu zuten lehergailua indargabetzea.

Lekuko batek adierazi zuenaren arabera, «35 edo 40 urteko gizonezko bat» ikusi zuen autotik jaisten ertzainak bertara iritsi aurretik. Ostean, inguruan zegoen zabor edukiontzietako batetik agenteek «pakete txiki bat atera eta leherrarazi» egin zutela jakinarazi zuen lekukoak.

Zinpeko guardiak Leioako campusetik bere etxera egin zuen bidaia hamar bat kilometrokoa da, eta, ikerketa poliziaren datuen arabera, lehergailua bere lantokian bertan jarri zioten. Ertzaintzaren arabera, zineko guardiari jarritako bonba kilo bat leherkariz, detonagailu batez eta pilez osatuta zegoen. Garabiak 17:15ean erretiratu zuen autoa.

TXEMA FERNANDEZ / EFE
EHUko zinpeko guardiaren autoa aztertu zuten atzo ertzainek, abisua jaso ondoren.

Atzokoa EHUko eremu unibertsitarioan gertatzen den bigarren atentatu saioa da. Aurreko erasoa iragan abenduaren 18an jazo zen, bertako irakasle baten bizkartzainak Kazetaritza fakultateko igogailuetako batean pakete susmagarri bat atzeman zuenean. Orduko hartan ere lehergailuak ez zuen eztanda egin, eta Ertzaintzak indargabetu egin zuen. Atentatu hura ETAk hartu zuen bere gain.

Ordubeteko lanuztea gaur EHUko campusetan

Zinpeko guardiaren aurkako atentatuaren berri izan bezain laster, EHUko errektore Manuel Monterok ekintza gaitzetsi zuen. Gainera, EHUk gaur ordubeteko lanuztea egitea eskatu du, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara bitartean. EHUk ohiko lekuetan elkarretaratzeko deia egin zien unibertsitatean diharduten kide guztiei.

EHUko soziologia irakasle Gotzone Morak Europa Press agentziari adierazi zionez, atzoko saiakerarekin ETAk «kolektibo unibertsitarioa beldurtu nahi du, bertako maila guztiak barne hartuz». Mora PSE-EEko kidea ere bada, eta «pentsamenduaren mundua suntsitu nahi izana» egotzi zien atentatuaren egileei.

«Hemendik mugituko ez garela argi geratu behar zaie», esan zuen Morak, «eta unibertsitateak pentsamendu libreAren bidetik jarraituko du».

DATUA

Prosetecnisakoen bizkartzain lanak

Prosetecnisa enpresako kideak Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean azken urteotan izandako hainbat iskanbilatan nahastuta egon dira. Azkenaldian, segurtasun enpresako kideen zeregina ez da mugatzen campuseko eremua zaintzera. Hala, «zeharkako mehatxuak» jasan dituzten irakasleen bizkartzain gisa ere aritzen dira.

ERREAKZIOAK

EHU

«Doilorkeriak eta degradazio moralak haserretzen gaitu»

«Guztion kontrako erasoa da. Ez gaitu bakarrik atentatuak haserretzen, batez ere doilorkeriak eta degradazio moralak haserretzen gaitu. Unibertsitatearen kideei eraso egiten dionak, giza izaera berari egiten dio, era berean.»

EAJ

«Eraso horiek ez dira gizarteak maiatzaren 13an markatutakoa»

«Zibilen kontrako eraso horiek ez dira euskal gizarteak maiatzaren 13an markatu zuen bidea. Euskal herritarrek bakea, askatasuna eta elkarrizketa erreibindikatzea erabaki zuten. Gehiengoaren ideietatik kanpo dago indarkeria».

GORKA KNORR (EA)

«Maiatzaren 13an herri honek indarkeria deskalifikatu zuen»

«Historian izandako parte-hartze handienarekin, maiatzaren 13an herri honek indarkeria deskalifikatu zuen. Atentatu saiakerak arrasto bat eman digu, irrazionaltasuna noraino iritsi daitekeen, alegia».

JAVIER MADRAZO (EB-IU)

«ETAren bidegabekeria eta paranoiaren beste seinale bat da»

«ETAren paranoia eta bidegabekeriaren beste seinale bat da. Modu guztietara indarkeria uzteko eskatu dion euskal herritarren borondatea mespretxatzen du ETAk. Euskal herritarren eskaerekin bat egin behar du EHk».

LEOPOLDO BARREDA (PP)

«Bereziki elkarbizitzaren espazioa denari eraso egin diote»

«Bereziki elkarbizitza eta askatasunaren espazioa denari eraso egin dio ETAk. Euskal gizartearen askatasuna urratu du berriz. Maiatzaren 13ko emaitzen aurrean bere gorreria eta mespretxua agerian utzi du. Odola eta beldurraren bidez bere ideiak inposatu nahi ditu berriz».

RODOLFO ARES (PSE-EE)

«Abertzaleak ez direnen kontra erasoak hedatzea ebatzi du ETAk»

«Pertsona edo instituzioen segurtasuna gordetzen dutenen kontra eta abertzaleak ez diren guztien kontra bere erasoak hedatzea ebatzi du ETAk. Dolua gizarteratzeko EHren estrategia zehatz-mehatz jartzen ari da martxan, herritarren artean ikara eta mina sorraraziz».

GERMAN KORTABARRIA (ELA)

«Gehiengoaren nahiaren kontra doan logikaren barruan dago»

«Euskal gizartearen gehiengoaren nahiaren kontra doan logika baten barruan daude horrelako ekintzak. Herritarrek ez dituzte onartzen inolaz ere».

UGT

«Inork ezin du alde batera begiratu»

«Gogogabetasuna, axolagabekeria eta elkartasun eza saihestu eta beldurraren aurrean elkartasuna sortu behar dugu. Inolako indar politiko eta sozialek ezin du aldera begiratu».

JAURLARITZAREN ERAKETA. Nicolas Redondo eta Jesus Egigurenekin bildu zen Juan Jose Ibarretxe Ajuria Enean

Oposizio «eraikitzailea eta malgua» agindu dio Redondok Ibarretxeri

PP-PSOE itunaren balioa berretsi du, «ETAren aurkako borrokarako» ezinbestekoa delako

Felix Iriarte | **GASTEIZ**

Alderdi sozialistak oposizioan jardungo du datorren legealdian, baina oposizio «eraikitzailea» egingo du. Nicolas Redondo idazkari nagusiak adierazi du EAJ-EArekin komunikazio esparruak ireki nahi dituela elkarlana bultzatzeko.

Adierazpen horiek Juan Jose Ibarretxe EAEko jarduneko lehendakariarekin bildu ostean egin zituen Redondok. Bi orduz izan ziren Ajuria Enean, egoera politikoa aztertzeko.

Redondok azkenengo bi urtetan ukatu dion elkarlana eskaini dio Ibarretxeri. «Esan diot ez garela frontoi bat izango. Lan egingo dugu apriorismorik gabe, eta prest gaude aurkeztuko dituen ekimenak aztertzeko», adierazi zuen PSE-EEko idazkari nagusiak.

Jokabide politiko «malgua» eskaini zion lehendakariari, gehienbat lehen urratsa Ibarretxek berak egin duela uste duelako. Redondok esan zuen «oso berri ona» dela Ibarretxek EH baztertzea ETAren indarkeria desagertu arte. Gainera, Redondok uste du Ibarretxeren jarduna egungo marko politikoa errespetatuz egingo dela.

Ibarretxeren inbestiduran izango duten portaera ez zuen argitu. Redondok EHrekin hausteko exijitu zion aurka ez agertzeko, eta baldintza hori beteta, orain Ibarretxeren ekimenen zain dago erabakia hartzeko.

«Ibarretxek askatasuna bermatu behar du»

PSE-EEko idazkari nagusiak eskaini zion elkarlanak «askatasuna, berdintasuna eta bakea» lortzeko balio beharko luke. Izan ere, Redondok uste du hiru helburu horiek alderdien programen gainetik daudela, eta edozein gobernuk bermatu behar lituzkeela.

Elkarlana erakundeetara eramatea ez du baztertu Redondok. Hezkuntzako politikan, komunikabideenean eta Estatutua garatzeko politiketan ados jartzea gustatuko litzaioke Redondori. Gai horietan, batez ere Estatutuaren garapenari dagokionez, «joera eraikitzailea» agindu zion Ibarretxeri. Estatutuari buruzko eztabaida datozen hilabeteotan egingo den «garrantzitsuena» izango dela esan zuen. Eztabaida horrek beste jokaleku bat ekar lezakeela pentsatzen du, baina betiere «Konstituzioaren eta Estatutuaren barruan».

PP-PSOE ituna

PP-PSOE itunaren balioa berretsi zuen Redondok. Esan zuen «ETAren aurkako borroka irabazteko» ezinbesteko tresna dela, gobernuen artean hari bakar bat izatea ahalbidetzen duelako. «ETAren aurkako borrokan ezin da aro ezberdinak izan, PPko edo PSOEko gobernuen arabera. Itunak hari bakar bat egotea ahalbidetzen du», esan zuen.

Horrekin batera, EAEn EH kenduta beste alderdi guztiak bilduko lituzkeen ituna aldarrikatu zuen. «Terrorismoaren aurkako Itunak ezinbesteko gehigarri bat behar du: batasun demokratikoa berreskuratzea. Hori ezinezkoa zen hauteskundeen aurretik, baina orain ez. Gainera, oinarria eta lasaitasuna badugu hala egiteko», adierazi zuen.

EAEko alderdien zeregina egoeraren diagnostiko bateratu bat egitea litzateke. «Egoeraren diagnostiko bateraturik egiten ez badugu, nekez egingo dugu aurre guztiok batera, eta orduan irabaziko duena ETA izango da», argudiatu zuen.

ESANAK

NICOLAS REDONDO
(PSE-EEko idazkari nagusia)

«Ez gara frontoi bat izango, lan egingo dugu apriorismorik gabe eta ekimenak aztertuko ditugu»

«Oso berri ona da Ibarretxek esatea ez duela EHrekin gehiago hitzartuko»

«Orain posible da demokraten batasuna, lehen ez»

KARLOS BIGURI

Juan Jose Ibarretxe, Jesus Egiguren eta Nicolas Redondo, atzo, Ajuria Enean.

PPk eta PSOEk «lasaitasuna eta itxaropena» dute, Ibarretxek EHrekin duen jarrera dela eta

Erredakzioa | **BILBO**

PP eta PSOE «lasai eta itxaropentsu» agertu ziren atzo, Juan Jose Ibarretxek EHren inguruan agertutako jarreraren ondorioz. Javier Arenas PPko idazkari nagusiak «lasaitu politikoa» hartu duela adierazi zuen. Dena den, zalantza agertu zuen jarduneko lehendakariaren autonomia mailaren inguruan: «Ez dakit Ibarretxe jaunak EAJren barne egoera eta EArekin duen koalizioa kontrolatzen duen».

PPko idazkariaren berbetan, bere alderdiak «errespetuz» hartuko luke PSE-EEk Ibarretxeren inbestiduraren aurka ez bozkatzea.

Jose Luis Rodriguez Zapatero PSOEko idazkari nagusiak «neurriko ikusmina» agertu zuen Ibarretxe eta Otegiren bileraren ostean: «Ezin dugu lau urte itxaron beste hauteskunde batzuk egin arte. Euskadin jende askok uste sendoetan oinarrituta egindako politikaren ahalegina behar du, eta, beraz, itxaropenez eutsi behar diegu Ibarretxeren hitzei». Inbestidura saioan sozialistek haren aldeko botoa emateko aukera ukatu zuen, baina ez zuen baztertu abstentzioaren alde egitea.

Enrique Mugika Espainiako Arartekoak esan zuen «itxaropena» badagoela Ibarretxek EHrekin itun oro baztertzeko erabakia hartu ostean. Gatazka konpontzeko ahalegina egiterakoan «elkarrizketa gaiztoa» ez baliatzeko eskatu zuen, hau da, bakea eta politika ez nahasteko.

BILBRA

PP-PSOE ituneko jarraipen mahaia etzi bilduko da

PP eta PSOEren arteko ituneko jarraipen batzordeak bilkura egingo du datorren larunbatean, Jose Luis Rodriguez Zapaterok PSOEko idazkari nagusiak eta Javier Arenas PPko idazkari nagusiak atzo Madrilen egindako bilera batean erabaki zutenez. «Ituna indarrean eta indartsu dagoela azpimarratzea» izango da bileraren helburua, bi alderdietako iturriek Efe berri agentziari adierazi ziotenez.

BATASUNA PROZESUA. Ekainaren 23an amaituko da prozesua Iruñeko ekitaldiarekin

Zuzenketak aztertu eta zuzendaritza hautatuko dute ekainaren amaieran

Erakunde berriaren izena Batasuna izatea proposatzen du ponentzia nagusiak

Axun Erzibengoa | **DONOSTIA**

Joan den urteko maiatzean abiatu zen Batasuna prozesua Euskal Herriko ezkerraren antolaketa berria osatzeko asmoz, eta prozesu horren azken fasearen nondik norakoak azaldu zituzten bultzatzaileek. Prozesu horren amaieran erakunde berria sortuko da, eta haren egituretan eta zuzendaritza taldean ere, Herri Batasunako kide izan diren batzuk, eta izan ez direnak ere egongo direla esan zuen Arantza Urkaregik, Batasuna prozesua zabala izan dela erantsiz. Prozesuaren azken fasera helduta, ekainaren 23ra bitartean bi helburu nagusi dituztela adierazi zuen: Bateginez ponentziari eginiko 41 zuzenketak eztabaidatzea, eta erakundeko karguak hautatzea.

Izena eta zuzendaritza

Zuzenketen eztabaida ekainaren 8a arte luzatuko da, eta hura amaitzean argituko da erakunde berriaren izena. Proposamen nagusia Batasuna izatea da, baina zuzenketa batek Herri Batasuna izena berreskuratzea eskatzen du.

Erakunde berriko zuzendaritzari buruz, izenak proposatzeko epea ekainaren 3a arte zabalik dago. Ekainaren 18a eta 21a artean batzarretan egingo dituzte bozketak ondoko ordezkariak hautatzeko: Herri batzarretan eta Batzar Nazionalean izango diren herrietako ordezkariak, Herrialdeko Mahaiak, Mahai Nazionala, Batzar Nazionaleko 50 kide eta herri eta auzoetako mahaiak. Azken hori iraila arte luza daiteke.

Ekainaren 23an Iruñean batzar orokorra egingo dute, eta bertan ezagutuko dira Mahai Nazional berriko kideak. Egungo 25etik 32 izatera igaroko dira.

Bateraezintasunak

Egunotan aztertuko dituzten zuzenketen artean politika feministari buruzko hiru aipatu zituen Urkaregik. Hasieran gaia oinarrizko txostenetik kanpo utzi eta atal berezia egitea pentsatu zuten arren, azkenean sartzea erabaki dute zuzenketa horien alde agertuz.

Borroka armatuari buruzko zuzenketak dira ugarienak, baina beste zenbait ere badira. Horien artean bateraezintasunaren inguruan aurkeztutakoa berria da. Erakunde barruko ardura, eta instituzioetakoak banatzea du helburu errepika ez daitezen. Sexuen arteko parekidetasuna ere eskatzen dute. Zuzenketa Taldeak izenarekin aurkeztu dute. Proposamen hori oinarritzat harturik Bateginez-ek beste testu bat proposatzen du. Bertan jasotzen da instituzioetako bozeramaileak eta erakundekoak bereizteko proposamena, edo kargu publikoetan aritzeko epea gehienez 12 urtetan finkatzea.

PABLO S. QUIZA

Rufi Etxeberria, Arantza Urkaregi, Begoña Zabala eta Zigor Gojeaskoetxea, atzoko agerraldian.

ZUZENKETAK

41 proposamen aztergai

Batasuna prozesuan Bateginez ponentziak lortu zuen babesik handiena. Orain proposamen horri egin zuzenketak ari dira aztertzen. Jarraian eztabaida sortu duten puntu nagusietan Bateginez-ek dioena lehenik eta hari aurkezturiko zuzenketa nagusiak ondoren:

BORROKA MOLDEAK

BATEGINEZ. Borroka moldeak anitzak behar dutela dio, beste esparruak baztertu gabe esparru nagusitat gizartea jarriz. ETAri eta kale borrokari buruz dio: «Irakurketa eta iritzi asko egonik, ez ditugu ez ontzat ez txartzat ematen estrategia horiek». 10 zuzenketa jaso ditu.

ARALAR. Ekintza politikoaren nagusitzea proposatzen du, baita ETAri su-etena eskatzea.
TALDEA. Su-etena berreskuratzeko ahaleginak egitea proposatzen du, «halaber erakunde armatuari dagozkion eskaera zuzenak».
I- AGIRRE. Borroka armatuaz eta kale borrokaz aurreiritzirik gabeko eztabaida eskatzen du.
EUXEBIO. ETAri su-etena eskatzen dio.
EZKIO ITSASO. Estrategia armatua alboratzeak indar metaketa berria ekarri zuela dio, eta hori kontuan izan behar dela.
ARBALITZA. Borroka armatuari buruzko barne eztabaida egitea proposatzen du, kanpora begira Bateginez-en asmoa ontzat emanez.

KIDETZA HERRITARREN BATASUNEAN

BATEGINEZ. Kideen garrantzia azpimarratzen du, eta militatzeko modu anitzei ateak ireki behar zaizkiela. Kide txartela proposatzen du.

ARALAR. Militantearen figura sortzea eta haien errolda osatzea proposatzen du. Bi urtero kongresua egitea ere bai.
SONDIKA. Jendea batzen duena militantzia izanik txartelak jendeak atzera egitea ekarriko duela uste dute. Bateginez-ek ontzat eman du gogoeta, eta txartela egiteko asmoa erretiratzearen alde agertu da.

BORROKA INSTITUZIONALA

BATEGINEZ. Nafarroako Parlamentuko eta Batzar Nagusietako lanari garrantzia ematen dio; Gasteizko parlamentuaren zein Departamenduaren balioa taktikoa dela dio. Europari begira lan egitea proposatzen du, ez Espainia edo Frantziari begira.

ARALAR. Erakunde guztietan parte hartu behar dela iritzi dio, baita Gasteizko Legebiltzarrean, Espainia eta Frantziakoetan, zein Europan.
IGITAIA ETA MAILUA. Gasteiz eta Iruñeko parlamentuetan eta Departamenduaren alde aritzeak, subiranotasunaren aurkakoen kontraesanak areagotuko dituela uste dute.
TALDEA. Gasteizko legebiltzarrean parte hartzeari ez zaiola uko egin behar dio.

LABURREAN

Bi eta 17 urte bitarteko zigorra eskatu du Entzutegi Nazionaleko fiskalak sei lagunentzat

Akusatuen defentsak eta fiskalak epaiketan hitzartuta, bi urte eta 17 urte eta erdi arteko zigorrak eskatu ditu Espainiako Entzutegiko fiskalak sei lagunentzat, 1997ko urtarrila eta 1998ko martxoa artean ETAk eginiko zenbait ekintzagatik. Aitor Bores eta Iñaki Crispinentzat 17 urte eta erdi eskatu zituen; Jose Angel Etxezarretarentzat 13 urte; Jose Antonio Hernandez eta Mari Karmen Irizarrentzat bost urte eta erdi; eta Pilar Agirrerentzat bi urte. Beste hiruren kontrako eskaera atzera bota zuen.

Iñigo Makazagak gaur du auzia Erresuma Batuan agiri faltsuengatik

Iñigo Makazaga gasteiztarra gaur igaroko da Folkestoneko auzitegitik, hirugarren aldiz, agiri faltsuen auzia dela kausa. Makazaga apirilaren 24an atxilotu zuten Erresuma Batuan, Eurotuneletik Frantziara igarotzera zihoala. Espainiako Entzutegi Nazionalean bi auzi ditu Iñigo Makazagak, eta fiskaltzak Guillermo Ruiz Polanco epaileari galdegin dio haren inguruko dokumentazio guztia eskatzeko Erresuma Batuko agintariei.

Maria San Gili mehatxu egiteaz akusatutako bi gazteak ekainean epaituko dituzte

Ekaineko azken astean egingo da Unai Garzia eta Ekaitz Agirre gazteen aurkako epaiketa, Espainiako Entzutegi Nazionalean. Ertzaintzak Aski Da! plataformaren kontzentrazio baten aurrean elkarreratu zirelarik atxilotu zituen biak, eta Maria San Gil Donostiako PPko zinegotziari heriotza mehatxuak egitea leporatzen diote. Fiskalak bi urte eta hamar hilabeteko kartzela zigorra eskatu du bakoitzarentzat.

Harriet Iragi ekainaren 13an epaituko dute ustez Teresa Palacios epailea mehatxatu zuelako

Harriet Iragi ustezko etakidea ekainaren 13an epaituko dute Espainiako Entzutegi Nazionalean, Teresa Palacios epailea mehatxatu izanaren akusaziopean. Valdemoron preso zegoela Iragik epaileari igorri zion gutuna da auziaren funtsa.

EPAITEGIAK. Duela lau urte Zarautzen manifestazio batean zihoazela ertzainei mehatxu egitea leporatu zieten

Urtebeteko zigorra duten hiru lagun espetxeratzeko agindu du epaileak

Donostiako Zigor Epaitegiaren erabakia ez dela legean oinarritua salatu dute AABek

PABLO S. QUIZA

Maria Jesus Zumeta, Jon Mikel Gastañares eta Mikel Anjel Usobiaga, atzo Zarauzko Musika Plazan, atzean euren kasuari buruzko pankarta zutela.

Imanol Murua Uria | **DONOSTIA**

Duela lau urteko gertaera batzuegatik urtebeteko espetxe zigorra duten Zarauzko hiru lagun espetxean sartzeko agindu zuen atzo Donostiako Entzutegiak. Hiru zigortuek —Maria Jesus Zumeta (48 urte), Jon Mikel Gastañares (28) eta Mikel Anjel Usobiaga (53)— ez dute zigor aurrekaririk eta, jasoa duten zigorra bi urtetik beherakoa denez, kartzelatzea ez betetzea aurreikusten du Zigor Kodeak. Gastañares EHko zinegotzia da gaur egun, eta Zumeta zinegotzia zen gertaeren garaian, orain lau urte.

1997ko martxoaren 31n 'Euskal Herria Askatu' ekimenaren manifestazioa egin zen Zarautzen. Amnistiaren Aldeko Batzordeek prentsa ohar batean atzo azaldu zutenez, kalez jantzitako bi ertzainek manifestazioari jarraitu zioten, eta une batean lau manifestatzaileri identifikatzeko eskatu zieten: ertzainak iraintzea leporatu zieten Gastañares eta Usobiagari, eta mehatxu egitea Zumetari. Azken hau atxilotu ere egin zuten.

Lau akusatuei epaiketa egin zieten joan den urtean Donostiako Zigor Epaitegian eta, «intimidazio larria» zela eta «autoritateko agenteen aurkako atentatua» leporatu zieten lauei, eta urtebeteko espetxe zigorra ezarri bakoitzari. Entzutegi Probintzialean helegitea ezarri, eta, akusatuetako bat absolbitu zuten arren, Zumeta, Gastañares eta Usobiagari zigorra berretsi zieten.

Epailearen argudioak

Zigorra bi urtetik beherakoa denez, eta auzipetuek aurrekaririk ez dutenez, espetxeratzearen suspentsioa aurreikusten du Zigor Kodeak, 80. eta 81. artikuluetan; eta bi urteren buruan beste deliturik egiten ez badute, zigorra barkatu egiten da. Hiru zigortuen defentsa abokatuak, Mikel Elortzak, zigorraren suspentsioa eskatu zuen joan den martxoaren 8an, legeak aipatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztela arrazoituta.

Epaileak badu, hala ere, zigorra betearazteko aukera, beti ere akusatuek «arriskugarritasun kriminala» dutela arrazoitzen badu. Baina kasu honetan, zigorraren eteteko «lege baldintzak» ez dituztela betetzen argudiatu du Luis Piñana epaileak, fiskalaren txostenean oinarrituta, eta espetxeratzea agindu du. Fiskalak «delituen izaeragatik» eta «alarma soziala sortzen dutelako» eskatu zuen akusatuek espetxe zigorra betetzea.

Defentsako abokatuaren argibide eskaerari ez zion erantzun atzo epaileak. Gaur goizean bertan epailearen erabakiaren aurkako helegitea aurkeztuko du defentsak Donostiako Entzutegian.

«Legean oinarritu gabea»

AABen iritziz, «Entzutegi Nazionaleko doktrina salbuespenezkoa eta berezia Euskal Herriko auzitegiak kutsatzen» ari dela adierazten du «salbuespenezko erabaki» honek. ABBek salatu zutenez, «epai hau ez da normala, eta, gainera, politika espainiarraren mendeku-izaera adierazten du, ez da legean oinarritzen eta are gutxiago Justizian».

LEGEA

Zigorra ez betetzeko baldintzak

Espainiako Zigor Kodeko 81. artikuluak zehazten du zigortuek zein baldintza bete behar dituzten epaileak kartzelatzea bertan behera uzteko. Hiru dira baldintzak:

BI URTETIK BEHERA. Bete beharreko espetxe zigorrak bi urtetik beherakoa izan behar du. Zarauzko hiru zigortuen kasuan urtebetekoa da zigorra.

AURREKARIRIK EZ. Zigor aurrekaririk ez dute izan behar akusatuek. Hiruetako inork ez du aurrekaririk.

ISUNA BALEGO, ORDAINDU. Zigor ekonomikorik balego, zigor hori ordaintzea da hirugarren baldintza. Zumeta, Gastañares eta Usobiagari ez zioten diru zigorrik ezarri.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

AGINDUA, 2001EKO APIRILAREN 23KOA, LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZEGUNEEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANARI HASIERAKO ONESPENA EMATEKO DENA.

Ondoan argitaratzen den xedapena eman dut gaur:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planari hasierako onespena ematea, honako zuzenketa hauek sartuta:

- Erabileren matrizean eraikuntza (E3.1) ezabatu egiten da erabilera onargarri gisa EP1, EP2 eta EP3 zonetan.
- Valderejoko Parke Naturaleko Polledoko zingirak I. multzoan barne hartuko dira eta Olandina aintzira II. multzoan.

16.6. idatz-zatia:

Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian antolamendu-kategoriak aplikatzeko irizpideak ondokoak izango dira:

- Hasierako onarpenik gabeko garapen-plangintza (plan berezia, plan partziala) duen hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planari egokituko zaio.
- Hasierako onarpena eman zaion garapen-plangintza duen gainerako hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planak «hainbat jarduera» gomendatzen ditu besterik gabe.

21.4. idatz-zatia:

Lurraldearen Arloko Plana onartzen den unean hirigintzaren aldetik hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa behin betiko sailkatuta dauden lurzoruetan, 16.6. idatz-zatian adierazitako bi hipotesiei buruzko xehetasunak eransten dira, hots:

- Hasierako onarpenik gabeko garapen-plangintza (plan berezia, plan partziala) duen hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planari egokituko zaio.
- Hasierako onarpena eman zaion garapen-plangintza duen gainerako hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, Lurraldearen Arloko Planaren xedapenak gomendiotzat joko dira.

Hirigintzaren aldetik urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lurzoruei dagokienez, honako aldaketa hauek sartu behar dira:

- II. multzoko hezeguneei dagokienez, honako esaldi hau testutik kenduko da: hiri-lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak direnean izan ezik, kasu honetan gomendio hutsak baino ez baitira.
- III. multzoko hezeguneei dagokienez, «xehetasun-azterlanak» kendu eta «azterlan zehatzak» ezarriko da bere ordez.

17. kapituluko 1 eta 3. idatz-zatiak.

Bi idatz-zatietan Txingudiko salbuespena azaldu behar da.

- 22.3, 23.3 eta 23.4. idatz-zatiak ezabatu egingo dira.

2.- Agindu hau Euskal Herriko, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko eta Estatuko Aldizkari Ofizialetan argitaratzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gehien irakurtzen direnen arteko bi egunkarietan.

3.- Lurraldearen Arloko Plan hau jendaurrean jartzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Epe horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren agiria, aztertzeko, honako lekuetan egongo da:

– Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza. Donostia-San Sebastián, 1. Vitoria-Gasteiz.
– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Arabako Lurralde Ordezkaritza. Samaniego, 2. Vitoria-Gasteiz.
– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Gran Via, 85. Bilbao.
– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza. Andia, 13. Donostia-San Sebastian.

4.- Lurraldearen Arloko Plan hau Lurralde-Administrazio Publikoei zor zaien entzunaldian jartzea, hilabeteko epean egokitzat dauzkaten ohar eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko apirilaren 23a.

NAZIOTASUN AITORMENA. NABOren urteroko bileran izandako hartu-emanen balorazio «oso ona» egin dute

Euskal diasporak herrigintzarako duen gaitasuna nabarmendu du Udalbiltzak

Estatu Batuetako euskaldunek EHNA «harridurazko poztasunez» hartu dutela dio Arkotxak

Xabin Makazaga | **ASTIGARRAGA**

Estatu Batuetan NABO euskal erakundearen urteroko bileran izan ondotik, «oso balorazio ona» egin du Loren Arkotxa Udalbiltzako Batzorde Eragileko kideak, han izandako hartu-emanez. Euskal diasporak naziogintzan «potentzialitate oso handia» duela esan zuen atzo Ondarroako alkateak, Astigarragako udaletxean eskainitako prentsaurrekoan.

Atzerriko euskaldunek lurraldetasun zentzua «oso barneratuta» dutela erantsi zuen Arkotxak, eta Euskal Herriko Nazio Aitormena egiteko aukerak «harridurazko poztasuna» eragin diela: «Hemen berezkotzat dugu euskaldun izatea, baina EEBBetan, bigarren edo hirugarren belaunaldiko euskaldunek amestu ere ez zuten egiten euskal nortasunaren agiria izateko aukera».

Udalbiltzak, izan ere, Interneten bidez EHNA eskuratzeko aukera emango die diasporako euskaldunei, udalbiltza.net zerbitzariaren bidez. Los Bañosen (Kalifornia) EHNAren berri «interes handiz» hartu dutela esan zuen Arkotxak. Xiberoa 2010 plangintzaren berri ere eman zuen Udalbiltzak EEBBetan, eta ekimenak «oso harrera ona» izan zuen. «Pozik ziren, Udalbiltza buru-belarri egitasmo horretan sartu delako», esan zuen Arkotxak. Izan ere, inguru hartako euskaldun gehienek Ipar Euskal Herriko jatorria dutela erantsi zuen Arkotxak.

AMAIA ZABALO
Loren Arkotxa, Oscar Goñi eta Eider Casanova, atzo, Astigarragako udaletxeko pleno aretoan.

LOREN ARKOTXA
Udalbiltzako Nazioarteko arduraduna

«Lurraldetasun zentzua oso barneratuta dute diasporan, eta horretan irakaspenik ere eman digute EEBBetan»

«Hirugarren belaunaldiko euskaldunek han amestu ere ez zuten egiten EHNA izateko aukera»

Diasporako euskaldunak Euskal Herrian bizi direnen halako bi dira, eta Udalbiltzak harremanak sendotu nahi ditu mundu osoko euskaldunekin. «Elkarlana eskaintzen diegu, Udalbiltzak garrantzi handia ematen baitio diasporari; beren aldetik ere, jarrera bera jaso dugu. Aniztasun handia dauka diasporak, eta itxaropen handiz begiratzen diogu Euskal Herriaren zati horri ere», esan zuen Arkotxak.

NABOren bilkuran jasotako «harrera beroa» azpimarratu zuen atzo Udalbiltzako kideak —eguraldiaren beroa azal beltzaranean nabari zitzaion—, eta, teknologia aurrerapenei esker diasporak Euskal Herriaren berri zehatza baduela onartuta ere, «harreman zuzena» izugarri eskertzen dutela erantsi zuen Arkotxak. Hemengo berri emateaz gain, irakaspenik ere jaso dutela esan zuen Udalbiltzako ordezkariak: «Hegoaldeko eta Iparraldeko jatorria duten euskaldunak han bat eginda daude, eta elkarren hizkera ere ondo menderatzen dute». Lurralde zatiketarik gabeko elkarbizitza goraipatu zuen Loren Arkotxak. NABOko lehendakari Pierre Etxarrenek gisa berean hitz egin zuen Los Bañosen: «Hemen ez gara gehiago ez espainol ez frantses, denak euskaldunak gara».

Hego Amerikako eta Australiako euskaldunekin harremanak sendotzeko asmoa agertu du Udalbiltzak: «Euskal Herriaren zati bat da diaspora, eta elkar elikatzeko asmoa dugu».

TOPAKETAK

Kirola eta kultura aztergai Donostian

Udalbiltzak kirolari eta kulturari buruzko topaketa nazionalak egingo ditu, lehena ekainaren 16an eta bigarrena ekainaren 30ean, Donostiako Miramar jauregian. Topaketen helburua esperientziak trukatzea da, «Euskal Herriko ikuspegitik bi alor horiek dituzten beharrizanak aztertzea», Udalbiltzako Kultura arduradun Eider Casanovak atzo esan zuenez.

Kirolari buruzko topaketetan euskal kirol eta jokoak sustatzeko plan estrategikoa aztertuko dute, federazio nazionalen beharra eta sorrera hizpide izango dute, eta Euskal Herri mailako harremanak eta euskararen normalizazioa jorratuko dituzte.

Kulturari buruzko topaketetan, berriz, nazio identitatea, mezenazgoa, bilgune nazionalak eta kultura ezberdinetako komunitateak izango dira eztabaida bideratuko duten alorrak.

Bake Konferentzia bultzatuko dugu
Zure laguntza behar dugu:
sinadura
eta mila pezeta
902 42 10 10
Bake Konferentzia Conferencia de Paz
gauzak aldatzen hasteko aukera la oportunidad de empezar a cambiar las cosas
www.elkarri.org
Euskadiko Kutxa/Caja Laboral 3035 0198 68 1980008950

EH. Taldeak ordezkaritza bat bidaliko du EBko Lehendakaritzarekin biltzeko

Palestina eta Israelen arteko auzian «jarrera aktiboagoa» izan dezala eskatuko dio EHk EBri

Garbiñe Olaizola | **DONOSTIA**

EHk ordezkaritza bat bidaliko du Europako Batasunera Israelen eta Palestinaren arteko gatazkan «jarrera aktiboagoa» izan dezala eskatzeko. Suediako eta Belgikako lehendakaritzekin biltzeko asmoa du —egun Suediak du EBko Lehendakaritza eta ekainean Belgikak hartuko du—. Horren berri eman zuten atzo Joseba Alvarez EHko Nazioarteko Harremanetarako arduradunak eta Koldo Gorostiaga EHko eurodiputatuak. Afera horretan «neutraltasuna planteatzea jokabide politiko antidemokratikoa» dela adierazi zuen Alvarezek. Haren ustez, «ezin daitezke begiak itxi. EBk jarrera aktiboa izan behar du, eta Israel zigortu».

EHko ordezkariaren esanetan, bi herrialdeek ez dute egoera bera. «Lurralde okupatu batean, Israel okupatzailea da eta Palestina okupatua. Batetik, Israelek Armada eta tankeak erabiltzen ditu erasotzeko eta, bestetik, Palestinak defentsarako jokabidea erabiltzen du». Gogoratu zuenez, Israelek ez ditu errespetatzen NBE Nazio Batuen Erakundeak Oslon sinatutako akordioak.

Bestalde, Koldo Gorostiaga bat etorri zen Jasser Arafat PAN Palestinako Aginte Nazionaleko buruzagiarekin. Arafatek esan zuen injustizia historikoa gertatu dela eta, horren aurrean, nazioarteko komunitatea lo dagoela. «Gatazkaren garrantziaz hitz egiten da, baina ekimenetan ezer gutxi egin du nazioarteak», esan zuen. Bere ustez, EBk neutraltasunez jokatu du beti: «Erasoa hitza erabiltzen du Israelentzat eta ekintza terrorista Palestinarentzat».

EUSKAL PRESOAK. Senideak Joux la Ville eta Clairvauxen ziren atzo

Parisko manifestaziora joateko deia egin du ABk

Gatazkari «erantzun egokiak» emateko galdeginen diote Gobernuari

Hur Gorostiaga | **BAIONA**

Abertzaleen Batasunak bat egin du heldu den ekainaren 9an Parisen euskal presoen eskubideen alde eginen den manifestazioarekin. «Frantziako Gobernuari bere erantzukizunak gogorarazteko parada» izanen dela jakinarazi du ABk, bretoien, korsikarren eta euskal presoen aldeko mugimenduak sustengatuz. «Giza eskubideen eta demokraziaren alde agertzen den estatu baten exekutio gisa behartua da nazioarteko legeria eta bere legeri propioa errespetatzea. Presoak beren familietarik hurbiltzea, juridikoki, politikoki eta giza legez, eskubide bat da» oroitarazi du ABk, eta eskubide horien errespetua lortzeko zenbat manifestazio behar diren galdegin du.

Gisa berean, «izaera politikodun gatazkaren protagonista ezinbestekoa izanik, gatazka horri erantzun egokirik sekula eman ez» diola oroitarazteko deitu du manifestaziora alderdi abertzaleak. «Jospinen gobernuak dio bortizkeria negoziaziorako oztoporik handiena dela, baina une berean euskal gizartearen gehiengoak bakean eta bide demokratikoetatik aldarrikatzen dituen Euskal Departamendua eta euskararen ofizialtasunaren aitzinean entzungor egoten da» azaldu du ABk.

EGUNKARIA
Euskal presoen senideak, atzo, Joux La Villeren aurrekaldean.

Egunotan Parisko Asanblea Nazionalean Korsikarendako neurri berriak eztabaidatu direnean, «egungo krispazio eta bortizkeri egoera gainduko duen Ipar Euskal Herrirako antzeko prozesu bat noiz ezarriko duen martxan» galdegin diote gobernuburuari. Hitza eta erabakia «herriak izan behar» duela azpimarratu du Abertzaleen Batasunak.

Frantziako Bira Clairvauxen

Frantziako Bira egiten ari diren euskal preso politikoen senideak Clairvaux eta Joux La Villeko zuzendariekin izan ziren atzo Euskal Herritik 1.000 kilometrora eta ohiko garraiobide lineatik urrun kokatzen diren presondegietara heltzeko arazoak, bidaia gastuak eta arriskuak aipatu zituzten. Gisa berean, Joux la Villeko presondegian Idoia Martinez preso bakarra dela salatu zuten, nahiz eta euskal presoen kolektiboak behin eta berriz galdegin presoak ez daitezen geografikoki isolatu. Arratsean Troyesera itzuli ziren, bertan hitzaldi publiko bat baitzuten iragarrita.

PSN. Sozialisten oposizio lana «ona» dela dio

Lizarbe: «Oposizioarekin tematuta dago Gobernua»

Irene Arrizurieta | **IRUÑEA**

Juan Jose Lizarbe PSNko idazkari nagusiaren arabera bere alderdiak legegintzaldiaren aurreneko bi urteetan egin duen lana «ona» izan da. Dena dela, Foru Erkidegoaren egoera «hobea» litzatekeela uste du Lizarbek, eta errua UPNren Gobernuari egotzi dio. «Nafarroa hobekiago legoke, baina Gobernuak ez du jakin ongi lan egiten», gaineratu du.

Lizarbek Nafarroako sozialisten azken bi urteotako Parlamentuko lana jaso duen *Capacidad de ser alternativa. Dos años de oposición responsable a un Gobierno de minoría* liburua aurkeztu zuen atzo. PSNren aburuz, Nafarroako Gobernuaren lana «oso justua izan da», eta hiru arazo izan ditu: «Eraginkortasuna eta politika egiteko gabezia nabaria, eta oposizioaren etorkizunean tematua egon izana».

Aurreneko gabeziari dagokionez, Lizarbek uste du Foru Erkidegoaren garapena ongi doala. «Baina hobekiago legoke bere tokian egoten dakien gobernuarekin», erantsi zuen PSNko buruak.

Politika egiteko gabezia Gobernuak adierazten duen «oposizioarekin elkarrizketarako eta atzera egiteko borondate eskasean» datza, Lizarberen arabera. Gutxiengoan agintzen duen Gobernua dela aintzat hartuz, PSNk uste du UPN oposizioarekin «tematua» dagoela. «Eta bereziki, PSNrekin», azpimarratu zuen Lizarbek. «Gobernua kezkatuta dago 2003. urtean eginen diren hauteskundeen emaitzekin. Orduan oposizioak nagusiagoa lortzen duen ala ez larritzen du», azaldu zuen Lizarbek.

PSNko agintariaren iritziz, UPNren «egoneza» Nafarroako sozialistekiko adierazten dituen «gutxiespen hitzetan» nabaritzen da. «Gobernuak ez daki nola gutxietsi guk bi urteotan egin dugun lan ona. Horregatik deitzen digu 'ezetzaren koordinakundea' eta beste zentzugabekeria batzuk», salatu zuen Lizarbek.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

BARNETIK EZAGUTU GAITZAZU
Jardunaldi Irekiak

ESKAINITAKO TITULUAK

HUMANITATEAK-ENPRESA LIZENTZIATURA
IRAKASLETZAN DIPLOMATURA
Berezitasunak: Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIATURA

Egitaraua
1.- Unibertsitate mailako tituluen eskaintza.
2.- Mondragon Unibertsitatea etorkizunari begira
3.- Fakultatea ezagutu.

Maiatzak 24, Osteguna 18.30 etan

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
(Mondragón Unibertsitatea)
Dorleta auzoa, z/g• 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Erreserba ezazu eguna: 943 71 41 57 telefono zenbakian
e-posta: idazkaritza_akademikoa@huhezi.edu web: www.huhezi.muni.es

LABURREAN

Elkarrizketa eta bakea eskatzen duen pankarta jartzea erabaki du Amurrioko Udalak

Udaletxeko balkoian *Elkarrizketa, bakea eta Euskal Herriaren erabakiari errespetua* leloa duen pankarta jartzea erabaki zuten azken udal batzarrean EAk eta EHk Amurrion. PPk eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten eta EAJ ez zen batzarrean izan. PPko bozeramaile Juan Carlos Ruizek salatu zuenez, Pablo Isasi alkateak (EA) «babesik gabe utzi gaitu» pankartaren leloan «ez delako eskatzen ETA desagertzeko».

EH: «Hernaniko Udaleko egutegiari Jaurlaritzak jarritako helegitea lotsagarria da»

EHk «lotsagarritzat» jo du Hernaniko Udalak jai egunen inguruan hartutako erabakiari Eusko Jaurlaritzak jarritako helegitea. EHren ustez, horrek «agerian uzten du egoera politiko honetan Jaurlaritzak Madrili eskaini nahi dion morrontza politikoa». EAJ eta EAren «ardura larria» dela dio EHk, «demokratikoki onartutako erabakiari helegitea aurkezten duenak iruzur egiten baitio herri honen borondateari».

EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA. UEUko Glotodidaktika sailak eta HABEk elkarlanean antolatu dituzte jardunaldiok

Metodologia izango dute hizpide bihar 200 irakaslek Donostian

Euskara irakasleen arteko komunikazio esparruak indartzea izango dute helburu jardunaldiek

Ainara Argoitia | **DONOSTIA**

Helduen euskalduntzearen IV. jardunaldiak egingo dira bihar Donostiako Kursaal jauregian, *Metodologia euskara 2H gisa irakatsi eta ikasteko prozesuetan* izenburupean. Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Glotodidaktika sailak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) antolatzen dituzten jardunaldi horien helburua euskara irakasleen arteko komunikazio esparruak indartzea izango da.

Irakasleen etengabeko prestakuntza eta eguneratzea sustatu aldera sortu zen HABE eta UEUren arteko lankidetza, orain lau urte inguru. Orduz geroztik, bi erakundeek, elkarlanean, irakasleen prestakuntzari begirako hainbat jarduera bultzatu dituzte, eta horren adibide dira bihar egingo diren jardunaldiak. Guztira 200 lagun inguruk parte hartuko dute —egunean bertan ere izen emateko aukera izango da— goiz eta arratsaldez egingo diren jardunaldiotan. Ordubeteko hitzaldi nagusi bi eta 20 minutuko hamar komunikazio izango dira. Edukiari erreparatuz gero, berriz, jardunaldiak hiru gai nagusitan banatu dituzte: jardunaldien gai nagusiarekin lotzen diren saioak, autoikaskuntzaren gainekoak, eta euskararen estandarizazioari dagozkionak, azkenik.

Xabier Isasi UEUko zuzendariak eta Jokin Azkue HABEko zuzendariak jardunaldiok aurreko urteetan izan duten «arrakasta» azpimarratu zuten. Azkueren hitzetan, «200 profesional ingurutik gora biltzen dira, eta ondorioak begi-bistakoak dira». UEUrekiko lankidetzaren harira, Isasik gaineratu zuen halakoak oso direla garrantzitsuak, «indarrak metatzeaz gain ekarpenak ere ugariak izaten direlako».

GARI GARAIALDE

Jokin Azkue HABEko zuzendaria, Xabier Isasi UEUko zuzendaria eta Abel Camacho jardunaldien arduraduna, atzo Donostian egindako prentsaurrekoan.

Edukiak liburuan bilduta

Jardunaldiak antolatzeaz gain, UEUk, HABEren laguntzaz, II. eta III. jardunaldietako edukiak bildu ditu liburu batean. 1999ko martxoan Gasteizen egindako jardunaldietako eta 2000ko maiatzean Donostian egin zirenetako ponentzia eta komunikazioak jaso dituzte. Jardunaldietan parte hartu zuten guztiek jasoko dute.

EGITARAUA

MAIATZAREN 25A

08:30 Sarrera-ekitaldia
Jokin Azkue (HABEko zuzendari nagusia) eta Xabier Isasiren (UEUko Zuzendaria) esku

09:30 Ponentzia
Hizkuntza-didaktikaren erronka berriak
Hizlaria: Matilde Sainz (Mondragon Unibertsitatea)

11:00 -11:30 *Atazatan oinarritutako ikaskuntza (AOI) Willisen-en eredua.*
Hizlaria: Natxo Guillen (HABE)
Zibergela. Hizlariak: Ainhoa Uriarte eta Idoia Zuloaga (Amorebieta-Etxanoko Udal Euskaltegia)

11:30 - 12:00 *Merkatarientzako ikastaroa AOIren haritik*. Hizlaria: Juana Mari Ezker (AEK)
Internet bidezko euskalduntzerako metodologia-ohar batzuk. Hizlaria: Gloria Sanchez (Santurtziko Udal Euskaltegia)

12:00 12:30 *Okerraren oker adarra.*
Hizlaria: Karlos del Olmo (EIZIE)
Abegi euskaltegietako telefono sistema.
Hizlaria: Garbiñe Loiarte (Abegi euskaltegiak)

12:30 - 13:00 *Ahoz gora irakurtzea 2Hren irakaskuntzan*. Hizlaria: Leire Diaz de Guereñu (EHU)
Mintza Saioak autoikaskuntza gelan: eredu bat. Hizlaria: Sagrario Crespo (Abegi euskaltegiak)

16:00 Ponentzia
Gaitasun komunikatiboa Europako Kontseiluaren lanen argitan. Hizlaria: Joseba Ezeiza (Legazpi 6)

17:00 - 17:30 *Batasunerako irizpideak*.
Hizlaria: Miren Azkarate euskaltzaina
Hizkuntzaren jabe egiteko, hartu hitza.
Hizlariak: Juanjo Uranga, Pello Aranburu eta Antton Peñalba (IRALE)

17:30 Atsedenaldia

18:00 Mahai-ingurua
Jokabide metodologikoak Helduen Euskalduntzean. Parte-hartzaileak: Justo Egaña (HABEko teknikaria), Alex Vadillo (AEKko teknikaria), Pedro Lonbide (Santurtziko Udal Euskaltegia), Patxi Telletxea (Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala)

19:30 Amaiera

LANBIDE HEZIKETAK. 660 aditutik gora ari dira parte hartzen LHko ikastetxe integralei buruzko Lehen Nazioarteko Biltzarrean

Esperientziak trukatu eta metodologia berriei buruz aritzeko aukera izango dute gaur adituek

Ainara Argoitia | **DONOSTIA**

Lanbide Heziketako (LH) ikastetxe integralen antolaketa, jarduera eta kudeaketarako ereduak aztertu eta zabaldu, eta beraien esperientziak, proiektuak eta metodologiak trukatzeko aukera izan zuten atzo Donostiako Kursaalean egiten ari den Nazioarteko Biltzarrean bildu ziren adituek. Gaur, atzoko gogoeta berari helduko diote biltzarrean parte hartzen ari diren 660 aditu inguruk.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako lehenengo biltzar hau «oso berritzailea» izango zela esan zuen atzo Iñaxio Oliveri sailburuak inaugurazio ekitaldian. Lanbide Heziketetako ikastetxe integralak prestakuntza zabalerako «ezinbesteko» tresna direla esan zuen Oliverik, eta aldi berean gaineratu zuen lanbide heziketak hainbat herrialdetako politiken «funtsezko ardatz» bihurtu direla.

Lanbide Heziketetako ikastetxe integralei buruzko lehen Nazioarteko Biltzarrak interes handia sortu duela azaldu zuen Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak, eta horrek «esperientzia aberasgarriak trukatzeko» aukera emango duela nabarmendu zuen.

Europa Batasuneko hamaika hizlari, Estatu Batuetatik, Kanadatik eta Zeelanda Berritik etorritako 47 profesional, Espainiako Lanbide Heziketako eta Lanerako Prestakuntzarako 20 arduradun eta 43 teknikari ari dira parte hartzen atzo hasi eta bihar bukatuko den biltzar honetan. Era berean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 66 ikastetxeetako ordezkariak ere Donostian dira, atzoz geroztik, Lanbide Heziketen inguruan atzerriko ikastetxeek duten eskarmentutik gauza berriak ikasteko asmoz.

Lanbide Heziketak: etorkizun oparorako giltza

Lanbide Heziketak «etorkizun oparo baterako giltza» edo «funtsezko tresna» direla adierazi zuen atzo Iñaxio Oliverik. Azken mende honetan izan diren aldaketek hezkuntza eta formazio sisteman «nabarmen» eragin dutela esan zuen Oliverik, eta horrek guztiak hezkuntza iraunkorraz gogoeta sakon bat egitea eskatzen duela gaineratu zuen. Haren hitzetan hezkuntza iraunkorreko sistema horrek helburu bi izan behar ditu oinarrian: batetik, aldaketetara garaiz egokitzeko aukera emango dien oinarrizko formakuntza eskaini beharko lieke sistema horrek gizon-emakumeei; eta bestetik, etorkizuneko lanetara ez ezik, egungoetan ere ondo moldatzeko moduko formakuntza eskaini beharko luke.

Haatik, Oliverik esan zuen gizon-emakumeak lehia ekonomikorako prestatu behar dituen hezkuntza sistema horrek ez dituela beste giza baloreak bazter utzi behar. Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuaren esanetan, «Hezkuntzaren alderdi ekonomikoek ez dute alde kulturala itzalpean utzi behar; hezkuntza politika batek ez ditu inoiz giza baloreak eta balore kulturalak ilundu behar».

Lanbide Heziketen euskal planari aipamena eginez, Oliverik esan zuen, «1995ean abian jarri genuen planak Lanbide Heziketetako ikasketa arautuak eta ez arautuen arteko mugak ezabatzea, eta ikastetxe eta enpresen arteko harremanak indartzea bilatzen du».

Lanbide Heziketetako ikasketak lan mundura jauzi egiteko beste bide bat direla gogorarazi zuen Oliverik, eta horren harira zehaztu zuen, lanbide heziketek %25tik %44ra egin dutela Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian, sei urteren buruan.

UNIBERTSITATEA. 2004rako ikasgaietako bi heren euskaraz emateko plana badago ere, gaur egun bakar bat dago

Gizarte Laneko Eskolak euskaraz eskaintzarik ez duela salatu dute

Gaueko itxialdia egin dute Gasteizko egoitzaren barruan

Luis Karlos Garcia | **GASTEIZ**

Astearte gauean itxialdiari ekin zioten Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Gasteizko Gizarte Laneko Eskolako 30 ikasleek, euskarazko eskaintzarik ez dagoela salatzeko asmoz. Bildutakoetako bozeramaile batek hedabide honi jakinarazi zion «egoera larrian» daudela, hiru urteko diplomatura horretan dihardute ikasle euskaldunen hizkuntza eskubideak urraturik: «Euskara Plangintzaren arabera, 2004. urterako ikasgai guztietako bi heren euskaraz emateko plana indarrean da, baina errealitatea da gaur egun ikasgai bakar bat dagoela euskaraz jasotzea».

Ikasle talde horren irudiko, unibertsitateko agintariek «sekulako interes falta» agertu dute orain arte euskarazko eskaintza duina egiteko. «Iruzurra egiten zaigu behin eta berriro», salatu du eledun batek.

EHUk Gasteizen ematen du soilik Gizarte Lana ikasteko aukera. Beraz, ez da beste ikasketa batzuetan gertatzen dena, hots, hiri batean euskarazko eskaintza murritza izanik, beste batean hobea dagoela. Hala, ikasleen ustez, egoera linguistiko okerrak hainbat ikasle euskaldun beste ikasketa batzuetara bideratu ohi ditu.

KARLOS BIGURI

Itxialdian diren ikasleak, Gasteizko Gizarte Laneko Eskolan.

HERRI KONTSEILUA. Baiona Ttipian egingo dute

Baionako Udalak 45.000 metro koadro utzi dizkio BAMi Unibertsitatea eraiki dezan

Nora Arbelbide | **BAIONA**

Baionako Herriko Etxeak Baiona Ttipiko 45.000 metro koadro utzi dizkio Baiona-Angelu-Miarritze aglomerazioari 1,3 milioi liberaren truke (33 milioi pezeta inguru). Lur horiek unibertsitate berriaren eraikitzeko erabiliak izanen dira. «BAM aglomerazioak ukanen du lanen ardura. Lurrak orain ematearekin, gunea aztertu, proiektua aitzinarazi eta gunearen inguruko lurretan lanak hasten ahalko ditu. Unibertsitatearen eraikuntza lanak beren aldetik hemendik bi urtera hasiko dira. «Lanak hasi aitzin, bi urtez ezin da baztertua utzi lurra», adierazi zuen Jean Grenet Baionako auzapezak, joan den maiatzaren 22an iragan zen herriko kontseiluan. Gaur egun, Saint-Crouts gunean dagoen unibertsitateko sail guztiak bertara ekarriak izanen dira.

Litekeena da proiektuan, besteak beste, La Floride gunean, kirol zelai gehiago jartzea. Halaber, unibertsitateko ostatua San Andresen plazan ezarria izan liteke. Horrez gain, aparkaleku gehiago harresien azpian jarriko lituzkete, Grenetek zehaztu zuenez. Gaur egungo Baionako fakultateko dekanoak, Henri Labayle jaunak, «oraindik dena egitekoa dela» erran zuen, eta bakarrik jabetza aldaketa bat dela azaldu zuen.

Sei orenez, 79 gai aztertu zituzten herri kointseiluan, eta euskarak bilkuran ukan behar zuen lekua aztertua izan zen.

Transkribaketak soilik frantsesez

«Euskaraz hitz egiten ahal bada ere, bilkura soilik frantsesez transkribituko» zutela iragarri zuen auzapezak. Hain zuzen ere, Xabi Larraldek eta Gisele Lougarot, ABko hautetsiek aitzineko kontseiluan euskaraz adierazi hitzak, «aktan euskaraz idaztea» galdegiteari, Grenetek, «frantsesa Errepublikako hizkuntza bakarra» dela erantzun zien. «Euskararen promozioa bakoitzak egiten ahal badu ere, euskaraz mintzatzen ahal bazarete ere, arauak dio frantsesez bakarrik idatzi behar dela».

Bestalde, Baionako Gaztetxe bat galdegiten duten Aurresku Gaztetxeak lortu 1.500 izenpedurak bideratu zituen Larraldek. Grenetek ihardetsi zien nahi balu ere «ezinezkoa zela», ez «proiektuaren aurka» delako, «salarik ez duelako» baizik. «30 elkarte beharrean» daudela azpimarratu zuen. «Gune pribatuak aurkitu behar zituztela» zehaztu eta, «segurtasuna hurbiletik begiratuko zuela», adierazi zuen.

xuxen
euskarazko zuzentzaile ortografikoa

Xuxen-ek izandako harrera ona dela eta, kupoiak itsasteko plantillarik gabe gelditu bazara, datorren maiatzaren 29an ordezko kupoiekin batera plantilla banatuko da berriz ere. EZ GALDU AUKERA!

- Word, Acces, PowerPoint, Front Page eta Outlook programetarako baliagarria.
- Euskaltzaindiaren azken erabakien arabera eguneratua.
- Instalatzeko erraza.
- Mac eta PC-rako (Pc-Office 97 eta Office 2000/ Mac-Office 98).

Maiatzaren 20tik aurrera EGUNKARIArekin

Nola jaso dezaket Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa?

1- Maiatzaren 20ko Euskaldunon Egunkariarekin, lehen kupoia eta kupoiak itsasteko orria banatuko dira. 6 kupoi izango dira guztira, eta egunero jasoko dituzu Egunkariarekin, maiatzaren 27a arte.

2- Kupoiez beteriko orria kioskoan aurkeztuta, Xuxen zuzentzaile ortografikoa jaso ahal izango duzu maiatzaren 27tik aurrera.

3- Kupoiren baten faltan geldituz gero, maiatzaren 29ko eta 30eko Egunkarian ordezko kupoiak banatuko ditugu.

HARPIDEDUNAK, adi!
Xuxen jasotzeko, kupoiak bildu eta bidali helbide honetara:
Egunkaria/harpidetza
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain.

BABESLEAK:
bbk
kutxa
zuri esker

EGILEAK:
HIZKIA
UZEI
inxight

Euskaraz gero eta xuxenago.
Egunkaria

AZPIEGITURAK. AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundeak gonbita helarazi die alkate eta zinegotzi guztiei

AHTren aurkako ekimenak aztertzeko bilera egingo dute udalek etzi Elorrion

'Euskal Y'aren aurka esku artean dituzten ekimenen berri emango zaie udalei, eta atxikimendua eskatuko diete

I. Petxarroman | DONOSTIA

AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundeak proiektuan den Abiadura Handiko Trena (AHT) igaroko den herrietako alkate eta zinegotzi guztiei gonbidapena egin die, etzi Elorrion egingo den bileran parte hartzeko. Hain zuzen ere, koordinakundea oraingoz osatzen duten bederatzi udalek esku artean dituzten ekimenen berri emango diete gainerako udal ordezkariei, eta haien atxikimendua eskatuko diete.

Orain arte Espainiako Entzutegi Nazionalean aurkeztu duten errekurtsoaren berri emango diete, eta baita heldu den asteotan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean aurkeztuko dutena ere. AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundeko udalek administrazioarekiko auzi helegitea aurkeztua dute Entzutegi Nazionalean, Espainiako Sustapen Ministerioak Euskal Y onartzeko egindako azterketa teknikoen aurka. Helegitearen arabera, trenbide sare berriaren proiektu informatiboa «bete ez zituen lege parametroetan» oinarritzen da; eta, halaber, ingurumenean duen eragina aztertzerakoan hainbat arau-hauste egin ditu.

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean ekainaren 9a baino lehen aurkeztuko duten helegitea, berriz, EAEko Trenbide Lurralde Plan Sektorialaren aurkakoa da. Apirilaren 9an argitaratu zuen bere onarpena Jaurlaritzak, eta, beraz, bi hilabeteko epea dago errekurtsoa aurkezteko. Elorrioko bileran eskatuko diete udalei bat egiteko errekurtso horrekin.

Kexa Europara

Halaber, AHT Gelditu! Elkarlanak kexa bat aurkezteko asmoa du Europako instituzioetan, eta kexa horrekin ahalik eta udal gehienek bat egitea nahi dute. Udalez gain, edozein euskal herritarrek ere aukera izango du kexarekin bat egiteko. Udalen atxikimendua kexa horrekiko ekainaren erdialderako jaso nahi dute, eta gero irekiko lukete epea norbanakoak ere atxikitzeko.

Bilera larunbatean izango da, goizeko 10:00etan Elorrion. Gai ordena bi puntukoa da: lehenik, koordinakundea aurkeztuko diete ezagutzen ez duten udal ordezkariei, eta ondoren errekurtso eta ekimenen berri emango diete. Gero, eztabaida zabalduko dute, galderak, zalantzak eta iradokizunak aztertzeko.

AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundea joan den martxoaren 15ean aurkeztu zuten Gasteizen. Besteak beste, EHNEk, LABek, EHk, IUk, Zutikek, AHTren Aurkako Asanbladak, Lurra ekimenak eta beste hainbat alderdi, sindikatu eta elkartek osatzen dute. Taldea hiru zeregin nagusitarako jaio zen: mobilizazio eta ekintza informatiboak egiteko, ekimen juridikoak aurrera eramateko eta ekimenak sustatzeko instituzioetan.

Oraingoz bederatzi udalek osatzen dute koordinakundea: Elorrio (EHko alkatea), Abadiño (EAJ), Anoeta (EH), Iurreta (EAJ), Legutio (EH), Zizurkil (EH), Ezkio-Itsaso (EH), Oiartzun (EH) eta Ezkoriatza (EH). Udal horiekin batera, hainbat elkartek eta 215 pertsonak aurkeztu zuten errekurtsoa Espainiako Sustapen Ministerioak *Euskal Y*-aren proiektua baimentzeko hartutako erabakiaren aurka. Joan den apirilaren 5ean aurkeztu zuten errekurtsoa Espainiako Entzutegi Nazionalean.

JOSU ETXEBARRIOSTE
AHT Gelditu! Elkarlan Koordinakundeko udal ordezkariak, Entzutegi Nazionalean jarri zuten errekurtsoa aurkezteko egindako agerraldian.

EKAINAK 16

Manifestazio nazionala

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazio nazionala egingo da Donostian, ekainaren 16an (larunbata). Azpiegitura proiektu horren aurka inoiz Euskal Herrian egindako mobilizaziorik jendetsuena antolatu nahi du koordinakundeak.

INGURUMENA. Ezpitsua plataformak Zuloko-Ibarreta lehortzea gelditzea eskatzen du, lanak «legez kontrakoak» direlako

Sei lagun atxilotu dituzte Barakaldoko hezegune bat babestearen aldeko protestan

Erredakzioa | BILBO

Barakaldoko Zuloko-Ibarreta hezegunea babestearen aldeko protestan parte hartzen ari ziren sei lagun atxilotu zituen Ertzaintzak, atzo. Aurreko eguneko protestetan beste zortzi atxilotu zituen. Dagoeneko, guztiak aske daude.

Ezpitsua plataforma ekologistak antolatutako protesta ekintza horien bidez, Barakaldoko Udalak Zuloko-Ibarreta hezegunean saltoki handiak eraikitzeko egiten ari den lanak geldiarazi nahi dituzte.

Protestak ostiralean hasi zituzten; hain zuzen, «Ezkerraldeko azken hezegunetzat» jotzen dutenaren lehortze lanak hasiak zirela jakin zuten egun berean. Geroztik, egunero protestak egiten ari dira.

Ezpitsua plataformak lehortze lanak gelditzea eskatu dio epaileari. Izan ere, talde ekologistako kideek atzo azaldu zutenez, «Udalak baimendutako lanak legez kontrakoak dira: batetik, lanok ingurumenaren babes berezia duen inguruan egiten ari direlako, eta bestetik, gune horien eskumena Madrilgo Gobernuaren esku dagoelako». Ingurumen Ministerioaren Kosta Zuzendaritzak Ibarreta-Zuloko hezegunearen garapen urbanistikoa «ahalik eta gehien atzeratzea» eskatu zion Barakaldoko Udalari joan den martxoan. Izan ere, Kosta Zuzendaritzaren arabera, «arrazoi sendoak daude Kosta Legeak inguru hori gune babestu izendatu ahal izateko».

Hezegune horretan, besteak beste, Ikea enpresak saltoki handi bat ireki nahi du. Barakaldoko EH, IU-EB eta PP proiektuaren aurka daude.

JOSU ETXEBARRIOSTE
Ezpitsua taldeko kideak, atzo eman zuten prentsaurrekoan.

HITZ BITAN

ROBERTO DE INOCENCIO PSIKOTERAPEUTA

DROGAK

«Drogak kontsumitzen dituzten nerabeei ulertu egin behar zaie»

Gorane Agirre | BILBO

Roberto de Inocencio psikoterapeuta eta psikodramatistak *Nerabe gaur egun* hitzaldia eskaini zuen, atzo, drogamenpekotasunei buruz Bilbon egiten ari diren jardunaldietan.

Nerabezaroa, egun lehen bezala, krisialdi bat dela dio De Inocenciok. Baina, egungo adin txikikoen kasuan, inguruko gizarte aldaketek krisialdi hori larritu egiten dutela; horrek neska-mutilei antsietatea sortzen diela, eta antsietatea baretzeko drogak kontsumitzen dituztela uste du. Hori dela eta, familiak nerabe horiek «ulertzea» aldarrikatzen du.

■ Gaur egun nerabe izatea zer da?

Aurreko belaunaldietakoekin alderatuz gero, egungo nerabeek bizi dituzten presioak eta gizarte aldaketak oso ezberdinak dira. Familia barruan aldaketak izan dira; emakumea lan merkatuan sartu da; askok 18 urterekin autoa dute, eta lehenago motorra; ez dute ezkondu beharrik sexu-harremanak izateko; Internet bidez ligatzen dute...

■ Beraz, gazteek nerabezaroko ohiko zailtasunei, eta egungo gizarte aldaketei erantzun behar diete.

Hala da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak nerabezaroko aldaketei egin behar die aurre; hau da, familiako, gizarteko, hormonetako eta gorputzeko aldaketei. Baina, horiez gain, gizartean gertatzen ari diren aldaketak ere gainditu behar ditu. Gurasoak, bestalde, egungo munduan berkokatzen ari dira, beraien sasoikoarekin zerikusirik ez duelako.

Gaur egun, gurasoek ikasi ahala, nerabeak beraiek ere ikasten ari dira, aldaketa azkarren aurrean ez dute gidaririk, eta askotan beren gurasoei irakatsi egin behar diete. Era berean, gurasoek ez dute beren seme-alabengandik ikasi nahi. Azkenean, guztiek, aitaamek eta seme-alabek, antsietatea pairatzen dute; eta norberak bere burua defendatzeko, edo errealitatea ukatzen du, edo ez dio ezeri jaramonik egiten.


XOUSE SIMAL

Aldaketa guzti horiek sortzen dioten antsietatea baretzeko gazteak droga kontsumitzen du. Gaur egungo nerabeek badituzte baliabide ekonomikoak droga kontsumitzeko; aurreko belaunaldietakoek izan ez genituenak.

■ Horren aurrean gurasoek nola jokatu behar dute?

Drogak erabiltzeko nerabeak izan dezakeen beharra ulertu egin behar dute gurasoek. Baina, ez dute drogez baliatzeko irizpide bera izan behar.

> «Aldaketek sortzen dien antsietatea baretzeko drogak hartzen dituzte»

Lehendabizi, gurasoek ulertu egin behar dute nerabeak gaur egun bizi duen egoera. Horretaz jabetu ostean, adin txikikoaren antsietatea areagotuko duten faktoreak edo faktore berriak sortzea saihestu behar dute. Hau da, inguru sozialak eta familak ez dute nerabezaroak sortzen duen krisialdia larritu behar.

■ Belaunaldien arteko hutsuneak gurasoen eta seme-alaben artean sortzen duen ulertu ezina gainditu ahal dela uste duzu?

Gaurko nerabeak hezten ari diren gurasoak XIX. mendean sustraitutako baloreen emaitza dira. Beraz, ulergarria da balore etiko, moral eta kultural horien arteko distantzia ikaragarria izatea. Baina ez da gaindiezina.

EUSKARA

Arabako Errioxako euskararen aldeko bizikleta martxa antolatu dute gaurko

Ttiki-Ttaka Arabako Errioxako euskara elkarteak bizikleta martxa antolatu du gaur, urtero legez. Bederatzigarren urtea da euskararen aldeko bizikleta martxa hau antolatzen dutena, eta aurten hiru zutabetan irtengo da. Lehena Bastidatik irtengo da, 15:30ean; bigarrena, Billarretik, 16:30ean; eta azkena Bianatik, ordu berean. Zutabe guztiak Asan elkartuko dira, 18:00etan, Oionerako bidea hartuz. Han, 18:30ean, askaria egingo dute eta dantzaldia izango da, festa amaitzeko. Oiongo San Bizente ikastolako haurrek jarri diote leloa aurtengo bizikleta martxari: *Euskara gainean gurpilen gainean*.

NAFARROAKO ESPETXEA

Espetxea jartzeko Iruñean leku bat aurkitzeko eskatu dio Batzarrek UPNren Gobernuari

Batzarrek mozio bat aurkeztu du Nafarroako Legebiltzarrean, UPNren Gobernuari eraiki nahi den espetxe berri horren kokalekuak Iruñea izan behar duela adierazteko. Batzarre alderdiaren arabera, «egokiagoa» litzateke espetxe berria Iruñean egitea; eta ez, Gobernuak nahi duen bezala, Izarbeibaren. Batzarrek dioenez, nahiz eta egungo espetxe ereduaren kontra egon, espetxe berri bat eraikitzekotan, Iruñean izan beharko luke: «Espetxeak urte asko daramatza Iruñean, eta ez da logikoa erantzukizun hori beste herri batetara eramatea, bertako herritarren nahi ez dutenean, gainera». Nafarroako jende gehiena Iruñean bizi dela nabarmentzen du, gainera, Batzarreren mozioak.

EPAITEGIAK

Nafarroako Gobernuak eta Jaurlaritzak akordioa sinatu dute Madrilekin, epaitegiak arratsaldez ere irekitzeko

Espainiako Justizia Ministerioak justiziaren erreformarako akordio bat sinatu zuen, atzo, zazpi autonomia erkidegoko Justizia sailburuekin. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ere sinatu dute justiziaren erreformarako zortzi puntuko akordio hori. Akordio horrek, besteak beste, epaitegiak arratsaldez ere irekitzea aurreikusten du.

TXEMA FERNANDEZ / EFE

EITBko langileak Iurretan egindako kontzentrazioa.

HELIKOPTERO ISTRIPUA

EITBko langileek hildako lankideak omendu dituzte

EITBko 350 langilek kontzentrazioa egin zuten atzo, Iurreta eta Miramonen, astelehenean helikoptero istripuan hildako hiru lankideekiko omenaldi gisa. Langileak *Lan istripu gehiago ez* zioen pankartaren atzean bildu ziren, Iñaki Pangua, Ruben Cortijo eta Roberto Arenasen heriotzak gogoratzeko. Iurretako kontzentrazioan Andoni Ortuzar eta Bingen Zupiria EITBko eta ETBko zuzendariak ere izan ziren. Bitartean, *Deia*-ko Santiago Yaniz argazkilaria larri dago oraindik, «egonkor» dagoen arren. Gurutzetako erietxekoek atzo adierazi zutenez, baina, ez da haren osasunari buruzko parte berririk kaleratuko, aldaketarik ez dagoen artean.

GARTZAINGO HILKETA

Tiro egin zutenak bi izan daitezkeela diote perituek

Bi forentsek eta balistikako peritu batek deklaratu zuten, atzo, Gartzaingo hilketa dela-eta Iruñeko Entzutegian egiten ari diren epaiketa. Perituek adierazi zutenez, Juan Jose Maioraren kontra tiro egin zutenak bi pertsona izan daitezke, eta ez bakar bat, orain arte uste izan den bezala. Diotenez, tiroak distantzia ezberdinetatik egin ziren, eta horrek esan nahi du edo bi lagunek egin zutela tiro, edo hiltzailea oso iaioa dela eskopetarekin.

KIROLA

Gipuzkoako 36.400 haur eta gaztek parte hartuko dute eskola kirolaren udako kanpainan

Eskola kirolaren udako kanpainan Gipuzkoako 36.400 haur eta gaztek parte hartuko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak haien esku jarri duen eskaintzari jarraituz. Udako kanpaina ekainaren 18an hasi eta irailaren 9an amaituko da, eta 6 eta 16 urte arteko haur eta gazteek parte hartu ahal izango dute antolatzen diren ekimenetan. Luis Bandres Gazteria eta Kirol diputatuak atzo iragarri zuenez, guztira 77 kirol biltzen ditu eskaintza horrek, Gipuzkoako hainbat herritan egingo direnak.

TEKNOLOGIA

Teknologia berrien gizarteratze berdindua jarri du helburutzat e-Gipuzkoa behategiak

E-Gipuzkoa behategiaren lan ildoak teknologia berrien gizarteratze berdindua lortzea, eta on-line bidezko gestio administratiboen zabaltzea izango dira, atzo Roman Sudupe aldun nagusiak eta behategiko zuzendari Joaquin Villak azaldu zutenez.

EUROA. Europako dibisak beherako joera areagotu du, Alemaniako eta Frantziako ekonomia apal hazi dela ikusita eta inflazio altua erakusten duten datuek bultzatuta. Hala, 0,85 dolarrera heldu da, azken sei hilabeteetako kotizaziorik apalena.

Euroa amildu egin da berriz, inflazioak gora egin eta ekonomia apal hazi delako

Europako Banku Zentralak %4,5ean eutsi zien atzo euroaren eremuko interes tasei

Erredakzioa | **BILBO**

Euroak eutsi egin dio aurreko egunetatik zekarren kotizazioaren beherakadari, dolarraren aldean. Europako dibisa azken sei hilabeteetako baliorik apalenera heldu zen atzo bigarren egunez jarraian, eta aste hasierako 0,88 dolarretik 0,85 dolarrera jaitsi da. EBZk truke ofiziala 0,8585 dolarretan ipini zuen.

Adituek atzo ezagututako azken datu makroekonomikoei egotzi diete euroaren azken ahulaldia, hain zuzen Alemaniako eta Frantziako ekonomia ia ez direlako hazi, eta, aldiz, inflazioa igo egin delako.

Europako Banku Zentralak (EBZ) esku hartuko duen zurrumurrua zabaldu zen merkatuetan, euroari laguntzeko dibisa merkatuetan. Franfurteko erakunde ekonomikoak atzo egindako bilkuran diruaren prezioa bere horretan uztea erabaki zuen, baina ez zuen balizko esku-hartzeari buruzko argibiderik eman. EBZk iazko abenduan burutu zuen horrelako azken operazioa merkatuetan, euroa orduan 0,86 dolarretan kotizatzen zenean.

Inflaziorik altuena eurogunean

Euroaren eremuko inflazioa %2,9ra heldu zen apirilean, hau da, euroa 1999aren hasieran sortu zenetik izandako tasarik handienera. Petrolioaren garestitzeak zerikusi zuzena izan du prezio igoera horretan.

Inflazio tasa horri hazkunde ekonomiko gero eta apalagoa gehituta, EBZko agintariek ez dute lan samurra euroguneko diru politika bideratzeko, aldi berean inflazioari aurre egiteko eta ekonomia suspertzeko neurriak hartu beharrean baitira.

Euroaren trukea

Atzo

Euro 1	104,01	yen
Euro 1	0,8585	dolar



Petrolioaren prezioaren eragina

Testuinguru horretan, EBZk interesak %4,50etik ez mugitzea erabaki zuen atzoko bilkuran eta, itxuraz, euroari laguntzeko mugimendurik ere ez zuen egin finantza merkatuetan.

ARNE DEPERT / EPA

Euroa azken hilabeteetako behenean dago, inflazioaren eta ekonomiaren moteltzearen ondorioz.

Europako diru erakundeak behin eta berriro azpimarratu du bere eginkizun nagusia euroaren eremuko prezioen kontrola bermatzea dela. Helburu hori erdi epera lortzeko bidean dagoela uste du banku zentralak, eta urtearen bigarren erdialdean zehar inflazioak joera aldatu eta aurreikusitako %2ko tasara hurbilduko dela iragarri du.

Hala ere, petrolioaren igoerak helburu hori oztopatu egingo duela uste dute adituek, erregai inportazioen eraginez inflazioa gorantz bultzatzen baitu. Ekialde Hurbileko gatazka dela eta, gainera, petrolioak garestitzen jarraituko duela ohartarazi dute aztertzaile ekonomikoak.

AZKEN DATUAK

HAZKUNDE EKONOMIKOA

Europar motoreen geldialdia

Europako ekonomiaren motore nagusiak, Alemania eta Frantzia, hasiak dira dagoeneko geldialdiaren lehenengo seinaleak antzematen. Aurtengo lehenengo hiru hilabeteetako hazkunde datuek hala erakutsi dute: Alemaniako Barne Produktu Gordina (BPG) %1,6 besterik ez da hazi, aurreko hiruhileko %1,9ko tasaren ostean. Frantzian ere BPGren hazkunde tasa %0,8tik %05era jaitsi zen urtarriletik martxora. Bi lurralde hauetan inflazio datuak ere jakinarazi zituzten atzo, eta aurreikusitako emaitzak gainditu egin dituzte: Frantziako inflazio tasa %1,3tik %1,8ra igo zen apirilean, eta Alemaniako igoera ere 0,5 puntukoa izan da maiatzean, %3,5era arte, lehen kalkuluen arabera.

MME

Merkataritza motelduz

Munduko Merkataritza Erakundeak, ekonomiaren moteltzea dela-eta, munduko merkataritzaren hazkundea iazkoaren erdira jaitsiko dela iragarri du. Hala, merkataritza aurten %7a bakarrik igoko da eta iaz, berriz, %12,5 hazi zen. Gainera, etorkizuna «zalantzaz beterik» ageri da, MMEren arabera. Honen aurrean, ekonomiaren liberalizazioa bultzatzea du helburu erakundeak, eta horretarako negoziazioak hasiko ditu azaroan. EEBBek inportazioak gutxitu dituzte, eta honek Kanada, Mexiko eta Karibeko herrialdeetan izango du eragina. Teknologia merkatuetan ere eraginik izango dute, geroz eta gutxiago inbertituko baita.

BURTSA

Europako burtsak beherantz

Euroaren beherakadaren erdian, burtsak egun txarra izan zuen atzokoan. Bilboko burtsak 1,67 puntu irabazi zituen atzo, eta beraz, 1.668,56an geratu zen. Europako burtsek beheranzko joera nabaria agertu zuten. Hala, Parisco CAC 40 Indizeak %1,1 egin zuen atzera eta 5630,74 puntutan geratu zen. Londresko FTSE-100 ere %1,33 jaitsi zen, 5897 puntutan jarriz. Bestalde, Frankfurteko DAXak, itxi aurretik joera bera zuen. Salbuespena Madrilgo Ibex 35 indizea izan zen, beherantz joan arren, azkenean %0,06 egin baitzuen gora, 9.632,6 puntutan geratuz. Azkenik, Wall Streeteko merkatua lehen orduetan 100 puntutik gora jaisten ari zen, azken jardunaldietan gora egin ostean.

ARRANTZA. Eztabaida eragin du goi bilerak herrialdeen artean

I. OTXOA

Bolanta sareak 2002an debekatuko direla ziurtatzeko eskatu diote arrantzaleek Europako Batasunari.

Esteban Olaizola pozik agertu da, ICAATen goi bileraren inguruan

Hurrengo bilkura Murtzian antolatuko da, eta orduan zehaztuko dira kuotak

Joxerra Senar | DONOSTIA

Atzo amaitu zen Bruselan ICAAT Atlantikoko Atunaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen goi bilera, eta lehen itxura batean, Esteban Olaizolak Gipuzkoako Kofradietako Federazioaren buruak balantze «positiboa» egin zuen goi bileraren inguruan.

«Halako bilkurak motelak dira, baina sortu den eztabaida interes handikoa izan da», azaldu zuen Olaizolak, Bruselatik iritsi berri. Hiru egun iraun duen goi bileran atunaren arrantzari buruzko makina bat kontu izan dituzte eztabaidagai. Akordiorik egonez gero, ICAAT erakundeak atunaren harrapaketarako irizpideak ezarriko ditu.

Irizpideok arrantzaleen etorkizunerako bere biziko garrantzia dute. Irizpide horietako bat arrantza teknikak izan daitezke, hain zuzen, arrantzaleek betidanik egin duten aldarrikapenetako bat.

Europako Batasunaren baitan, 1998an ezarritako araudiaren arabera, datorren urtean debekatuko dira bolantak. Hala ere, arrantzaleek zalantzak dituzte Europako zenbait herrialdeek debeku epe hori atzeratu nahi ote duten.

Hala, Itsas Geroa elkarteak herenegun bilkuran parte hartu ahal izan zuen eta zalantzok mahai gainean jarri zituen. Argi eta garbi galdetu arren, Europako Batzordeko ordezkariak, ez zuen alde bateko zein besteko erantzunik eman.

Dena den, Olaizola pozik agertu da Itsas Geroaren parte hartzeaz, eta, iritzi guztien arabera, hitzaldi «garbia eta ondo aurkeztua» izan zen Xabier Ezeizabarrena elkarteko abokatuak eginikoa.

Kuotak izateko eskubidea eztabaida gai

egunean zehar Garapen bidean dauden herrialdeek atunaren harrapaketan kuotak izateko eskubideaz aritu ziren eztabaidan atzo, egunean zehar. Hainbat herrialdek, ez dute atuna harrapatzeko ohiturarik, baina espezie hori haien uretan bilatzen denez, kuota edukitzeko eskubidea aldarrikatu dute. Japonia da herrialde horietako bat. Izan ere, neurriaren alde azalduta, dagokien kuota hori baimen gisa saltzeko bidea baitute.

Haatik, beste herrialde batzuek iritzi diote herrialdeek arrantza flota behar dutela izan, eta kuotak ezin diren salerosi.

Hurrengo goi bilera Murtzian izango da, eta orduan ezarriko dira 2002ko kuotak.

LAN ISTRIPUA

Bi langile hil dira beharrean, Huescan eta Nafarroan, eta beste bat zauritu Hernanin

Erredakzioa | IRUÑEA

Herenegun eta atzo behargin bi hil ziren Huescan eta Nafarroako Argedas herrian. Gainera, beste bat larri zauriturik dago Donostiako Ospitalean, Hernanin istripua izan ostean.

COPISA lantegiarentzat lan egiten zuen Nafarroako Buñuel herriko E.O.G. 57 urteko gizona herenegun hil zen. Ezbeharra Huescako Salillas-Petrusa errepidea moldatzen ari zenean gertatu zen. Gizonari hondea-makina bat gainera etorri zitzaion, eta berehala hil zen.

Atzo, berriz, Juan Ramon E.M., 54 urteko donostiarra hil zen Argedas herrian (Nafarroa). Foruzaingoaren arabera, heriotza Congelados de Navarra S.A. lantegian gertatu zen. Langilea teilatuan ari zen beharrean eta 15 metroko altueratik amildu zen. Hildakoa Ramon Vizcaino SL Taldea enpresarentzako ari zen lanean.

Halaber, beste lan istripu bat gertatu zen atzo Hernaniko Laztaola industrialdean. Hori dela eta, JC.N.M. 42 urteko donostiarra larri dago Donostiako Ospitalean, 350 kiloko langa metalikoak erori zitzaizkiolako gainera. Buruko traumatismoa du.

ENPRESAK

Txinako merkatuari buruzko jardunaldia antolatu du SPRI erakundeak Kursaalean

J. Senar | IRUÑEA

SPRI erakundeak Txinako merkatuak Euskal Herriko enpresentzat dituen aukera, zailtasun eta arriskuen inguruko jardunaldia antolatu zuen atzo Donostiako Kursaal jauregian.

Txina, azken bi hamarkadetan, batez beste %10 hazi da urtean, eta Munduko Bankuaren arabera, 2002an munduko lehen ekonomia izatera iritsiko da. Fernando Olaizola SPRIko Asiako buruaren arabera Europako Batasuna baino zazpi aldiz bizkorrago aldatzen ari da.

Hala ere, MQM nazioarteko aholkularitza enpresako Alejandro Molinsek zehaztu zuen Txinako kultura, ikusmolde eta legedia erabat desberdinak direla eta bertara egokitu beharra dagoela.

Adibidez, atzerriko enpresa gehienek Txinako bazkide batekin elkartu ohi dira herrialdean barneratzeko. Bazkide horrekin kontratua sinatzeko negoziazioak, bataz beste, bi urte iraun ohi dute. Hala, Diego Labarquilla Savera Groupeko lehendakariarentzat hiru baldintza dira beharrezkoak: «Pazientzia, pazientzia eta pazientzia».

Phillips Internet Consulting
Designing the marketing for the new millenium
Web agentzia / Web gune hedapena eta kontseiluak
www.phillips-internet.com <http://www.phillips-internet.com/>
Tel : 00 33 559 010 290

METALA. Sindikatuak Aceraliaren bat-egitearen aurrean, mesfidati

LAB

LAB eta CGTk elkarretaratzea egin dute Parisen

LAB eta CGT sindikatuek deiturik, 400 pertsona inguruk elkarretaratzea burutu zuten atzo Parisen, Usinor, Arbed eta Aceraliak iragarritako bat-egitearen aurrean, langileen baldintzak errespeta ditzatela aldarrikatzeko. Mobilizazioaren ostean, bilera izan zuten Usinor enpresako zuzendaritzarekin. Bilerara CGTko 6 kide eta LABeko beste lau ordezkari joan ziren, Angel Mateos metaleko idazkaria horien artean. Zuzendaritzak adierazi zien ez zutela zertan beldurturik, fusioak enpleguan ez duelako eraginik izango eta, Bruselaren erantzunaren zain, prozesua geldiezina zela. Hala ere, Mateosek argitu zuenez, sindikatuak fidagaitz azaltzen dira bat-egitearen aurrean.

LAN GATAZKA. Bi aldeak arratsaldean egin bileran ez zuten akordiorik lortu

Patronalarekin izan bilerak porrot egin duenez, autobus garraiolarien grebak jarraitu egiten du

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Nafarroako autobus garraiolariek laugarren greba eguna dute gaur, atzo arratsaldean, patronalarekin egindako bileran ez zelako akordiorik lortu. Sindikatuen aburuz, enpresarien proposamena «tamalgarria» izan zen.

Nafarroako Garraiolarien Enpresa Elkarteak (ANET) eta UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuek atzo arratsaldean egindako bilerak ez zuen lortu Foru Erkidegoko garraiolarien eta patronalaren arteko aldeak saihestea. Arratsalde osoan luzatu zen bileran, patronalak mahaian jarritako lan hitzarmen proposamena «penagarria» zela adierazi zuen, hitzorduaren ondoren, Luis Aristu, ELAko ordezkariak. Enpresariek deituta joan ziren bilerara langileen ordezkariak. Sindikatuen ustez, patronalak «grebaren benetako arrazoiak ulertu gabe jarraitzen du».

Funtsik gabeko eskaintza

Patronalak egindako lan eskaintzan, autobus gidarientzat 2.700 pezetako plusa proposatu zuen. Sindikatuek ez zuten gaia eztabaidatu nahi izan, uste dutelako enpresariek ez dutela ikusi nahi «benetako arazoa».

Aristuk ohartarazi zien langileek soldata igoera lineala eta lan ordutegia murriztea eskatzen dutela. Langileek eskatzen duten 30.000 pezetako soldata igoeraz ez zuten hitz egin nahi izan enpresariek, ezta ordutegiaz ere. Alorrean lanean diharduten 600 autobus gidariek lan ordutegia murrizteko eskatu dute, maiz, egunean 12 orduz aritzen direlako beharrean.

Sindikatuen esanetan, «egoera bilera aurrekoa da», eta gaur grebak jarraituko du. Bileran bi aldeak hitz egindakoaren berri Iruñeko autobus geltokian eginen den 12:00etako batzarrean emanen zaie langileei, gaur.

BURTSA. Inditexen burtsaratzeak berotu zuen atzoko giroa merkatuan

Moda modako Everest

J. B. Andueza

Vallejo eta Oiartzabal Everestetik bueltan zirela, Galiziako Inditex arropa eta moda enpresak kotizazioaren gailurra jo zuen. Inbertsiogile txikiei 14,7 eurotan saldutako akzioek, egun bakarrean %22 pasa irabazi zuten, 18 euroan itxi baitzuen akzioak. Garaiera gaitzik ez zuen jasan eta 80 milioi akzio eskuz aldatu ziren atzo. Ibex-35era bidean izan liteke Zara arropa katearen jabea. Bestela, ezin esan egun ona izan zenik. Negoziazioa 1.100 milioi euro baino ez zen, INSEEk Frantziako KPI %1,8ra igo dela jakinarazi zuen eta Alemaniako BPG %1,6 baino ez da hazi aurtengo lehen hiruhilekoan. Berri onik ez euroarentzat.

DATUA

Frantziako EdF argindar enpresak Italiako Montedison taldearen %20 beregana tu du. Frantzian duen babesa eta indarra baliatuz, Hexagonotik kanpo inbertsioak egiten ari da eta horrek errezeloa piztu du. Italiako taldeak aseguruak, argindarra, ingeniaritza... jorratzen ditu.

LABURRAN

Gipuzkoako Lan Ikuskaritzak garbitzaileen grebarekiko duen jarrera salatu dute sindikatuek

ELA, ESK, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek Gipuzkoako Lan Ikuskaritzak garbitzaileak egiten ari diren grebarekiko duen jarrera salatu dute. Sindikatuek diotenez, enpresak langile berriak kontratatzen ari dira grebari aurre egiteko. Grebalariek behin eta berriz salatu dute hau, baina Lan Ikuskaritzak entzungor egin die. Sindikatuek diotenez, honen bidez Lan Ikuskaritza enpresarien alde lerrokatu da, eta hargatik bere kontrako salaketa bat jartzea pentsatzen ari dira.

Elkarkidetzak %3,7ko errentagarritasuna lortu zuen iaz

Elkarkidetza aurreikuspen sozialerako erakundeak %3,7ko errentagarritasuna lortu zuen iazko urtean. Jon Zabaliak, erakundeko presidenteak, emaitza ona izan dela dio, «kontutan izaten badugu antzeko beste erakunde batzuk galerak izan zituztela». Antzeko beste erakundeekin lanean ari da, zaharren egoitzak eraikitzeko. Irunen bat irekitzekoak dira urtarrilean.

Euskaltelek ia 3.000 milioitan handituko du bere fondoa

Euskalteleko akziodunen batzar orokorrak bere fondoan 2.994 milioi pezeta gehiago sartzea erabaki du. Erabakia akziodun guztiek hartu dute, eta dirua duten partehartzearen arabera jarriko dute. Azken sei hilabeteetan 15.473 milioi pezetatan handitu dute fondoa, eta oraingoekin jada 46.000 milioikoa izango du. Honela, inbertsioekin aurrera jarraitu ahal izango dute.

Deutsche Bankek datozen bost urteotan 30.000 bezero lortu nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan

Deutsche Bank banku alemaniarrak datozen bost urteotan 30.000 bezero lortu nahi ditu EAEn. Merkatuaren %6a suposatuko luke horrek, eta horretarako 25 bulego eta 50 finantza agente berri jarriko ditu. Aurrerapauso handia da, gaur egun sei bulego eta bi agente independente besterik ez dituela kontutan hartuz gero. Espainian ere zabaldu nahi dute, eta 750 bulego berri irekiko dituzte.

Patronalak, CCOOK eta UGTk bilera bat eskatu dute Espainiako Lan ministroarekin

UGT eta CCOO sindikatuek eta patronalak bilera bat egiteko eskatu diote Espainiako Lan ministroari, negoziazio kolektiboaren gaineko gaiak zehazteko. Bi aldeak bat datoz negoziazioak 1997ko akordioan izan behar duela oinarria. Candido Mendez UGTko idazkariak datorren astean hasi nahi ditu negoziazioak.

Irizar autobus enpresaren salmentak %22 igo dira aurtengo lehen hiruhilekoan

Irizar enpresak %22ko igoera izan du salmentetan aurtengo lehen hiruhilekoan. Horrek 14.620 milioi pezetako etekinak eman dizkio, iaz baino 3.000 milioi gehiago. Ekialde Hurbileko gatazkak kalte egin badio ere, munduan gorantza egin dute: Mexikoko adarrak %100 baino hazkunde handiagoa izan du.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia	Azken indizea	Aurreko indizea
+%0,10	1.668,65	1.666,98



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	11.163,15	(-%0,84)
Tokio (Nikkei)	14.067,7	(-%0,17)
Madril (IBEX-35)	9.632,60	(+%0,06)
Paris (CAC-40)	5.630,74	(-%1,10)
Londres (FTSE 100)	5.897,40	(-%1,33)
Frankfurt (DAX)	6.215,25	(-%0,88)
Milan (Mibtel)	28.012	(-%0,32)

* Eguerdira arte

Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,8585
Libra Esterlina	0,6037
100 Yen (Japonia)	1,0401

PALESTINAKO 'INTIFADA' GELDIARAZTEKO PROPOSAMENA. Jasser Arafat Palestinako Aginte Nazionaleko presidenteak baldintza jarri du, israeldarrek txosteneko aholku guzti-guztiak errespeta ditzatela, Sharon lehen ministroaren su-eten deia onartzeko.

Mitchell Txostenak eskaini «aukera» baliatzeko eskatu die Bushek bi aldeei

Senatari estatubatuar ohia Ekialde Hurbilera iristekoa da gaur berak zuzendutako batzordearen aholkuen inguruan palestinar eta israeldarrak ados jartzen saiatzeko

Erredakzioa | **DONOSTIA**

George Mitchell EEBBetako senatari izandakoak zuzendutako batzordeak Ekialde Hurbileko altxamendua geldiarazteko egindako txostenak eskainitako «aukera» baliatzeko eskatu zien atzo George W. Bush Estatu Batuetako presidenteak Ariel Sharon Israelgo lehen ministroari eta Jasser Arafat PAN Palestinako Aginte Nazionaleko presidenteari telefonoz. Etxe Zuriaren arabera, biek adostu zuten Bushekin aholkuak indarrean jartzeko egutegi bat finkatzea.

Sharonen su-eten deia onartzeko Israelek Mitchell Txostenaren aholku guztiak errespetatzea jarri zuen Arafatek baldintzatzat, Parisen, Frantziako lehen ministro Lionel Jospin eta Hubert Vedrine Atzerri ministroarekin egindako bileraren ondoren. Txostena «osotasun banaezina» zela adierazi zuen.

PANeko idazkari Ahmed Abdel-Rahmanek «trikimailutzat» jo zuen su-eten iragarpena: «Su-etenaz hitz egitea okerra da Palestinako jendearen kontrako erasoak besterik ez baitaude, ez da su-etena behar duen gerra». Tel Aviveko gobernuak, berriz, espero du Mitchellekin bildu ondoren Arafat su-etena onartzera behartua sentitzea. Gaur da senatari ohia Ekialde Hurbilera iristekoa; Mitchell txostenaren egileetakoa den Javier Solana —Europako Batasuneko Atzerri Politika eta Segurtasun komisarioa— Sharonekin bildu zen atzo.

Bushek ontzat eman zuen su-eten iragarpena, Etxe Zuriko bozeramaile Ari Fleischerren esanetan, eta palestinarrengandik «antzeko adierazpen bat onartuko luke».

Liskarrak etenik gabe

Anartean, Sharonek herenegun gauean su-etena aldarrikatu arren, gatazka giroa zegoen atzo ere Palestinan. Tel Aviveko irratiaren arabera, palestinarrek israeldar bat hil eta beste bat zauritu zuten Zisjordania iparraldeko eremu judu batean. Liskarretan 25 palestinar izan ziren zaurituak. Palestinako iturri ofizialek esan zuten Israelgo tankeek eraso egin zutela, eta soldaduak Gazan sartu zirela.

Armadako bozeramaile Olivier Rafowicz koronelak, ordea, ukatu egin zuen Gazan sartu izana. Konponketa lanak besterik ez zituztela egin, eta Israelen aldean izan zela adierazi zuen Rafowiczek. Horrez gainera, astearte eguerditik su-etenean egon dela nabarmendu du Tel Aviveko Armadak.

Mitchellen ondorioak

Palestinarren altxamendua geldiarazteko zera proposatzen du Mitchell Txostenak: palestinarrek %100eko ahalegina egitea «ekintza terroristak» saihestu eta egileak zigortzeko, Israelek armarik gabeko palestinarrei ez erasotzea, eta eremu judu gehiago ez eraikitzea.

Ariel Sharonek irail amaieran Meskiten Zelaira egindako bisita ez du jo altxamenduaren eragiletzat, baina «gaizki planifikatuta» zegoela eta eragin probokatzailea neurtu behar zuela azpimarratzen du.

ADEL HANA / AP

Kaputxaz estalitako emakume bat atzo, ostiralean Israelgo Armadak zauritu eta herenegun hil zen polizia palestinar baten irudien atzean.

'INTIFADA'-REN HASIERA

Meskiten Zelaira joan aurretik Sharonek eragin probokatzailea aurreikusi behar zuen, Mitchell Txostenaren arabera

AHMED ABDEL-RAHMAN

PANeko idazkaria

«Su-etenari buruz hitz egitea okerra da, Palestinako jendearen aurkako erasoak besterik ez baitaude»

Golango bake misioa luzatzea aztertzen ari da Nazio Batuen Erakundea

Agentziak | **GENEVA**

Kofi Annan NBE Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak Golango bake misioa beste sei hilabetez luzatzeko egindako proposamena aztertu zuen atzo NBEko Segurtasun Kontseiluak —maiatzaren amaieran bukatuko da misioaren agintaldia—. Azaroaren 30a arte nazioarteko indarrak Golango Gainean izatearen alde egin du Annanek, bere arabera, «ezinbestekoa» baita egungo egoeran.

Ekialde Hurbileko egoera «potentzialki arriskutsua» dela adierazi du Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak; «baliteke hala izaten jarraitzea, arazoaren alde guztiak hartuko dituen irtenbide bat aurkitzen ez bada», gaineratu du.

Siria eta Israelen arteko zonaldea eta NBEren misioa dagoen lekuan egoera orokorra lasaia da, Annanen arabera, Xaban izan ezik —Libano eta Siria arteko mugan—.

NBEko indarra 1974an ezarri zen Golango Gainean, Siria eta Israelek hitzartutako su-etenaren eta tropen erretiratzearen ondoren.

BALKANAK. Jugoslaviatik bereizteko erreferendum legea zehazteko eskatu dute liberalek

Montenegroko Gobernua gutxiengoan osatuko du Djukanovic presidenteak

Aliantza Liberala alderdiak presidentea lagunduko du, independentziaren alde eginez gero

Agentziak | **PODGORICA**

Gobernua gutxiengoan osatuko duela iragarri zuen asteartean Milo Djukanovic Montenegroko presidenteak, independentziazale sutsua den Aliantza Liberala alderdiak Legebiltzarrean laguntza emango diola agindu ondoren.

Gobernua gehiengoan osatzeko koalizio bat egiteko hilabete batez negoziatu ondoren, bertan ez sartzea erabaki zuen astelehenean Aliantza Liberalak. Djukanovicen gobernuari Legebiltzarrean sostengua ematea hitzartu zuten, halere, hauteskundeetan sei eserleku lortu zituzten liberalek.

Djukanovic buru duen Jugoslaviatik bereiztearen aldeko koalizioak Legebiltzarreko 77 eserlekuetatik 36 lortu zituen joan den hilean eginiko hauteskundeetan. Serbiako Errepublikarekin batera federazioa osatzen jarraitzearen aldeko koalizioak 33 eserleku eskuratu zituen.

MILOS BICANSKI / EPA
Milo Djukanovic Montenegroko presidentea.

Ildo independentziazalea bultzatu

Djukanovicen SDS Sozialista Demokraten Alderdiaren ildo independentista indartzea espero dute liberalek. Montenegroko presidenteak independentzia erreferenduma noiz egingo den behin betiko erabaki dezan eskatu diote liberalek SDSri, Legebiltzarrean jasoko duen laguntzaren truke.

Djukanovicen SDSk eta SDP Alderdi Sozialdemokratak osaturiko koalizio gobernuaren iraupena Aliantza Liberalaren eskuetan izango da.

«Aliantza Liberalak gutxiengoko Gobernuari laguntzea erabaki duela kontuan hartuta, DPSk Montenegroko estatutuaren berritzea eta errepublikaren egonkortasuna eta garapena bideratzeko betebeharra bere gain hartzea onartu du», esan zuen Filip Vujanovic DPSko presidenteorde eta Montenegroko egungo lehen ministroak.

Gaur osatzeko da Montenegroko Errepublikako Legebiltzar berria.

Independentzia erreferenduma noiz egingo den ez dago argi oraindik, hala ere. Montenegroko presidenteak hasiera batean ekainerako iragarri bazuen ere, bederatzi bat hilabete beharko zituela esan zuen duela aste batzuk.

Tetovon borrokak hasi dira berriz, Mazedoniako Poliziak segada bat jasan ondoren

Agentziak | **SKOPJE**

Borrokaldia berriz piztu da Mazedoniako bigarren hiririk handiena den Tetovon, gerrillari albaniarrek zazpi polizia segada batean zauritu ostean.

Tetovo inguruko mendixketan lasaitasuna izan da gutxienez bi astetan, baina duela hiru hilabete, gatazka hasi zenean, gerrillari albaniarren eta Mazedoniako indar armatuen arteko borrokagune gorienetakoa izan zen.

Gatazka areagotu zen atzo goizean Skopje hiriburutik iparraldeko mendietan gerrillarien eskuetan dauden Orizari, Slupcani eta Vaksinci herrietan.

Mortairuen bidez eraso zioten Poliziaren ibilgailu bati gerrillari albaniarrek Tetovoko inguruetan astearte gauean. Tetovo eta Popova Sapka hiriak lotzen dituen errepidean zauritu zituzten zazpi poliziak. Segurtasun indarretako eledun batek aditzera eman zuenez, erasoa izaniko ingurura soldaduak eraman zituzten berehala eta gerrillariei «indarrez erantzun» zieten. Leherketa handiak eta tiro ugari izan ziren, hainbat berriemaileren arabera.

Mazedoniarekin muga duen Bulgariak nazioarteko bake indar bat bertara bidaltzeko eskatu zuen atzo. «Gero eta zailago egiten zaigu denoi Mazedoniako agintariak egoera latz honi aurre egiteko gai direla pentsatzea» adierazi zuen Bulgariako Gobernuko ordezkari batek Sofian.

VALDRIN XHEMAJ / EPA
Nazioarteko soldadu bat iheslari albaniarrak laguntzen atzo.

ALEMANIA

Nazien esklaboentzako kalte-ordainak eskatzeko epea luza daiteke

Agentziak | **BERLIN**

Nazien esklabo izandakoek kalte-ordainak eskatzeko duten epea luzatzeko eskatu zioten atzo Alemaniako Legebiltzarrari hainbat erakunde eta sindikatuk.

Azken hilabeteotan Estatu Batuetako epaitegiekin izaniko tirabiren ondoren, ordainketak hasteko bidea libre ikusten zuela iragarri zuen asteartean Alemaniako industriak.

Segurtasun legala, hau da, etorkizunean beren kontrako salaketa gehiago onartuko ez zutela ziurtatzea eskatzen zieten enpresetako abokatuek EEBBetako auzitegiei.

Naziek Jazarritakoen Elkarteko zuzendari Lothar Eversek eskaerak egiteko epea luzatzeko eskatu zuen, bizirik dauden beharturiko milioi inguru langile ohiri kalte-ordainak jasotzeko aukera emateko.

Eversen arabera, biktima askok ez dute oraindik eskaera egin, kalte-ordainak sekula emango ez zirela uste zutelako.

Eskaerarekin bat egin du Metalaren arloko IG sindikatuko presidente Klaus Zwickelek. Epea luzatzeaz gain, enpresei artxiboak irekitzeko eskatu zien Zwickelek, hainbat biktimak eskaera egiteko behar dituzten agiriak eskuratzerik izan dezaten.

Segurtasun legalaren inguruko eztabaida

Datorren asteazkenean segurtasun legalaren inguruan da eztabaidatzeko Alemaniako Legebiltzarra, Peter Struck sozialdemokrata taldeko ordezkariak atzo iragarri zuenaren arabera,

Struckek aditzera eman zuenez, ekainaren bukaera eta uztaila erdia artean hasiko dira lehenengo kalte-ordainak ematen.

Gerhard Schroeder kantzilerrak burokraziarik gabe eta azkar ordaintzeko alde agertu zen bere gobernuaren aurrean. Industriak kalte-ordainei ekitea erabaki izana pozik hartu zuen kantzilerrak.

KORSIKA. Nazionalisten iritzian, legegaia gutxienekoan geratu da, eta eskuinekoen aburuz, aldiz, eskumen gehiago lor zitekeen

Autonomia legegaia hobetu nahi dute hautetsi gehienek

Senatuan eztabaidatzea eta Legebiltzarrean berraztertzea baliagarri izatea espero dute

Erredakzioa | DONOSTIA

Frantziako Asanblea Nazionalean Lionel Jospin lehen ministroak Korsikarentzat bultzatutako estatutu berria lehen bozkaldian onartzeak ez ditu erabat pozik utzi haren alde dauden korsikar hautetsiak. Haiek espero dute Senatuan datorren urrian eztabaidatzea eta Legebiltzarrean bigarren aldiz aztertutzea legegaiari hobekuntzak ekartzeko baliagarri izango dela.

Jean-Guy Talamoni Corsica Nazione abertzale egiturako hautetsiaren iritzian, iragan asteartean Frantziako diputatuek onartutako testua gutxienekoan geratu da, eta oro har «oso eskastzat» jo du. «Sozialistak ez dira gai izan eskuineko eta ezkerreko agintari politikoen presioei buru emateko», eman du aditzerat Talamonik.

Korsikako Lurralde Asanbleari Frantziako legeak egokitzeko ahala emango dion estatutu berriko lehendabiziko arauari dagokionez, hauxe esan zuen hautetsi abertzaleak: «Ez dator bat 2000ko uztailean Gobernuarekin izan genuen elkarrizketan hitzartutakoarekin; gainerat, nekazaritza, arrantza eta basoen kudeakuntza alorretako eskumenak ez zaizkio eman Korsikako Lurralde Asanbleari».

Talamonik tamalezkotzat jo zuen fiskalitate arloari dagokionez legegaiak oraingoz hitzartzen duena: «Korsikako gizarte eta ekonomia garapenerako premiazkoak diren baliabideetatik bakar bat ere ez baita agertzen».

JEAN BAGGIONI

Lurralde Asanbleako exekutibo burua

«Onartezina da arazorik sor ez lezaketen eskumenak ez onartzea, guretzat horiek funtsezkoak dira-eta»

Jean Baggioniren iritzi kritikoa

Ikusmolde horiekin, gutxi gorabehera, bat dator Jean Baggioni Korsikako Lurralde Asanbleako kontseilu eragileko presidente eta RPR alderdi eskuindarreko kidea. Ezen, haren aburuz, «onartezina da ez diezazkiguten eman arazorik sor ez lezaketen eskumen batzuk, haiek, alta, funtsezkoak direlarik gure instituzioak modu eraginkorrean ibili daitezen».

Hortaz, Baggioniren iritziz, «atal horietan legegaia ez balitz hobetua, Korsikak ez luke bere esku izango zinezko garapen politika baten bitartekorik». Hitzetan zuhurrago ari izan zen arren, Lurralde Asanbleako presidente Jose Rossik aditzerat eman zuen espero duela estatutu proiektuari oraingoz Frantziako lege instituzioetan egiteko geratzen zaion bidea onuragarria izango dela eskumen transferentzien kontuan hobekuntzak lortzeko. Korsikari autonomia mugatu bat emango dion estatutu berriaren aurkari bipila agertu den Emile Zuccarelli ezkerrekoak, berriz, espero du legegaiari egingo zaizkion aldaketak ez direla Frantziako Konstituzioarekin bateraezinak izango. «Baina kezkagarriena 2004tik bultzatuko den etapa da; ordutik aurrera, Korsikak ez luke izan behar salbuespena Frantziako Konstituzioaren alderat».

Alderdi berekoa izan arren, jarrera horrekin ez dator bat Paul Giaccobi Korsika Garaiko Kontseilu Nagusiko presidentea, pozik agertu baitzen Frantziako Asanblea Nazionalak eman oniritziarekin.

MICHEL LIPCHITZ / AP

Lionel Jospin Frantziako lehen ministroa, Asanblea Nazionalean.

'HURBILTASUNEKO DEMOKRAZIA'

Gobernuak dezentralizazioari beste bultzada bat eman gogo dio

1982. urtean, Gaston Deferre Barne ministro sozialistaren eskutik abian jarri zen dezentralizazio politikari beste bultzada bat emango dion «hurbiltasuneko demokraziaren aldeko legegaia» onartu zuen atzo Frantziako Ministro Kontseiluak. Testu hori ekainaren 12tik aurrera eztabaidatuko dute Asanblea Nazionalean. Horren barruan zehaztuko dira Frantziako eskualdeei Parisek utz liezazkiekeen eskumenak. Haatik, atal horri dagokionez, Daniel Vaillantek ez zuen argibide askorik ekarri, eskumen horiek «sinpleenak eta adostasun zabalenekoenak» izan behar dutela baizik. Haatik, eskualdeei eskumenak uzteko baino gehiago, legegaiak udalerrietako funtzionamendu demokratikoa hobetzeko xedea du.



Borreroaren testigantza

TORTURAK ALJERIAKO GERRAN. Aussaresses jeneralak herrialde arabiarrak independentzia lortzeko gudan egindako torturak aireratu izanak Frantziako iritzi publikoa astindu du

Ander Fadda | NAONED

Kaleratu berri den liburu batean Paul Aussaresses jeneralak eginiko aitorpenak eta Aljeriako gerrako sarraskien berri izateak Frantziako gizartea kolpatu dute. Giza Eskubideen Ligak krimenen apologia, gerra krimenak eta gizateriaren aurkako krimen salaketak jarri ostean, prozesu judiziala aurrera doa. Hala, Alain Richard Defentsa ministroak Aussaresses militarra zigortzeko eskatu du.

Paul Aussaresses jenerala, 1957an Frantziako Armadak Aljerian zituen informazio zerbitzuen koordinatzailea, ezaguna egin da berriro, 'Zerbitzu Sekretuak 1955-1957' haren memoria liburuan ehunka aljeriar torturatu eta exekutatu zituela aitortu eta gero.

Azken asteotan Frantziako komunikabideetan gai horrek azal gehienak bete dituen arren, *L'Humanite* egunkari komunistak iazko udan hasi zuen Armadak Aljerian eginiko torturak salatzeko kanpaina. Hala ere, egun, gai horren ikerketa bultzatzen duten politikari eta komunikabideak salaketa ekinaldia isilarazten saiatu ziren orduan.

Torturatzaile nagusienetakoak liburu bat kaleratu izanak haserrea eragin du, bai prentsa idatzian, bai irratian. Frantziako iritzi publikoak tabutzat du garai hori, eta belaunaldi berriek, aldiz, ez dakite haren inguruko ezer askorik.

Zinismoz betetako kontakizunean, Aussaressek ez ditu Aljerian eginiko gerra krimenak ezkutatzen. Aitzitik, jeneral frantziarrak aitortzen du, beharrezkoa balitz, berriz ere ekintza horiek errepikatzeko prest legokeela. Horrek guztiak iritzi publikoa izutzeaz gain, Parisko goi agintariak haserrarazi ditu. Aussaressen aitorpenek, halaber, azpimarratzen dute orduko Gobernuak zeresana izan zuela. Haren arabera, Gobernuak baimena eman zuen Aljeriaren independentziaren alde borroka egiten zuten milaka aljeriar eta frantziar torturatu, desagerrarazi edo erailtzeko.

Hilketak eta desagerpenak

Iazko urriaren 31n hamabi pertsona ospetsuk osatutako ordezkaritzak, Frantziaren izenean Aljerian eginiko torturak gaitzesteko eskatu zion Jospin lehen ministroari eta Jacques Chirac presidenteari. Ondorioz, Aljeriako operazio militarren arduradun Massu jeneralak damua adierazi zuen. Aussaressen adierazpenek, halaber, Bigeard jenerala ere jarri dute kolokan, baita Aljerren izan ziren zenbait politikari gaullista eta PSFko hainbat kide ere.

Villa Sesini, militar frantziarrek Aljerren zuten tortura gunetik milaka aljeriar eta ehunka komunista frantziar pasa ziren. Ben M'Hidi FLN Nazio Askapenerako Fronteko buruzagia aipa daiteke horien artean. Hura atxilotu, torturatu eta hil ostean, bere burua hil zuela zabaldu zuen Frantziako Armadak. Militarrek zibilak, komunista frantziarrak, eta Aljeriako Alderdi Komunistako kideak torturatu eta desagerrarazi zituzten.

Maurice Audin izan zen haietako bat. Gazte komunista 1957an atxilotu zuten eta Villa Sesinira eraman eta gero, ez zen haren berririk izan. Haren gorpua ez zen inoiz aurkitu, eta Aussaressek adierazi zuenez, Audinek ihes egin zuen. Iritzi publikoaren arabera, aldiz, militarrak bere lagunak babestu nahi ditu adierazpen horiekin.



MICHEL LIPCHITZ / AP
Paul Aussaresses jenerala, Aljeriako torturei buruz idatzitako liburua eskuan duela.

DESERTZIOAK

Kontzientzien errebolta

Nazien aurkako erresistentziarekin izandako hainbat militar frantziarrek ere euren kideen haserrea sufritu zuten Aljeriako gerraren aurkako iritzia azaldu ostean. Jacques de La Bollardiere 'Frantzia Aske'-ko militar kondekoratuena da horren adibide garbia. Hura izan zen torturak, desagertzeak eta exekuzioak salatu ostean, 'goi traizioagatik' kartzelatutako lehen jenerala. 1961ean dimititu zuen, eta armen aurka eta bakearen eta herrien independentziaren alde lanean hasi zen.

Alban Liechti eta Fernand Iveton militarrak ere aipa daitezke. Lehena, Frantziako Alderdi Komunistatik gertu zegoelako atxilotu zuten. Bigarrenak zorte okerragoa izan zuen eta Aljeriako Alderdi Komunistako kidea izateagatik torturatua eta gillotinatua izan zen 1956an.

Frantziako Armadaren barruan desertzioa ohikoa bilakatu zen. Gehienak Marokoko mugara iristen saiatzen ziren. Indotxinako gerran bezala, pentsamendu komunista zuten zenbait buruzagi eta soldaduk FLNrekin bat egin zuten. Beste batzuk, aldiz, sarraski horietan parte hartu nahi ez izateagatik kartzelatuak izan ziren. Zapalkuntza kolonialetik ihes egin nahi zuen herri baten aurkako gerra zitala eta bidegabea zen hura guztientzat.

TXINA-EEBB

Bushek Dalai Lamarekin egin bilerak bi herrien arteko tentsioa areagotu du

Erredakzioa | DONOSTIA

George W. Bush Estatu Batuetako presidentea Dalai Lama Tibeteko lider erlijiosoarekin bildu zen atzo Washingtonen, eta Txinaren haserrea piztu zuen. Izan ere, azken egunetan Dalai Lamak eta Taiwango presidente Chen Shui-bianek EEB-Betara egin duten bisitak areagotu egin du Pekin eta Washingtonen arteko tentsioa.

Bere barne auzietan nahastea egotzi die Txinak Estatu Batuei. Washingtonek esan duenez, Dalai Lama «lider erlijioso» gisa hartu du Bushek, ez buruzagi politiko modura. Dalai Lama lider erlijiosoa barik «erbesteratu politikoa» dela argudiatu du, ordea, Txinak. EEBBetako Estatu idazkari Colin Powellekin ere bildu zen atzo Dalai Lama, Txinak Tibet okupatu zueneko 50. urteurrenean.

Taiwango independentistei bultzada

Pekingo Gobernuak gogor egin du azken egunetan Chen Shui-bian Taiwango presidenteak New York hirira egindako bisitaren aurka. Beste batzuen artean, New Yorkeko alkate Rudolph Giulianirekin eta Robert Wexler kongresukide errepublikanoarekin bildu da bertan Shui-bian.

Txinako Atzerri ministrorde Zhou Wenzhongek atzo adierazi zuenez, «Washingtonek Taiwan independente izatea nahi duten indarren harrokeria puztu du» Shui-bianek EEBBetara egindako bisitarekin.

Era berean, Txina eta EEBBen arteko harreman diplomatikoen oinarriak apurtu izana leporatu zion Wenzhongek Washingtoni. Hala, Taiwango presidenteak egindako bisitak bi herrialdeen arteko harremanak «serioski okertu» dituela esan zuen Atzerri ministrordeak.

Txinak harreman diplomatikoak dituen herrialdeek Taiwanekin edozein motatako harreman ofizialak izatearen aurka egin du beti Pekinek.

HITZ BITAN

KONGO. Kabilaren heriotzari buruzko ikerketa

Batzorde ofizial baten arabera, Ruandak eta Ugandak eragin zuten presidentearen hilketa

Agentziak | KINSHASA

Kongoko Errepublika Demokratikoko Gobernuak Laurent Kabila presidentearen hilketa ikertzeko antolatutako batzorde ofizialak Ruanda eta Ugandako agintariak kulpatu ditu magnizidioaren inguruko lehen datuak plazaratzeko egindako txostenean. Talde horrek Kabilaren aurkako oposizio taldeei leporatu die zuzenean hiketaren erantzukizuna, baina argi zehaztuz, erreboltariei laguntzen dieten estatuak —Ruanda eta Uganda— hilketaren atzean zeudela, bere ustez.

Batzorde horretako buru Luhonge Kabinda Ngoyk prentsaurreko batean adierazi zuen atzo, matxinoek eta «haien lagun atzerritarrek» parte hartu zutela Laurent Kabila presidentea hiltzeko konplotean.

Demokraziaren Aldeko Kongoko Batasuna oposizioko taldeak, aldiz, ukatu egin zuen informazio hori.

Oposizioaren ekintza

Ngoyk zuzendutako batzordea Kabilaren seme eta oraingo presidente Joseph Kabilaren aginduz osatu zen. Taldeak alboko zenbait herrialderen laguntzarekin lan egin du.

Hasiera batean «konspirazio handi bati» egotzi zion Kinshasak Kabilaren hilketa, eta ez zuen onartu nahi izan oposizioko taldeen ekintza izan zitekeenik. Orain, baina, onartu egin du hori.

THEMBA HADEBE / AP

Kabilaren hileta, urtarrilaren 21ean. Kinshasak hilketari buruzko ikerketaren berri eman zuen atzo.

Hiltzailea —Kasereke Rashindi 21 urteko gaztea— Kabilari tiro egin eta une batzuk geroago hil zen, presidentearen bizkartzain batek —Edy Kapend— tirokatuta.

Kapend kartzelan dago egun, hilketarekin zerikusia izan zuelakoan. Agintariek susmoak dituzte Kabilaren kontrako konplota ez ote zuen berak planifikatu.

Beste iturri batzuek, baina, xiita taldeei egotzi diete hilketa. Presidenteak Kongoko diamanteak ustiatzeko Israeli emaniko monopolioa izan zen, horien arabera, ekintzaren arrazoia.

ESTATU BATUAK

Baliteke errepublikanoek Senatuaren kontrola galtzea disidente batek taldea uztean

Demokratek Estatu Batuetako Senatuaren agendaren gaineko kontrola eskura dezakete, James Jeffords senatari errepublikanoak bere taldea utzi eta independente bihurtzeko hartu duen erabakia gauzatuz gero. Behin-betiko erabakia gaur zabalduko duela iragarri du Jeffordsek. Errepublikanoen taldea uzten badu, baliteke demokratek senatuko batzordeen presidentzia eskuratzea eta lege egitasmoak eztabaidatzeko egutegia kontrolpean hartzea.

ARGENTINA

Langileen protestak kritikatu arren, ekonomia arazo handiak daudela onartu du De la Ruak

Hainbat langile talde protesta gisa egiten ari diren errepide mozketak kritikatu zituen atzo Fernando de la Rua Argentinako presidenteak. Hainbat «lan alorrek krisia» bizi dutela onartu zuen, halere, lehendakariak. Langileen eskaerak «elkarrizketaren bitartez» konpondu beharko liratekeela gaineratu zuen. Errepide ixteak eta protesta ugari egiten ari dira Argentinako langileak krisiarengatik protesta egiteko. Buenos Airesen errepide bat moztuta eduki dute 3.000 langabetuk azken 17 egunotan.

STEFAN ROUSSEAU / EPA A

ERRESUMA BATUA

Europako Batasuna britainiarrak gehien kezkatzen dituen gaia da, galdeketa baten arabera

Europako Batasuna da, datorren ekaineko hauteskundeei begira, Erresuma Batuko hautesleak gehien larritzen dituen gaia, inkesta baten arabera. Botoa erabakitzeko orduan EB lehen gaia dela esan dute galdetu dieten lagunen %23k. Bigarren gaia Erresuma Batuko osasungintzaren egoera da britainiarrentzat. Hezkuntzak kezkatzen ditu hirugarrenik. Tony Blairrek puntu bateko aldea ateratzen dio William Hague kontserbadoreari —irudian—.

EPA

ALJERIA

Hildako kazetarien omenez manifestazioa egin dute Kabiliako hiriburuan

Kabiliako hiriburu Tizi Ouzoun manifestazioa egin zuten atzo ustez integrista islamiarrek hildako kazetari guztiak gogoratu eta omentzeko. Hildakoen aldeko oroigarriaren ondoan minutuko isilunea egin zuten manifestariek. Azken asteotan istilu larriak izan dira Kabilian berbereen eta Aljeriako Segurtasun Indarren artean. Berbereek euren eskubideak zapaldu izana egotzi diote Aljerri, eta Poliziari indar kolonial gisa aritzea.

Eibarko Udala

IRAGARKIA

"UNBEKO FUTBOL ZELAIEN ESERLEKUAK ESTALTZEKO OBRAK EGITEKO EIBARKO UDALAK EGITEN DUEN ENKANTEA.

. Esleitzeko era: Enkantea bidez.
. Lizitazioa edo esleipena: 32.494.986,- pzta. (195.298,80 e)
. Lana burutzeko epea: 2 hilebete.
. Plikak aurkezteko epea: 2001-6-4ra arte (arratsaldeko zazpiak arte).
. Eskaintzak dakartzaten kartazalak zabaltzeko eguna: 2001-6-7an, goizeko 9:00etan, Udal Batzar Aretoan.

Proiektu hori osotzen duten planoak, baldintza-orriak eta gainerantzeko agiriak Udal honetako Hirigintza Sailean azter eta ikus daitezke.

Iragarkia: 2001-5-22ko 97 GBOean.

Eibarren, 2001-05-23.
ALKATEAK, Iñaki Arriola López.

Ataungo Udala

IRAGARKIA

2001eko maiatzaren 17ko 94. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkian adierazitakoaren arabera, eta San Martingo hirigune historikoa berreskuratzeko bidearen proiektua burutu ahal izateko beharrezko diren ondasun eta eskubideak formalki okupatzeko, titularrei dei egiten zaie iragarkian adierazitako egunean eta orduan Udaletxera etor daitezen, afektatutako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egitea.

Ataunen, 2001eko maiatzaren 22an.
ALKATEA.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria

IGOERA UGARI HIMALAYAN Egun handia izan zuen atzo euskal mendizaletasunak: bost euskal mendizalek (Oiarzabal, Vallejo, Pasaban, Reketa eta Goñi) munduko tontorrik garaiena zapaldu zuten, Everest, eta Alberti Zerain Lhotseko tontorrera iritsi zen.

Egun handia Himalayan

Oiarzabal, Vallejo, Pasaban, Reketa eta Goñi Everesteko tontorrera igo ziren atzo, eta Alberto Zerain, Lhotsera



Juan Vallejo eta Juanito Oiarzabal ipar-ekialdeko ertzetik
Juan Vallejo Euskal Herrian goizaldeko 5:00ak zirenean iritsi zen Everesteko tontorrera, goizeko 10:00etan han mendian, (Pekingo orduan 12:00ak), eta Juanito Oiarzabal ordubete geroago. Biek oxigeno bonbonarik gabe egin zuten igoera. Vallejo 6.400 metrora jaitsi zen. Oiarzabal hirugarren kanpamentuan geratu zen, ikusmenean arazoak zituela, Valentziako espedizio bateko kideekin eta bi sherparekin.

Edurne Pasaban, Patxi Goñi eta Julen Reketa Nepalgo ohiko bidetik
Hegoaldetik, Hego Lepoko ohiko bidetik, hiru euskal mendizalek lortu zuten atzo Everest gainera iristea. Edurne Pasaban tolosarra izan zen lehena, eta ondoren Julen Reketa eta Patxi Goñi igo ziren. Gaztela-Leongo espedizio bateko kideek baieztatu zuten haien igoera. Hirurak Hego Lepora jaitsi eta laugarren kanpamentuko dendetan geratu ziren atzo,atseden hartzen. Gaur jaitsiko bide dira behera.

Bigarren eskaloia edo irtenunea
Hauxe da ipar-ekialdeko ertzetik (Oiarzabal eta Vallejok jarraitu bidetik), zailtasunik nagusiena. 8.600-8.700 metro artean dago. Juanitok egonaldia egin zuen han, beherakoan, bista galduta.

Juan Vallejo
Gasteiz
31 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Lau zortzimilako igo ditu: Makalu (95), Lhotse (95), Annapurna (1999) eta Everest (2001). Everesten bi aldiz egona zen aurrez (1993 eta iaz) eta horrez gain, Himalayako beste espedizio askotan hartu izan du parte: Shisha Pangma (96), K-2 eta Broad (97), Dhaulagiri (98). Aconcaguako hego aurpegia ere igoa du.

Juanito Oiarzabal
Gasteiz
45 urte
MENDIKO IBILBIDEA: 14 zortzimilakoak igo ditu, guztiak oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe. Bosgarren mendizalea izan zen hamalau mendirik garaienak igotzen. Everest birritan, atzokoarekin. 1993ko urrian igo zen lehen aldiz Everestera, orduko hartan oxigeno artifizialaren laguntzarekin.

Edurne Pasaban
Tolosa
27 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Andeetan igoera batzuk egin ondoren, 1998an Dhaulagirin izan zen Tolosako espedizio batekin, eta 8.000 metrotik gertu ibili zen. 1999 eta 2000. urteetan Everesteko ipar-ekialdeko ertzetik saiatu zen, eta bietan altuera paretsura iritsi zen: 8.300 metro pasatxo. Atzo, mendiaren beste aldetik, gailurrera.

Patxi Goñi
Irunberri
36 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Pamir mendikatean Voroviev, Chetyrekh eta Korgenevskaia (7.105 m) tontorrak igo zituen 1996an. Hurrengo urtean, Perun, Urus, Ishinca, Huascaran (6768 m) eta Artesonraju. 1998an Tien Shan mendikatean Pobeda tontorrera igo zen, eta 1999an lehen zortzimilakoa zapaldu zuen: Gasherbrum II.

Julen Reketa
Laudio
34 urte
MENDIKO IBILBIDEA: Reketa eta Patxi Goñi elkarrekin ibili izan dira beti goimendian. Beraz, ibilbide bera dute: Voroviev, Chetyrekh eta Korgenevskaia (7.105 m) 1996an. Hurrengo urtean, Urus, Ishinca, Huascaran (6768 m) eta Artesonraju. 1998an Tien Shan-en Pobeda igo zuen, eta 1999an aurreneko zortzimilakoa: Gasherbrum II.

Ramon Olasagasti | **DONOSTIA**

Goizean goiz argitu zuen eguna: Euskal Herrian, 05:00ak zirenean (goizeko 09:00ak mendian, 11:00ak Pekingo orduan), Juan Vallejo gasteiztarra Everesteko tontorrera iritsi zen, ipar-ekialdeko ertzetik eta oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe. Ordubete geroago Juanito Oiarzabal espediziokideak eta Mingma sherpak zapaldu zuten munduko tontor garaiena, Juanitok ere oxigenorik gabe. Bidean gurutzatu ziren bi mendizaleak, Vallejo behera eta Oiarzabal gora. Besarkada beroa, eta bakoitzak bere bideari eutsi zion. Vallejok igoera ez ezik jaitsiera ere sekulakoa egin zuen, eta kanpamentu nagusi aurreratura (6.400 m) jaitsi zen jarraian. 3.000 metro baino gehiagoko desnibela gainditu zuen egun berean. Itzela.

Oiarzabalek, gailurra Mikel semeari eta Sebastian Alvaro *Al filo*-ko zuzendariari eskaini eta gero, jaitsierari ekin zion, eta han hasi zen bere gurutzebidea: ikusmena galtzen hasi zen (elurretan itsumena deritzan gaitza), eta mantso-mantso, ezinean iritsi zen hirugarren kanpamentuko dendetara (8.300 m), Valentziako espediziokide batzuek (tartean, Endika Urtaran gasteiztarra) eta bi sherpak lagunduta. Valentziarrek beraiek beharrezko sendagaiak eman zizkioten Juanitori, Kiko Arregi sendagilearen aginduz, eta, itxuraz, zertxobait osatu zen gasteiztarra. Araceli emaztearekin hitz egin eta egoera ez zela hain larria adierazi zion.

Al filo-ko beste hirurek, Josu Bereziartua azpeitiarrak eta Ferran Latorre eta Juanjo Garra katalanek, 8.500 metro inguruan eman zuten buelta, Garrak aurrena, Latorrek gero eta Bereziartuak ondoren, azpeitiarrak ere ikusmen arazoekin.

Nepaldik beste hiru euskal mendizale gailurrera

Everesteko gailurrera mendizale andana iritsi zen atzo, 40-50 inguru bai; etengabekoa zen atzo gailurreko albisteen jarioa. Oiarzabalek piztu zuen euskal mendizaleon jakin-mina, gailu-

EDURNE PASABAN

HIRUGARREN AHALEGINA EVERESTEN. Edurne Pasabanek hirugarren ekinaldia zuen Everesten. Argazkian, 1999an, ipar-ekialdeko ertzean.

Lehen neska Everesten

EDURNE PASABAN. Orain arte hiru euskal emakumek igo zuten zortzi milako bat: Amaia Aranzabal, Pili Ganuza eta Yoli Martinek

R.O. | **DONOSTIA**

Edurne Pasabanen izena ere, leku berezian agertuko da euskal mendizaletasunaren historia idatzian. Martin Zabaleta izan zen lehena, eta Edurne Pasaban ere halaxe izan da, lehen emakumea. Azken lau urteotan ibilbide azkarra osatu du mendizale tolosarrak. 1998an Dhaulagirin izan zen Tolosako espedizio batekin, eta zortzimila metroko marra horretatik gertu ibili zen. Hurrengo urtean Everestera joan zen espedizio italiar batekin. Iparraldeko bide normaletik egin zuten ahalegina, eta orduko hartan 8.300 metrotan geratu zen Edurne, haize bortitzak gorago joatea galarazita. Joan den urtean, Everestera eta iparekialdeko ertzera bueltatu zen berriro Edurne Pasaban, Angel Navas, Iosu Feijoo eta Willy Bañalesekin. Goraxeago igo zen iaz, 8.500 metro ingurura, baina hotzaren ondorioz jaitsi egin zen, eta izozte arin batzuk izan zituen eskuko hatzetan.

Aurten, izozteetatik jada osatuta, hirugarren saioa egin du Everesten, mendiaren hegoaldetik oraingoan. Koke Lasa ormaiztegiarra (Gipuzkoa), Silvio Mondinelli, Alberto Magliano eta Mario Merelli italiarrak eta Ivan Vallejo ekuadortarra izan ditu taldekide. Hirugarrena izan da balekoa, atzo italiarrekin batera iritsi baitzen tontorrera.

Bide urratzaileak

Everesteko historian Edurne izan da lehen emakumea, eta Edurneren historia partikularrean, Everest lehen zortzimilakoa. Aurrez izan dira, ordea, bidea urratu duten beste emakume batzuk ere, eta zortzimilakotara igo denik ere bada gurean.

1992an, Amaia Aranzabal bergararra Cho Oyu tontorrera (8.201 m) igo zen, Josu Bereziartua senarrarekin. Aranzabal eta Bereziartua irailaren 25an igo ziren, eta hiru egun geroago, Pili Ganuza iruñearrak tontor bera zapaldu zuen. Biek izozteak izan zituzten behatzetan. Hurrengo urtean, Cho Oyun bertan, Yoli Martin basauriarrak errepikatu zuen balentria, Joseba Elorrieta eta Jesus Gomezekin batera.

Yoli Martin bera Everest igotzen saiatu zen 1998an ipar aurpegiko bide zuzenetik, baina mendiaren baldintza gogorren ondorioz, atzera egin zuten.

DATU AIPAGARRIAK

Egun handiaren zergatiak

Egun handia izan zela esatea ez da doakoa; datu soil batzuei erreparatzea besterik ez dago.

HAMASEI EUSKALDUN: Orain arte 12 ziren Everestera igotako euskaldunak: Martin Zabaleta, Pitxi Egillor, Patxi Fernandez, Felix eta Alberto Iñurrategi, Mikel Reparaz, Pedro Tous, Josu Bereziartua, Alberto Zerain, Jose Mari Oñate, Jose Ramon Agirre eta Juanito Oiarzabal bera. Atzodanik, Juanitoren errepikapena, eta beste lau izen erantsi behar dizkiogu zerrendari: Juan Vallejo, Edurne Pasaban, Patxi Goñi eta Julen Reketa.

LAU IGOERA OXIGENORIK GABE: Euskaldunei dagokienez, orain arte Felix eta Alberto Iñurrategi baino ez ziren igo Everestera oxigenoaren laguntzarik gabe. Atzodanik lau dira. Bestalde, Oiarzabal eta Vallejo 79 eta 80. mendizaleak dira Everest oxigenorik gabe igotzen. Igoerak, guztira, 101 izan dira.

LEHEN IGOERA IPARRALDETIK: Oiarzabal eta Vallejorena lehen igoera izan da Everesten ipar aurpegitik edo Tibetetik. Orain arteko 12ak Nepaldik edo mendiaren hegoaldetik izan ziren.

EGUN BAKARREAN IGOERA GEHIEN: Everesten, orain arte, 1992ko irailaren 25a izan zen euskaldun gehien igo zen eguna.Lau izan ziren orduan: Pitxi Egillor, Patxi Fernandez eta Felix eta Alberto Iñurrategi.

rrean beste euskal mendizale batekin topo egin zuela esan baitzuen *talkie* bidez. Ez zuen izenik eman, eta hor hasi zen jakin nahi eta ezina. Mendiaren hegoaldetik igotakoren bat behar zuen nahitaez, eta ez zegoen modurik nor zen baieztatzeko. Azkenik, Euskal Herrian eguerdia pasata zela, Gaztela Leongo espedizio bateko kideek Edurne Pasaban gailurrera iritsi zela baieztatu ziguten, eta lasterrera, Hego Lepora jaitsi zela ere bai, pozik eta onik.

Baina egunak beste ezusteko bat eman zuen. Edurne Pasabanek berak, Gaztela-Leongo espediziokideen bitartez, jakinarazi zuen Patxi Goñi eta Julen Reketa ere iritsi zirela Everesteko tontorrera. Bost igoera, beraz, guztira.

Baliteke gehiago igotzea gaur, Iñaki Otxoa de Olza Hego Lepoan dagoelako, gora bidean. Koke Lasa, berriz, bigarren kanpamentuan zen atzo. Ea beste denak onik iristen diren gaur kanpamentu nagusira.

horrelakoak dira inchausti mobiliario-ren egongelak

estilo guztietakoak, prezio guztietakoak

markarik onenak: arruti, pianca, forestier, valentí, kron,...

bitrina kurboekin, modularrekin, sabaian egokitu daitezkeenekin...

konponbide zehatzak arazo zehatzetarako: bandexa ateragarriak, gurdi mugikorrak...

FINANCIACIÓN 24 MESES SIN INTERESES

interesik gabeko finantzaketa 24 hilabete

ezagutu Gipuzkoako altzari aukera handiena eta eguneratuena

MOBILIARIO INCHAUSTI

N-1 errep., Errekalde. LASARTE-ORIA
Ternuako Arrantzaleen kalea, 2. AMARA (ARCCOren ondoan)

ALBERTO ZERAIN (Mendizale arabarra)

IGOERAREN ZAILTASUNA
«Ez geunden guztiz aklimatatuta, eta haizea eta hotza oztopo gogorrak izan dira»

GAILURREKO POZA
«Egiten duen hotza ere ez duzu sentitzen gailurrera iristeak dakarren zoriontasunarekin»

LHOTSE. Mendizale arabarrak hirugarren zortzi milakoa igo du



EGUNKARIA

Lhotseko tontor aldea, hego paretatik ateratako argazkian. Ezkerrekoa da tontor nagusia.

Alberto Zerain Lhotsera igo da, Oscar Cadiachekin

Jose Maria Oñate kideak 8.200 metrora hartu zuen itzuliko bidea

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Euskal mendizaletasunarentzat egun handia izan zen atzokoa. Munduko gailur garaiena bost euskal mendizalek zapaldu zuten. Baina, Everestetik ez ezik, Lhotsetik ere berri onak iritsi ziren. Eguraldia lagun izan ez arren, *Al Filo de lo Imposible* espedizioko bi kidek, Alberto Zerain gasteiztarrak eta Oscar Cadiach kataluniarrak, Lhotse igo zuten (8.516 m.). Cadiach iritsi zen aurrena gailurrera, Nepalgo goizeko hamaiketan —07:00ak Euskal Herrian—, eta ordubete geroago heldu zen Zerain. Espedizioko beste bi kideek, Jose Maria Oñate *Habitxuelas* arabarrak eta Eloy Collado kataluniarrak, 8.200 metroak arteko bidea egin zuten; baina, eguraldi kaskarra zela medio, atzera egitea erabaki zuten. Beherakoan, bi arabarrak bigarren kanpamendura jaitsi ziren (6.300); bi kataluniarrak, aldiz, aurreneko kanpamendura.

Igoera baldintza gogorretan egin zuten *Al filo de lo imposible*-ko espediziokideek, haize boladak eta hotza nagusi zirela: «Ez geunden guztiz aklimatatuta eta, hotz handia egiteaz gain, haizeak gogotik jotzen zuen. Horrek eraginda, bi taldekidek atzera egitea erabaki dute 8.200 metro ingurura dagoen korridorean», jakinarazi zuen Zerainek.

Gasteiztarrarentzat hirugarren zortzi milakoa izan da Lhotse. 1993an Everest igo zuen (8.848) eta bi urte geroago Makalu (8.463). Iaz, Oscar Cadiachekin eta beste mendizale batzuekin batera, Everest oxigenorik gabe igotzen ahalegindu zen. Baina ordukoan amore eman behar izan zuten.

Lhotseko tontorra igo aurretik, *Al filo de lo imposible*-ko espediziokideak Ama Dablam igotzetik zetozen. Alberto Zerainek behatz batean lesio txiki bat izan zuen eta geroago batu zitzaien beste hiru espediziokideei. Bi igoeretako irudiekin telebistarako erreportajeak egingo dituzte. Lhotseren kasuan zailtasunak izan zituzten gailurreko irudiak grabatzeko. «Tontorrean izan dugun zailtasun handiena ekipoaren tenperatura bero mantentzea izan da. Hotz handia egiten zuen eta irudiak hartzea zaildu digu», esan zuen Zerainek.

ERDIKO LHOTSE

Eguraldia eta nekea zirela medio egin zuten atzera

Erdiko Lhotse (8.414) da zortzi mila metrotik gora zapaldu gabe dagoen tontor bakarra —hamalau tontor nagusietatik aparte badira beste batzuk—. Lhotseko tontor nagusia igo eta, ondoren, kilometroko zeharkaldia dago, ertz zorrotz eta arriskutsuari jarraiki. Hori egitea zen *Al filo de lo imposible*-koen erronka; baina, eguraldiak eta igoeran pilatutako nekeak eraginda, ertzari ez ekitea erabaki zuten. Lhotse igo dute eta ez da erronka makala.

Aurrezki Mistoa EUSKADIKO KUTXA



Eurostoxx 50 eta Nikkei 225 indizeak,
% 50ean haztatuak

Nola inbertitu arriskatu gabe, milioi 1 pta.tik aurrera

Inbertitutako kapitalaren % 100 berreskuratzen da mugaegunean

Aurrezki Mistoaren ezaugarriak
Epe Finkoa (Inbertsioaren % 50)
Epea: 12 HILABETE • Interes-tasa: %7 **• Interesen likidazioa:** Urtero, mugaegunean **• Fiskaltasuna:** Interesak kapital higigarriaren errendimendutzat hartzen dira eta % 18ko atxikipena dute kontuan **• Gutxieneko kopurua:** 500.000 pta.
Ahorro Bolsa Gordailua (Inbertsioaren % 50)
Epea: 30 HILABETE (2001-06-15etik 2003-12-15era) **• Mugaegunean jasoko den kapitala:** Harpidetutakoa gutxienez **• Errentagarritasuna:** Eurostoxx 50 eta Nikkei 225 indizeen hileko batez besteko errebalorizazioaren* % 50, indize bakoitza % 50ean haztatuta **• Fiskaltasuna:** Sortutako errendimenduak kapital higigarriaren errendimendutzat hartzen dira eta lortutako errentagarritasunaren % 70ari % 18ko atxikipena egiten zaio kontuan **• Gutxieneko kopurua:** 500.000 pta.

* Hilaren 15ean, edo aurreko lanegunean, hartzen diren 30 laginen batez besteko aritmetikoa, indize bakoitzaren 2001-06-15eko hasierako laginarekin alderatuta.

Eskaintza honek 2001-06-13ra arte balio du.

Lehen 2.000 kontsultentzat, opari bana.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
Zurekin elkarlanean

ATHLETIC. Txetxu Rojok agur esan ondoren alemaniarra da lehen hautagaia talde zuri-gorria zuzentzeko

Javier Uriak akordioa lortu du Jupp Heynckesekin

Bi denboraldirako kontratua eskaini dio tekniko alemaniarrari

Ramon Basaldua | **BILBO**

Jupp Heynckesek zuzenduko du Athletic hurrengo bi denboraldietan, datorren ekaineko hauteskundeetan Javier Uriak irabazten badu. Uriak akordioa adostu du entrenatzaile alemaniarrarekin eta aurrea hartu dio Fernando Lamikiz aurkariari entrenatzailearen izena emateko lasterketan.

Jupp Heynckes entrenatzaile ezaguna da Athleticeko zaleentzat. Jose Julian Lertxundi Athleticeko presidente zela iritsi zen talde zuri-gorrira, 1992-93 denboraldian, eta, bi urtez egon zen Bilbon. Lehenengo denboraldian zortzigarren sailkatu zuen taldea; eta bigarrenean, UEFAra eraman zuen, sailkapeneko bosgarren postuan bukatu ondoren. Javier Uriak atzo adierazi zuenez, Jupp Heynckesen aldeko apustua egin du hasiera-hasieratik. Athleticeko presidentetzarako hautagaiaren iritziz, Heynckes entrenatzaile aproposa da Athletic zuzentzeko. «Gure ustez, gure taldea, gure herria eta harrobia lantzeko filosofia ezagutzen duen entrenatzailea behar du egungo Athleticek, eta Jupp Heynckesek ezaugarri horiek guztiak ditu. Ahalegin handiak egin ditugu Heynckesekin akordioa adosteko», azaldu zuen atzo Javier Uria hautagaiak.

RAFA ALKORTA
Athleticeko jokalaria

«Entrenatzaile ona da. Emaitza onak lortu zituen eta jokoa ikusgarria zen»

XOUSE SIMAL
Heynckes, 1992an, Lezaman.

Jupp Heynckesek harrobiko jokalarien aldeko apustua egin zuen Athleticen eman zituen bi denboraldietan. Berak zelairatu zuen Julen Guerrero lehen mailan. Carlos Garcia, Oscar Vales, Aitor Karanka, Juanjo Valencia eta Jon Perez *Bolo*k ere debuta egin zuten lehen mailan entrenatzaile alemaniarraren eskutik. Genar Andrinua, Javier Uriaren hautagaitzako kidea, izan zen Athleticeko kapitaina Heynckes entrenatzaile izan zenean. «Heynckesi buruzko oroitzapenak oso onak dira. Gizon serioa da eta bere exijentzi maila oso altua da. Gainera, joko estiloari dagokionez, guztiok gogoratzen dugu Athleticek joko ikusgarria egin zuela. Berriz diot oroitzapenak onak direla, jokoaz zein emaitzen arloan» adierazi zuen, atzo, Genar Andrinuak.

Rafa Alkortak urtebete eman zuen Jupp Heynckesekin, hurrengo denboraldian Real Madridera saldua izan aurretik. Alkortak berba onak izan zituen atzo Heynckesentzat: «Emaitza onak lortu zituen Athleticen. Gizon serioa da eta entrenatzaile ona izan zen Athleticentzat. Gainera, joko ikusgarria egiten genuen». Ikusi egin behar orain zein entrenatzaile proposatzen duen Fernando Lamikizek.

Errenta
Renta 2000

Errenta eta Ondare Aitorpena

Maiatzaren 2tik ekainaren 29ra

RENTANET ekin tximistaren pare itzuliko dizugu

48 ordu barruan

Aurton ere RENTANET erabil zenezake zeure mesedetan. Hauxe besterik ez duzu egin behar: aldez aurreko hitzordua eskatu (901 11 11 02 euskaraz / 901 11 11 01 gaztelaniaz) eta Erakustazokako 7. Pabiloira joan. Geuk prestatuko dizugu aitorpena, dohainik. Itzulketa jaso beharrekoa bada, 48 ordu barruan sartuko zaizu dirua zeure kontuan.

10 egun barruan

Edo nahiago baduzu, sistema honetara atxikitako kutxa eta bankuetako 300 bulego dituzu erabilgarri. Aitorpena dohainik prestatuko dizute. Itzulketa jaso beharrekoa bada, 10 eguneko epean izango duzu dirua zeure kontuan.
Rentaneten modalitate biotan, aitorpenean ordaindu beharra ateratzen bada, azken egunera arte ez da kontuan zordunduko eta ordainketa zatikatu ahal izango duzu.

Edozein kontsulta egiteko, dei egiguzu:
901 50 3000
www.bizkaia.net

Bizkaiak hazten jarrai dezan

Bizkaiko Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Hacienda y Finanzas

LEHEN AROA

1992-93AN IRITSI ZEN. Jose Julian Lertxundik ekarri zuen Bilbora aurreko denboraldi bietan entrenatzailea aldatu behar izan ondoren. Javier Clemente eta Iñaki Saezekin izan ez zuen erregulartasuna eta lasaitasuna eman zion Heynckesek taldeari. Lehen denboraldian Athleticek zortzigarren bukatu zuen Ligan, eta hurrengoan, bosgarren sailkatu eta UEFArako postua eskuratu zuen.

1994AN UTZI ZUEN ATHLETIC. Mahai gainean Athleticen eskaintza izan arren Jupp Heynckesek utzi egin zuen talde zuri-gorria eta Eintracht Frankfurt zuzendu zuen hurrengo denboraldian alemaniarrak.

EGUNKARIA

MORENO, YECLANON. Futbolaz gozatzeko asmoz joan zen Yeclara Javi Moreno. Garai hartako argazkian, Yeclanoko taldekideekin batera ageri da; beheko lerroan, ezkerretik hasita, hirugarrena da Moreno.

Lau urtetan, zerua

JAVI MORENO, MILANERA. Yeclan gogoan dute oraindik Javi Morenok Yeclanon Bigarren B Mailan jokatu zuen garaia

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Aspalditik ikusten ez zen bilakaera ikusgarria izan du Javi Morenok. Lau urtetan bigarren B Mailan Yeclano taldean jokatzetik Europako talde handi batera heldu da. Are gehiago, orain dela bost urte futbola uzteko zorian zegoen gazteak 1.200 milioi jasoko ditu datozen lau denboraldietan. Horrelako gauzak Hollywoodeko filmetara mugatzen direla pentsatzen zuena aho bete hortz gelditu da, zalantzarik gabe.

Gauza bera gertatu zaie Yeclako biztanle guztiei, herri horretako Bigarren B Mailako taldean hasi baitzen Javi Moreno gorako bidean, orain dela lau urte. Juan Hernandezek, Yeclanoko gerenteak oraindik gogoratzen du datorren denboraldian Milanen jardungo duen aurrelaria lehenengoz ikusi zuenean: «Urte bat ezer egin gabe eman ostean, futbolean egiteko kilo gehiegi zituen, eta gogor ekin genion argaltze lanari».

JUAN HERNANDEZ

(Yeclanoko gerentea)

«Yeclano zein Yecla oso pozik daude Morenok lortu duenarekin; tamalez, ez genuen inongo klausularik jarri»

«Yeclanora heldu zenean, Morenok zazpi kilo argaltzea lortu genuen; hala ere, Alavesera nahiko potolo joan zen»

Barre-algaraka gogoratzen ditu egindako entrenamendu saio guztiak, baita aurrelariaren sasoirik onena lortzeko asmoz plastikoz estaltzen zutenekoak ere. «Zazpi kilo argaldu zen jokatzen hasi aurretik; hala ere, Alavesera nahiko potolo joan zen», azaldu du. Nolanahi ere, Morenoren gorputza izatez handia dela gaineratzen du. Adibiderik argiena Alaveseko sendagileek azterketa fisikoan egin zioten galdera bat da: «Zuk inoiz pesarik egin al duzu?», galdetu zioten aurrelariari, izter izugarri zabalak zituela ikusita.

Baina, gorputzaz gain, Morenok Alavesen ikasitako guztia ikusgarria dela deritzo Juan Hernandezek. Yeclako taldean kalitate zertzelada batzuk zituela onartu arren, Gasteiza etorri zenetik gainontzeko taldekideak bere inguruan daudela ikusi du, eta horrek asko lagundu diola azpimarratzen du Yeclanoko gerenteak.

Berriak oihartzun izugarria izan du Yeclako biztanleengan

Aste honen hasieran jakinarazitako albisteak oihartzun izugarria izan du Yeclan. Herriko txoko guztietan Javi Morenoren fitxaketari buruz hitz egiten da, eta, Sillako aurrelariaren taldekide askorik jarraitzen ez duen arren, ikusmin handia sortu du taldean bertan. «Jokalari gazteentzat izugarrizko bultzada da, lan gogorra eginez Europako gailurrera heltzeko modurik badagoela pentsa baitezakete», esan du Yeclanoko gerente Juan Hernandezek.

Hala ere, gauza batez damu da Yeclano: «Nolabaiteko klausula jartzea ahaztu zitzaigun», dio Juan Hernandezek algaraka. «Txorakeria asko esan daitezken arren, hiria zein kluba asko pozten da Javi Morenori gertatutakoarekin».

ALAVES

Cosmin Contrak bere etorkizuna zehaztuta izan nahi du bi asteren buruan

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Javi Morenoren fixaketak Alavesen antzeko egoeran direnen inguruko kezkak sortu ditu. Cosmin Contrak, adibidez, atzoko entrenamendu saioaren ostean, bere etorkizunari buruz mintzatu zen. Datorren urtean Mendizorrotzatik urrun jokatu behar duela argi dagoen arren, Errumaniako jokalariak ez du argi ikusten non izango den.

Interesa adierazi duten talde gehienak Italian eta Erresuma Batuetan daudela nabarmendu zuen Contrak. Hala ere, azken asteetan eskaintzarik egin ez dutela aipatu zuen: «Interesatzen zaizkidan taldeek ez dute interes handirik erakutsi ni fitxatzeko». Indar gehien izan dezakeen taldea, berak baieztatu ez arren, Milango Inter izan daiteke; hortaz, datorren urtean Javi Morenorekin egongo litzateke Italiako hiri horretan.

Bere etorkizuna hedabide guztien ahotan dagoen arren, Cosmin Contrak argitu zuen egun duen helburu garrantzitsuena Alavesi duen guztia ematea dela. Hala ere, datozen bi partiduak ezingo ditu jokatu, Txapelketa Batzordeak bi partiduko zigorra jarri baitio Bartzelonaren kontra ikusitako bi txartel horiengatik. Hortaz, ez du Madrilen jokatuko.

REALA. Galestarrak, lehen aldiz, hamaikako berbera bi bider erabiliko du denboraldi honetan, Luiz Alberto hasieratik zelairatuz

Toshackek pasa den igandeko hamaikako berbera zelairatuko du igandean Zaragozaren aurka

Jon Balenziaga | **DONOSTIA**

Realeko entrenatzaileak ez du ezer aldatu nahi. Malagaren aurka garaipen garbia eskuratu ondoren, atzo hasi zen talde txuri-urdina Zaragozaren aurkako neurketa erabakigarria prestatzen eta, itxura batean, atzoko entrenamenduan ikusitakoaren arabera, John Toshackek seguruenik aurreko igandeko hamaikako berbera zelairatuko du La Romareda futbol zelaian.

Aurrez, zalantza bakarra atzealdean zegoen, egotekotan. Julio Cesar, behin partidu bateko zigorra bete ondoren, hamaikakora itzultzeko moduan da, baina Toshackek, antza, nahiago du Luiz Albertok hasieratik jokatzen jarraitzea. Okerrik ezean, Zaragozaren aurka igande honetan ondorengo jokalari hauek jokatuko dute hasieratik: Alberto; Lopez Rekarte, Loren, Luiz Alberto, Aranzabal; Xabi Alonso, Idiakez; Tayfun, Khokhlov, De Pedro; De Paula. Talde txuri-urdina azken boladan, ondo jokatzeaz gain, emaitza onak ere eskuratzen ari da. Ondorioz, atzo ikusitako hamaikakoa beteko balitz, Toshackek hamaikako berbera bitan zelairatzen duen lehen aldia litzateke. Dena den, igandea baino lehen hiru lan saio gehiago dituzte eta ikusi beharko da horietan Toshackek bere asmoa berresten duen edo aldaketaren bat egiten duen.

De Paulak denboraldi amaieran hitz egingo du bere etorkizunaz

Atzoko entrenamenduan, bestalde, Oscar de Paula ere protagonista izan zen, neurri batean. Athleticeko presidente kargurako hautagaietariko batek, Javier Uriak, presidente kargua eskuratzen badu Oscar de Paula fitxatzeko asmoa azaldu du. De Paulak 2003. urtea arteko kontratua du talde txuri-urdinarekin eta 5.000 milioiko etete klausula. Zenbait zurrumurruk diotenaren arabera, jokalariaren bitartekaria jada hasi da harremanetan Realarekin. 1.000 milioi inguru ordaintzeko prest omen da Athletic. Dena den, Realak, taldea orain dagoen bezala egonda, ez du ez De Paula ez eta beste jokalari batzuei buruz iritsiko diren eskaintzez hitz egin nahi.

De Paula, berriz, hedabideen aurrean mintzatu zen atzo Zubietan, entrenamenduaren ondoren, eta berak ere garbi utzi zuen orain ez dela bere etorkizunari buruz hitz egiteko unea. Ezezko borobilik, ordea, ez zuen eman jokalari txuri-urdinak bere adierazpenetan. «Ez da hau hitz egiteko unea. Asko dugu jokoan eta une honetan nire asmo bakarrak jokatzea eta taldeari mailari eusten laguntzea dira, besterik ez. Nire lanean buru-belarri murgilduta egon nahi dut. Denboraldia amaitzen denean ikusiko dugu zer gertatzen den», esan zuen Oscar De Paulak atzo Zubietan.

TXAPELDUNEN LIGA. Partidua ez zen oso ona izan, baina emozioa azkeneraino izan zuen

Penaltiekin hasi eta bukatu

Bayernek, luzapenaren ondoren, zazpigarren penalti txandan irabazi zuen Kopa

CARDENAS / EFE

Mehmet Scholl falta bat jaurtitzen Valentziaren hesiaren gainetik; azkenean, ordea, penaltiek erabaki zuten finala.

Jon Ordoñez | DONOSTIA

Penaltien zazpigarren txandak erabaki behar izan zuen atzo Bayern eta Valentziaren arteko Txapeldunen Ligako finala. Luzapenean ere bi taldeak ez ziren aurkariari bigarren gola sartzeko gai izan, eta azkenean Kahnek Pellegrinori geratutako penalti batek eman zion Kopa Bayerni. Bizi izan zen partidu orekatuaren seinale da emaitza. Espero bezala partidu orekatua izan zen, ez ordea oso taktikoa. Bi taldeak nahiko urduri atera ziren Giuseppe Meazza futbol zelaira, eta horrek nahasketa ugari sortu zituen area barruan. Horietako batean, hirugarren minutuan, Dick Jol epaileak espainiarren aldeko penaltia adierazi zuen. Mendietak sartu zuuen baloia Kahnen atean. Bost minutu geroago, ordea, Schollek ezin izan zuen Bayernen aldeko penaltia sartu. Gaizki bota zuen, eta Cañizaresek geratu egin zuen.

Lehen minutuetatik finala alde zeukala ikusita, Valentziak erasoari uko egin zion; ez zitzaizkion gauzak nahi bezala atera behintzat. Bigarren zatiaren amaieran eta luzapenean nahiko ondo aritu bazen ere, Carew ez zen batere fin ibili, eta Sanchezek aukera gutxi izan zituen. Cuperrek Aimar zelairatu zuen zelai erdian, erdilaria aurreko lerroarekin errazago elkar zedin. Ez zuen, ordea, helburu hori lortu. Gainera, Mendieta makal aritu zen partidu guztian zehar, eta batez ere lehen zatian Valentziaren erasoa hutsa izan zen.

Gainera, espainiarrek bazuten nahikoa lan Bayernen erasoak saihesteko. Salihamidzic ezker hegalean zelairatuz, Lizarazurekin, biek abiadura izugarria eman zioten Bayerni, eta Angloma eta Ayala ezinean aritu ziren bi jokalari horiek geratu nahian. Hala ere, Elber, Effenberg eta Schollek ez zuten asmatu baloia sarera sartzerakoan. Bigarren zatia hasi eta berehala, ordea, Bayernen aldeko bigarren penaltia adierazi zuen, eta oraingoan Effenbergek ez zuen hutsik egin. Bigarren zatian alemaniarren kapitainak zelai erdia sendotu zuen, eta Elber bilatzen aritu zen.

Baina Valentziak ez zuen amore eman, eta Bayernen golaren aurretik Cuperrek egindako aldaketa bati esker —Albelda Aimarrengatik— pibote bikoitzarekin hobeto iritsi zen gora, eta gola sartzeko aukerak ere izan zituen, batez ere, luzapenean Zahovicek izan zituen aukera. Tarte horretan ere Lizarazu jaurtiketa pare bat egiten saiatu zen, baina huts egin zuen. Luzapenean sartuta zeudela, Hitzfeldek Zickler zelairatu zuen taldeari abiadura gehiago ematearren, baina bi taldeek gogoan zuten Alavesi gertatutakoa, eta hutsik egin nahi ez izateak penaltietara eraman zituen.

BAYERN	1	VALENTZIA	1

Bayern: Kahn; Kuffour, Andersson, Linke; Sagnol (Jancker, 46. m.), Hargreaves, Effenberg, Lizarazu; Scholl (Paulo Sergio, 107. m.), Elber (Zickler, 99. m.) eta Salihamidzic.
Valentzia: Cañizares; Angloma, Ayala (Djukic, 88. m.), Pellegrino, Carboni; Baraja, Mendieta, Kily Gonzalez, Aimar (Albelda, 46. m.); Sanchez (Zahovic, 65. m.) eta Carew.
Golak: 0-1: Mendietak penaltiz (3. m.). **1-1:** Effenbergek penaltiz (50. m.).
Gol aukerak: Schollek penaltia hutsegin zuen (8. m.)
Penaltiak: Zazpi penaltitik Bayernek lau sartu zituen; Valentziak hiru. Huts egin dutenak: Paulo Sergio, Zahovic, Andersson, Carboni eta Pellegrinok azkena.
Epailea: Dick Jol. Txartel horiak Bayerneko Andersson eta Valentziako Carboni eta Kily Gonzalez.

GILTZAK

BAYERNEN EZKER HEGALA. Partiduaren lehen zatian Lizarazuk eta Salihamidzicek baloia ondo baino hobeto igo arren, aurrelariak ez ziren aukerak gauzatzeko gai izan.

MENDIETA, PATTAL. Jokalari bizkaitarrak ez zuen atzokoan Valentziak berak erakusten ohi duen maila eman.

PENALTIAK. Onerako eta txarrerako, penaltiek beti erabakitzen dute, eta hor ez aitzaki ez eta justiziarik ere.

TXIRRINDULARITZA

Svoradak irabazi du Midi Libreko bigarren etapa eta bera da lider berria

Erredakzioa | DONOSTIA

Lampre taldeko Jan Svorada txekiarrak irabazi zuen esprintean Midi Libreko bigarren etapa, eta bera da itzuli horretako lider berria. Svoradak aurrea hartu zien azken metroetan Nicola Lodari (Fassa Bortolo), Alexandre Vinokourovi (Telekom) eta Igor Floresi (Euskaltel), eta urteek aurrera egin arren, esprintetan oraindik ere ederki moldatzen dela erakutsi zuen Lampreko ziklistak —bigarrena izan zen asteartean—.

Saint Cyprien eta Pezenas artean jokatu zen atzoko etapa. Txirrindulariek 197 kilometro osatu behar izan zituzten, eta euria izan zen eguneko protagonista. Azken kilometroetan ekaitza izan zuten txirrindulariek eta asko eta asko larri ibili ziren denborarik ez galtzeko. Helmugara, ordea, eguzki printzekin heldu zen tropela.

Etapa lasaia izan zen, ihesaldi ahalegin gutxirekin. Nicki Sorensenek eta Euskaltel-Euskadiko Unai Etxeberriak egin zuten ahalegin gogorrena, baina Lamprek ez zien aukerarik eman.

Gaur jokatuko da Midi Libreko hirugarren etapa, 19 kilometroko erlojupekoa. Sailkapen nagusirako borrokan zeintzuk ariko diren zehaztuko du erlojupekoak. Team Coast taldeko Laurent Jalabert frantziarra da hautagai nagusietako bat. Sailkapen nagusian Igor Flores da aurreneko euskalduna, seigarren postuan, Svoradaren denbora berean.

SAILKAPENAK

2. ETAPA

1. Jan Svorada (Lam)	4:43.43
2. Nicola Loda (Fas)	d.b.
3. A. Vinokourov (Tel)	d.b.
4. **Igor Flores** (Eus)	d.b.
5. Fabrizio Guidi (Mer)	d.b.

NAGUSIA

1. Jan Svorada (Lam)	9:13.42
2. Jerone Bernard (Jea)	d.b.
3. Nicola Loda (Fas)	d.b.
4. A. Vinokourov (Tel)	d.b.
5. Fabrizio Guidi (Mer)	d.b.

ITALIAKO GIROA. Mendiko lehen etapan Pantani eta Savoldelli ahul agertu dira, eta Olano onenekin iritsi da

Lehen azterketa gainditu du Olanok

Rik Verbruggek ezin izan zion eutsi onenen erritmoari, eta Frigok du orain elastiko arrosa



CARLO FERRARO / EPA

Marco Pantani atzoko helmugara hurbiltzen. Mercatoneko buruak minutu erdi galdu zuen Di Luca irabazlearen aldean.

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Mendiko lehen etapak beti sortzen du kezka txirrindulariengan, besteekiko indarrak nola dauden neurtzeko aukera aproposa izaten baita. Atzo Montegervinen ikusitakoaren arabera, Danilo Di Luca da une honetan indartsuena, Simoni, Garzelli eta Frigorekin batera, Abraham Olano itxaropentsu izateko moduan da, eta Savoldelli eta Pantani uste baino ahulago daude. Dena den, horrek guztiak ez du argibide handirik ematen, mendiko lehen etapa baino ez baita. Etapa erabakigarriak azken astean etorriko dira, eta ordurako indarren alderaketa erabat aldatuta egon daiteke. Baina atzo, behintzat, Danilo Di Luca eta Dario Frigo izan ziren etapari etekin handiena atera ziotenak, batak bigarren garaipena lortu zuelako, eta besteak lidergoa kendu ziolako Rik Verbruggeri. Lottokoari gogorregia egin zitzaion ibilbidea, eta lau minututik gora galdu zituen helmugan.

Etapako lehen kilometroetan izaniko ihesaldi saioek ez zuten arrakastarik izan. Tropelak bat eginik egin zuen ibilbideko lehen zatia, baina hirugarren mailako Celzi mendateko maldetan gora hasi zirenean Rik Verbrugge liderrak ahuldadea erakutsi zuen, aurreko egunean izaniko erorikoaren eraginez.

Montegervineko igoerara faborito guztiak batera iritsi ziren. Malkar handirik ez duen arren, 17,5 kilometroko igoera gogorra egiten da amaierarako. Helmugarako hamar kilometro falta zirela, Alessio taldeak erritmoa bizitu zuen, ea 40 txirrindulariz osaturiko taldea gelditu zen lasterketa buruan. Ordurako Rik Verbrugge liderra atzean zen. Azken txanpan Di Lucak, Gottik eta Garzellik ekin zioten erasoan, eta hor Savoldelli eta Pantani erritmoari eutsi ezinik gelditu ziren. Savoldellik bi minututik gora galdu zituen, eta Pantanik minutu erdia. Olano onenekin sartu zen, kostata izan bazen ere. Gaur etapa laua dute.

SAILKAPENAK

LAUGARREN ETAPA

1. Danilo Di Luca (Cantina)	4:34:12
2. Gilberto Simoni (Lampre)	d.b.
3. Stefano Garzelli (Mapei)	d.b.
4. Giuliano Figueras (Panaria)	d.b.
5. Davide Rebellin (Liquigas)	3ra
12. **Unai Osa** (IBanesto.com)	d.b.
18. **Abraham Olano** (ONCE-Eroski)	9ra

NAGUSIA

1. Dario Frigo (Fassa)	17:21:19
2. **Abraham Olano** (ONCE-Eroski)	12ra
3. Gilberto Simoni (Lampre)	13ra
4. Wladimir Belli (Fassa)	17ra
5. Jose Azevedo (ONCE-Eroski)	19ra

ZIZTU GIZIAN ■ **Xabier Usabiaga**

Lehen eguneko ajeak

Edozein lanetan beti izan ohi da bereziki gogorra estreinako eguna, eta ziklismoa ez da salbuespena. Jakina denez, Giroak, mendian amaituko diren hiru etapetatik lehenbizikoa izan zuen atzo, eta ziklista hainbati aje gehiegi antzeman zitzaion, ustekabean. Arrazoiak desberdinak eta anitz izan daitezke.

Batzuek litekeena da zailtasunak izatea ordekatik mendirako aldaketan. Desarrollo diferenteak erabiltzen dira batean zein bestean, pedaleoaren kadentzia ere moteldu egiten da, eta gorputzaren exijentzia, aldiz, hazi. Guztiek ez dute egoera horretara bat-batean egokitzeko erraztasun bera, eta, segur aski, arrazoi honen adibiderik onena ibanesto.com taldeko Leonardo Piepoli da; atzo minutu eta erditik gorako atzerapena izan zuen eskalatzaile italiarra, alegia. Piepolik bigarren postuan amaitu zuen Trentino Giroa orain gutxi (hilaren hasieran) Francesco Casagrandaren atzetik; hortaz, sasoi bikainean da, eta bere ibili eskasa arrazoitzeko ez zait beste argumenturik bururatzen.

Litekeena da, besteak beste, Abraham Olanoren zailtasunen iturburua ere (aurreko tropeltxoan igo zen, baina estu eta larri) hori izatea, ez baita gauza bera gertatzen zaion lehenbiziko kasua. 1996an, Giroa hirugarren amaitu zuen hartan, ez zen lehen hamarren barruan sailkatu mendian amaitu zen estreinako etapan (Monte Sirino), baina handik aurrerako mendatetzar guztietan aurreneko seietan helmugaratu zen. Horrenbestez, baikorrek badute itxaropena izateko argi printza bat, baina ezkorrek, ur txikietan larritzen dena, handietan ito egiten dela esango dute.

Beste batzuen hutsegitea, berriz, prestaketa eskasiak adieraz dezake, eta, Marco Pantani izan daiteke hori azaltzeko adibiderik egokiena. Mercatone Unokoak bizpahiru karrera baino ez ditu amaitu aurtengo denboraldian, eta, beharbada, gorputzak ez dio nahi bezala erantzun garai bateko pedalkada arin bizia eskatu dionean. Hori hala bada, ez du oraindik etsitzeko motiborik, egunek aurrera egin ahala sasoiak gorantz egingo baitio italiarrari, eta azken aste erabakigarrian aurkariak menderatzeko lain izan baitaiteke. Bere ahuldadearen arrazoia besteren bat bada, ordea, komeriak izango ditu bere xedea erdiesteko.

ESPAINIAKO KOPA. Ademar Leon, Portland, Bartzelona eta Ciudad Real dira irabazteko aukera gehien dituztenak

CIUDAD REAL

Datorren urterako talde beldurgarria osatu du

Diruak agintzen du kirolean, eta Ciudad Realen zorioneko dira. Domingo Diaz de Mera presidenteak datorren urtean talde indartsua osatzeko diru laguntza handiak lortu ditu bi enpresengandik —Ciudad Realgo aireportua, eta On Kixote parkea—, eta Bartzelonaren pareko aurrekontua du jadanik. Lotuta ditu Duixebaev, Urios pibota —jokatzen ari da jada—, Pogorelov, Pajovic eta Sterbic. Vujovic entrenatzailea ekarri zuten talde handi hori zuzentzeko, baina orain zurrumurruek diote Juan de Dios Roman nahi dutela. Fitxaketa garestiak gauzatu ahal izateko tratu bereziak egin dituzte zenbait enpresarekin. Horrela, Vitafresh enpresak Duixebaeven fitxa ordainduko du, eta ordainean harenirudia erabili ahal izango du bere produktuak saltzeko.

PORTLAND

Alvaro Jauregik agur esango du denboraldi amaieran

Alvaro Jauregi kapitainak adierazi du Ciudad Realgoa izan daitekeela berak jasoko duen azken kopa. Oraindik behin betiko erabakia hartu ez duen arren «litekeena da», hau izatea bere azken denboraldia. Jauregik 33 urte ditu eta horietarik 15 egin ditu San Antonion. Klubaren unerik latzenak bizi izan ditu, baina azken urte hauetan zerua ukitzeko aukera izan du.

FITXAKETAK

Demetrio Lozanok Alemaniako THW Kiel taldean jokatuko du datozen hiru denboraldietan

Oraindik kontratua sinatu ez duen arren, THW Kiel taldeko presidente Georg Werner presidenteak esan du akordioa erabatekoa dela Bartzelonarekin zein jokalariarekin. Demetrio Lozanok hiru urterako kontratua sinatuko du.

Jovanovicek 15 partiduko zigorra jaso dezake Alemanian, eta Asobalera itzultzea aztertzen ari da

Nedeljko Jovanovici 15 partiduko zigorra ezar diezaioke Alemaniako Federazioak, azken partiduan aurkari bati muturreko bat emateagatik. Hori gertatuko balitz, bere kluba (Hameln) 2002. urtea arte duen kontratua eteteko prest legoke, eta Jovanovicek Asobal Ligara itzultzeko aukera aztertuko luke. Hori bai, Alemaniako Federazioak ez omen dio alde egiteko baimena emango zigorra bete arte.

SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandea, maiatzak 27, 18:00etan

Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - MALAGA C.F.

TXARTEL SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUMean Ostiralean 17:30etatik 20:00etara, larunbatean, 10:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 20:00etara, igandean, 10:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik aurrera.

Athletic Club - Malaga partidarako sarrerak BBKren autozerbitzuko kutxazainetan eskuratu ahalko dira.
Zerbitzu hori doako da, eta financia txartela duten erabiltzaile guztiek baliatu ahalko dute, maiatzaren 25etik aurrera, eguneko 24 orduetan.

LEZAMAKO KIROL INSTALAZIOAK

Igandea, maiatzak 27, 11:30etan

Errege Kopako final laurdenak - Gazteen Ohorezko Maila

ATHLETIC CLUB – C.D. TENERIFE



Coche Oficial del Athletic Club


Indarrak parekatuta, inoiz baino hautagai gehiago

Portland-Granollers eta Bidasoa-Bartzelona final-laurdenak gaur

Gorka Zabaleta | **DONOSTIA**

Titulua irabazteko faboritoak, betikoak dira —Bartzelona, Ademar eta Portland—, baina aurten ezustekorako inoiz baino aukera gehiago daude, indarrez oso parekatuta iritsi baitira talde guztiak denboraldi amaierara. Ciudad Realek etxean jokatzen du eta Kopa irabaztea datorren urterako osatu duten talde beldurgarriarentzat —Duixebaev, Pogorelov, Pajovic,...— atariko paregabea litzateke. Vujovicek zuzentzen duen taldea oraindik ez da Ligako handien parera iristen, baina txapelketa ona egin nahiko dute jarraitzaileengan —eta babesleengan, batik bat— ilusioa pizteko. Final-laurdenetan, ordea, Kanarietako Galdar izango du aurkari, une honetan sasoi onenean dagoen taldea, Ademar Leonekin batera.

Leondarrek Liga irabazteko aukera ezin hobea dute aurten, eta oraingoz ongi erantzuten ari dira Bartzelonak bigarren postutik eragindako presioari. Magnus Andersson suediarra fitxatu dute denboraldiko azken txanparako, eta haren esperientziak lasaitasun handia eman die. Final-laurdenetan Valladolid izango dute aurrean, eta arazo handirik gabe gainditu beharko lukete. Ademar da, akaso, faborito nagusia.

Bidasoak lan zaila du Bartzelonaren aurka

Bi euskal taldeetatik Bidasoak du aurkari gogorrena. Bartzelona ez dago bere unerik gozoenean, baina talde handia izaten jarraitzen du. Europako Kopa galdu zuten San Antoniorekin, Ligak ihes egin die ia, eta jokalari garrantzitsuak dituzte min hartuta (Barrufet, Masip). Agian horrek arriskutsuago bihurtzen ditu, Kopa irabazi nahiko baitute, nola edo hala, denboraldi garratza apur bat gozatzeko. Bidasoak dena eman beharko du aurrera egiteko baina ez zaio beste aukerarik gelditzen datorren urtean Europan jokatu nahi badu.

Portland San Antoniok eman dezakeenak sortzen ditu zalantza gehien. Europako Kopa irabazi zutenetik, nafarren jokoak behera egin du nabarmen, eta defentsan ezinbestekoa den tentsio puntua galdu dute. Baina azken ahalegina egiteko prest agertu dira, eta badakite hiru partidu irabazita denboraldiko hirugarren titulua irabazteko moduan direla. Hori edonor berrindartzeko nahikoa arrazoi bada. Aurrean Granollers izango du. Sead Hasanefendicen taldeak Vranjes suediarraren baja izango du, baina Portlandi irabazteko ilusioarekin daude. Ligan joko ona egiten ari dira bigarren itzulian, eta talde arriskutsua da, egun ona duenean.

Bistan da, arrazoi ezberdinengatik, indarrak nahikoa parekatuta daudela, eta horrek aukerak zabaltzen dituela.


MIKEL SAIZ

Portland San Antonioko Oleg Kisselev, aurreko partidu batean.

Espainiako Kopa Ciudad Realen



MIKEL GOÑI ASPEKO AURRELARIA

«Udak beldurra ematen dit, festen tentazioa beti hor dagoelako»

Azkena jokatutako hiru partiduak jarraian eta bikain irabazi ditu. Logroñon egiten ari den «lan gogorra» fruituak ematen ari dela dio, eta lehen ez zeukan zerbait duela orain: «Ilusioa». Iragana ahaztu eta datorkionari aurrez aurre begiratu nahian ari da.

Enekoitz Telleria | TOLOSA

Txalo artean doa Mikel Goñi aldageletara. Tolosako Beotibarren beste erakustaldi bat eman du. Aldageletan sartzera doala, Enrike Galarzarekin egin du topo —jaialdiko aurreneko partidua jokatu du hark—, irribarre egin eta esan dio: «Hau duk gozamena!».

■ Zure «gozamen» hori kantxan ari gara nabaritzen, eta gozatzen gu ere horregatik.

Azken bolada honetan oso gustura ari naiz. Azken hiru-lau partiduak onak egin ditut, eta egia da gozatzen ari naizela kantxan.

■ Zorionak partidu horiengatik, eta zorionak egoerari buelta ematen ari zarelako.

Bazen garaia. Horretarako ari gara lanean, hori da gure nahia, ea pixkanaka lortzen dugun.

■ Zer da, garaizegi oraindik zorionak ematen hasteko?

Ez, ez. Ni pixkanaka-pixkanaka ari naiz, baina orain uda dator eta... Beno, noizbehinka parranda egitea ere ez da txarra.

■ Bereziki kezkatzen zaitu udak ala?

Beldur pixka bat ematen dit, festak daudelako nonahi, beti tentazioa alegia. Han eta hemen jaietan daude, batean eta bestean gonbidatzen zaituzte, zaila izaten da ezetz esatea. Hori da nire beldur bakarra.

■ Izan ere, ez da erraza askotan zure lekuan jartzea. Alegia, zenbaiterano ez zaion jendeari gehiago gustatzen Mikel Goñi *gaiztoa,* Mikel Goñi *zintzoa* baino.

Hori da funtsean nire dilema handiena, non ote dagoen koska edo noraino.

■ Lana egin eta uzta jaso. Hori omen da, ordea, oraingo zure filosofia.

Bai, bide horretatik gabiltza. Orain arte, lana gogor egin dugu, eta emaitzak ere hasi dira iristen. Ni neure buruarekin lasaiago nago, eta hori nabaritzen dut frontoian.

■ Logroñon bizi zara, eta Joaquin Plazak estu hartu zaitu. Zergatik Plazak bai, eta orain arteko guztiek ez?

Ez dakit. Berak hartu nindunean, lur jota nengoen. Nire une larri guztietan nirekin egon da, nire aldamenean, eta horregatik lortu du, ziurrenik, beste inork lortu ez duena. Orain bide onetik ari naiz.

■ Zer utzi duzu atzean bide on horretan sartu aurretik?

Gauza asko, baina nahiago dut ez esan. Horiek guztiak nire buruan gelditzea nahi nuke.

■ Zer gauza berrirekin ari zara topo egiten orain?

Emaitzekin, batik bat, eta jendearen jarrera on horrekin. Berriro bueltatzen ari dira frontoietara. Gauza horiek aurrera egiten jarraitzeko indarra ematen dute.

■ Izan ere, benetan une latzak bizi izan zenituen.

Oso une txarrak izan ziren. Pilota uztekotan egon nintzen, baina orain neure burua oso ongi ikusten dut, eta orain ilusioa daukat.

■ Norbaitek kale egin dizu?

Jende askok, bai, jende askok. Horregatik, hau guztia esperientziatzat hartu behar dut.

■ Gogorra izango da, frontoiaz kanpoko zure jarrera horren ondorioz, frontoian bertan zure lagunek zurekin jokatu nahi ez izatea.

Pilotari batentzat gerta liteke-en gauzarik gogorrenetako bat da hori, baina normala da, era berean. Izan ere, zuk frontoian ez baduzu behar bezala errenditzen, zurekin jokatzen ari denak segituan pentsatzen du: 'Hi, ni ez nauk hire zaintzailea'. Normala da, bakoitzak bere burua zaintzen jakin behar du hemen.

■ Eta zu zeure burua zaintzen, eta jendea berriro frontoiak betetzen, nahiz eta askok etsita atzera egin zuten eta aspertu egin ziren zutaz.

Jende horri eskertu egin behar zaio bere portaera. Nik haiei esker jaten dut, eta haiek frontoiara etorriko ez balira, nik ez nuke jango. Pilotan egun handi asko eman nahi dizkiet.

■ Ari zara, baina hobetu beharra omen daukazu.

Bai, oraindik ez nago betebetean. Guztia eman beharrean nago, uda honetan partidu asko izango ditut ziurrenik, eta lau t'erdiko txapelketa ere ongi prestatu nahi nuke. Bada garaia txapelen bat lortzeko.

■ Eta zure ingurukoak, etxekoak batik bat, hobeto.

Beste giro bat dago orain etxean. Aste barruan beti deitzen diet, eta asteburuan ia beti bazkaltzera joaten naiz etxera.

■ Igandean jokatuko da Manomanistako finala. Zein da zure hautagaia?

Finalak partidu bakarrera jokatzen dira, eta edozer gauza gerta liteke. Eugik bere aurreneko partiduan ez zuen asko jokatu, baina esaten dute entrenamenduetan-eta oso ongi dabilela. Eugi ongi badabil, berak irabaziko du.

GARI GARAIALDE



JOAQUIN PLAZA

> «Berak hartu nindunean, lur jota nengoen. Nire une larri guztietan nirekin egon da. Horregatik lortu du, ziurrenik, beste inork lortu ez duena»

PILOTAZALEAK

> «Jende horri eskertu egin behar zaio bere portaera. Nik haiei esker jaten dut, eta haiek frontoira etorriko ez balira, nik ez nuke jango»

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Beloki eta Eugi ongi ari dira entrenatzen

Herenegun aritu zen Ruben Beloki, eta atzo bertan Patxi Eugi. Aurtengo Eskuz Banakako Txapelketako bi finalistak gogor eta ongi ari dira entrenatzen ekainaren 3rako finalerako, Donostiako Atano III.ean. Beloki bihar bueltatuko da Gipuzkoako hiriburura, Ezkarain (Errioxa), Asegarce-Alti-Maeskuko pilotariak egiten ari diren kontzentrazioa amaitutakoan. Patxi Eugi txapelduna, aldiz, atzo aritu zen Oscar Lasarekin entrenatzen. Bi orduko saio gogorra egin zuen.

Julian Retegi bikain ari da osatzen

Iruñeko Labrit pilotalekuan bi orduko saio egin zuen Julian Retegik herenegun. Iñaki Esain eta Oscar Lasarekin entrenatu zen, Iñigo Simon medikuari horretarako baimena eskatu ostean. Ez zuen bere burua askorik behartu, baina ongi aritu zen. Lau t'erdiko txapelketan parte hartzea ez du baztertu Eratsungoak, oraingoz, eta sanferminetan Iruñean ariko dela ziurtzat ematen da.

Nafarroako lau t'erdiko txapelketa aurkeztuko dute gaur, Iruñean

Iruñeko Fuerte del Principe gazteen egoitzan aurkeztuko dute, gaur (11:00), aurtengo Nafarroako lau t'erdiko txapelketa. Bi adarretan banatuta jokatuko da, finala arte. Asegarce-Alti-Maesku ariko dira batean, eta Aspe bestean. Lehen adarra etzi abiatuko dute Carlos Armendarizek eta Asier Olaizolak, Lizarran —Tele 5ek emango du, Asegarcek eta Maeskuk lortu dutelako irudi eskubideen gainean akordioa— . Beste xehetasunak, gaur.

JAIALDIAK

ATZOKO EMAITZAK
CARMELO BALDA.
Zabalza-Ziskar 20; Sanchez-Agirre 30.
Insausti-Fernando 40; Urkia-Beldarrain 39.
Egiguren anaiak 24;
Berraondo-Aranburu 30.

BIHARKO PARTIDUAK
GALARRETA. 16:00.
Martinez-Etxeberria II.a / Larrea-Zestau.
Ezkurra-Txikuri / Zeberio II.a-Lizaso.
Altuna I.a-Aizpuru / Iñigo-Eizagirre.
Zeberio I.a-Zubeldia / Bitoria-Etxebe III.a.
DEPORTIVO. 17:00.
Sanchez-Ziskar I.a / Urkijo-Fernando.
Daniel-Rekalde / Ziskar II.a-Garrido.
Unda I.a-Garma II.a / Iriondo-Beldarrain.

HITZ BITAN

NBA

Philadelphiak irabazi du ekialdeko finaleko aurreneko partidua

Philadelphia 76ersek irabazi du ekialdeko konferentziako finaleko aurreneko partidua Milwakee Bucks mendean hartuta (93-85). Allan Iverson izan zen partiduko jokalari erabakigarria, aurreneko bederatzi jaurtiketak huts egin bazituen ere. Iversonek 35 puntu sartu zituen, eta Mutombok 15 puntu sartu eta 18 errebote jaso. Bigarren partidua gaur gauean jokatuko dute.

FUTBOLA

Artetak PSGn jarraitzea lehentasuna dela dio Luis Fernandezek

Paris Saint Germain taldeko entrenatzaile Luis Fernandezek atzo esan zuenez, «hurrengo denboraldirako lehentasun nagusia Mikel Artetak PSGn jarraitzea da». Bartzelonak utzita ari da Frantziako hiriburuko taldean 18 urteko donostiar gaztea abenduaz geroztik, baina Luis Fernandezek hasieratik konfiantza handia izan zuen Artetarengan eta honek maila ona eman du PSGren zelai erdian.

TENISA

Piercek ezingo du iazko garaipena errepikatu Roland Garrosen

Mary Pierce tenislari frantziarrak ez du Roland Garrosen parte hartuko lesio bat medio. Roland Garros torneoa iaz irabazi zuen Piercek eta aurten lan txukuna egiteko asmoa zuen, baina bizkarreko lesio baten erruz ez da astelehenean Parisko tenis pistetan izango. «Oso triste nago titulua ezingo baitut defendatu», esan zuen atzo tenislari frantziarrak.

ERRUGBIA

Miarritzeko Gonzalez entrenatu ezinik dago final-laurdenetako partidari begira

Igandean jokatuko du Miarritzek Frantziako Ligako final-laurdenetako kanporaketa Staderen kontra. Miarritzek amaitu ditu Aguilerako entrenamenduak, eta bihar abiatuko da Parisa. Gonzalez kapitaina izango da duda hamabostekoan, herenegun eta atzo ez zelako entrenatu, gerritako arazoengatik. Gainerako guztiak prest daude, baita Bernat-Salles ere.

BOB EDME

Euskal Herriko lasterketa herrikoia igandean Antiguan, ekainaren 3an Baionan

Egunkariaren Lagunak kultur elkarteak antolatzen duen Euskal Herriko lasterketa herrikoien txapelketako bigarren edizioaren baitan, Antiguako 10 kilometroko lasterketa jokatuko da igande honetan Donostian. Atzo, gainera, ekainaren 3an Hazparnetik Baionara eginen den lasterketa aurkeztu zuten, txapelketako «etapa erregina» Beñat Zuburu, Olivier Couchau eta Kike Zurutuza ikastoletako guraso eta antolatzaileek azaldu zutenez. 24 kilometroko proba bakarrik edo binaka egiten ahalko da. Txapelketa ekainaren 24an Bilbon eta udazkenean Gasteiz eta Iruñean eginen diren lasterketekin osatuko da. Amsterdam eta Pariserako bidaia dira sari.

HARRI-JASOTZEA. Leitzarrak lehen ahalegina egingo du harri horrekin errekorra ezartzeko, Orkoienen

330eko mugara heldu da Saralegi, baina dena beharko du harri hori leporatzeko, larunbatean

Koldo Alduntzin | ORKOIEN

Askotan errepikatu duen helmugara iristen ari da Miel Saralegi, larunbatean 330eko harritzarra leporatzen ahaleginduko baita Orkoiengo (Nafarroa) pilotalekuan (17:00). «Orain lau urte erotzat hartzen gintuzten 330ekoa jasotzera heltzen saiatuko ginela esaten genuelako», aipatu izan du behin eta berriz Saralegik. Bada... atarian dago, eta «jaso edo ez jaso», aurrera segituko duela dio. Herenegun egin zuen azken proba 330ekoarekin, eta orduan baino hobeto egiten ahal du larunbatean, bestela ederki kostako zaio.

Atzo egin zuten errekor ahaleginaren aurkezpena Orkoiengo udaletxean, eta Saralegik adierazi zuen «Lekunberrin erabilitako harria» erabiliko dutela, kilo bat gehiagorekin. «Behealdean» erantsi diotela zioen, eta horren arrazoia: «329ko marka egin genuenean harria ateratzea eta bularrera jasotzea ona izan zen, han eragiten baitu pisua era horretan jartzea».

Sasoia aurrera doa, eta laster markak egiteari utzi, erakustaldiei ekin eta ezkondu egingo da.

KOLDO ALDUNTZIN
Saralegi atzoko prentsaurrekoan, Orkoiengo udaletxean.

Oraindik, halere, sasoiko dagoela dio: «Gutxi gorabehera, ohi bezala. Eguraldi aldaketak belaunari eragiten dio, baina gauza larririk ez. Ongi prestatuta nago, eta joan zen urritik honantz eginiko prestaketa baliatu nahi dugu. Lekunberrikoa primeran irten zen, eta ez genuen aukera hau galdu nahi».

Prestakuntzaz ere bi hitz egin zituen: «Aurten pisu-halterei dagokienez, sentadilletan 20 kilo gehiago jasotzen ditut, eta pozik nago; 510 kilo jasotzen ditut». Entrenamendu egun bat nolakoa den azaldu zuen: «Harriarekin aritzen naizenean bi ordu egiten ditut, beroketa eta guzti. Pisu-halterekin, berriz, 07:00etan hasi eta 09:30 jota amaitzen dut; aspertzen naiz.

Eskaintza gehienak Nafarroan

Azkenaldian errekorrak ezartzeko ahalegin gehienak Nafarroan izan ditu, eta horren arrazoia, «eskaintza gehienak hemen daude, guretzat hurbilago daude, eta aspaldian Gipuzkoa eta Bizkai aldean egin genituenez, orain hemen dagokigu. Olatzen eta Lekunberrin, gainera, ongi irten zen, eta tira...»

Casimiro Larreak, (Orkoiengo alkatea) esan zuen ekitaldia herrian antolatzea «ikuskizun erakargarria» dela, eta errekorra Orkoienen egitea «polita» litzatekeela. Halaber, «Eskola» izan zutela garai batean, eta «zaletasunak bultzatuta» erabaki zutela saioa antolatzea. Bestetik: «Orkoieni bultzada emango dio. Orain gutxi arte ez zen deus, eta gorantz doan herria denez, ekitaldiak izena hartzen lagundu egingo diote».

Udalak milioi erdi pezetako (20.000 libera) diru laguntza emango du errekorragatik.

Soinu bizien maisua

Euskal soinu tresna, tinbre, erritmo eta estiloen bilduma da Juan Mari Beltranek bi hilabete barru kaleratuko duen disko berria



EDURNE KOCH

IZk Amasan duen estudioan grabatu du Juan Mari Beltranek No-CD Recordsen eskutik plazaratuko duen disko berria.

42

MUSIKA. 45

Jaume Badia: «Artisten proiektuak errespetatzea da gure arrakasta»

Gasteizen izan zen atzo Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroko gerentea, bere iritziak azaltzen

ANTZERKIA. 46

Euskaraz egindako antzerkiaren forma ugari erakutsiko ditu aurten ere Debako Antzerkiaren Asteak

OSASUNA. 39

Eskasa, nahasia eta kontraesankorra da, oro har, Interneten dagoen informazioa

IKERKUNTZA. Laborategian oso emaitza onak lortu ditu Erresuma Batuko ikertalde batek

JOSU ETXEBARRIOSTE

Lorategiko landareen erakusketa.

Minbizia osatzeko saioak egiten ari dira, landare hormonak erabilita

Landareetan ohikoa den osagai bat oso erabilgarria izan daitekeela ondorioztatu dute

Agentziak | **LONDRES**

Landare gehienek berezkoa dute AIA hormona (azido indolazetikoa). Ezinbestekoa dute bizitzeko, beren hazkundea kontrolatzen baitu. Antza, aurki ezinbesteko bihur daiteke hormona hori botikagileentzat ere. Izan ere, Erresuma Batuko Minbiziaren Ikerketen Kanpainako zientzialariak saioak egiten ari dira, hormona hori erabiliz, minbizia sendatzeko.

Aditzera eman dutenez, laborategian egin saioetan nahikoa emaitza onak lortu dituzte. Hormona horrekin egindako botika bat erabiliz minbizidun zelulei aurre egitea lortu dute, hain justu, gaixotutako zelulen %99,9. desagertzea. Oraindik pertsonekin eta animaliekin ez dute egin saiorik, ordea, eta horregatik, zuhur jokatu nahi dute, esperantza faltsurik zabaldu gabe.

Hainbat onura

Nolanahi ere, orain arte eginiko saioek itxaropen izpi bat piztu dietela ezin dute ukatu. «Txundituta gaude. Izan ere, lorategietako landare xumeen hormonek minbiziaren kontrako ikerketa aitzindaria bideratu dezaketela ikusi dugu», azaldu du, esaterako, ikerketako zientzialarietako batek, Gray Center Institutuko zientzialari Peter Wardmanek. Aditzera eman duenez, uste berekoak ditu ikerketan esku hartu duten gainerako ikertzaileak ere: AIA hormona erabiliz egindako botikak onura handiak ekarri ditzakeela pentsatzen dute.

Esaterako, estreinako ikerketen arabera, botika horrek eragiten dituen nahigabeko ondorioak arinak dira. Zuzen-zuzenean minbiziak jotako zelulen kontra egiteko gaitasuna du. Hori aurkikuntza garrantzitsua da oso. Izan ere, normalean oso bortitzak izaten dira minbiziari aurre egiteko substantziak, eta tumoreaz gain, gorputzeko atal osasuntsuei ere erasaten diete. Ikertzen ari diren botikak badu, itxura guztien arabera , beste onura nabarmen bat ere: tumore klase orori aurre egiteko balio dezake.

Dena den, minbizidun zelulak erasan eta gainerakoak ez kaltetzeko ahalmenak txunditzen ditu batez ere zientzialariak. «Izan ere, hori da minbiziaren kontrako botikak ikertzen ari garenon erronka nagusia, soilik gaixo dauden zelulak erasaten dituzten botikak sortzea», gogoratu zuen atzo hedabideen aurrean Peter Wardmanek.

Ikerketako arduradunek aditzera eman dutenez, ikertzen ari diren hormonaren gakoa, substantzia toxikoak sortzeko duen gaitasunean datza. Antza, errefauan agertu ohi den entzima batekin nahasten bada zati txiki-txikitan bereizten da, eta gaitzari aurre egiteko beharrezkoak diren substantzia toxikoak sortzen ditu, oso eragingarriak.

Substantzia horiek soilik gaitzak jotako zelulei erasateko minbiziaren antigorputzak erabiltzen ari dira ikertzaileak beren saioetan, eta agian teknika genikoak erabiltzen ere hasiko direla esan dute.

Barazkien bidez hiesari aurre egiteko babesa eskaini ahal izango dela iradoki du Estatu Batuetako ikertalde batek

Agentziak | **ORLANDO**

Proteina jakin batzuez hornitutako ziazerbak hiesari aurre egiteko esperantza berria bihurtu daitezkeela iradoki du Estatu Batuetako Thomas Jefferson Unibertsiateko zientzialari talde batek. Estatu Batuetako Mikrobiologia Elkartearen urteroko biltzarrean egin dute beren aurkikuntzaren aurkezpena, eta aipatu barazkiak birusari aurre egiteko txerto zein sendabide gisa erabili ahal izango direla iradoki dute.

Ikertzaileen arabera, ikerketa hau bideratzean batez ere herrialde behartsuetako gaixoak —milioika eta milioka dira, izurrite larria da hiesa nazio pobreenetan— izan dituzte gogoan. Izan ere, gaitzaren kontrako babesa barazkien bidez eskaintzea, ohiko txertoak eskaintzea baino merkeagoa izango dela azaldu dute. Halaber, prozesua naturalagoa dela iradoki dute, segurtasun osoa bermatzeko modukoa.

Antza, gaitzaren kontra egiteko laborategian sortu dituzten ziazerbek baikor izateko motiboak eman dizkiete zientzialariei. Propio hiesaren aurka egiteko proteina bat erantsita izan arren ez direla barazki transgenikoak esan dute. «Beren itxura eta zaporea normala da», esan dute, baina gaitzaren kontrako babes sortzaile izan daitezkeela. Nolanahi ere hiesa gaitz konplexua dela onartu dute, eta oraindik hainbat itzal daudela barazki horien erabilgarritasunaren inguruan. Horregatik, ikertzen jarraitu behar dela esan dute.

KLONAZIOA

EEBBetan auzitan jarri dute gizakiak klonatzea legez kanpokoa den

Agentziak | **WASHINGTON**

Estatu Batuetako Elikagai eta Botiken kontrolerako administrazioak gutun bana igorri die pertsonak klonatzeko asmoa azaldu berri duten zientzialari biri: sekta bateko buru Brigitte Boisseler-i zein Panos Zavos zientzialariari.

Biei gogora ekarri die gutunean debekatuta dagoela gizakiak klonatzea. Hala, asmoan aurrera segitzen badute, beren kontrako neurriak hartuko dituztela esan diete. Giza klonazioaren aldeko bi zientzialariek, auzitan jarri dute, ordea, aipatu administrazioak beren jarduna galarazteko izan dezakeen ahalmena. Eta, itxura guztien arabera, badute arrazoi apur bat. Legeetan aditu diren hainbat ikertzailek ere legedian hutsune bat dagoela onartu dute, eta giza klonazioaren aldeko zirrituak aurkitu daitezkeela.

OSASUNA

Hezurretako minbiziak gero eta sendabide hobea dauka

Efe | **IRUÑEA**

Gihar-Hezurrertako Onkologiaren Europako Elkartearen biltzarra hasiko da, gaur, Iruñean, Nafarroako Klinika Unibertsitarioan. Biltzarreko batzorde eragileko kide Mikel San Julianek atzo aditzera eman zuenez, hezurretako minbiziak gero eta sendabide hobea du.

San Julianek oraindik ere kezka handia eragiten duen gaitza dela gogoratu zuen, eta oinaze handia eragiten duela, batez ere haur eta gaztetxoen artean agertzen delako. Nolanahi ere, esan zuen, medikuntzak aurrera begirako urrats asko egin dituela; eta garai batean, gehienetan tumore gaiztodun gorputz-atala moztu behar izaten bazen ere, orain, hamarretik bederatzitan saihestu egiten da.

«Net doktorea, gaixo nago; senda nazazu»

OSASUNA SAREAN. Interneten ediren daitekeen informazioa, orohar, eskasa, kontraesankorra eta irakurgaitza da

Juanma Sarasola | **DONOSTIA**

Sarean osasun argibideak xerkatzeko tenorean zail samar gerta dakiguke, eta, maiz, gomendio eta informazio eskasa eta kontraesanez beterikoa aurkitzea egokituko zaigu. Horiexek dira EEBBetan egin duten ikerketa baten ondorio nagusiak. Ikerketa hainbat webgune aztertuz burutu dute.

Gaixo zaudela? Internetera jo. Horixe da, globalizazioaren garaian, EEBBetan eta munduan barrena jende askorengan errotzen ari den joera. EEBBetan 100 milioi pertsonak osasun informazioa lortzeko Internetera jotzen dute; horietako %70 bertan topatutakoan oinarritzen dira botikak hartzeko.

Journal of American Medical Association (JAMA) aldizkariak atzo kaleratu ikerketan dioenez sarean osasun argibide landua topatzea zaila da. Gainera, informazio kontraesankorra eta usu irakurgaitza ediren daiteke.

Osasun webgune anitzen helburua produktuak saltzea da

Rand korporazioak burutu zuen ikerketa, iazko uztaila eta abendua artean, ingelesezko eta gaztelaniazko 25 webgunetan. Horrela, lau gaitzen inguruko argibideen nolakotasuna, berau xerkatzeko zailtasuna, irakurgarritasuna eta egokitasun zein zehaztasuna aztertu zituzten. Ondoren, Interneten eskuratu informazioa 34 medikuk aztertu eta beren iritzia eman zuten.

Ikertzaileen arabera, beti ere osasun argibideei dagokienez, gobernuaren eta unibertsitateen webguneak komertzialak baino hobeagoak dira.

Ikerketan onenen artean sailkatu duten eta minbiziaren gainean informazioa eskaintzen duen *Oncolink* webguneko zuzendari James D. Metz doktoreak azaldu duenez txoil zaila da webgunean kalitate handiko informazioa mantentzea; «Gure webgunearen eduki osoa mediku, erizain eta gizarte langileek idazten dute, nork bere espezialitatekoa; oso gune gutxik egiten dute hori». Metz arrenguratu da webgune askoren xedea soilik komertziala dela: «webgune gehiegi daude zerbait saldu nahian, eta izugarria da zein aise lor dezaketen gune txar batek on itxura izatea».

Argibidea ez dago hain eskura

Interneten bularreko minbizia, umeen asma, depresioa eta gizentasunari buruzko informazioa bilatzean, ikertzaileek honako emaitzak jaso zituzten: bularreko minbiziaz, ingelesezko 18 webgunetako %63tan argibide osatua eta egokia aurkitu zuten; umeen asmaz, %36etan; depresioaz, %44tan, eta gizentasunaz, %37tan.

Gisa berean, ingelesezko webguneetako irakurgarritasuna neurtu zuten, eta EEBBetako maila estandarretik goragokoa zela kausitu zuten, hau da, jende askori informazioa konprenitzea kostatuko litzaiokeela, edo ez lukeela ondo ulertuko.

Bestalde, ikertzaileek bilatutako gaien %25 ez zuten jasotzen ingelesezko webguneek, eta gaztelaniari dagokionez, portzentaia hori %53koa zela ikusi zuten. Esaterako, umeen asmaren gaineko informazio gutxi idoro zuten ingelesezko zein gaztelaniazko guneetan.

Internet osagarri gisa soilik baliatzeko gomendatu dute

Ikerketa babestu duen California Health Care Foundationeko Kalitate Institutuko zuzendari Ann Monroek oraindik lan asko egiteko dagoela nabarmendu du. «Irakurgarritasuna da lehen-lehenik konpondu behar den auzia; jendeak informazioa aurkitzen duenean ezin baitu berau entelegatu».

Gauzak horrela, Rand Institutuko ikertzaile Marc Elliottek kontsumitzaileek webgune bat baino gehiago arakatzea gomendatu du, baina «medikua ordezkatu beharrean Interneteko argibidea osagarri gisa soilik erabiltzeko» gomendatu du.

Ildo beretik doaz JAMA aldizkariko beste artikulu bateko aholkuak. Gainera, medikuei webguneei buruzko gomendioak eskatzea, informazioa idazten duen jendearen kreditazioa baieztatzea, eta webgunearen atzetik daudenak zerbait saltzeko interesa dutenetz zehaztea aholkatu du.



GREG WOOD / EPA

Askok eta askok osasun argibideetarako iturri bakarra Internet dute, batez ere EEBBetan, eta horretan oinarritzen dira botikak hartzeko.

MARC ELLIOTT

Rand Institutuko ikertzailea

«Medikua ordezkatu gabe, Interneteko argibidea osagarri gisa soilik erabili behar da»

LABURREAN

ESPAZIOA

NASAk iritzia aldatu du, eta bidaietan turistak onartuko dituela esan du

NASAko zuzendari Dan Goldinek jakitera eman duenez, etorkizunean, baliteke turisten parte hartzea onartzea EEBBetako espazio agentziak. Dennis Tito estatubatuarra Errusiako *Soyuz* ontzian espaziora joateari oztopo franko jarri ondoan, orain iduri du NASAk iritzia aldatu duela. Izan ere, NASA izan zen lehena astronautak ez ziren pertsonak espaziora joateko proposatzen. Hala, 80ko hamarkadan bidaietarako zerrenda bat ondu zuen kazetari, artista, irakasle eta abarrekin. Alta bada, 1986an *Challenger* transbordadorea aireratu ahala lehertu zenean programa bertan beheiti geratu zen; Christa McAuliffe maistra eta sei astronauta hil ziren istripu hartan. Goldinen arau, espazioko *Alfa* plataformaren eraikuntzarekin lotuta ez dauden misioetan zibilen esku hartzea aztertuko du NASAk.

OSASUNA

Asma tratatzeko bi botikaren egokitasuna ondorioztatu dute

EEBBetan 339 asmadunen artean egin bi ikerketetan ikusi dutenez, asma tratatzeko kortikosteroideak eta salmeterol botikak batera erabiltzea egokia da. Kortikosteroideek arnas bideen inflamazioa gutxitzen dute, eta salmeterolek, aldiz, arnas bideak zabaltzen ditu, inguruko giharrak lasaituz. Ikertzaileen arau, tratamenduan kortikosteroideak %50 murriz daitezkeen arren, ez da komeni guziz baztertzea.

BEAZ, S.A.

Akziodunen Batza Orokor Arrunterako deia egiten da, lehenengo deialdian 2001ko ekainaren 13an, goizeko 10etan, eta behar izanez gero, bigarren deialdian, biharamunean, ekainaren 14an, ordu berean, kasu bietan Bilboko Errekalde Zumardiko 18an, 6. solairuan, hurrengo zerrendan agertzen diren aztergaiei buruz eztabaidatu, ebatzi eta erabakitzeko.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDA

1go.- 2.000ko Urteko Kontuak, Kudeaketari buruzko Txostena, Emaitzen Aplikazioa, bai eta ekitaldi honetan Administrazio Organoak eraman duen kudeaketa ere aztertu eta bidezkoa balitz onartzea.

2gn.- Sozietatearen egitasmo estrategikoaren onarpena.

3gn.- Pertsonak izeneztatzea hartutako erabakiak publiko bihurtzeko.

4gn.- Bestelakoak.

5gn.- Batzaren Akta irakurri eta onartzea.

Batza Orokorraren deialdia egiten denez geroztik, akziodunek berehala jaso ahal izango dituzte sozietateak emanik sozietatearen onespenarenpeaan jarriko diren agiriak.

Honenbestez,

Se convoca Junta General Ordinaria de Accionistas para el día 13 de junio del 2001 a las 10 horas en primera convocatoria y para el día siguiente 14 de junio a la misma hora, en segunda convocatoria, en ambos casos en Bilbao, Alameda de Recalde, 18-6ª para deliberar, resolver y adoptar acuerdos sobre el siguiente,

ORDEN DEL DÍA

1.Examen y aprobación si procede, de las Cuentas Anuales, Informe de Gestión y Aplicación de Resultados del ejercicio 2000, así como de la gestión del Órgano de Administración durante el citado ejercicio.

2.Aprobación del Plan Estratégico de la Sociedad.

3.Designación de personas para la elevación a públicos de los acuerdos adoptados.

4.Varios.

5.Lectura y aprobación del Acta de la Junta.

A partir de la convocatoria de la Junta General, los accionistas podrán obtener de la sociedad, de forma inmediata, los documentos que han de ser sometidos a la aprobación de la misma.

Atentamente,

Bilbon, 2.001.eko maiatzaren 23an
ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO IDAZKARIA
SECRETARIO DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN
Izp./Fdo.: Izaskun Artetxe García

BEAZ, S.A.

Akziodunen ezohiko Batzar Nagusirako deialdia egin da. 2001eko ekainaren 13an, goizeko 10,30ean, lehenengo deialdia izango da eta ekainaren 14an ordu berean, bigarrena. Kasu bietan Bilbon, Alameda de Recalde kalean, 18 zenb. 6. solairua. Batzarrean hausnartu, xedatu eta erabaki egingo da honako

EGUNEKO GAI-ZERRENDAren inguruan.

1- Giza Estatutuen artikulu hauen aldaketa:
● XIII. artikulua. Osatzea, izendatzea eta iraupen epea zehaztea karguan aritzeko.
● XV. artikulua. Bilerak egin eta erabakiak hartu.

2- Batzar Nagusiek eta Administrazio Kontseiluak aurretiaz hartutako erabakiak berretsi, zuzendu edo osatzea, bai eta jendaurrean aurkeztu ziren eskriturak ere, dagozkion Erregistro Publikoetan erregistratzeko.

3.- Kontseilarien kargua uztea eta izendapena.

4- Erregu eta galderak.

5- Hala badagokio, bilkurako akta idatzi, irakurri eta onetsi.

Batzar Nagusiaren deialdiaren ostean, akziodunek sozietatearengandik jaso ahal izango dute, berehala, Batzarrak onetsi beharko dituen agiriak.

Begirunez,

Se convoca Junta General Extraordinaria de Accionistas para el día 13 de junio del 2001 a las 10,30 horas en primera convocatoria y para el día siguiente 14 de junio a la misma hora, en segunda convocatoria, en ambos casos en Bilbao, Alameda de Recalde, 18-6ª para deliberar, resolver y adoptar acuerdos sobre el siguiente,

ORDEN DEL DÍA

1.Modificación de los siguientes artículos de los Estatutos Sociales:
● Artículo XIII. Composición, designación y plazo de duración en el desempeño del cargo.
● Artículo XV. Celebración de las reuniones y adopción de acuerdos.

2.Ratificación, subsanación o complemento de los acuerdos adoptados con anterioridad por las Juntas Generales y Consejos de Administración de la Sociedad, así como de las escrituras en que se elevaron a públicos, con el fin de conseguir su insripción en los Registros Públicos correspondientes.

3.Cese y nombramiento de los consejeros.

4.Ruegos y preguntas.

5.Redacción, lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión.

A partir de la convocatoria de la Junta General, los accionistas podrán obtener de la sociedad, de forma inmediata, los documentos que han de ser sometidos a la aprobación de la misma.

Atentamente,

Bilbon, 2.001.eko maiatzaren 23an
ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO IDAZKARIA
SECRETARIO DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN
Izp./Fdo.: Izaskun Artetxe García

Osteguna, 2001-05-24

20. astea ▪ 140 egun igaro dira ▪ 225 egun falta dira

esaera

Hartuik entzute ona eta hatza lo

datua

184.213

Erresuma Batuan *behi eroen* 184.213 kasu gertatu dira orain arte, Europako beste herrialdeetan baino askoz ere gehiago. Europako Batzordeak 1996ko martxoaren 27an debekatu zuen Erresuma Batutik abelgorriak esportatzea. Ordurako, 175.000 kasu atzeman zituzten Erresuma Batuan. Irlandan 647 kasu gertatu dira, Portugalen 543, Suitzan 366, Frantzian 317 eta Espainian 39. *Behi eroen* jatorria Erresuma Batuan dagoela uste dute adituek. Haien arabera, 1980ko hamarkadan Erresuma Batuak behientzako irina egiteko metodoa aldatu zuen, eta irin hori egiteko, besteak beste, aheria zuten ardiak erabili zituzten. Behi bat gaixotuta dagoen jakiteko, hildako behiaren burmuinak aztertzen dira. *Behi eroen* gaitza ez da sendatzen behin kutsatuz gero, eta gizakiei ere kutsatzea posible da.

jakingarria



Bizitzaren eboluzioak aurrera darrai?

Bai, gaur egun ere eboluzioak jarraitzen du. Bizitzaren garapena ez da momentu historiko batean gertatu. Gaur egun ere, bizitza eta gauzak ingurunera egokitzen ari dira. Eta horren adibide moduan, adituek sits mota baten kasua jartzen dute. Bazen sits mota bat, Ingalaterran, zuri kolorekoa eta nabarra zena, eta ingurune hartako zuhaitzetan nahasten zena. Iraultza Industrialaren garaian, tailerretako kedarraren eraginez Ingalaterrako ingurunea asko ilundu zen; eta horregatik, sits hori ere gris kolorera joan zen bihurtzen. Eta aire garbiago baten aldeko mugimendua hasi zenean, 1960ko hamarkadan, tailerrak ke gutxiago botatzen hasi ziren, eta sits mota hark berriro jatorriko koloreranzko eboluzioa egin zuen.

telefonoak

Hegoaldetik Iparraldera hots egiteko: 00-335 aurrezenbakia. **Iparraldetik Hegoaldera:** 00-34

IPARRALDEA

Kostaldeko ospitalea	59443535
SAMU	15/59633333
Pozoitze kasuetan	56.96.40.80
Suhiltzaileak	18
Suhiltzaileak BAMen	59635555
Polizia	17
Baionako Suprefetura	59590919
Elektrika-gas arazoak	14/59521018
Errepideetako berri	56963333
Kontseilu Orokorra	59257840
Miarritzeko aireportua	59239066
SNCFko trenbideak	59555050
Laborantza Ganbera	59295043
Ordua telefonoz	3699
Meteo agiria (grabatua)	59220330
Meteo zerbitzuak	59238415
Baiona Taxi	59594848

HEGOALDEA

SOS Deiak	112
Udaltzaingoa	092
Polizia Nazionala	091
Ordua telefonoz	093
Telefono argibideak	1003

ARABA

Suhiltzaileak	945161163
Gurutze Gorria	945222222
DYA	945281020
Errepideetako informazioa	945222058
Ertzaintza-Arkaute	945282000
Miñoiak	945135500
Guardia Zibila	945256100
Txagorritxuko Ospitalea	945007000
Santiagoko O. Orokorra	945007600
Ospitale Militarra	945136577
Poliklinika	945140900
Arana Erietxea	945282800
'Naa. S. Esperanza' klinika	945252500
Asepeyo klinika	945274655/66
Araba klinika	945142100
Forondako aireportua	945163591
Gasteizko Renfe geltokia	945230202
Autobus geltokia	945258400
Radio Taxi	945273500
Elbarrituentzako taxiak	608870144

BIZKAIA

Diputazioko suhiltzaileak	949422800
Bilboko suhiltzaileak	944233000
Gurutze Gorria	944222222
DYA	944319200
Ertzaintza	944441444
Larrialdiak (Osakidetza)	944007474
Basurtuko ospitalea	944006099
Galdakaoko erietxea	944007000
Santa Marina	944006900
Gurutzetako ospitalea	946006000
Sondikako aireportua	944869301
Renfe	944238633
EuskoTren	944338008
Bizkaia irrati taxiak	944162222
Radio Taxi	944448888
Tele Taxi	944442333
Naturgas	902- 123456/ 900- 400523
Alkoholiko Anonimoak	944150751
Hiesari aurre egiteko Hiritar Elkartea, T-4	944221240

GIPUZKOA

DYA	943464622
Gurutze Gorria	943222222
Itsasoko Gurutze Gorria	943272222
Ospitale Probintziala	943006000
Erresidentzia	943007000
Gurutze Gorria (Donostia)	943214600
Gurutze Gorria (Irun)	943611203
Poliklinika	943462200
Debagoieneko erietxea	943035300
Zumarragako ospitalea	943035000
Bidasoako ospitalea	943007700
Mendaroko ospitalea	943032800
Amarako ospitalea	943007400
Ertzaintza	943288888
Guardia Zibila	943211100
Hondarribiko aireportua	943642240
Renfeko geltokia	943283599
EuskoTren	902543210
Taxi Autonomoak	943471717
Radio-taxi Donosti	943454535
Radio-taxi Santa Clara	943464646
Parada taxiak	943278825
Sanz Agirrezabala taxiak	943466757
Donosti Gas	943450200
Tolosagasa	943650782
Gas Hernani	943330928
Informazio sexuala	943320444
Donostiako suhiltzaileak	080
Gipuzkoako suhiltzaileak	088
Hiesari Aurrehartzeko eta Kontrolatzeko Egitasmoa	943006464

NAFARROA

SOS Deiak/Foruzaingoa	112
Iruñeko suhiltzaileak	948222222
DYA	948171717
Gurutze Gorria	088
Errepideetako informazioa	948237000 948427500
Guardia Zibila	948221100
Eguneko Psikiatri O.	948273812/61
Nafarroako Ospitalea	948422100
Bideko Ama Birjina O.	948429400
Noaingo aireportua	948168700
Iruñeko Autobus geltokia	948223854
Renfeko geltokia	948130202
Radio Taxi	948221212
Teletaxi	948232300

zozketak

Bonolotoa

Astelehena, 21	Asteartea, 22	Asteazkena, 23	Ostirala, 18
02 - 19 - 27 31 - 39 - 42	01 - 06 - 09 15 - 20 - 27	06 - 11 - 21 22 - 28 - 46	02 - 05 - 19 24 - 35 - 39
OSAGARRIA: 41	OSAGARRIA: 08	OSAGARRIA: 29	OSAGARRIA: 25
ITZULKETA: 01	ITZULKETA: 03	ITZULKETA: 00	ITZULKETA: 04

Loteria primitiboa

Osteguna, 17	Larunbata, 19	Igandea, 20 Saritzarra
04 - 06 - 09 27 - 38 - 46	04 - 09 - 13 18 - 25 - 32	07 - 24 - 37 38 - 45 - 46
OSAGARRIA: 31	OSAGARRIA: 46	OSAGARRIA: 28
ITZULKETA: 01	ITZULKETA: 08	ITZULKETA: 01

ONCE

ASTELEHENA-21	ASTEARTEA-22	ASTEAZKENA-23	OSTEGUNA-17	OSTIRALA 18	IGANDEA-20
67.857	31.383	77.326	36.985	80.636	73.298
				155 seriea	040 seriea

Kupoitzarra — Superkupoia

DUELA 10 URTE

Autobidea gai nagusi zela, gaur hamar urte amaituko zen kanpaina

EAEko diputazioetarako eta Nafarroako Gobernurako hauteskunde kanpaina gaur hamar urte amaitzekotan zen, Irurtzun-Andoain autobidearen inguruko polemika gai nagusi zela. Hain justu, autobideko lurmugitze lanak egiteko adjudikazioan Gipuzkoako Diputazioak hartutako erabakia izan zuten hizpide alderdi politiko guztiek. Atzo hamar urte, bestalde, Espainiako Poliziak gogor ekin zion baserritarrek Bilbon egin zuten kontzentrazioaren aurka. EHNEk deituta, abeltzain talde bat bildu zen Bilbon, nekazaritza produktuen prezio merkeengatik protesta egiteko. Era berean, Hego Euskal Herriko langileek greba egin zuten, negoziazio kolektiboa bultzatzeko.

efemerideak

Robustiana 'Tene' Mujika jaio zen

1988. urteko maiatzaren 24an Robustina *Tene* Mujika jaio zen, Deban (Gipuzkoa). *Idazki ta olerki* poesia liburua argitaratu zuen, Zornotzan, 1923an. Bost urte geroago *Udazken Ala* bere poesia ingelesera itzuli zuen, Walson Kirkconnellen *European elegies* libururako. 1935eko Euskal Antzerkiaren II. Egunean izandako komedien lehiaketan lehen saria irabazi zuen, *Gogo-Oñazeak* lanarekin.
843. Abderrahman II.a Kordobatik (Andaluzia) Nafarroarantz abiatu zen; Eneko Aritza, ihes eginik, bizirik atera zen borrokatik.

SANTUAK. Genadio, Asier.

horoskopoa

Uxue Agirre

ARIES martxoak 21 - apirilak 20
Hainbeste lore erregalatzen segitzen baduzu, lorategia batere gabe utziko duzu.

TAURUS apirilak 21 - maiatzak20
Goxoa zara jendearekin, baina garrazten zarenean ere ondo garrazten badakizu!

GEMINI maiatzak 21 - ekainak 20
Jatuna zarela, eta hori txarra balitz bezala saltzen dizuete? Jatea ona da, hori kontuan izan.

CANCER ekainak 21 - uztailak 20
Aspertuta bizi bazara, zergatik ez zara lanean hasten, edo beste zerbait berria egitera ausartzen?

LEO uztailak 21 - abuztuak 23
Txaloak jotzea ez da nahikoa. Ikusle izatetik protagonista izatera noiz pasatuko zara?

VIRGO abuztuak 24 - irailak 23
Zigarroa txarra dela mila modutan esan dizute, baina ez dago zure bizioari aurre egingo dionik.

LIBRA irailak 24 - urriak 23
Etxea margotu berri duzu, eta zure izaerarekin antz handiagoa hartu duela nabari da.

SCORPIUS urriak 24 - azaroak 23
Oinetako berriak gustura dituzula badakit, baina oherako bakarrik kentzea ere...

SAGITARIUS azaroak 24 - abenduak 23
Saguen artean gustura bizi zarela? Eta zure etxekoek zer esaten dute horren inguruan?

CAPRICORNUS abenduak 24 - urtarrilak 20
Zaborra zabor-ontzi ezberdinetan jasotzea ondo dago, baina gero etxetik atera behar da, eta nork ateratzen du zaborra etxetik?

AQUARIUS urtarrilak 21 - otsailak 18
Ekologiaren izenean hainbat mobilizazio egin dituzu, baina gero etxetik alboko tabernara autoan mugitzen zara.

PISCIS otsailak 19 - martxoak 20
Itxurakeriari utzi eta zaren modukoa izaten hasi beharko zinateke, berandu izan baino lehen.

farmaziak

ARABA

GASTEIZ. 09.00-22.00: ZAMAKONA, Olagibel kalea, 38. LOBO, Tomas de Zumarraga dohatsuaren kalea, 76. LZ. DE OCARIZ, Caracas z/g. Gauez: GONZALO-BILBAO, Posta kalea, 34.
LAUDIO. Gau eta egun: ANA FUERTES, Kamaraka kalea, 4.
AMURRIO, ARTZINIEGA, AIARA, URDUÑA. Gau eta egun: CACERES, Udaletxeko plaza, 19 (Aiara).

BIZKAIA

BILBO. 13.30-22.00: ALVAREZ ZUBIMENDI, Zunzunegi Etorbidea, 12. BERNAS, Urazurrutia kalea, 2. GARCIA MONERRIS, Rodriguez Arias kalea, 12. LOPEZ DEL CARRE, Labairu kalea, 21. LOPEZ ELGEA, Albacete kalea, 2 (Santutxu). SAAVEDRA, Txomin Garat kalea, 9 (Txurdinaga). Gauez: ARMESTO, Miguel de Unamunoren plaza, z/g (Alde Zaharra). UGARTE, Errekalde, 37.
ARRATIA. Gau eta egun: BADIOLA, Herriko plaza, 7 (Artea).
BARAKALDO. Gau eta egun: PASCUAL, Unamuno plaza, 4.
BASAURI. Gau eta egun: ZOCO, Urbi kalea, 15 (Basauri).
BERMEO, MUNDAKA. Gau eta egun: SARMIENTO, Mikel Deuna enparantza, 4 (Bermeo).
DURANGALDEA. Egunez: BALENZIAGA, Berrio-Otxoa, 12 (Elorrio). Gauez: ETXEBARRIA, Montevideo Etorbidea, 2 (Durango).
ERANDIO-TXORIHERRI. Gau eta egun: RAMON - DIAZ, Etxegorri kalea, 3 (Astrabudua).
GERNIKA, BUSTURIA, FORUA. Gau eta egun: IZAGIRRE, Mestikabaso, 19 (Gernika).
GETXO. Gau eta egun: GALARZA, Aingeruen Etorbidea, 2 (Algorta).
LEIOA. 09.00-22.00: UGARTE, Langileria kalea, 92.
LEKEITIO-EA. Gau eta egun: CASTRO, Atea kalea, 14 (Lekeitio).
MEATZALDEA. Gau eta egun: CASADO, Maiatzaren lehena, 49 (Trapagaran).
MUNGIALDEA. Gau eta egun: BOYRA, Konkordia kalea, 10 (Mungia).
ONDARROA, MARKINA, BERRIATUA. Gau eta egun: FERRO, Ribera kalea, 22 (Markina-Etxebarria).
PORTUGALETE, SANTURTZI, SESTAO. 09.00-22.00.SARRIA, Carlos VII., 13 (Portugalete) ORAA, J.M. Barandiara, 6 (Santurtzi). GOMEZ ITURRIAGA, Miramar, 2 (Sestao).
URIBE-KOSTA. Gau eta egun: ARANBURU, Ribera kalea, 20 (Plentzia).
ZALLA, GUENES, BALMASEDA. Gauez: SANTOS TORRADO, Foruen enparantza, z/g (Balmaseda).
ZORNOTZA. Gau eta egun: GOIRI, Sabino Arana kalea, 6.

GIPUZKOA

DONOSTIA. 09.00-22.00: IGUAIN, Idiakez kalea, 4. SEMINARIO, Mikeleten pasealekua, 16 (Antiguo). ZILBETI, San Franzisko kalea, 14 (Gros). TARACENA, San Pedro Etorbidea, 51 (Trintxerpe). Gauez: AREITIO-LAORDEN, Astasun Etorbidea, 32.
ANDOAIN. Gau eta egun: GOROSPE, Rikardo Arregi kalea (Andoain).
ARRASATE. Gau eta egun: AZKOAGA, Iturriotz kalea.
AZKOITIA, AZPEITIA. Egunez: RUIZ, Kale Nagusia, 13 (Azkoitia). Gau eta egun: BERISTAIN, Euskalerria kala, 1. (Azpeitia).
BEASAIN, ORDIZIA. Egunez: LAURNAGA, Kale Nagusia, 4 (Ordizia). Gauez: ARRIOLA, Plaza Nagusia, 10 (Ordizia).
BERGARA. Gau eta egun: ESTELLA, Matxiategi kalea, 5.
DEBA, MUTRIKU. Gau eta egun: URIARTE, Erdiko kale, 5 (Mutriku).
EIBAR, ERMUA. Gau eta egun: MENDINUETA, Urkizu pasealekua, 6 (Eibar).
ELGOIBAR, SORALUZE, MENDARO. Gau eta egun: ZABALETA, Kalebarren 9 (Soraluze).
ERRENTERIA, LEZO, PASAIA. . Egunez: COBREROS, Biteri kalea, 16 (Errenteria) . Gauez: URRAKA, Donostia kalea, 3 (Errenteria).
ESKORIATZA, GATZAGA. Gau eta egun: ITURRALDE, Mitarte kalea, 18 (Aretxabaleta).
HERNANI, URNIETA. Egunez: CORREA, (Hernani). Gauez: : GOROSPE, Rikardo Arregi kalea (Andoain).
HONDARRIBIA. Gau eta egun: FIZ, Donostia kalea, 6.
IRUN. Gau eta egun: FDEZ. TROCONIZ, Argentina Etorbidea, 15.
LASARTE-ORIA, USURBIL. Egunez: RODRIGUEZ, (Lasarte-Oria). Gauez: GOROSPE, Rikardo Arregi kalea (Andoain).
OIARTZUN. Gau eta egun: GOROSTIAGA, Arragua kalea, z/g.
OÑATI. Gau eta egun: BARRENETXEA, Kale Zaharra, 1.
TOLOSA.. Gau eta egun: SANTAMARIA, Nafarroa Etorbidea, 2.
URRETXU, ZUMARRAGA, LEGAZPI. Gau eta egun: R.FENOLL, Kale Nagusia, 25 (Legazpi).
ZARAUTZ, ORIO, AIA. Gau eta egun: LASA, Herriko Enparantza (Orio).
VILLABONA, ANOETA, IRURA, ASTEASU, ZIZURKIL. Gau eta egun: SANTAMARIA, Nafarroa Etorbidea, 2. (Tolosa).
ZESTOA, ZUMAIA, GETARIA, Gau eta egun: OTAÑO, Eusebio Gurrutxaga kalea, 4 (Zumaia).

NAFARROA

IRUÑERRIA.09.00-22.00: RUIZ PRADOS, Nafarroa Beherea Etorbidea, 13. LIBERAL, Juaristi doktorea, 1. MATON, Antso Azkarraren Etorbidea, 67. GALE, Erreniega kalea, 22 (Zizur Nagusia). ERRO, Kale Nagusia, 9 (Atarrabia). Gauez: RUIZ PRADOS, Nafarroa Beherea Etorbidea, 13. ERRO, Kale Nagusia, 9 (Atarrabia).

Oharra: Frantziako legeei segituz, segurtasun neurriengatik Ipar Euskal Herriko guardiako farmazien izenak ematea debekaturik dago. Guardiako farmazia batera joateko herriko edo eskualdeko polizi etxera deitu beharra dago derrigorrez.

han-hemen

Galdutako eskalatzaileari sakelako telefonora bidalitako mezua

Galeseko 59 urteko eskalatzaile batek istripua izan zuen herenegun, eskalatzen ari zela, eta salbamendu lanean ari zirenek, aurkitu ezin zutela ikusita, mezu bat bidali zioten sakelako telefonora, eta honek erantzun zuenean jakin zuten zehatz-mehatz non zegoen.
Galdutako eskalatzaileak hanka bat hautsita zuen, eta salbamendu taldeko lagunek orduak egin zituzten hura aurkitu nahian. Denbora aurrera zihoala eta ezin aurkitu zutela ikusi zutenean, salbamendu taldeko buruari otu zitzaion mezua bidaltzea, eta bete-betean asmatu zuten.

Zortzi mila tonako hotel bat 33 metro mugituko dute

Pekin inguruan dagoen Nanjing hiriko hotel bat lekuz aldatuko dute, hotela dagoen kalea zabaldu ahal izateko. Eraikuntzak 5.424 metro koadro dauka, eta 33 metro mugituko dute. Dagoeneko bi egun daramatzate hotela mugitzen, eta denbora horretan berezko lekutik zazpi metrora eraman dute hotela. Hotela mugitzeko lanak oso zail eta astunak dira, baina arduradunek diotenez, lurrikaretan ere arrisku gutxiago izango du gero hotelak.

Errepublika dominikarrek bi miss dituzte

Nahikoa buruhauste ari dira izaten Errepublika Dominikarreko emakume ederrenaren aukeraketarekin. Duela aste batzuk Claudia Ruiz agertu zen komunikabideetan, Miss Errepublika Dominikarra 2001 zioen tituluarekin, baina atzo beste emakume bat agertu zen, Ruth Ocumarez, hau ere titulu berarekin. Kontua da lehiaketa hori bi antolatzaile ezberdinek antolatu dutela, eta biek errebindikatzen dutela tituluaren jabetza eskubidea.

'Frantziako armiarma-gizona', bereak eta bi egiten

Frantziako armiarma-gizona izenez ezagutzen dute Alain Robert, eta azken aldian hainbat eraikuntza eskalatu ditu, inongo baimenik gabe. Besteak beste, New Yorkeko Empire State eraikuntza ere eskalatu zuen. Bada orain, Frantziako eraikuntzarik altuenetakoa igo du, Parisen dagoen TotaFina Elf enpresaren eraikuntza, hain justu. Laurogeita hamar ordu behar izan zituen hara igotzeko, eta horrelakoetan gertatu ohi denez, ondoren Poliziak atxilotu zuen.

Hamahiru urterekin, futbolari profesionala

Fernando Garcia Lopez peruarra da, pasa den larunbatetik, munduko futbolari profesional gazteena, hamahiru urterekin. 1987ko uztailaren 13an jaio zen, eta pasa den larunbatean Juan Aurich taldearekin 20 minutu jokatu zituen —ez zuen golik sartu—. Garcia Lopez aurrelaria da, 1,72 metroko garaiera du, eta 58 kilo pisatzen ditu.

BRUNO BEBERT / AP

Coulthard, eskoziarren jantziarekin

David Coulthard 1 Formulako gidari eskoziarra, argazkian Heidi Klum modeloarekin. Eskoziako jantzi tradizionalarekin joan zen atzo Monakoko Laureus Kirol Sarien zeremoniara. Munduko urteko kirolari onenaren sariak Cathy Freemanek eta Tiger Woodsek jaso zituzten.

PHILIPPE HUGUEN / EPA

Hondarretako munduko eskultura

Argazkikoa Benjamin Prabanza mexikarra da, eta Hondarretako munduko eskultura lehiaketako hamar finalistetako bat da. Finala Frantzia ipar-mendebaldeko Hardelot hondartzan jokatzen ari dira, eta gaur bukatuko da.

GEORGE LEE / EPA

'Pearl Harbour' filma estreinatu dute

Michael Bayk zuzendutako *Pearl Harbour* film estatubatuarra estreinatu zuten, atzo, Hawain. Estreinua *John C. Stennis* hegazkinontzi nuklearrean egin zuten, su-artifizialak lagun zituztela, eta 1941eko abenduaren 7an gertatutako bonbaketen leku berean.

hilberriak

MUSIKA. Oiartzungo ote jotzea, Zuberoako kontrapasak, erromeria dantzak eta beste hainbat doinu grabatu ditu

Herri musika bizia

Euskal soinu tresna, tinbre, hots, erritmo eta estiloen bilduma zabala grabatu du Juan Mari Beltranek bere disko berrian

Amagoia Mujika | AMASA

Juan Mari Beltranek beti topatzen du Euskal Herriko edozein txokotan harridura eragiten dion soinuren bat, eta harekin jolasten hasten da doinu bilakatzen duen arte. Horrela sortu ditu grabatu berri duen diskoko kantuak. Euskal musikan erabili izan diren soinu tresna, tinbre, hots, erritmo eta estiloen bilduma zabala osatu du, baina Beltranen beraren sormenaz bustirik. Amasako IZ grabazio estudioan gauzatu du diskoa, eta bi hilabeteren buruan izango da kalean No-CD Records disketxearen bidez.

Oiartzunen entzundako ote jotzea, Zegamako albokari zaharren doinuak, txanbela errepertorioko ekarpenak, Gipuzkoako albokarien errepertoriokoak, erromerietako dantzak eta musikak, Zuberoako kontrapasak, arrabitaren kantu galduak eta dultzainari zaharren estilo barrokoa bereganatu ditu musikari nafarrak diskoan. «Herri musika doinuak bildu eta gureak egin ditugu. Hori dena prestatu dut daukan modu bizian emanez, baina berriak sortuz. Gure herri musikan erritmo asko agertzen dira, asko galdu dira, eta beste batzuk sortzen ari dira. Hori da kultura baten, musika baten bidea. Saiatu naiz zaharrengandik erritmo berriak egiten, baina neurri zaharretan».

Hamarreko erritmoa ezarri du Beltranek adibide gisara, baita zazpikoa ere: «Bi erritmo horietan ez dut ezer ezagutzen Euskal Herrian, eta erritmo horietatik oso gertu aritzen dira askotan txalapartariak. Gure zaharrek hainbat erritmo asmatu bazituzten, guk zergatik ez ditugu asmatuko?».

Beste batzuetan berreskuratu nahi izan ditu galdutako doinuak. «Badira urte batzuk galdutako gure tresna baten musikaren atzetik nabilela, arrabitaren atzetik. Errepertorio dezente daukagu kantutegian, baina inork ez du jotzen, eta zerbait ikastekotan Kantabria eta Errioxa aldera jo dut. Hori ere erakutsi nahi izan dut, mundu hori ere existitu izan dela Euskal Herrian».



EDURNE KOCH

Juan Mari Beltran, Amasako IZ estudioaren atarian, alboka jotzen.

Talde sendoa eta kolaborazio ugari

Hamabost kantu sortu ditu era horretara, eta hainbat musika tresnarekin aberastu ditu. Felipe Ugartek txalaparta eta Zuberoako ontzi ttipia jo du, Aitor Gabilondok ahotsa jarri, Iñigo Lurgainek soinua; Iñigo Monrealek txalaparta, eta Juan Mari Beltranek txirula, tronpa, txistua, dultzaina, alboka, ttunttunak, danbolina, txalaparta, ahotsa, arrabita eta txanbela. Bost musikari horiek osatu dute taldea, baina izan dituzte gonbidatu bereziak. Oihane Irastorzak panderoa jo du, Joxan Goikoetxeak hiru kantutan soinua, Joseba Tapiak soinu txikia lau kantutan eta Maddi Oihenartek ahotsa. Beltranek berak sortu ditu kantuen hitzak.

Diskoko kantuak hamaika plazatan eman dituzte azken urtean, baina disko batean biltzea falta zitzaien. Grabazioa berezia izan da, Amasako baserrian giro egokia topatu baitu lan egiteko. Natura Beltranen abestietako oinarrietako bat izanik, ez legoke leku egokiagorik diskoa grabatzeko. «Herri musika natura bizi hori da, eta soinuak berarengandik jasotzen ditugu».

Abesti guztiak, kontzertuetan bezalaxe, zuzenean grabatutakoak dira, «hasi eta bukatu egin ditugu, inolako trikimailurik erabili gabe, herri musikak duen izaera islatu nahian». Unea garrantzitsua da Beltranentzat. «Musikak duen iraupena jotzen den instant hori soilik da. Hurrengo aldian ez da gauza bera izango, eta horrela behar du gainera biziko bada»

Herri musikaren bizitza aldaketari loturik

Herri musika une honetantxe bizi dena soilik dela, atzokotik ezberdina, berria, aldakorra. Hori dena eta gehiago azaldu du Juan Mari Beltranek. Iraupenak aldaketarekin lotura zuzena du musikariarentzat: «Ez da existitzen munduan herri musikarik, guri iritsi zaigunik, aldaketarik gabe. Zenbait jendek pentsatzen du gaurko hainbat musikarik egin dugula aldaketa, aurretik ez dela aldatu. Gaurko trikitilari gazteek trikitiari buelta eman diote, baina aurrekoek ere eman zioten buelta. Belaunaldiz belaunaldi iritsi zaizkigun musiketan ere aitarekiko semeak beti jotzen du ezberdin. Bizirik iritsi den guztia bizirik iritsi zaigu, aldatzen joan delako. Bizi berri, arnas berri hartzen joan delako. Maurizio Elizaldek diferente egin zuen, eta bere aitak diferente, eta bere aitonak diferente. Baina bide eginez, zer edo zer uzten duzula, eta zer edo zer hartzen duzula, eta denboran beti berrituz».

Juan Mari Beltranek herri musikari loturik bizi du denbora. Zeregin horietan sartzen da bere ibilbidea «naturalki» jarraituz. «Zazpi urterekin hasi nintzen musika ikasten, eta horrela atera dira gauzak gaur arte, bata bestearen atzetik». Grabazio estudioan sartu aurretik Gipuzkoako dultzainariei entzundako 175 pieza paperean jarri ditu. Bi lanok noiz kaleratuko diren ez daki, baina ez dio gehiegi axola. «Gure esku dagoen lana egina dago. Bi hilabetera edo aterako da diskoa, baina ez dakit ziur, hori ez dago gure esku. Hala ere, aitortu behar dut ez didala gehiegi axola».

Aurrera begira ere hamaika saltsa ditu buruan. Horietako bat ekainaren 24an Donostiako Plaza jaialdian eskainiko duen emanaldi berezia da. Juan Gorritiren eskulturen inguruan egindako musika sorkuntza aurkeztuko du Suso Saiz eta Joxean Goikoetxearekin.

BILAKAERA

«Ez da existitzen herri musikarik, guri iritsi zaigunik, aldaketarik gabe. Bizi dena, aldatuz joan delako iritsi zaigu»

BERRESKURAPENA

«Arrabitaren galdutako doinuen atzetik nabil. Kantutegi handia dugu baina inork ez du jotzen»

BIZITASUNA

«Musikak duen iraupena jotzen den instant hori soilik da. Hurrengo aldian ez da gauza bera izango»

MUSIKA. Hiru egunez jazz musikak dituen berezkotasunak ikasteko aukera izango da

EGUNKARIA
Lincoln Center Orkestra, Wynton Marsalis zuzendari artistikoarekin.

Marsalisen Lincoln Orkestrak mintegi bat eskainiko du Gasteizko Jazzaldian

Jaialdiaren 25. urtemuga dela-eta idatzi duen obra ikasleei azalduko die tronpeta joleak

Ivan Santamaria | **GASTEIZ**

Hezkuntza eta heziketa landuko ditu berriro Gasteizko Jazzaldiak aurten, bere 25. urtemugan. Izan ere, uztailaren 14tik 17ra mintegi bat antolatu da Eusko Jaurlaritzaren, Gasteizko Luis Aranburu Musika Eskolaren eta Jesus Guridi Kontserbatorioaren lankidetzarekin.

Mintegia emango duten musikariak Jazz at Lincoln Center orkestrakoak izango dira, Wynton Marsalis musikariaren zuzendaritza artistikoarekin. Lincoln Center Munduko erakunde artistiko handienen artean da, eta bere organigraman Metropolitan Opera House, New York City Ballet eta Julliard School of Music daude. Duela hamar bat urte sortu zuen jazz atala, eta ordutik kontzertu didaktiko ugari eskaini ditu.

Ikasle eta profesionalentzat

Batez ere, EAEko musika ikasleentzako mintegia da. Hala ere, profesionalei ere zabalik dago. Parte-hartzaileak bi arlotan banatuko dira: maila handiena dutenek musika tresnekin ariko dira, eta gainontzekoak entzule moduan parte hartzeko aukera dute. Ikasle aktiboen kasuan, orotara, 135 pertsonentzako tokia dago. Entzule izateko ez da kopururik finkatu. Mintegia abiatu aitzin, kontserbatorio eta musika eskoletan partiturak banatuko dira, ikasleek musika aurretik ezagutu eta mintegia ahalik eta hoberen baliatzeko.

Orkestrako kide bakoitza hiru ikaslerekin egongo da, eta antolatzaileen asmoa klaseak banakakoak izatea da. Hots, ikasle bakoitzak gutxienez ordubetez musikariekin trebatzeko parada izatea. Entsegu orokorrak ere egingo dira, eta, Iñaki Añua Jazzaldiko zuzendariak aurreratu zuenez, onenek haurrentzako kontzertuan jotzeko aukera izan dezaten ahaleginduko dira. «Maila ona ematen badute, kontzertuaren zati batzuetan parte hartzeko aukera ematea aztertzen ari da Marsalis», azaldu zuen Añuak. Aurten, haurrentzako kontzertua Louis Armstrongi eskainitako oroigarria izango da.

Bestela ere, musikari ospetsuarekin egon ahal izango dira ikasleak. Izan ere, aurtengo urtemuga dela-eta Gasteizko Jazzaldiarentzat idatzi duen piezari buruz mintzatuko zaie Wynton Marsalis. Uztailaren 17an entsegu orokorra egingo du, eta horretan bere musikaren nondik norakoak azalduko ditu.

Ray Anderson tronboi jolearen taldearen emanaldia izango da gaur Gazteszenan

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Ray Anderson's Pocket Brass Band jazz taldeak kontzertua emango du gaur Donostiako Egia kultur etxean. Gazteszenaren barruan izango da emanaldia.

EEBBetako Ray Anderson tronboi jole ospetsua da taldearen gidaria, eta jazz doinuak eskainiko ditu, Lew Soloff tronpeta jolearekin, Matt Perrine sousafono jolearekin eta Bobby Previte bateria jolearekin batera.

Musikari aparta

Anderson gaur egungo jazz musika interpretatzen duen tronboi jole entzutetsuena da. Halaber, musika pieza ugari konposatzen ditu.

Umetan hasi zen Ray Anderson tronboia jotzen: «Tronboi joleek ongi pasatzen zutela ikusten nuelako hasi nintzen musika tresna honekin». George Lewis, David Murray, Charles Moffet, Mark Helias, Gerry Hemingway eta beste hainbat musikarirekin aritu da lanean. Hala, Anthony Braxton, Slickaphonics eta Bass Drum Bone musika taldeetan ibilia da. Batez ere, jazz eta funky doinuak interpretatu ohi ditu.

Pocket Brass Band musika taldeari dagokionez, tradiziozko *marching band* taldearen antzekoa da; hura baino txikiagoa musikarien kopuruaren aldetik. New Orleanseko doinu tradizionalak jotzen ditu.

euskararen donostia
patronatua

EUSKALTEGIAK

- ALTZA -
Txirrita pasealekua, 23
20017 Donostia - Tel.: 943 400316

- AMARA BERRI AEK -
Gregorio Ordoñez, 7
20011 Donostia - Tel.: 943 474592

Isabel II, 14
20011 Donostia - Tel.: 943 450202

- ANTIGUAKO AEK -
Igeldo pasealekua, 25
La Sirena etxea
20008 Donostia - Tel.: 943 218088

- AZPIL AEK -
Larratxo , 43-45
20017 Donostia - Tel.: 943 393936

- EGIAKO AEK -
Jai Alai aldapa - villa Salia
20012 Donostia - Tel.: 943 282242

- HITZEZ -
Kolon pasealekua, 5 behea
20002 Donostia - Tel.: 943 278155
Faxa: 943 278155

- ILAZKI -
Konstituzio plaza, 5 - 2. a
20003 Donostia - Tel.: 943 424910
Faxa: 943 421608

- GOTZON ALEMAN AEK -
Basotxiki, 23
20015 Donostia - Tel.: 943 289654

- IRRINTZI AEK -
Iztueta, 3 behea
20012 Donostia - Tel.: 943 327611

- LEGAZPI 6 -
Kanpandegi, 1
20003 Donostia - Tel.: 943 424366
Faxa: 943 424366

Guridi, z/g
20008 Donostia - Tel.: 943 219907

- MONPAS -
Migel Imaz, 5 behea
20002 Donostia - Tel.: 943 272711
Faxa: 943 321956

- ULIALDE -
Jose Maria Soroa, 10 behea
20013 Donostia - Tel.:943 281369

- URRATS -
Katalina Erauso, 21
20010 Donostia - Tel.:943 465593
Faxa: 943 465593

- URUMEA -
Sanchez Toca, 1 - 1.a
20006 Donostia - Tel.: 943 464655
Faxa: 943 464888

- XIRIMIRI AEK -
Gipuzkoa plaza, 2-2.a
20004 Donostia - Tel.: 943 426466

JAUME BADIA BARTZELONAKO KULTURA GARAIKIDEKO ZENTROKO GERENTEA

«Gure arrakasta artisten proiektuak errespetatzen jakitea da»

Jaume Badiak zazpi urte igaro ditu zentroko zuzendaritza taldean. Haren aburuz, behin eta berriro berritzen jakin behar dute arte guneetako kudeatzaileek. Donostiak zabaldu nahi duen zentro garaikideak edozein proiektu laguntzeko prest egon behar duela dio.

Ivan Santamaria | GASTEIZ

Zazpi urteko ibilbidea darama Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroak (CCCB) lanean, eta, horrenbestez, eredugarria eta erreferentzia bihurtu da bere esparruan.

■ Noiz eta nola sortu zen CCCB?

1994ko otsailaren amaieran zabaldu zituen ateak, baina sormen prozesua luzeagoa izan zen, ia lau urte. Josep Ramonedari, oraingo zuzendariari, Katalunian eta estatuan antzekorik ez zuen zerbait eskatu zioten, ia ezta Europan ere: 4.000 metro koadroko erakustokia, fondo iraunkorrik ez zuen gune batentzat. Ramonedak «hirien hiria» sortu nahi izan zuen. Hots, hiria ikuspuntu guztietatik aztertua eta ulertua izateko proposamena: hiriaren historia, hirigintza, arkitektura, mugimendu kulturalak... Hiriak sor zezakeen edozer islatzeko ideia zen.

■ Nolako harrera izan zuen proposamenak?

Harritu gintuen, urtebetean proiektu andana jaso baikenuen. Nola zen posible hainbesteko gogoa egotea eta aurretik ez azalaraztea? Gure inguruan Sonar Jaialdia sortu zen (musika aurreratu eta arte multimediak), Musika Garaikideetako Jaialdia, Zinema Alternatibokoa, Bideogintza Independentekoa, birziklaturiko gaiekin egindako artearen maratoia... Arrakastak gainditu gintuen.

■ Zein izan da CCCBk eta Bartzelonak izan duten harremana?

Hasieran jendeak ez zuen ulertzen gure izaera. Kontuan hartu behar da artean egin gabe zeudela Kataluniako Arte Museo Nazionala, MACBA, Antzerki Nazionala edo Auditorio Nazionala. Hiritarrek ikusten zuten ohikoa falta zela, eta aldiz, ezohikoa martxan zegoela. Baina hiriak behar zuen gure agerraldia. Olinpiar Jokoen ondorioz dena oso geldirik zegoen, eta autore eta kultura kudeatzaileak beren aukeraren zain zeuden. Errespetu handiz jokatu dugu helarazi dizkiguten proposamen guztiekin, eskurik sartu gabe, eta horrek lagundu gaitu. «CCCBn edozer gerta daiteke protagonistak nahi duen bezala», dio jendeak, eta hori da gure arrakasta.

KARLOS BIGURI

DONOSTIAKO ZENTRO PROIEKTUA

> «Kezka eta ardura kulturalei beren bidea egiten utzi behar zaie, eta prest daudenean lagundu»

KRISIA

> «Gauzak oso ondo doazela ikusten duzunean krisian zaude, eta pentsatzeari uzteko arriskua duzu»

■ Nolakoa da harremana hiriko artistekin?

Harremana ona da. Arte plastikoa MACBAk kudeatzen du, baina musika alternatiboei buruz, edo bideo-sormenari buruz ari garenean guk beti eskaintzen dugu gauza bera: plataforma bat eta errespetu osoa proiektuarentzat. Hala ere, ez dugu jaialdi eta erakunde kulturalen hotel bihurtu nahi. Esan nahi baita, eskaintzen ditugula ekimenak antolatzeko bulegoak, baina berritze dinamika etengabe bat egotea exijitzen dugu. Proiektu bat proposatzen duen talde batek horretan sinetsi behar duela ikusarazi behar dizu, kudeatzen jakingo duela, zure ekarpena izango duen aurrekontu bat administratzeko gai dela, hartzaile potentzialak dituela, eta, gainera, errepikatu nahi badu, berritzeko gai dela.

■ Gauzak etengabe zalantzan jartzea da, beraz, arrakastaren giltza?

Gure zentroan ez dago etengabe aberastasuna emango duen iturririk. Dena planteatu behar dugu behin eta berriro. Baten bat gure eredua ikastera datorrenean, nik beti esaten diot krisian gaudela. Zergatik? Krisian gaude gauzak oso ondo doazela ikusi dugulako, eta pentsatzeari uzteko eta errepikatzen hasteko arriskuan geunden.

■ Zeintzuk dira programatzen ari zareten jarduerak?

Lan ildo ugari ditugu martxan. Adibide bat jartzearren, aurten eta datorren urtean Afrikari buruz erakusketak eta jardunaldiak antolatzen ari gara, ezinbestekoa baita hango egoeraz gogoeta egitea, Afrikako aldaketek isla izango baitute gizartean. Gero dokumentazio zerbitzu bat antolatzen ari gara: espazio publikoak, eramangarritasuna eta gizarte talde berriak (immigrazioaren eragina). Osatzeko Kultura Garaikidea lizentziatura sortu dugu Bartzelona eta Kataluniako unibertsitateekin. Horrez gain, sortzen den orori zabalik gaude, jakin behar baitugu zer den datorrena.

■ Donostiak kultura garaikideko zentro bat zabaldu nahi du. Zer izan behar du kontuan?

Gure esperientzia ikusita, antena guztiak piztuta abiatu beharko litzateke, bere inguruan mugitzen ari dena antzemateko. Gero, jasotzen dituen proiektu guztiei aukera bat eskaini beharko die, gutxiengo batzuk betetzen badituzte. Planteamendu egokiak, kudeaketa eta antolaketa ahalmena eta hartzaile potentzialak badituzte, aurrera. Horrez gain, ez luke presarik izan behar lan ildo bat edo programa bat ixteko. Dauden kezkei eta ardurei beren bidea egiten utzi behar zaie, eta prest daudenean lagundu.

ARKITEKTURA

Rafael Moneok eginen du Artxibo Nagusiaren ondoko aparkalekua

E. Elizondo | IRUÑEA

Iruñean egiten ari den Nafarroako Artxibo Nagusiaren egoitza berriaren itxura zaindu nahi du Rafael Moneo arkitekto nafarrak, eta, horretarako, Iruñeko Udalak egindako eskaerari jarraituz, eraikin berriaren ondoan kokatuko den aparkalekuaren proiektua prestatu du. Moneok ez zuen Artxiboari kalte egin ziezaiokeen proiekturik nahi eta egin dutenak aparkalekuaren arazoari «konponbide garbia» ematen diola uste du, atzo bertan Iruñean azpimarratu zuenez.

Aparkaleku berria Aldapako San Fermin plazatik Santo Domingo aldapan dagoen Hezkuntza eta Kultura Sailaren egoitzaraino ailegatuko den arrapala zirkularra izanen da. Arrapalan bertan aparkatu ahal izanen dute autoek, 300 inguru denera. Aparkalekuaren behin betiko proiektua prestatzeari ekinen dio orain Moneok.

Artxibo Nagusiko obrak «nahiko aurreratuta»

Nafarroako Artxibo Nagusiaren obrek aurrera martxa onean segitzen dutela azpimarratu zuen Rafael Moneok, eta «nahiko aurreratuta» daudela gaineratu zuen. Eraikin berriko lehen harria 1999ko irailean jarri zuten eta oraindik urtebeterako lana gelditzen dela erran zuen atzo arkitekto nafarrak.

Eraikin berria, dena den, hasi da obrak bukatzean izanen duen itxura hartzen, eta bere ezaugarri nagusi izanen den hamabi solairuko dorrea gorantz doa pixkanaka-pixkanaka. «Proiektuak zaharra eta berria uztartu nahi ditu. Errege jauregia izandako eraikinaren itxura berreskuratu nahi izan dut, nolabait, eta, horretarako, lehengo harri mota bera erabiliko dugu dorrea estaltzeko orduan», gogoratu zuen arkitektoak atzo egindako agerraldian.

Proiektuak 2.300 milioi pezetako aurrekontua du (92 milioi libera).

txokoa

HARPIDEDUNAREN

☎ 943 300 222 / 902 300 223 - harpidetza@egunkaria.com

HAUETAKO EDOZEIN ESKAINTZA GUSTUKO BADUZU, DEI EZAZU GURE TELEFONORA, ASTELEHENETIK OSTIRALERA GOIZEKO 9:00etatik 14:00etara eta ARRATSALDEKO 16:00etatik 18:00etara.

PILOTA PARTIDUAK

Bermeo (Bizkaia)

Eibar (Gipuzkoa)

8 sarrera DOAN

Pilota gustuko duzuenontzat bi pilota jaialdi ikusteko aukera eskaini nahi dizue EGUNKARIAK Izan ere, Aspek antolatuta, Bermeon eta Eibarren jokatuko dira partiduak. **Bermeon, maiatzaren 25ean, gaueko 22:00etan**, bi partida: lehenengoa, GALARZA V.a eta IMAZ XALAren eta APEZTEGIAren aurka; bigarrena, TITIN III.a eta GOÑI III.a GOÑI II.a eta LASA III.aren aurka. **Eibarren, maiatzaren 27an, arratsaldeko 17:00etan**, hiru partida: lehenengoa, BARBERITO VI.a eta EULATE BALEZTENAren eta Sukiaren kontra; bigarrena, ETXANIZ eta IMAZ BERRAONDO eta ZEZEAGAren aurka; eta hirugarrena, CHAFEE eta BERNAL CAMARERO II.a eta IPARRAGIRREren aurka.

LOS MONÓLOGOS DE LA VAGINA

Lugaritz (Donostia)

SARITUAK

Maiatzak 25 (20:30)

Asurmendi Gartzia Joseba Aitor *Lazkao*
Amara Berri Aek Euskaltegia *Donostia*
Arantzazuko Ama Ikastola *Astigarraga*
Haro Solabarrieta Imanol *Donostia*
Sierra Txarola Iñaki *Aretxabaleta*
Beloki Kortajarena Izaskun *Donostia*
Azkue Uria Idoia *Zarautz*
Iraola Malkorra Joxe Mari *Lasarte-Oria*
Iriarte Ansorena Xabier *Hernani*
Fernandez Ostolaza Iñigo *Orio*

OHARRA: bi sarrera izango dituzu, Lugaritz kultur etxeko leihatilan.



BIDE ERTZEAN

Villabona (Gipuzkoa)

10 sarrera

DOAN

Villabonako Udalak antolatuta, Bide Ertzean taldekoek joko dute, **maiatzaren 25ean, gaueko 22:30ean, Gurea antzokian**. Kantaldi horretan, ***Grisa*** diskoaren aurkezpena egingo du Tolosako taldeak. Hamar sarrera ditugu Harpidedunaren Txokoan, lehenik deitzen dutenen artean banatzeko. Kontzertura joateko sarrerak eskuratu nahi badituzu, EGUNKARIara deitu baino ez duzu.

IBILALDIA 2001

Abusu ikastola

40 kamiseta

DOAN

Bilboko Abusu ikastolak antolatuta, **maiatzaren 27an** ospatuko da aurtengo Ibilaldia. Euskararen aldeko jai erraldoi horretan egun zoragarri bat pasatzeko mota guztietako ekitaldiak aurkituko dituzu. Halaber, hainbat material kaleratu dute Ibilaldikoek. Harpidedunaren Txokoan haur eta helduentzako berrogei kamiseta ditugu zotz egiteko. **Zozketaren emaitza, maiatzaren 26an.**

Orain, inoiz baino abantaila gehiago harpidedunentzat

ANTZERKIA. Bihar hasi eta ekainaren 3a bitartean, hamabi emanaldi eskainiko dituzte

Hamar konpainiek hartuko dute parte Debako XV. Antzerkiaren Astean

Antzezlanak, txotxongilo emanaldiak eta kabareta izango dira ikusgai, besteak beste

Jon Gonzalo | **DONOSTIA**

Debako XV. Antzerkiaren Asteak biharkoa izango du estreinako eguna. Aurtengo ekitaldian hamar antzerki taldek hartuko dute parte, gehientsuenak amateurrak, baina badira profesionalak ere. Antolatzaileen helburua ahalik eta jende kopuru handienera iristea da, eta, horregatik, Zubeltzu zineman, Zaharren Biltokian, gaztetxean eta kalean antolatu dituzte emanaldiak. Guztira, hamabi emanaldi izango dira ikusgai.

Donostiako Bederen 1 taldearen *Lauren eta Hardy zerura bidean* obrak zabalduko du Debako Antzerki Astea. Isidoro Fernandezek zuzendu duen obra horrek Lauren eta Hardy pertsonaien bizipenak kontatzen ditu. Aktore lanetan, Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa aritzen dira. Emanaldi hori bihar izango da ikusgai, gaueko 22:30ean, Zubeltzu zineman.

Igandean, Gilkitxaro antzerki talde bizkaitarraren *Trokaolatarrak* izango da ikusgai. Obra hori talde bizkaitarrak sortutako laugarrena da, eta baserri inguruko istorio bati buruz dihardu. Maiatzaren 30ean, berriz, Xabier Munibe Eskola Antzerkiaren txanda izango da, *Antzerki laburrak* emanaldiarekin. Ekainaren 1ean beste antzerki talde baten obra izango da; hain zuzen ere, Etxebarriko Antzerki taldearen *2000 Zaun KK*. Ekainaren 3an, azkenik, Zurriola Antzerki Eskolak *Nire haurtzaroko lorategia* antzezlana eskainiko du. Obra hori Anartz Zuazuak zuzendu du, eta Azpeitiko Antzerki Topaketetan antzezlan onenaren saria jaso zuen, afizionatuen mailan.


ZIORTZA MORALES

Gilkitxaro antzerki talde bizkaitarraren *Trokaolatarrak* obra.

Ohiko antzerki emanaldiez gain, ordea, bestelako antzerki ikuskizunak ikusteko aukera ere izango da. Maiatzaren 26an, esate baterako, EATAE Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkarteak *Zakarranka* kale antzerkia eskainiko du.

Pailazoak, txotxongiloak eta kabareta

Maiatzaren 29an, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek *Parrandan* ikuskizuna emango dute. Maiatzaren 31n *Printze txikia* izeneko txotxongilo emanaldia eskainiko du Elgoibarko Taupada taldeak. Ekainaren 1ean, berriz, Goaz antzerki taldearen taberna giroko *Trabena espektakuloa* izango da ikusgai, Itziarko Andutz Biltokian. Ekainaren 5ean , ikuskizun bera Zaharren Biltokian errepikatuko dute. Ekainaren 2an, azkenik, Donostiako Kasketa Kabaretak *Neskapolitan* kabaret tankerako ikuskizuna eskainiko

Txamuskinaren eta Sestaoko Udalaren ekimenez, abian dira Bizkaiko antzerki eskolen lanak jasoko dituzten jardunaldiak

Estibalitz Ezkerra | **BILBO**

Dela ikasleak oraindik aktore ezagunak ez direlako, dela promozio faltagatik, antzerki eskoletan trebatzen dabiltzan ikasleek jendaurrean aritzeko aukera gutxi izaten dute. Arazo hori konpontzeko asmoz, Txamuskina antzerki taldeak, Sestaoko Udalaren laguntzarekin, *Biharko aktoreak* izeneko jardunaldiak martxan jarri zituen atzo. Egun hauetan eta igandea arte, Bizkaiko lau antzerki eskolen antzezlanak ikusgai izango dira Sestaoko AISS aretoan, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Eskola horiek Barakaldokoa, Basaurikoa, Portugaletekoa eta Getxokoa dira. Egutegi arazoak direla medio, jardunaldietan parte hartuko ez duen eskola bakarra Bilboko Juan de Antxieta da.

Portugaleteko Asti-Leku ikastolako haurrek ireki zituzten, atzo, jardunaldiak, *Gabon garratzak* ikuskizunarekin. Gaur BAI Barakaldoko antzerki eskolaren txanda izango da, eta hango ikasleek *Alice in Cyberland* taularatuko dute. Lewis Carrollen ipuinetik abiaturik, lanak teknologia berriak eta gizakiaren noraeza ditu hizpide. Bihar eta etzi, berriz, Basauriko eta Portugaleteko eskolek *Esperando a Beckett* eta *Con el corazon en la mano* obrak antzeztuko dituzte, hurrenez hurren. Jardunaldiak igandean Getxoko ikasleek taularatuko duten *Clasicos informales*-ekin amaituko dira.

Zirkuitua zabaltzeko asmoa

Duela bi urte Gurutzetako kultur etxeak antzerki eskolen astea antolatzea erabaki zuen, eta gaur egun ere gauza bera egiten jarraitu du. Txamuskinakoek, ordea, bide hori indartu behar zela eta eskolen zirkuitua AISSera zabaltzea erabaki zuten. «Azken mailan dabiltzan ikasleentzat oso garrantzitsua da beren lanak publikoari aurkeztu ahal izatea. Baina antzerki amateurrarentzako zirkuiturik ez dagoenez, ekoiztetxeek zein antzerki konpainiek ez daukate aktore berri hauek ezagutzeko modurik», azaldu zuen Fernando Valgañon Txamuskinako ordezkariak.

Oraindik balorazioak egiteko goizegi bada ere, *Biharko aktoreak* egitasmoaren barruan Euskal Herriko gainontzeko antzerki eskolak zein estatuko zenbait ere jasotzea pentsatzen dabiltza antolatzaileak datorren urteari begira.

Bestalde, Sestaoko Udalak AISSeko ikuskizunetarako aretoa konpontzeko 10 milioi pezetako aurrekontua onartu du. Lanak azarorako amaiturik egongo dira.

MUSIKA

Mundu osoan antolatu dituzte Bob Dylanen 60. urtebetetzeko ospakizunak

Agentziak | **NEW YORK**

Mundu osoan zehar hainbat ekitaldi eratu dira egunotan Bob Dylan kantari ezagunaren 60. urtebetetzea ospatzeko, baina Dylanek berak ez du «inolako ospakizun publikotan» parte hartuko, haren bozeramaile Elliot Mintzek iragarri duenez. Bizitza pribatua eta intimitatea gordetzen saiatzen ari da azkenaldian Bob Dylan, eta musikaren munduko jendearekin ahalik eta harreman gutxien izaten saiatzen ari da.

Aurtengo udaberrian Dylanek ez du New York, Los Angeles eta Chicagon emanaldirik egin, EEBBetako beste hiri batzuetan baizik. Udan Europan zehar egingo du bira bat, ekainaren 24an Norvegian abiaturik.

Patti Smith, Tracy Chapman eta Sam Shepard Bob Dylanen eraginaz mintzatuko dira datorren larunbatean. New Yorken egingo den mahai inguru batean mintzatuko dira. Indiako Mumbai hirian, berriz, Sangeeta Rao, Suresh Bhojwani, Geetu Raheja eta beste hainbat artistak hartuko dute parte Bob Dylanen omenezko kontzertu batean, haren hainbat kanturen bertsioak eskainiz.

Omenezko diskoak eta liburu biografikoak

Kantariaren omenezko diskoak ere han eta hemen agertzen ari dira, hala Minnesotan nola Japonian, eta bi liburu biografiko ere kaleratuko dira aurki. Horietako batek Howard Sounes du egile, eta biografia horrek dio Bob Dylanek 1985ean alaba bat izan zuela, Desiree izenekoa, Carol Dennis korista ohiarekin. Sounesek dioenez, sekretuan ezkondu ziren Dylan eta Dennis, eta 1992an banandu egin ziren.

1941eko maiatzaren 24an jaio zen, Minnesota estatuko Duluth herrian, Robert Allan Zimmerman, urte batzuk geroago Dylan Thomas poetaren miresmenak Bob Dylan ezizena hartzera bultzatu zuen kantaria.

LABURREAN

LITERATURA

Miren Agur Meaberen 'Azalaren kodea' gazteleraz jarri dute Interneten

Susa argitaletxearen web orrian irakurtzeko jarri dute berriki Espainiako Kritika saria jaso duen Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea* liburuaren gaztelaniazko itzulpena. *El código de la piel* izenburupean jarri dute irakurgai poema liburua *www.susa-literatura.com/codigo* helbide elektronikoan. Lan honekin batera beste zenbait euskal idazleren lanak daude gaztelaniara itzulita, Susaren web orrian.

Jack Kerouacen 'On the road'-en jatorrizko eskuizkribua 2,4 milioi dolarren truke erosi dute

Jack Kerouacen *On the road* (1951) liburuaren jatorrizko eskuizkribua 2,4 milioi dolarren truke erosi zuen Jim Irsay estatubatuarrak, joan den asteartean, New Yorken egin zen enkantean. EEBBetako historiaren obra literario garrantzitsu hau erosteko eskaini den dirutza inoiz liburu bategatik eskaini den handiena da.

MUSIKA

Bilboko Orkestra Sinfonikoa zuzenduko du Alexander Rahbarik

Alexander Rahbariren zuzendaritzapean kontzertuak eskainiko ditu Bilboko Orkestra Sinfonikoak, gaur eta bihar, Euskalduna jauregian. Turina musikariaren *Erritmoak*, Saint-Saëns-en *Lehen biolontxeloarentzat kontzertua La minorrean*, G. Faureren *Elegia* eta Korsakoven *Scheherezade* obrak interpretatuko dituzte bi emanaldietan.

ARKITEKTURA

Guggenheim museoak FIABCIk saria jaso du

Higiezinekin zerikusia duten Lanbideen Nazioarteko Federazioak (FIABCI) aisialdirako arkitektura kategoriako *Prix d'excellence* saria eman zion atzo, Bilboko Guggenheim museoari. FIABCI-k turismoan zein hiriaren berrikuntza eta garapen arloan museoak jokatu duen rol garrantzitsua goraipatu zuen. Era berean, eraikinaren balio arkitektoniko eta artistikoa nabarmendu zuen federazioak. 1997an ateak ireki zituenetik, guztira 29 sari jaso ditu Bilboko Guggenheim museoak.

KRITIKA ARTEA | Ismael Manterola



ÍÑIGO AZKONA

Province. Sheffield-Bilbao erakusketaren artelan bat.

Hiriaren gaineko hausnarketa

'Province. Sheffield-Bilbao'

Egileak: Sheffieldeko Arte Eskolako lau artista eta Leioako Arte Ederren Fakultateko bost irakasle. **Lekua:** Bilbao Arte. **Egunak:** Maiatzaren 4tik 30era.

Sheffieldeko Arte Eskolako lau artista eta Leioako Arte Ederren Fakultateko bost irakasleen arteko erakusketa ikusteko aukera dugu Bilbao arte zentroan, gai bakar baten inguruan: hiria. «Helburu nagusia kezka bati erantzuna bilatzea da: hiri espazioan agertzen doazen aldaketak ekologia berri bati, hau da, naturarekin dugun erlazioari beste era batetara ulertzeari erantzuten ote dioten, edota bestalde, erdigune eta hiribazter berriak ezarriko dituen gizartearen ordenamendu berri bati erantzuten ote dioten», aurkezten dute katalogoan elkarlanean aritu diren Sheffield eta Bilboko artistak.

Hiriaren gaineko hausnarketa gaur egungo artearen zeregin ohikoa da, batez ere, aldaketak eta berrikuntzak jasaten ari diren hirietan. Badirudi Shefield eta Bilbo antzeko arazoak eta kezkak dituzten hiriak direla eta horregatik elkarlana eta erakusketa. Biak omen ziren gainbehera handia jasandako hiri industrial kutsatuak eta biak hartu omen zuten eraldatzeko erabakia.

Horrek aldeko eta kalteko ondorioak ditu, hasieran aipatu dugun katalogoko pasartean adierazten den bezala. Hirian eraikitako arkitektura ederrek gauza asko ezkuta dezakete eta ezin dira pobrezia bezalako gauzak alfonbra azpian gorde.

Beraz, artearen lana kezka hauek agerian jartzea ere bada eta erantzunak ematea baino gehiago erantzunak bilatzea izan daiteke artista hauek egin duten ahalegina.

Argazki eta ikus-entzunezkoak

Ingalaterratik datozen artistek erabilitako baliabideak argazkia eta ikus-entzunezkoak izan dira. S. Dutton, P. Peacock eta M. Jordan hirukoteak egindako buruz beherako argazkiak eta bueltaka dabiltzan buruenak *Province* eta *Ciudad* izenburua dute, lurralde baten buru den hiriari erreferentzia egiteko.

Steve Hawley-k berriz, *Lost in Space* izeneko bi lan jarri ditu, biak hirian egindako bidaiak dira bata espazioan eta bestea denboran.

Euskaldunen artean ikus-entzunezkoak azaltzen badira ere, ez dira bakarrak. *Hiri bat iluntasunean gidatzeko faroa* izenburua du Josu Rekaldek egindako ibilbidea. Flexo batek argitutako Bilboko planoak argi fokoaren kanpoan geratzen denari buruzko hausnarketa bultzatzen du.

Sarritan errepikatu den ibilbidearen ideia landu du Juan Cregok ere *Walk/city* instalazioan. Bi hauetan eta Augusto Zubiagaren lanetan alde kontzeptualak indar handia du eta katalogoan argitaratzen diren testuek osatzen dituzte erakusketan ikus ditzakegun arte lanak.

Azkenik komunikazioa landu dute Augusto Zubiagak eta jaYxa izeneko taldeak. Lehenak bi lagunen artean erabili behar den makinaren bidez eta publizitateak, belarria eta ahoa lotzen duten tutuen bidez besteak.

Hiriak, beraz, protagonista, komunikazioa eta inkomunikazioaren espazioak, aldaketa eta tradizioari lotutako tokiak, botere eta lan guneak, bizitzeko eta aldegiteko egiturak.

KRITIKA MUSIKA | Joseba Martin

Bikote bat baino askoz gehiago

Aly Bain eta Phil Cunningham

Lekua: Bilboko Kafe Antzokian. **Eguna:** Maiatzaren 22an. **Jende kopurua:** 300 lagun. **Iraupena:** Ordubete eta berrogei minutu. **Salneurria:** 1.800 pezeta.

Bi urte lehenago 900 lagun bildu zuten eskoziarrek Arriaga antzokian; orain, berriz, herena. Auskalo zeintzuk diren arrazoiak, baina bildutakook primeran pasa genuen. *Another gem* lan berria aurkeztera etorri ziren Aly eta Phil, bide batez bikotearen zuzeneko pieza onenak berreskuratu zituztelarik.

Phil gure eskuinaldean agertu zen ohiko Borsini zuriarekin, eta Aly gure ezkerrean biolin pare batekin. Phil gaztelania eta euskarazko ikastaroaz aritu zen, eta musikari ekin zioten entzuleen lehenbiziko barreak lortu eta gero.

Kanadako Cape Breton eta Eskoziakoak izan ziren hasierako piezak eta hauetako laugarrenean, *reel* batean, txaloak laguntzen hasi ziren. Eta horrekin batera sustraidun musikari buelta osoa eman zioten: Estonia, Norvegia, Suedia, Louisiana, Texas, Appalacheak, Irlanda, Quebec... Leku guzti hauetako piezak —tradizionalak edo oraingo musikari batek konposatuak— hartzen dituzte maisutasunez beregantatu arte.

Aly, biolinaren Hendrix bat

Bi musikari dira, baina musika tresnei begira hiru topatzen ditugu: biolina, akordeoia eta pianoa (edo sintetizadorea pieza lasaienetan), azken hau akordeoiaren baxuetan sarturiko midi bati esker. Beraz bikoteak sorturiko musikak talde handiagoa ematen du. Erritmoetan ez zen aldaketa handirik: *jigak*, *reel* ugari, balsa mordoxka, *slow air* edo *cajun* aireak. Entzuleriak gustura txalotu zuen pieza bizietan eta isil-isil geratu zen lasaietan —*Sarah's song, Tonder, Bonaparte's retreat, The gentle light what wakes me, Fairy's dance*— amaitu bezain laster oihu eta txalo sutsuak botatzeko. Azken atalean Aly Bainek bere trebezia erakutsi zigun Texasen ikasitako pieza batez: biolinaren Hendrix bat ematen zuen, nota arinak eta zailak behin eta berriro sortzen. Ondoren Philen txanda izan zen eta antzekoa egin zuen azken partean. *The jig runrig, The Swedish jig, Estonian waltz, Flett from Flotta, Aly's song, Charlie Hunter's jig, The mouse in the cupboard, Rosewood*... soinu mordoxka entzun genuen, askotan hiru edo lau parteko piezetan bilduta, pieza berean erritmo ezberdinak nahastuz.

Esan bezala, primeran pasa genuen Philen azalpenekin, Alyk ere askotan jarraipen egokia ematen zuela. Horrela jakin genuen *Tonder* kantua, Danimarkako izen horren jaialdiaren 25 urte ospatzeko enkargua, taxian konposatu zuela Philek zenbait minutu estreinatu baino lehen... mandatua erabat ahaztuta zeukalako. Tipo jator eta jostari hauekin denetarik gerta daiteke. Eta, zorionez, hala gertatzen da.

argitalpena

Alfontso Martinez Lizarduikoa Bergarako 'Berrigara' astekarian

Beste osagai askoren artean, Bergarako *Berrigara* astekariak, Alfontso Martinez Lizarduikoa filosofoari egindako elkarrizketa kaleratu du. Bertan, «Europan geratzen den azken herri indigena» euskaldunak direla adierazi du Lizarduikoak. Filosofoaren aburuz, neolitiko garaiko balioak orain arte iritsi zaizkigu, apaltasunez bada ere.

Argitaratzailea: **Jardun elkartea**

aholkua

Letxugari buruzko hainbat aholku sukaldaritzan

Uraza hostoak zimeldurik geratu bazaizkigu, bada modu bat hostoek berriz ere bizitasuna izan dezaten. Eduki letxuga ur berotan minutu batzuetan eta gero ur hotzetatik pasa. Hala, hostoek indarra hartuko dute berriz ere. Entsalada prestatzerakoan hostoak soberan geratuz gero, gorde hozkailuan, urez bustitako zapi batean.

EGUNKARIA

musika

musika

AZKOITIA. Sen. Bihar, Docto tabernan, gaueko 00:00etan.
ARETXABALETA. Ken-7. Bihar, gaueko 22:30ean, Ezkutu tabernan.
BARAKALDO. MDH. Bihar, Mendigo Pubean, arratsaldeko 20:00etan.
BERA. Petti. Gaur, Kultur Etxean, eguerdiko 13:30ean.
BERGARA. Se Gabathor, Legen Beltza. Bihar, gaueko 22:30ean, gaztetxean.
BILBO. Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Gaur eta bihar, Euskalduna Jauregian.
Tapia eta Leturia. Bihar, gaueko 21:30ean, Kafe Antzokian.
Obus eta Overlife. Maiatzaren 26ean, Bilborock aretoan, gaueko 21:00etan.
Peggy Seeger. Maiatzaren 26an, Euskalduna Jauregian, 20:30ean.
DONOSTIA. Ray Anderson. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Egia kultur etxean.
DJ Com-passion. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Beti Boga tabernan.
DURANGO. Labrit. Gaur, Berbaro tabernan, arratsaldeko 20:30ean.
ELORRIO. Non demontre (taldearen emanaldi birtuala), Satiba, Lisabö. Bihar, gaueko 22:30ean, Arriola ateneoan.
ERRENTERIA. Eztanda. Gaur, gaueko 22:30ean, De Cyna Reyna aretoan.
Errenteria Musical ganbera orkestra. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Udal musika eskolan.
IRUN. Obus eta Overlife. Bihar, gaueko 23:00etan, Tunk aretoan.
IRUÑEA. Anari. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Erraldoien Txokoan.
LEGORRETA. Txapelpunk eta Guda garaia. Gaur, Harripila kiroldegian, gaueko 23:00etan, jaiak direla eta.
LEITZA. Goaz. Bihar, gaueko 22:00etan, Aurrera elkartean.
OIARTZUN. NomeansNo, Removal. Gaur, gaueko 21:30ean, Pagoa aretoan.
Freenetic, Mixil. Bihar, Pagoa aretoan.
Eraso!, Kaotiko, Pottor´s. Maiatzaren 26an, gaueko 23:00etan, Pagoa aretoan.
OION. Xilipurdi. Bihar, arratsaldeko 18:30ean, plazan.
ORDIZIA. Jazz kafe-kontzertua. Bihar, gaueko 22:30ean, Barrena kultur etxean, Gonzalo Tejada eta Mikel Anduezaren eskutik.
Eraso! eta Pottor´s. Bihar, gaueko 23:00etan, gaztetxean.
SORALUZE. Doro. Gaur, arratsaldeko 14:30ean.
Mikel Artieda Trio. Gaur, gaueko 22:30ean, Gaztelupen.
TOLOSA. Diapasoi boskotea. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Udal Musika Eskolan.
VILLABONA. Bide Ertzean. Bihar, gaueko 22:30ean, Zineman.
ZAMUDIO. Labrit. Bihar, Dorretxean, gaueko 22:30ean.
Mikel Urdangarin. Maiatzaren 26an, Kiroldegian, gaueko 22:00etan.

ANDER GILLENEA

Pottor´s eta Eraso! taldeen kontzertua Ordiziako gaztetxean

Eraso!, Pottor´s Ordiziako gaztetxean (Bihar, 23:00etan)

Bihar gauean metal kontzertua izanen da Ordiziako gaztetxean. Alde batetik, Pottor´s iruindarrak ariko dira (argazkian), eta, bestetik, Eraso! zarauztarrak. Doinu azkarrak ez dira faltako, hortaz, Ordizian. Maiatzaren 26an, berriz, bi talde horiek Oiartzungo Pagoa aretoan izanen dira, Kaotikorekin batera. Kontzertua gaueko 23:00etan hasiko da.

antzerkia

AGURAIN. 'Beltzitina'. Bihar, Harresian, goizeko 10:30ean, Panta Rehy taldearen eskutik.
BARAKALDO. 'Badum mundua'. Gaur, Barakaldo antzokian, Hortzmugaren eskutik, goizeko 11:30ean eta 15:30ean.
BILBO. 'Errekamari'. Maiatzaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Santutxuko Santa Marta ikastetxean, Itzal taldearen eskutik.
DEBA. 'Laurel eta Hardy zerura bidean'. Bihar, 22:30ean, Zubeltzun, Bederen 1 taldearen eskutik.Debako Antzerki Astearen barruan.
DONOSTIA. 'Los monólogos de la vagina'. Bihar, maiatzaren 26an eta 27an, Lugaritz kultur etxean, arratsaldeko 20:30ean, Karacter taldearen eskutik.
'100% cabaret'. Gaur, Altzako Santa Barbara tabernan, gaueko 22:00etan, Psikosis Gonsalezen eskutik. Bihar, gaueko 23:00etan, Egiako Blukowsky tabernan izango da. Eta maiatzaren 26an, Amarako Lau tabernan, gaueko 22:30ean.
'Nada por aquí, nada por allá'. Gaur, Arcco Amaran, Armando de Miguelen eskutik, 20:30ean. Bihar, Kursaal tabernan, gaueko 22:00etan. Eta maiatzaren 26an, Intxaurrondoko Izei tabernan, 23:30ean.
'Arrabalera zuzen-zuzenean'. Gaur, Beti boga tabernan, gaueko 21:00etan, La Arrabaleraren eskutik.
'One band blues band'. Gaur, Groseko Muro tabernan, gaueko 23:00etan. Maiatzaren 26an, Loiolako Miner tabernan, gaueko 23:00etan. Maiatzaren 27an, Altxerri tabernan, gaueko 23:00etan.
'Alizia, bitxikerien lurraldean'. Maiatzaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Egia kultur etxean, Dar-Dar taldearen eskutik.
EIBAR. 'Tiburtzio sargentua'. Gaur, arratsaldeko 15:00etan, Lauburu taldearen eskutik, Hezkuntza Esparruan. Ondoren, *Tangala danba* lana taularatuko du talde berak, eta *Azken luzea* Itzio taldeak.
GASTEIZ. 'La avería'. Gaur, eguerdiko 12:15ean, Unibertsitateko Pabilioian, Trapu Zaharraren eskutik.
HENDAIA. 'Nouvelles Folies'. Gaur, gaueko 21:00etan, Fiat Luxen eskutik, Les Varietesenen.
PASAIA. 'Patatus zientzialaria eta saltorik egiten ez zekien igela'. Gaur, Antxoko liburutegian, arratsaldeko 18:00etan, eta bihar, Trintxerpeko liburutegian, ordu berean.
URRETXU. 'Qfwfq, un aHistoria del Universo'. Bihar, gaueko 22:00etan, Pagoeta antzokian.

bertsolaritza

AZPEITIA. Bertso-afaria: Felix Zubia, Haritz Aranaburu eta Jokin Uranga. Bihar, Gu Iturri elkartean.
Bertso-afaria: Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano eta Urko Egaña. Bihar, Sajuandegi auzoan.
BERGARA. 'Lazkao-Txiki, bat bateko sorgina'. Maiatzaren 26ean, Kartzela Zaharrean, xabier Amurizaren eskutik, gaueko 22:30ean.
DONOSTIA. Bertso-afaria: Angel Mari Peñagarikano eta Jesus Mari Sorozabal. Maiatzaren 26an, Txalaka elkartean (Larratxo), gaueko 21:30ean.
ERRENTERIA. Bertso-afaria: Jesus Mari Irazu eta Jon Maia. Bihar, Niessen elkartean, gaueko 21:00etan.
LAUDIO. Bertso-trama: Asier Otamendi, Oihane Perea eta Ruben Sanchez. Bihar, Udaletxeko mintzaldi gelan, arratsaldeko 20:00etan, Basalarrinak antolaturik.
ZAMUDIO. 'Lazkao-Txiki, bat bateko sorgina'. Maiatzaren 27an, Kartzela Zaharrean, xabier Amurizaren eskutik, 19:30ean.

dantza

GASTEIZ. 'Koreografo gazteen

egun-pasa

'Perla beltza', xanpain koktel gozoa

Osagaiak: Tia Maria (2 cl), koñaka (2 cl), xanpaina (8 cl), izotz puskak eta bi ginga.

Jamaikako Mendate Urdinetako kafe ale usaintsuekin, azukre kanaberarekin, belar usaintsuekin eta banillarekin egiten dute Tia Maria. Istorioak dioenez, errezetak Espainiako kolono familia batek asmatu zuen, Jamaikan, XVIII. mendean. Garai hartan, ingelesek espainolak bidali zituzten uhartetik, eta errezetak eraman zuen neskame baten izena hartu zuen: Tia Maria.

Tia Maria, koñaka eta izotza nahastu koktelontzian, eta xanpain kopa batera pasa. Gehitu xanpain hotz gehiago, eta atondu gingekin. *Perla beltza* otorduen aurretik edo ondoren har daiteke.

EGUNKARIA

erakusketa'. Garcia Lorca antzokian.
IRUN. Dantza garaikidea eta zuzeneko musika. Maiatzaren 26an, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Kabigorri ateneoan.

ikus-entzunezkoak

ARETXABALETA. 'Munduari bira 17 urtetan, belauntzian eta familian'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean, Xanti Gonzalezen eskutik.
DONOSTIA. Txirritari buruzko marrazki bizidunak. Ostirala arte, egunero 17:00etan eta 20:00etan, Altzako Kasares kultur etxean.
'Hitzak egin gaitu'. Bihar, Txalaka elkartean, (Larratxo) arratsaldeko 19:30ean.
'Encuentros privados' filma. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Antzoki Zaharrean, Emakumearen Astea dela eta.
IRUN. 'Afrika: Atlantikotik, Indikora'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Amaia KZn, Imanol Ugarteren eskutik.
LEGAZPI. 'Aconcagua: centinela de piedra'. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Kultur Etxean, Joseba Ugalderen eskutik.
MENDARO. 'Munduari bira 17 urtetan, belauntzian eta familian'. Bihar, gaueko 22:30ean, Kultur Etxean, Xanti Gonzalezen eskutik.

musika

Anari Iruñeko Erraldoien Txokoan (20:30ean)

ANARI MUSIKAGILEA

Xabier Martin | **DONOSTIA**

«Gaur emango dugu iraila arteko azken kontzertua»

Iruñeko Erraldoien Txokoan datozen egunotan egingo diren kontzertuen zerrendaren barruan dago gaur Anarik emango duena. Azkoitiko kantariak apenas izan duen atsedenik azken hilabeteotan; horregatik, iraila artean gauzak lasaixeago hartuko dituela adierazi digu.

■ Urtea hasi zenetik, kontzertu asko eman duzu taldearekin batera. Zer asmo duzu orain?

Egia esan, ez dakit kontzertu gehiegi eskaini ez ote dugun, atsedenik gabe aritu gara eta... Iruñeko gaurko kontzertua azkena izango da iraila arte. Taldea geratu egingo da; besteak beste, kide bakoitzak beste konpromisoei ere erreparatu behar dielako.

■ Zergatik ibili zarete hain erritmo bizian?

Azken diskoa atera genuenetik jo eta su ibili gara, baina beti gustura, jendeak jarrera primerakoa izan duelako gurekin.

■ Non ekingo diozue berriz irailean jotzeari?

Ziurrenik, Katalunia eta Valentzia aldera joango gara. Esperientzia polita izango dela uste dut.

PABLO S. QUIZA

■ Ukaezina da bakarlarien egitura asko zabaldu dela Euskal Herrian. Zergatik du egitura horrek egun horrenbesteko arrakasta?

Bakarlariak betidanik egon dira. 80ko hamarkadan talde gehiago sortzen ziren, hori bai. Baina bakarlari bakoitzak musika ezberdina egiten du. Hala ere, garbi esan nahi dut nik azken diskoan taldearen kontzeptua oso barneratua dudala; ez alferrik, hilabeteak eman ditugu elkarrekin zuzeneko kontzertuak ematen.

■ Egitasmo berririk ba al duzu buruan?

Disko berri bati buruz ari bazara, ez. Izan ere, oraindik erabat identifikaturik nago azken lanarekin, *Habiak* diskoarekin. Batzuetan sortzen ditut gauza berriak, baina ez dut buruan disko berririk, oraindik ez behintzat.

■ Nolakoa izango da gaurko egitaraua?

Gehienbat azken laneko abestiak joko ditugu, baina zaharragoak ere izango dira.

hitzaldiak

BILBO. 'Hizkuntzen dinamika Europaren ekialdean Europako Batasuna dela xede'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Christian München eskutik.
'El Plan Colombia y la cooperación internacional. retos y dificultades'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, La Bolsa auzoetxean.
DONOSTIA. 'Afrontar la guerra sin hospitales'. Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Medikuen Koloegioaren areto nagusian, Emir Frastoren eskutik.
'Eskola katolikoaren oraina eta etorkizuna'. Gaur, Karmelo ikastetxean, Mikel Ormazabal, Maite Martinez, Agustin Ortiz, Charo Alonso, Iñaki Molina eta Jose Maria Artolaren eskutik.
'Intimitatea, Emakumearen Astea'. Gaur, Juan Velazquezen eskutik, Okendo kultur etxean, arratsaldeko 19:30ean.
'Gipuzkoako itsasbazterreko hiribilduetan bizi aro modernoa'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Elosegi aretoan, Lourdes Odriozolaren eskutik.
DURANGO. 'Garai erromatarra Euskal Herrian'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Etxezarreta Jauregian, Milagros Esteban Delgadoren eskutik.
EIBAR. 'Uste ustelak uraren inguruan'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, UEUko egoitzan (Markeskoa), Iñaki Antiguedaden eskutik.
'Meteorologi zantzuak Naturan'. Bihar, Pello Zabalaren eskutik, arratsaldeko 19:00etan, UEUko egoitzan (Markeskoa).
GARES. Elkarriren Bake Konferentzia. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Gomacín elkartean.
GASTEIZ. 'Literatura eta generoa'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Laura Mintegiren eskutik, gaztetxean.
IBARRA. 'Herrien nortasuna, guztion aberastasuna'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Kultur Etxean.
IRUÑEA. 'Xarxa feministe: la relación entre mujeres como práctica política'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Zabaldin (Navarrería, 25).
'La mujeres de Colombia por sus derechos sexuales y reproductivos'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Zabaldin (Navarrería, 25), Ana Boteroren eskutik.
'Euskal rock and rollaren garapena'. Maiatzaren 26ean, Txantreako herriko tabernan, arratsaldeko 17:00etan, Fermin Muguruzaren eskutik.
LASARTE-ORIA. 'Prestakuntza fisikoa mendian'. Gaur, Batasuan Elkartearen egoitzan, arratsaldeko 20:00etan, Iñaki Balmasedaren eskutik.
LEGAZPI. 'Dieta mediterránea'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Kultur Etxean, Uranga eta Lorenzoren eskutik.
MUTRIKU. 'Eritreari buruzko hitzaldia: egoera, beharrak, ...' Gaur, Zabiel kultur etxean, arratsaldeko 19:00etan, Itziar Aranaren eskutik.
OIARTZUN. '20 urteren buruan, bertso astea'. Bihar, 19:00etan, Liburutegian, Joxe Kruz Ezeiza, Juan Jose Mitxelena, Iñaki Arbelaitz eta Rafael Labandibarren eskutik.
OÑATI. 'Nerabezaroa, gurasoen ametsgaiztoa'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Santa Eskolastikako aretoan.
ORIO. 'Euskal toponimia, Ipar Atlantikoan'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan.
ZAMUDIO. 'Herri-kirolen bilakaera'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Iñaki Perurenaren eskutik, Zamudio Torrean.

bestelakoak

ABADIÑO. 'Norberaren olerki emanaldia: Honorio Cadarso, Peru Magdalena, Jose Maria Gomez, Vicente Moreno'. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Kultur Etxean.
AGURAIN. 'Zazpi kolore' eleberriaren aurkezpena. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Harresian, Jon Arretxe idazlearen eskutik.
BILBO. 'Bar puerto, bazterreko ahotsak'. Gaur, gaueko 22:00etan, Kafe Antzokian, Kirmen Uribe eta Joseba Urdangarinen eskutik.
DONOSTIA. Zirkoa. Datozen bi asteetan, egunero 17:30etik 19:30era, Garbera merkatalgunean.
Literatur irakurketa. Gaur, *Zikoinaren hegaldia*, Patxi Zubizarretaren eskutik, arratsaldeko 20:00etan Liburutegi Nagusian.
ZAMUDIO. Txan Magoa. Maiatzaren 26an, Zamudio Torrean, eguerdiko 12:30ean.

Agendan iragarri ahal izateko eman zuon ekitaldien berri **agenda@egunkaria.com** zuzenbide elektronikoan, **943-300255** faxean edo **943-300222** telefonoan.

hiriburuetako filmak

● Txarra ★ Eskasa ★★ Balekoa ★★★ Ona ★★★★ Bikaina

CABALGA CON EL DIABLO. EEBB, 2001. Zuz.: Ang Lee. Akt.: Jake Roedel, Jack Bull Chiles, Sue Lee Shelley, Daniel Holt, George Clyde. 105 min.
★★★ 1862an gaude, EEBBetan. Banakuntzarako Gerran, Jake eta Jack gazteak Hegoaldeko tropekin joango dira. Gerraren gordinak aldarazi egingo ditu gazteak eta gogoeta sakona egingo dute. Daniel Woodrell idazlearen *Woe to live on* eleberrian dago oinarrituta. **Gasteiz (Mikeldi), Bilbo (Mikeldi), Donostia (Bretxa, Garbera), Iruñea (Carlos III).**

CHOCOLAT. 2001, EEBB. Zuz.: Lasse Hallstrom. Akt.: Juliette Binoche. 122 m.
★★ 50eko hamarkadan kokatutako istorioa da. Vianne eta bere alaba Frantziako herrixka batera iristen dira. Txokolategia irekiko du Viannek, eta gizon bat ezagutuko du... **Gasteiz (Mikeldi), Donostia (Principe), Iruñea (Carlos III).**

CODIGO DESCONOCIDO. Frantzia, 2001. Zuz.: Michael Haneke. Akt.: Juliette Binoche, Thierry Neuvic, Sepp Bierbichler. 117 min.
★★★★ Parisko gau eder batean, norbaitek paper zati bat txiro baten eskuetan utzi du. Gertaera horrek zenbait pertsonaiaren bideak batuko ditu. Komunikazio faltak sortutako bortizkeria salatzen du Hanekek istorio honetan. **Donostia (Trueba (JBA)).**

DIME QUE NO ES VERDAD. EEBB, 2001. Zuz.: J.B. Rogers. Akt.: Chris Klein, Orlando Jones, Richard Jenkins, Sally Field. 95 m.
★ Gilly Noblek detektibe bat kontratatu du bere benetako ama aurki dezan. Bien bitartean, Jo izeneko neska bat ezagutuko du eta maitemindu egingo dira. Harremana, ordea, hautsi egingo da detektibeak jakiten duenean bien ama bera dela. Istorioa umore onarekin kontatua dago. **Gasteiz (Guridi), Bilbo (Avenida, Ideales), Donostia (Garbera, Warner), Iruñea (Carlos III).**

EL PALO. Espainia, 2001. Zuz.: Eva Lesmes. Akt.: Adriana Ozores, Carmen Maura, Maribel Verdu, Malena Alterio. 108 m.
★★ Lau emakume adiskidetasunak, lanak eta patuak elkartuta daude. Arazo ekonomiko larriak dituzte. Ez dute ezer galtzeko eta banku batean bi milioi lapurtzea erabakiko dute. Lapurreta erraza dela ematen du, baina ez da hala izango. **Gasteiz (Guridi), Donostia (Astoria, Garbera).**

EL ESPINAZO DEL DIABLO. Espainia, 2001. Zuz.: Guillermo del Toro. Akt.: Fernando Tielve, Marisa Paredes, Eduardo Noriega, Federico Luppi. 106 min.
★★ Biktima errepublikanoen umezurtz etxe batean dago kokatuta istorioa. Carlos iristean, etxe horretako bizimodua aldatu egingo da. Gainera, zuzendariaren eta irakaslearen arteko harremana ez da batere ona. Eta bertakoen arteko ika-mikak gero eta ugariagoak izango dira. **Gasteiz (Florida), Iruñea (Carlos III).**

EL VIAJE DE ARIAN. Espainia, 2001. Zuz.: Eduard Bosch. Akt.: Ingrid Rubio, Abel Folk, Silvia Munt, Laia Marull. 104 m.
★ Arian neska erromantiko bat da, kale borrokan dabilena. Vivaldi ETAko kideaz maitemindu egingo da eta Nafarroa komandoan sartuko da, bahiketa batean parte hartzeko. Handik aurrera bizitza aldatuko zaio erabat. **Gasteiz (Mikeldi), Bilbo (Mikeldi), Donostia (Bretxa), Iruñea (Golem Yamaguchi).**

ESPERA AL ULTIMO BAILE. EEBB, 2001. Zuz.: Thomas Carter. Akt.: Julia Stiles, Sean Patrick Thomas, Terry Kinney.
★ Sara familia oneko neska bat da. Bere ama hiltzean hiriz aldatuko da. Institutu berrian ikasle gehienak beltzak dira eta horietako baten lagun egingo da. Derek. Honek hip-hop eta dantzaren kulturan murgilduko du Sara. **Donostia (Bretxa, Garbera), Iruñea (Olite).**

GRACIAS POR EL CHOCOLATE. Frantzia, 2000. Zuz.: Claude Chabrol. Akt.: Isabelle Huppert, Jackes Dutronc.
★★★ Mika Muller emakume atsegin eta sentibera dirudi, baina bere bizitza pertsonalean inguruko pertsonak kontrolatzera ohituta dago. Gauzak Jeanne pianojole gaztea azaltzen denean aldatuko dira. Senarrak begi onez ikusiko du Jeanne, baina Mikak familiaren oreka hautsi dezakeela pentsatuko du. **Bilbo (Multi).**

GREENWICH MEAN TIME. EEBB, 2001. Zuz.: John Strickland. Akt.: Alec Newman, Chiwetel Ejiofor. 117 m.
★ Londresen kokatuta dago istorioa. Lau gazte, txikitatik oso lagunak, pozik bizi dira eta ilusioz begiratzen diote etorkizunari. Egun batean, ordea, istripu bat gertatuko da eta euren bizitza goitik behera aldatuko da. **Bilbo (Multi), Donostia (Bretxa), Iruñea (Golem Yamaguchi).**

HOMBRES DE HONOR. EEBB, 2001. Zuz.: George Tilman. Akt.: Robert de Niro, Cuba Gooding Jr., Charlize Theron. 128 min.
★ Carl Brashear Estatu Batuetako armadako urpekari taldean sartu den lehenengo beltza da. II. Mundu Gerran, bere misioetako batean, zauritu egingo dute, eta hanka bat moztu beharko diote. Hala ere, borrokan jarraituko du bere kideen arrazismo nabariaren aurka. **Donostia (Warner).**

LOS RíOS DE COLOR PÚRPURA. Frantzia, 2000. Zuz.: Mathieu Kassovitz. Akt.: Jean Reno, Vincent Cassel, Nadia Fares. 105 m.

aretoak

Araba

GASTEIZ

FLORIDA
(945 23 19 40)
Silencio roto: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Taxi 2: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Enemigo a las puertas: 19:45.
El mundo de Bimala: 19:45.
Pan tadeusz: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Arde amor: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Cuando Brendan conocío a Trudy: 17:30 - 20:00 - 22:30.
El espinazo del diablo: 17:30 - 20:00 - 22:30.

GURIDI
(945 23 19 40)
El regreso de la momia: 17:30 - 20:00 - 22:30.
La voz de su amo: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Dime que no es verdad: 17:30 - 22:30 .
Los rios de color purpura: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Juego de confidencias: 17:30 - 20:00 - 22:30.
El palo: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Torrente 2: 17:30 - 20:00 - 22:30.

MIKELDI
(945 28 97 61)
Candidata al poder: 17:30 - 20:00 - 22:30.

MIKELDI MULTIPLEX
(945 26 72 73)
Presunto homicida: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Torrente 2: 17:15.
El regreso de la momia: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Cabalga con el diablo: 17:30 - 20:00 - 22:30.
El viaje de Arian: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Espera al ultimo baile: 17:15 - 20:00 - 22:30.
El viejo que leia novelas de amor: 22:30.
Noviembre dulce: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Chocolat: 17:15 - 20:00 - 22:30.

AGURAIN

HARRESI
(608 90 16 70)
Ez dago emanaldirik.

Bizkaia

BILBO

AVENIDA
(94 431 0310)
Bailando con lobos (JBA): 11:15 - 16:00 - 20:30.
Premonición: 11:15 - 14:15 - 16:30 - 20:15 - 22:30.
Silencio roto: 11:15 - 14:15 - 16:30 - 20:15 - 22:15.
Dime que no es verdad: 11:30 - 14:30 - 17:00 - 20:30 - 22:15.
Presunto homicida: 11:30 - 14:30 - 17:00 - 20:15 - 22:30
Ogia eta arrosak: 11:30 - 14:30.
La voz de su amor: 17:00 - 20:15 - 22:30.

CAPITOL
(94 431 03 10)
El regreso de la momia: 16:45 - 19:45 - 22:30.
Candidata al poder:16:45 - 19:45 - 22:30.
Los rios de color purpura: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Silencio roto: 17:00 - 20:00 - 22:30.

COLISEO ALBIA
(94 431 0310)
Descubriendo a Forrester: 17:00 - 19:30 - 22:00.

IDEALES
(94 4310310)
La voz de su amo: 17:00 - 20:00 - 22:30.
Juego de confidencias: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Cuando Brendan conocio a Trudy:17:15 - 20:00 - 22:30.
Pan tadeusz: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Arde amor:17:15 - 20:00 - 22:30.
Dime que no es verdad:17:15 - 20:00 - 22:30.
Torrente 2: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Presunto homicida: 17:00 - 20:00 - 22:30.

MIKELDI
(94 431 0310)
El regreso de la momia: 17:15 - 20:00 - 22:30.
El paraiso ya no es lo que era: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Cabalga con el diablo: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Noviembre dulce: 17:15 - 20:00 - 22:30.

MULTI
(94 431 03 10)
Very importat perros: 17:30 - 19:45 - 22:30.
Lena: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Tigre y dragon: 17:15 - 19:45 - 22:15.
El palo: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Traffic: 17:15 - 20:00.
Trixie: 17:15 - 19:45 - 22:15.
Greenwich mean time: 17:15 - 19:45 - 22:15.
Gracias por el chocolate: 17:30 - 20:00 - 22:30.

BARAKALDO

MAX CENTER
(94 431 03 10)
Dime que no es verdad: 17:00 - 19:30 - 22:30.
Los rios de color purpura: 17:00 - 20:00 - 22:30.
Juego de confidencias: 17:00 - 20:00 - 22:30.
Torrente 2: 17:00 - 20:00 - 22:30.
Miss agente especial: 17:00 - 19:30 - 22:30.
Presunto homicida: 17:00 - 22:30.
Premonición: 20:00 - 22:30.
Noviembre dulce: 16:45 - 19:30 - 22:30.
Silencio roto: 16:45 - 19:30.
El regreso de la momia: 16:45 - 19:30 - 22:30.
Enemigo a las puertas: 16:45.
La voz de su amo: 17:00 - 20:00 - 22:30.
En lo profundo del bosque: 17:00 - 20:00 - 22:30.

BASAURI

BILBONDO
(94 431 0310)
Cabalga con el diablo: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Torrente 2: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Cuando Brendan conocioa a Trudy: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Premonición: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Presunto homicida: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Los rios de color purpura: 17:00 - 20:00 - 22:30.
Dime que no es verdad: 17:15 - 20:00 - 22:30.
El regreso de la momia: 16:45 - 19:30 - 22:30.

SOZIAL ANTZOKIA
(94 431 0310)
Torrente 2: 17:30.
La novia de Frankestein (JBA): 20:00 - 22:30.

BERMEO

NESTOR BASTERRETXEA
Ez dago emanaldirik.

DURANGO

ZUGAZA
Ez dago emanaldirik.

ELORRIO

ARRIOLA
Ez dago emanaldirik.

ERMUA

ERMUA
Ez dago emanaldirik.

GALDAKAO

TORREZABAL
Ez dago emanaldirik.

GERNIKA

ALAI
Ez dago emanaldirik.

GETXO

GETXO ANTZOKIA
Ez dago emanaldirik.

LAUREN
(94 431 03 10)
Taxi 2: 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30.
Las flores de Harrison: 16:15 - 19:15 - 22:15.
Hombres de honor: 16:30 - 19:30 - 22:30.
Noviembre dulce: 16:30 - 19:30 - 22:30.
Silencio roto 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
El viaje de Arian: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
Cabalga con el diablo:16:00 - 19:30 - 22:30.
La voz de su amo:16:30 - 19:30 - 22:30.
Juego de confidencias:16:10 - 18:20 - 20:30 - 22:40.
El regreso de la momia:16:30 - 19:30 - 22:15.
Dime que no es verdad: 16:10 - 18:20 - 20:30 - 22:40.
Chocolat: 16:30 - 19:30 - 22:30.

AREETAKO GRAN CINEMA
(94 4636939)
Nacional 7: 20:00.

LEIOA

CINESA ARTEA
(902 33 32 31)
Premonición: 15:50 - 18:00 - 20:15 - 22:30.
El regreso de la momia: 16:00 - 16:30 - 18:45 - 19:30 - 21:45 - 22:15.
Presunto homicida: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
Dime que no es verdad: 16:00 - 18:00 - 20:15 - 22:30.
Torrente 2: 16:00 - 18:00 - 20:15 - 22:30.
Los rios de color purpura: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
Druidas: 16:30 - 19:15 - 22:00.
La voz de su amo: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.

ONDARROA

BIDE ONERA
Ez dago emanaldirik.

PORTUGALETE

JAVA
Ez dago emanaldirik.

SANTURTZI

SERANTES
(94 420 58 06)
El regreso de la momia: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Dime que no es verdad: 17:30 - 20:00 - 22:30.

'EL VIAJE DE ARIAN'

ETA, zuzendari kataluniar baten arabera

Arian, neska erromantikoa da, kale borrokan dabilena. Vivaldi ETAko kideaz maitemindu egingo da eta Nafarroa komandoan sartuko da, bahiketa batean parte hartzeko. Handik aurrera bizitza aldatuko zaio erabat. Ingrid Rubio da aktore protagonista.

Gasteiz (Mikeldi) **Bilbo** (Mikeldi) **Donostia** (Bretxa) **Iruñea** (Golem Yamaguchi)

zine-klubak

● Niemans, polizia aritua eta krimen alorrean sen handikoa, Guernonera joanen da erailketa bat ikertzera. Max polizia auto ohoin ohia eta lanjerraren maitalea da, eta hilerri baten profanazioa ikertuko du. **Gasteiz (Guridi), Bilbo (Capitol), Donostia (Warner Lusomundo), Iruñea (Principe).**

NOVIEMBRE DULCE. EEBB, 2001. Zuz.: Pat O´Connor. Akt.: Keanu Reeves, Charlize Theron, Jason Isaacs. 119 m.
★ Nelsonek lanean baino ez du pentsatzen eta ez du maitasunerako astirik. Egun batean Sara zoragarria ezagutu arte. Konpromisoa hartzeko beldur dira eta nahiko harreman bitxia hasiko dute: hilabete proban, eta ondoren bakoitzak bere bidea hartuko du. **Gasteiz (Mikeldi), Bilbo (Mikeldi), Donostia (Principe, Warner), Iruñea (Golem Baiona).**

PREMONICIÓN. EEBB, 2000. Zuz.: Sam Raimi. Akt.: Cate Blanchet, Keanu Reeves, Giovanni Ribisi.
★ Annie alarguna da, eta hiru seme ditu. Ez daki nola aurrera egin. Baina etorkizuna iragar dezakeela konturatuko da, eta bizilagunei etorkizuna iragarriko die. Egun batean, neska gazte bat desagertu egingo da, eta orduan Annieri neska aurkitzeko laguntza eskatuko diote. **Bilbo (Avenida), Donostia (Warner).**

PRESUNTO HOMICIDA. EEBB, 2001. Zuz.: Anthony Waller. Akt.: Bill Pullman, Gabrielle Anwar. 110 m.
★★ Callum Cranek karrera oparoa du epaile bezala. Baina egun batean, mozkortuta, bere laguntzaile Sophie bortxatzen saiatuko da. Neskak dena kontatuko duela mehatxatuko du. Bien bitartean, epailearen seme sasikoa bere bila dabil. **Gasteiz (Mikeldi), Bilbo (Avenida, Ideales), Donostia (Astoria, Bretxa, Garbera, Warner), Iruña (Olite).**

Nacional 7 filmeko irudi bat.

NACIONAL 7. Frantzia, 2000. Zuz.: Jean-Pierre Sinapi. Akt.: Nadia Kaci, Olivier Gourmet, Lionel Abelanski. 90 m.
Elbarrietxe batean benetan gertatutako istorio batean oinarrituta dago Sinapi zuzendariaren bigarren film hau. Toulon hiritik eta N 7 errepidetik gertu dago etxea, eta bertako elbarrien egoera islatzen da filmean. Donostiako Zinemaldian publikoaren saria eraman zuen. **Getxo (Areetako Gran Cineman). 20:00etan.**

CON FALDAS Y A LO LOCO. EEBB, 1959. Zuz.: Billy Wilder. Akt.: Marilyn Monroe, Tony Curtis, Jack Lemmon, George Raft, Pat O´Brien. 121 m.
Bi musikari gazte ihesian dabiltza, dirurik gabe. Emakume orkestra batean gordetzen dira, emakumez mozorrotuta. Bertan Marilyn Monroek interpretatutako emakume ederra ezagutuko dute eta harekin maiteminduko dira. Komedia ahaztezina da, bihurria eta bizi-bizia. Billy Wilderren zikloko azkenekoa. **Beasain (Usurbe Antzokian). 21:30ean.**

GET REAL. Erresuma Batua, 1998. Zuz.: Simon Shore. Akt.: Ben Silverstone, Brad Gorton, Charlotte Brittain, Stacy A. Hart. 110 m.
Nerabezaroan dauden neska-mutiko batzuen istorioa kontatzen da. Bizitzan euren lekua bilatzen ari dira, bereziki euren sexualitatea. Patrick Wilde aktoreak idatzitako antzerki lanaren egokipena da. Komedia britainiar atsegina. **Santurtzi (Serantes kultur aretoan). 22:15ean.**

BAISE-MOI (FÓLLAME). 2000, Frantzia. Zuz.: Virginie Despentes eta Coralie Trinh Thi. Akt.: Raffaëla Anderson, Karen Bach, Delphine Maccarty.
Bi emakumeren istorioa kontatzen da: Nadine eta Manu. Mendeku hartzeko gogo biziz daude, duela gutxi bortxatu egin baitituzte. Gauzak horrela, maitaleak hiltzen ekingo diote, eurekin larrua jo eta gero. **Bergara (Novedades aretoan). JBA. 20:00etan.**

EL MUNDO DE BIMALA. India, 1984. Zuz.: Satyajit Ray. Akt.: Soumitra Chatterji, Swatilekha, Victor Bannerji, Gopa Aich.
1980. «Banatu eta irabaziko duzu» kolonizazio politikaren bidetik, Britainiar gobernuak Bengala bitan banatzea erabaki du eta horrek kontrako mugimendu gogorra sortuko du. Horrez gain, emakume bera maite duten garai bateko bi lagun aurrez aurre jarriko ditu egoerak. **Gasteiz (Florida aretoetan). 19:45ean.**

SANGRE FACIL. FEBB, 1984. Zuz.: Joel Coen. Akt.: John Getz, Frances McDortmund, Dan Hedaya, Deborah Neumann.
Gizon aberats jeloskor batek hiltzaile bat kontratatuko du. Emaztea eta honen amorantea hil nahi ditu. Argumentua originala ez bada ere, Joel Coenek modu bitxi eta erakargarrian kontatu zuen istorioa. Bere lehenengo filma izan zen. **Iruñea (Golem Yamaguchi aretoan). JBA. 22:30ean.**

LA VIRGEN DE LOS SICARIOS. Frantzia-Kolonbia-Espainia, 2000. Zuz.: Barbet Schroeder. Akt.: German Jaramillo, Anderson Ballesteros, Juan David Restrepo 97 min.
Fernando idazleak Medellin hirira itzultzea erabaki du. Baina ez da moldatuko hirian, eta sikario gazte batez maiteminduko da. Medellingo hiriaren eguneroko bizimodua azaltzen da filmean, oso errealitate gogorra, kartelen botereaz zipriztindua. **Tafalla (Español zinema aretoan). 20:00etan eta 22:30ean.**

NI UNO MENOS. Txina, 1999. Zuz.: Zang Yimou. Akt.: Wei Minzhi, Zhang Huike, Gao Enman.
Gao nekazal giroko irakasle bat da. Bere ama gaixo dago eta eskolak emateari utzi egin beharko dio bolada batean, hura zaintzeko. Bere ordezkoa hamahiru urteko neskatxa bat da: Wei. Gaok ez du nahi bere ordezkapena hain neska gazteak egitea, baina ez da beste aukerarik egongo. **Elgoibar (Herriko Antzokian). Gaur, 21:30ean. Bihar, 22:15ean.**

SOSPECHOSOS HABITUALES. FEBB, 1995. Zuz.: Bryan Singer. Akt.: Gabriel Byrne, Chazz Palminteri, Kevin Spacey, Stephen Baldwin.
David Kujan, EEBBetako aduana zerbitzuan lan egiten duen agente berezi bat, Los Angeles hiriko San Pedro portuan egon den sute bat ikertzen ari da. 27 pertsona hilik agertu ziren, guztiak erailak. Kujan ziur dago Keaton polizia ohia sute horren atzean dagoela... **Mutriku (Ederrena zineman). Bihar, 22:30ean.**

SILENCIO ROTO. Espainia, 2001. Zuz.: Montxo Armendariz. Akt.: Lucia Jimenez, Juan Diego Botto, Mercedes Sampietro, Alvaro de Luna.
★★★ Armendarizek makiak eta garaiko emakumeak nola bizi ziren jaso du istorio gogor eta hunkigarri honetan. Tartean maitasun istorio bat egongo da. Merezi du. **Gasteiz (Florida), Bilbo (Avenida, Capitol), Donostia (Astoria, Principe), Iruñea (Golem Baiona).**

TORRENTE 2. Espainia, 2001. Zuz.: Santiago Segura. Akt.: Santiago Segura, Gabino Diego.
● Torrentek aurreko ibileretan lapurturiko diruarekin, Marbellara ihes egingo du. Baina gauzak ez zaizkio uste bezala aterako eta gaizkile batzuei aurre egin beharko die. **Gasteiz (Mikeldi), Bilbo (Ideales), Donostia (Bretxa, Garbera, Warner), Iruñea (Carlos III, Golem Baiona).**

TRIXIE. EEBB, 2001. Zuz.: Alan Rudolph. Akt.: Emily Watson, Dermet Mulroney, Nick-Nolte. 117 m.
★★ Trixie Zurbok detektibe pribatuaren postua lortu du kasino garrantzitsu batean. Bertan pertsonaia bitxiak ezagutuko ditu, tartean senatari ustel bat eta kantari kaxkar bat. Kantaria hilda azalduko da eta orduan benetako kasu bat ikertu beharko du Trixiek. **Bilbo (Multi).**

VERY IMPORTANT PERROS. EEBB, 2001. Zuz.: Christopher Guest. Akt.: Parker Posey, Michael Hitchcock, Catherine O´Hara. 90 min.
★ Abokatu *yuppi* batzuk txoratuta daude euren txakurrekin. Arropa saltzaile bat eta bere emaztea, aberats zahar bat eta beste gazte batzuk dira txakur txapelketako lehiakideak. Komedia bitxia da, Dokumental bat bezalakoa da. **Bilbo (Multi), Donostia (Principe), Iruñea (Olite).**

Druidas: 17:15 - 19:45.
Get real: 22:15.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA
Ez dago emanaldirik.

Gipuzkoa

DONOSTIA

ANTZOKI ZAHARRA
(943 41 12 00)
Ez dago emanaldirik.

ASTORIA
(943 41 12 00)
La voz de su amo: 17:15 - 20:00 - 22:15.
Candidata al poder: 17:00 - 19:45 - 22:15.
El regreso de la momia: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Arde amor: 17:15 - 20:00 - 22:15.
Amores perros: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Silencio roto: 17:15 - 20:00 - 22:30.
El palo: 17:00 - 20:00 - 22:30.
Presunto homicida: 22:15.

BRETXA
(943 41 12 00)
Cabalga con el diablo: 17:00 - 19:30 - 22:15.
Espera al último baile: 16:00 -18:15 - 20:30 - 22:45.
El regreso de la momia: 16:45 - 19:30 - 22:15.
Candidata al poder: 17:00 - 19:30 - 22:15.
Presunto homicida: 16:00 -18:15 - 20:30 - 22:45.
Torrente 2: 16:00 - 18:00- 20:15 - 22:45.
El viaje de Arian: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
El palo: 16:00 - 18:00 - 22:30.
Greenwich mean time: 20:00.
La voz de su amo: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.

GARBERA
(943 41 12 00)
El regreso de la momia: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Espera al último baile: 17:00 - 19:30.
El palo: 22:30.
Juego de confidencias: 16:45 - 18:45 - 20:45 - 22:45.
Dime que no es verdad: 17:15.
Cabalga con el diablo: 19:30 - 22:15.
Taxi 2: 16:45 - 18:45 - 20:45 - 22:45.
Torrente 2: 17:15 - 19:30 - 22:30.
Presunto homicida: 17:00 - 19:45 - 22:15.

PRINCIPE
(943 41 12 00)
Chocolat: 17:00 - 22:15.
Very important perros: 19:45.
Silencio roto: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Enemigo a las puertas: 17:00 - 19:30 - 22:15.
Cuando Brendan conocio a Trudy: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Noviembre dulce: 17:15 - 19:45 - 22:30.
Pan tadeusz: 17:00 - 19:30 - 22:15.

TRUEBA
(943 41 12 00)
El regreso de la momia (JBA): 17:00 - 19:30 - 22:00.
Codigo desconocido (JBA): 17:15 - 22:00.
Mi dulce: 19:30.

WARNER LUSOMUNDO
(902 23 33 43)
Dime que no es verdad: 16:00 - 18:00 - 20:10 - 22:30.
Los rios de color purpura: 18:10 - 20:30 - 22:40.
Premonición: 17:50 - 20:20 - 22:50.
Presunto homicida: 18:25 - 20:40 - 23:00.
El regreso de la momia: 16:00 - 19:00 - 22:00.
Hombres de honor: 16:15 - 19:00 - 22:00.
En lo profundo del bosque: 16:15 - 18:10 - 20:10 - 22:20.
Torrente 2: 16:15 - 18:20 - 20:30 - 22:40.
La voz de su amo: 16:00 - 18:20 - 20:40 - 23:00.
Noviembre dulce: 16:30 - 19:15 - 22:10.

ARRASATE

ALAI
La leyenda de Bagger Vance: 19:00 - 21:30.

ATAUN

HERRI ANTZOKIA
Silencio roto: 21:30.

AZKOITIA

BAZTARTXO
Ez dago emanaldirik.

AZPEITIA

SOREASU
Ez dago emanaldirik.

ZELAITXO
Ez dago emanaldirik.

BEASAIN

USURBE
Con faldas y a lo loco: 21:30.

BERGARA

NOVEDADES
Baise-moi: 20:00.

DEBA

ZUBELTZU
Ez dago emanaldirik.

EIBAR

UNTZAGA
Ez dago emanaldirik.

RIALTO
Premonición: 19:30 - 22:15.

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
Ni uno menos: 17:30 - 21:00.

ERRENTERIA

ON BIDE
Ogia eta arrosak: 20:00.

HERNANI

BITERI
Ez dago emanaldirik.

IRUN

TXINGUDI
(943 41 12 00)
El regreso de la momia: 16:30 - 19:30 - 22:30.
Taxi 2: 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
El cielo abierto: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
Presunto homicida: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
Digimon: 16:00.
Cabalga con el diablo: 18:15 - 20:30 -22:45.
Espera al último baile: 16:00 - 18:15.
Silencio roto: 20:30 - 22:45.
Chocolat: 16:30 - 19:30 - 22:30.
Torrente 2: 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
El viaje de Arian: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
Dime que no es verdad: 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
Noviembre dulce: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Una historia verdadera: 22:00.

LEGAZPI

LATXARTEGI
Doktor Akagi: 21:30.

MUTRIKU

EDERRENA
Ez dago emanaldirik.

OÑATI

SANTA ANA
Ez dago emanaldirik.

ORDIZIA

HERRI ANTZOKIA
Ez dago emanaldirik.

TOLOSA

LEIDOR
Ez dago emanaldirik.

USURBIL

LAUREN
Las flores de Harrison: 16:30 - 19:30 - 22:15.
Torrente 2: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
El espinazo del diablo: 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45.
Cabalga con el diablo: 17:00 - 19:45 - 22:30.
El regreso de la momia: 16:30 - 19:30 - 22:15.
Noviembre dulce: 17:00 - 19:45 - 22:30.
Juego de confidencias: 16:10 - 18:20 - 20:30 - 22:40.
Dime que no es verdad: 16:15 - 18:25 - 20:35- 22:45.

VILLABONA

GUREA
Ez dago emanaldirik.

ZARAUTZ

MODELO
Malena: 19:30 - 22:15.

ZUMAIA

AITA MARI
Ez dago emanaldirik.

Lapurdi

BAIONA

L'ATALANTE
05 59 55 76 63)
La cambre du fils: 16:45 - 20:30.
Requiem for a dream: 18:30.
Beijing bicycle: 14:45.

VAUBAN
Le retour de la momie: 14:00 - 16:30 - 19:15 - 21:45.
Les ames fortes: 14:00 - 16:30 - 19:15 - 21:45.
Roberto Succo: 14:00 - 19:15.
Le fabuleux destin d'Amelie: 14:00 - 16:30 - 19:15 - 21:45.
Yamakasi: 16:30 - 21:45.
Un crime au paradis: 14:00 - 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:00.
Le chocolat: 14:00 - 16:30 - 19:15 - 21:45.

HENDAIA

VARIETES
Ez dago emanaldirik.

MIARRITZE

ROYAL
(08 36 68 04 45)
Le retour de la momie: 15:00 - 20:30.
Les ames fortes: 15:00 - 20:30.
Le fabuleux destin d'Amelie Poulain: 15:00 - 20:30.

Nafarroa

IRUÑEA

CARLOS III
(948 24 44 42)
Pan tadeusz: 17:15 - 20:00 - 22:45.
Cabalga con el diablo: 17:30 - 20:00 - 22:45.
Dime que no es verdad: 17:30 - 20:15 - 22:45.
Torrente 2: 17:30 - 20:00 - 22:45.
Chocolat: 17:15 - 20:00 - 22:45.

GOLEM (BAIONA)
(948 17 41 41)
El regreso de la momia: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Vaiven (film laburra) eta La voz de su amo: 17:15 - 20:00 - 22:30.
Noviembre dulce: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Silencio roto: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Doctor T y las mujeres: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Torrente 2: 17:30 - 20:10 - 22:30.

GOLEM (YAMAGUCHI)
(948 17 41 41)
Sangre facil: 22:30.
El último harén (JBA): 16:30 - 20:30 - 22:30.
Cuando Brendan conocio a Trudy: 16:30 - 18:30 - 20:30.
Lena: 16:30 - 18:30 - 20:30.
Greenwich mean time: 17:30 - 22:30.
El viaje de Arian: 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30.
Traffic: 19:45 - 22:30.

OLITE
(948 22 33 95)
Espinazo del diablo: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Very important perros: 17:30 - 20:00 - 22:30 .
Presunto homicidia: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Espera al ultimo baile: 17:30 - 20:00 - 22:30.

PRINCIPE
(948 24 54 00)
El regreso de la momia: 17:15 - 20:00 - 22:45.
Juego de confidencias: 17:30 - 20:00 - 22:45
Los rios de color purpura: 17:30 - 20:00 - 22:45.

LIZARRA

LOS LLANOS
El regreso de la momia: 17:30 - 20:00 - 22:30.
Memento: 17:30 - 20:00 - 22:30.

TAFALLA

ESPAÑOL ZINEMA
La virgen de los sicarios: 20:00 - 22:30.

TUTERA

CINEMAX
(948 82 28 91)
Silencio roto: 18:00 - 20:15 - 22:10.
El regreso de la momia: 19:30 - 22:00.
Chocolat: 18:00- 20:15 - 22:30.
Presunto homicida: 18:00 - 20:20 - 22:15.
Noviembre dulce: 18:00 - 20:25 - 22:35.
Torrente 2: 18:00 - 20:00 - 22:15.
Antes que anochezca: 19:00 - 22:00.
Dime que no es verdad: 18:00 - 20:30 - 22:30.
Dr. T y las mujeres: 18:00 - 20:15 - 22:40.

Nafarroa Beherea

DONAPALEU

SAINT LOUIS
La langue des papillons: 20:30.

DONIBANE GARAZI

LE VAUBAN
La leyende de Bagger Vance: 20:30.

Zuberoa

MAULE

MAULE BAITHA
Ez dago emanaldirik.

eguraldia

Jon Albisu

Gaurko iragarpena



Itsasoa

Kantauri itsasoko lehenengo 20 milietan, haizeak ipar ipar-mendebaldetik joko du, 3ko indarrarekin, eta itsaskia sortuko du. Bisibilitatea nahiko ona izango da hasieran, eta gero hala-holakoa. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak metroko olatuak altxatuko ditu.

GAUR

Egonkortasuna nagusi

Aroak ez du aldaketa nabarmenik izango. Goiz-goizetik lanbroa izango da kostaldean, eta behe lainoa ohiko tokietan. Dena den, hodei trinko ugari iritsiko dira ipar partera eta mendialdera, batez ere ipar-mendebaldeko haizeak bultzatuta, eta, beraz, zeru hodeitsua izango dugu hainbat tokitan. Barnealdean, berriz, ostarte gehiago izango dira, batik bat Erriberan. Ilunabar alderako, zaparradaren bat edo beste botako du, bereziki Pirinioetan, eta ilunabarrean ekaitza espero da. Tenperaturak zertxobait behera egingo du.

BIHAR



Presio altuak eta egoera antiziklonikoa izango dira. Goiz-goizetik, lanbroa eta behe lainoa izango ditugu, baina, egunak aurrera egin ahala, eguzkia eta hodei altuak nagusituko dira. Haize ahula eta aldakorra ibiliko da, eta tenperaturak gora egingo du.

ETZI



Beste egun batez, egonkortasuna izango da. Haizea oso ahul ibiliko da ipar-mendebaldetik, baina eguerdi alderako norabide aldakorreko ukitua hartuko du. Eguzkia eta hodei altuak, beraz, ipar-partean eta mendi inguruetan, hodei gehiago azaldu arren.

Tenperaturak

EUSKAL HERRIA	▽	△
Baiona	16	21
Bilbo	11	18
Donibane-Garazi	14	23
Donostia	13	15
Gasteiz	7	22
Iruñea	10	25
Maule	14	20

EUROPA	▽	△
Amsterdam	11	22
Atenas	17	28
Berlin	9	22
Bratislava	6	21
Brusela	10	22
Budapest	11	18
Dublin	14	23
Erroma	15	27
Frankfurt	10	16
Geneva	12	24
Helsinki	9	14
Kopenhage	11	17
Lisboa	12	22
Londres	11	21
Madril	13	22
Mosku	3	12
Oslo	8	20
Paris	13	24
Praga	6	22
Stockholm	11	21
Varsovia	6	20
Viena	12	25
Zurich	11	24

MUNDUA	▽	△
Beirut	14	26
Buenos Aires	9	20
Bogota	8	19
Caracas	19	29
Chicago	13	19
Habana	21	32
Kairo	22	38
La Paz	1	13
Los Angeles	16	24
Manila	24	33
Miami	23	31
Mexiko	13	26
New Delhi	16	30
New York	12	21
Pekin	21	33
Rabat	14	25
Rio de Janeiro	20	25
Tokio	18	21
Santo Domingo	22	31
Santiago	2	19
Sao Paulo	17	21
Washington	14	25

Eguzkia

Sortu 06:49
Gorde 21:31

Ilargia

ILBETE Maiatzak 8
ILBEHERA Maiatzak 15
ILBERRI Maiatzak 23
ILGORA Maiatzak 29

Itsasaldiak

ITSASGORA
Ordua 06:06 / 18:16
Metroak 4,34 / 4,37

ITSASBEHERA
Ordua 12:03 / -
Metroak 0,36 / -



Isobara mapa

Isobara mapak gaur arratsaldeko 14:00etarako agertzen duen moduan, presio altuko guneak izango dira kontinenteko leku gehienetan, Eskandinavian izan ezik. Hori guztia atmosferako goi geruzetan den egonkortasunaren isla da, baina, hala ere, lur azalean tartean agertzen diren borraskek argi erakusten dute litekeena dela egongaiztasuna eta giro nahasi eta aldakorra izatea.



Europa gaur

Giro nahasia dugu Europan. Tenperatura aldaketa nabarmenak eta presio altuak dituzten tokietan ere ez dira erabat azaltzen eguzkia eta hodei altuak. Goi latitudeetako egoera eta bereziki Eskandinaviakoa eta Errusiako iparraldekoa ditugu, hain zuzen ere, klimatikoki muturrean aurkitzen direnak: bertan aire masa hotza eta tenperatura hotzak dituzte.

denbora-pasa

LUMA

Hitz gezidunak



Kate hitzak



7 letra
Akabatu
Ardikia
Arpoiak
Dortoka
Elikatu
~~Erizain~~
Freskoa
~~Gordina~~
Kresala
Ohatzea

6 letra
Fardel
Gaitza
Urdeak
Zabala

3 letra
Aro
Ere
Ika
Ira

5 letra
Aluak
Arean
Dirua
Edari
Ertza
Gramo
Inoiz
Kaiku
Ontzi
Potea
Tratu
Txiki

bost x bost

Ezker-eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu



1. Gauzka. 2. Ipar., esna. 3. Maindirea, mihisea. 4. Karta joko. 5. Azido urikoaren gatz.

AURREKO SOLUZIOAK

1. Kortes. 2. Uraza. 3. Buztana. 4. Hegoamerika. 5. Erretxina. 6. Deba. 7. Kaprikornio. 8. Banbua. 9. Peter. 10. Bartzelona.

1. Elaia. 2. Larru. 3. Artez. 4. Ireki. 5. Auzia.

E2124

txoritxoari mokoka

Xarlo Etxezaharreta

Loft story (2)

Azken asteetan, araudiari jarraikiz, elkar salatzen hasi dira M6 kateak *preso* dauzkanak: adiskide handiak baina astero *adiskide* bat bota behar; ondotik malko beroak bota eta kito! Dirua batendako da bakarrik, gizarte honi dagokion bezala, eta sentimenduek ez dute gure munduan lekurik.

Zer esan, berriz, gustuko ez dutena botatzeko deitzen duten ikus-entzuleez? Ordainduz, gainera! Lau milioi pertsonak deitu omen dute lehiaketako telefonora, antolatzaileei 8 milioi libera baino gehiago oparituz... (200 milioi pezeta inguru). Beste hainbeste gertatzen omen da Espainiako *Big Brother*-ekin, milioika pertsona deika «zozoloetako» bat kanporatzeko. *Loft story*-n, araudia aldatu dutenez, orain ikusleek etxean nor egotea nahi duten «erabakiko» dute (nahiz eta gidoilariek duten azkeneko hitza).

EGUNKARIA
Loft story saioko irudi bat.

Duela urte batzuk, 1940a eta 1944a artean, salaketa berak egiten ziren nazien aginduz: sasigudariak edo gustukoak ez zirenak salatzen zituzten askok eta askok; ezer kobratu gabe. Malko beroak botaz, hori bai!

Hirurogei urte pasatu dira, baina gizartea hobetu dela eta jendea argiago dela nork esan dezake?

LABURREAN

TVE1 'CRÓNICA EN VIVO'

Paco Lobatonen saio berria estreinatuko dute gaur gauean

Hiru urtez *desagertuta* egon ondoren, Paco Lobaton TVEra itzuli da. Haren saio berriak *Crónica en vivo* izena du, eta adin txikiko hiltzaileei buruzko erreportaia batekin hasiko da (23:25ean). Ikerketa erreportaiaren ondoren, adin txikikoen lege berriari buruzko eztabaida izango da. Paco Lobatonek honako hitz hauek egin ditu bere itzuleran: «Telebista asko zabartu da. Gaur egun, *Quién sabe dónde* arte eta entseguko saiotzat joko litzateke».

Quiero plataforma digitalak 12.000 milioi pezetako kapital handitzea onartu du

Urtebete egin berri du Quiero plataforma digitalak. Proiektu berriei aurre egiteko, 40.000 milioi pezeta behar dituzte, eta oraingoz 12.000 milioiko kapital handitzea onartu dute. Akziodunek egingo diete aurre horiei; BBK-k akzioen %1 du, Kutxak %1, Caja Navarrak %1,5 eta Euskaltelek %1,5.

ETB2 'EL FACTOR HUMANO'

Euskaldunen sexu fantasiak eta gutiziak mintzagai

Sex o no Sex izeneko erreportaia emango dute gaur gaueko 00:05ean, ETB2 kateko *El factor humano* saioaren barnean. Euskal Herriko herritar anonimoen iritziak eta zenbait pertsona ezagunenak jasoko dituzte: Julio Ibarra, Itziar Alduntzin, Klaudio Landa, Andoni Aizpuru, Marta Lopez eta abar. Horrez gain, ginekologo, psikologo eta sexologoek hiritarren kezka eta sineskeria faltsu zabalduenen inguruan hitz egingo dute.

EUSKADI GAZTEA. Gonbidatu ugari izango dira gaur Guggenheimen


XABIER USABIAGA
David Etxebarria txirrindularia (argazkian), Imanol Agirre pilotaria eta Joseba Etxeberria futbolaria Bilboko Guggenheim izango dira gaur arratsaldean, Euskadi Gazteko *Hi bizi haiz, hi*-ko saio berezian.

'Hi bizi haiz, hi', Bilbon

Dani Arizala: «Donostiatik, Iruñetik eta Baionatik ere egingo dugu aurki irratsaioa»

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Miramondik egiten dute Dani Arizalak eta Maria Gomezek arratsaldero Euskadi Gazteko *Hi bizi haiz, hi* irratsaioa. Baina gaur Bilbora joango dira, Guggenheim museotik zuzeneko saio berezia egiteko. Horren arrazoiaz hitz egin digu Danik. «Iaz lehen saioa egin genuen estudiotik kanpo, Gasteizen. Oso ondo joan zen, eta iruditu zitzaigun beste hiriburuetan egitea polita izango zela».

Saioko laguntzaile guztiak egongo dira Bilbon: Anbotoko Mari eta Mehiel aztiak, etxeko lanetan aholkuak ematen dituen Iker, Amaia Vazquez sexologoa, Maitena Zubia eta Ana Oiartzun. Aste osoan saioan ohikoak diren gaiak jorratuko dituzte, 19:00etatik 21:00etara. «Publikoak parte hartu beharko du, baina ondo pasatzeko. Denen artean komunikazioa egotea nahi dugu. Bestetik, Joseba Etxeberria futbolaria, Imanol Agirre pilotaria eta David Etxebarria txirrindularia gonbidatu ditugu», kontatu digu Euskadi Gaztea irratiko esatariak.

Saioa zuzenean nola egiten duten ikusi nahi dutenek Guggenheim museoko auditoriora joan beharko dute, 18:45ean. Sarrera doan izango da, gainera. Entzule askorentzat misterio bat da Danik zer itxura duen, eta gaur bilbotarrek sekretu hori deskubritu ahal izango dute. «Baina, tira, espero dut joaten direnen artean gelditzea sekretua. Bestela, ez dago modurik horrelako zerbait egiteko. Bi ordu bakarrik izango dira, gero estali eta kito», esan dio EGUNKARIAri Danik.

Beste hiriburuetan horrelako saio berezia egiteko asmoa dutela iragarri digu *Hi bizi haiz, hi*-ko gidariak. «Donostiatik, Iruñetik eta Baionatik saioa egiteko intentzioarekin gabiltza».

Bosgarren denboraldia da *Hi bizi haiz, hi* antenan dagoela, eta oraingoz «jarraitzeko gogo biziz» daudela diote.

A3

EGUNKARIA
Ana Maria Orozco.

'Betty, la fea' telenobela kolonbiar arrakastatsua udan iritsiko da

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Latinoamerikako herrialde askotan sekulako arrakasta lortu du azkenaldian *Betty, la fea* telenobela kolonbiarrak. Beatriz Pinzon Solani izeneko neska itsusi bat da telesaileko protagonista, Ana Maria Orozco aktoreak protagonizatua. CRN ekoiztetxearen produktu horretako gidoilari nagusia, berriz, Fernando Gaitan da. Amerikako foiletoien artean iraultza moduko bat izan da *Betty, la fea*, lehenengo aldiz protagonista ez baita emakume eder bat.

Bettyk badaki itsusia dela, eta neskazahar gelditu dela uste du. Hala ere, enpresa batean idazkari lanetan hasten denean, bizitza aldatu egingo zaio. Ahalegin handiarekin eta umorearekin, Bettyk argi utziko du edertasun fisikoa ez dela dena bizitzan. Eta bere itxura erakargarriena izan ez arren, beste edozein emakume bezala izan daitekeela maitatua. Espainiako A3 katean uda honetan hasiko dira telenobela emititzen.

gaurko filmak

Es mi hombre ★
Zuz.: Gabriel Ibañez. 90m. Esp. 1966. **11:00 La 2**

Le miracle des loups ★★
Zuz.: André Hunebelle. 105m. 1961. **13:45 F2**

Les orgueilleux ★★★
Zuz.: Yves Allégret. 105m. Fran. 1953. **15:00 F3**

Por el bien de la familia ★
Zuz.: Robert Iscove. 90m. EEBB. 1995. **17:00 T5**

Mort sur le Nil ★★★
Zuz.: John Guillermin. 140m. 1978. **17:30 F2**

Es forastero iba armado ★★
Zuz.: André de Toth. 1953. **18:35 ETB2**

Un coup d'enfer ★★
Zuz.: Mike Barker. 90m. EEBB. 1999. **20:35 C+(f)**

Passager 57 ★
Zuz.: Kevin Hooks. 85m. EEBB. 1992. **20:55 F3**

Al cruzar el limite ★★
Zuz.: Michael Apted. 113m. 1996. **21:45 ETB2**

Starship troopers ★
Zuz.: Paul Verhoeven. 135m. 1996. **22:55 TF1**

Comment je me suis disputé... ★
Zuz.: Arnaud Desplechin. 180m. 1994. **23:00 F2**

Dick Tracy ★★
Zuz.: Warren Beatty. 101m. 1990. **23:00 C+(e)**

Un été a toute épreuve ★★
Zuz.: Tetsuya Nakashima. 75m. 1995. **23:10 Arte**

A casa por vacaciones ★★
Zuz.: Jodie Foster. 103m. 1995. **01:40 ETB2**

Cuando llega la noche ★★
Zuz.: John Landis. 111m. EEBB. 1985. **02:00 TVE1**

Asesinato a la antigua usanza ★
Zuz.: Robert Douglas. 72m. EEBB. 1976. **04:30 T5**

● Txarra ★ Eskasa ★★ Balekoa ★★★ Ona ★★★★ Bikaina

DRAMA ★★
A casa por vacaciones Zuz.: Jodie Foster ETB2 01:40

Ane Muñoz

Poirot ikertzailea Egipton

MORT SUR LE NIL ★★★ F2 - 17:30
Zuz.:John Guillermin. Akt.: Peter Ustinov, Simon MacCorkindale. 140 min. EB. 1978.

Agatha Christieren *Poirot Egipton* eleberri arrakastatsuan oinarriturik egindako egokitzapen zinematografiko zuzen eta interesgarria da, eta Nilo ibaiaren inguruan kokatutako suspensezko abentura exotiko eta polita kontatzen du. Aktore ospetsuak biltzen ditu : Peter Ustinovek antzezten du Poirot ikertzaile protagonistaren rola, ohi bezala, eta David Niven eta Bette Davis Hollywoodeko izar mitikoen alboan azaltzen da. Agatha Christieren ohiko istorioak atsegin dituzuenok oso gustura ikusiko duzue, ziurrenik.

LE MIRACLE DES LOUPS
★★ F2 - 13:45
Zuz.: Andre Hunebelle. Akt.: Jean Marais, Rosanna Schiaffino. 105 min. 1961.
Andre Hunebellek 60ko hamarkadan filmatu zuen lan zahar hau. Frantziarrek ezpatarien film multzoari gehitu dizkioten filmen artean ezagunenetako bat da. Ez da nabarmena, besterik gabe ikusten den abentura txiki eta zaharkitu bat baizik. Dena den, gozagarria da azpigeneroa atsegin duenarentzat. Kameraren parean oso aktore ezagunak biltzen ditu: Jean Marais ezinbestekoa eta Rosanna Schiaffino.

LES ORGUEILLEUX
★★★ F3 - 15:00
Zuz.: Yves Allegret. Akt.: Michele Morgan, Gerard Phillipe. 105 min. Fran. 1953.
Yves Allegretek zuzendutakoa eta Michele Morgan eta Gerard Philippe bikote artistikoak protagonizatutakoa da drama zahar hau. Emakume alargun batek eta hura baino gazteagoa den sendagile batek Mexikon bizi duten amodiozko istorio ederra erakusten du. Entretenigarria da.

EL FORASTERO IBA ARMADO
★★ ETB2 - 18:35
Zuz.: Andre de Toth. Akt.: Randolph Scott, Claire Trevor. 1953.
De Toth adituaren abenturazko film arina da, eta istorioa arrunta du. Azken batean, ohiko zenbait elementuz osatutako istorio txiki bat besterik ez da. Aktore erakargarriak biltzen ditu, eta generoa ederki ezagutzen zuen zinemagile batek zuzendua da. Hori, jakina, igarri egiten da.

AL CRUZAR EL LIMITE
★★ ETB2 - 21:45
Zuz.: Michael Apted. Akt.: Hugh Grant, Gene Hackman. 118 min. 1996.
Aptedek elementu fantastikoz apainduriko lan komertzial txiki hau Hugh Granten emazteak ekoitzi zuen, Hurley andereak, eta haren senarraren luzimendurako egina da. Gene Hackmanek Mad-Doctor ero eta maltzur horietako bat jokatzen du, eta Grantek, berriz, hari aurre egingo dion sendagile zintzoa. Istorio topiko baten kontakizun entretenigarria da.

DICK TRACY
★★ C+(e) - 23:00
Zuz.: Warren Beatty. Akt.: Warren Beatty, Madonna. 101 min. EEBB. 1990.
Warren Beatty aktoreak zuzendu zuen bideoklipen estetika komikienarekin nahasten duen abentura poliziako koloretsu hau, eta bera ageri da rol nagusian. Dick Tracy agenteak aurre egin beharko dio mafiakide talde arriskutsu bati. Madonna abeslariak ere parte hartzen du filmean, Beattyren alboan.

A CASA POR VACACIONES
★★ ETB2 - 01:40
Zuz.: Jodie Foster. Akt.: Holly Hunter, Claire Danes. 103 min. 1995.
Jodie Foster aktoreak zuzendari gisa egindako lantxo hau komedia gazigeza interesgarria da, baina igartzen zaio batik bat estatubatuarrei begira egina dela. Sendi bateko kideen harremanak ironiaz aztertzen ditu, familiako kideak egun batzuetan etxe berean elkartuz. Holly Hunter modako beste zenbait aktorez inguratuta azaltzen da.

ETB-1

06:50: Beakmanen mundua. Haziak.
06:55: Betimu.
07:30: Betizu. Hirukiak II. Yogiren taldea. Autobus magikoa.
09:10: Euskal Herritik.
09:45: National Geographic. Krokodiloaren klana.
10:35: Sorginen laratza.
11:45: Bidaide. Trobriand uharteak.
12:35: Esanak esan.
13:05: Hasiberriak.
13:30: Gaur egun. Albistegia.
14:05: Otorduan Karlos Argiñano.
14:30: Bertatik bertara.
14:55: Txirrita. Marrazki bizidunak.
15:00: Txirrindularitza. Italiako Giroa 2001.
17:15: Basabizitza ikusgai. Giboiekin goialdean.
17:45: E-klipse@.
18:15: Otorduan Karlos Arguiñano.
18:35: Betizu.
20:28: Gaur Egun. Albistegia.
21:10: Bertatik bertara.
21:35: Goenkale.
22:15: Hasiberriak.
22:45: Sorginen laratza.
23:55: Hau komeria.
00:20: Italiako Giroa 2001. Laburpena.
01:05: Bakarrik.
03:05: Bertatik bertara.
03:25: Zaharrak berri.
03:50: Gagnora gagbe.
04:20: Ikusgela.
05:10: Amaren etxea.
05:40: Herri musika sorta.
05:55: E-klipsea@.
06:25: Zuzia.
06:50: Ikusbit.

TVE1

06:00: Canal 24 horas.
07:30: Telediario matinal.
09:00: Los desayunos de TVE.
09:50: Maria Emilia. Telesaila.
11:30: Saber vivir.
12:45: A si son las cosas. Magazina.
14:00: Informativo territorial. Albistegia.
14:30: Corazón de primavera. Anne Igarteburuk aurkeztutako saioa.
15:00: Telediario 1. Albistegia.
16:00: El Tiempo.
16:05: El secreto. Telesaila.
16:35: Terra nostra. Telesaila.
18:45: El precio justo. Lehiaketa.
20:00: Gente. Pepa Bueno eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
21:00: Telediario 2. Albistegia.
21:55: El Tiempo.
22:00: Academia de baile. Telesaila.
23:15: Menores asesinos victimas o verdugos.
01:15: Telediario 3. Albistegia.
01:40: Reyes y rey. Telesaila.
02:00: Zinema.
Cuando llega la noche
Zuz: John Landis. Akt: Michelle Pfeiffer. 1985.
03:50: Corazon de Primavera. Errepikapena.
04:20: Gente.

ETB-2

07:25: Oficios tradicionales. La alimentación.
07:55: Cafe co-media Radio noticias. Boston. Soltero.
09:00: Empresa vasca.
09:30: El punto. Gonbidatua: Jonan Fernandez.
10:00: Forum. Gonbidatua: Francisco Javier Sanz.
10:35: Cooperantes.
10:50: Clasicos en serie.
12:30: La cocina de Subijana.
12:45: La ley de la bahia.
13:40: Euskadi directo.
13:40: Navarra directo. (Nafarroan).
14:05: Hospital.
14:28: Teleberri.
15:20: Lo que faltaba.
18:35: Zinema:
El forastero iba armado
Zuz: André de Toth. 1953.
20:00: Esta es mi gente.
20:58: Teleberri.
21:45: Zinema.
Al cruzar el limite
Zuz.: Michael Apted. 1996.
00:00: El factor humano.
01:40: Zinema.
A casa por vacaciones
Zuz: Jodie Foster. 1995.
03:40: Film laburra: *Hombres y mujeres.*
03:55: Film laburra: *Miau.*
04:10: Lo que faltaba.
06:55: Forum.
07:25: Amaiera.

A3

07:10: Sailormoon.
07:30: Club Megatrix. Garrapata. Ace aventura. Flint. Punky.
09:30: El primer cafe.
10:30: Como la vida. Alicia Senovillak aurkeztutako saio.
13:30: Menudo es mi padre. Telesaila.
13:35: Informativos territoriales. Dexconesiones.
14:00: Sabrina. Telesaila.
14:30: Los Simpson. Marrazki bizidunak.
15:00: Noticias 1. Albisteak.
16:00: Sabor a ti. Magazina.
19:15: Ahora. Magazina.
20:00: Pasapalabra. Lehiakata.
21:00: Noticias-2. Albisteak.
22:00: Policias. Telesaila.
23:45: Jag. Telesaila.
01:30: Noticias 3. Albisteak.
02:00: Setinel. Telesaila
03:00: Televenta.
05:30: Repetición de programas.

irratia



EUSKADI IRRATIA. Goizeko 08:50ean, Sabino Ormazabal Joxemi Zumalabe fundazioko ordezkaria elkarrizketatuko dute. Baltasar Garzonen aginduz espetxeraturik egon ondoren, desobedientzia zibileko estrategiaren inguruan iritzia eskatuko diote Ormazabali. 09:00etatik 09:30era, EHko Arnaldo Otegi elkarrizketatuko dute. 11:00etan, Takolori Azpeitian egiten ari zaizkion omenaldiaz arituko dira Juan Mari Olaizola, Alejo Uranga eta Ander Uranga. 12:00etan eguraldiaren berri jaso ondoren, Txuma Murugarrenen istorioa ezagutzeko aukera izango da. 20:00etan, *Lagunartean* saioan, Eskoriatzako Irakasle Eskolaren 25. urteurrenaz mintzatuko dira Jesus Garmendia, Luxio Agirre eta Miren Iriondorekin.

TXOLARRE IRRATIA. 11:15ean, *Kikili salda* atalean, eguzkiak azalean eragin ditzakeen kalteak aztertuko dituzte. 12:30ean, berriz, bertso kontuak izango dira. 21:00etan, *Itakaren bila* musika saioa emango dute.

BIZKAIA IRRATIA. Ohi bezala, 07:00etan *Aupa Bizkaia* saioa hasiko da. 09:00etan, meza izango da Begoñatik. Eta 11:00etan, *Jira biran* irratsaioa, gai ugarirekin.

gaur zer

LA 2

06:30: Nuevas aventuras de Federrico.
07:30: TPH club.
09:30: Aqui hay trabajo.
10:00: Tv educativa: la aventura del saber.
Memorias del siglo XX.
11:00: Zinema:
Es mi hombre
Zuz: Gabriel Ibañez. Akt: Jesus Enguita, Inma de Santis. 1966.
13:00: TPH Club.
Doraemon, el gato cosmico.
Gargoyles.
Digimon.
Reena y Gaudy.
15:15: Saber y ganar.
Lehiaketa.
15:45: Grandes documentales.
Islas salvajes: Extraños en el paraiso.
16:45: El escarabajo verde.
Telesaila.
17:25: De 0 a 8000.
18:00: La familia crece.
Marrazki bizidunak.
18:30: Fudge.
Telesaila.
19:00: Zona peligrosa.
20:00: Informativo territorial.
Albistegia.
20:30: Goles europeos.
21:30: Todo va sobre ruedas.
Telesaila.
22:00: La 2 Noticias.
Albistegia.
22:25: El tiempo.
22:30: La noche abierta.
00:00: Dias de cine.
01:00: Metropolis.
01:35: Conciertos de radio-3.
02:00: Cultura con ñ.
02:30: Teledeporte.
04:30: Euronews.

TF1

05:50: Secret.
Telesaila.
06:15: 30 millions d'amis.
06:40:TF1 info.
06:45: Météo.
06:50: TF! jeunesse.
08:30: Téléshopping.
09:15: TF! jeunesse.
11:00: Savannah.
Telesaila.
11:50: Tac o tac TV.
12:00: Le juste prix.
12:50: A vrai dire.
13:00: Le journal.
13:55: Telefilma:
L'heure de la vengeance
Zuz: Michael Preece. Akt: Chuck Norris.
15:35: Telefilma.
Séisme imminent
Zuz: Richard Friedman. Akt: Janet Gunn. 2000.
17:30: Sunset Beach.
Telesaila.
18:20: Exclusif.
19:00: Le bigdil.
19:55: Vivre com ça.
20:00: Le journal. Meteo.
20:55: Une femme d'honneur.
Telesaila.
22:55: Zinema.
Starship troopers
Zuz: Paul Verhoeven. Akt: Casper Van Dien. 1996.
01:20: Vol de nuit.
Los écrivains sont immortels.
02:20: Le rallye du Maroc.
02:30: Exclusif.
03:00: TF1 Nuit.
03:15: Reportages.
03:40: Enquetes à l'italienne.
04:30: Musique.
04:55: Aventures africaines.
Tanzanie.

MAGAZINA Bertatik bertara **ETB1 - 14:30**

Bizikleten inguruan arituko dira gaur 'Bertatik bertara' saioan

Nerea Iriartek aurkezten duen magazinean bizikleta izango dute hizpide. Fernando Odriozola kazetariak Hego Amerika bizikletaz zeharkatuz izandako abenturak kontatuko ditu. Bestetik, bizikletaren munduari iraultza ekarriko dion asmakizun bat erakutsiko dute: Kruz Garmendia mekanikoak kanbio kaxa berri bat asmatu du.

DOKUMENTALA De Cero a 8.000 **La2 - 17:15**

XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako abenturak

Al filo de lo imposible taldeko dokumental sail berrian lan interesgarri bat ikusteko aukera izango da gaur arratsaldean. *La aventura moderna* izenburupean, XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako abenturazale eta bidaiarien istorioak berreskuratuko dituzte. Livingstone, Stanley, Darwin, Scott edo Admunsen bezalako esploratzaileen abenturen berri emango dute.

KULTUR SAIOA Hau komeria **ETB1 - 23:55**

Miarritzeko Baletaren azken lanaren aurkezpena

Errusiar baletei omenaldia lanari buruz hitz egingo dute gaur gauean *Hau komeria* saioan. Miarritzeko Baleteko Thierry Mandalainek (argazkian) lau pieza klasiko bildu ditu, 20ko hamarkadan balet klasikoa berritu eta arte kutsua erantsi zioten artistei omenaldia egiteko. *Atzekaldean* atalean Mikel Laskurain aktorea elkarrizketatuko dute. Eta Katixa Pereak dantzaren inguruan hitz egingo du.

ELKARRIZKETAK

Gema Martin Muñoz	Los desayunos de TVE	**TVE1 - 09:00**
Jonan Fernandez	El punto...	**ETB2 - 09:30**
F. Javier Sanz (reflexologian aditua)	Forum	**ETB2 - 10:00**

FRANCE 2

05:45: Mezzo l'info.
06:00: Les Z'amours.
06:30: Télématin.
Journaux.
08:30: Emissions religieuses.
Chretiens orientaux.
Presence protestante.
Messe.
Le pèlerin de la Trinitè.
12:10: CD'aujourd'hui.
12:15: Pyramide.
Rapports du loto.
Meteo
13:00: Le Journal.
Meteo.
13:45: Zinema.
Le miracle des loups
Zuz: Andre Hunebelle. Akt: Jean Marais. 1961.
15:55: Tierce.
15:40: Telefilma.
Jeanne et le loup
Zuz: Laurent Jaqui. Akt: Bernard-Pierre. 1998.
17:30: Zinema.
Mort sur le nil
Zuz: John Guillermin. Akt: Peter Ustinov. 1978.
19:50: Un gars, une fille.
20:00: Le journal.
20:50: Spécial les Z'amours.
23:00: Zinema.
Comment je me suis disputé... (ma vie sexuelle)
Zuz: Arnaud Desplechin. Akt: Mathieu Amalric. 1994.
02:05: Mezzo l'info.
02:15: Les gens du fleuve.
03:10: Portraits d'artistes contemporains.
03:45: Pyramide.
04:10: Programme Urti.
04:55: Amis pour la vie.

FRANCE 3

06:00: Euronews.
06:40: MNK.
Les Aventures de Pocket Dragons.
Denis la malice.
Inspecteur Gadget.
10:45: L'ile fantastique.
11:40: Bon appétit bien sûr.
12:00: Le 12-14.
12:55: Chroniques d'ici.
13:45: Keno.
13:50: Les jours euros.
13:55: C'est mon choix
15:00: Zinema.
Les orgueilleux
Zuz: Yves Allégret. Akt: Michèle Morgan. 1953.
16:40: 5e cirque arlette gruss.
17:50: C'est pas sorcier.
18:15: Un livre, un jour. Olivier Barrotek aurkeztutako saioa.
18:20: Questions pour un champion.
18:50: Le 19-20.
Meteo.
Consomag.
20:10: Tout le sport.
20:25: Tous égaux..
20:55: Zinema.
Passager 57
Zuz: Kevin Hooks. Akt: Wesley Snipes. 1992.
22:20: Meteo.
22:25: Soir 3.
22:50: Pièces à conviction.
00:25: Européos.
00:50: Espace francophone.
Special cinéma africain.
01:15: Toute la musique qu'ils aiment. Gonbidatua: Philippe Sollers.
01:55: Amaiera.

T5

06:30: Informativos T5.
Albistegia.
09:20: La mirada critica.
Montserrak Dominguezek aurkeztutako tertulia saioa.
10:15: Raymond.
Telesaila.
11:15: Dia a dia.
14:00: El juego del euromillon.
Lehiaketa.
14:30: Informativos Telecinco.
Albisteak.
15:25: Al salir de clase.
Telesaila.
16:15: Gran hermano.
17:00: Zinema.
Por el bien de la familia
Zuz: Robert Iscove. Akt: Ann Jillian. 1995.
18:30: Historias de hoy.
19:50: Gran hermano.
20:30: Informativos telecinco.
Albistegia.
21:30: Gran hermano.
21:45: El informal.
Umorezko saioa.
22:00: Abogados.
Telesaila.
23:45: Cronicas marcianas.
02:00: Informativos Telecinco.
Albistegia.
02:30: Infocomerciales.
04:00: La linea de la vida.
04:30: Zinema.
Asesinato a la antigua usanza
Zuz: Robert Douglas. Akt: Jeannie Berlin. 1976.

M6

06:00: M comme musique.
09:00: M6 boutique.
09:30: Telefilma
Malin comme un singe
Zuz: Michael Anderson. Akt: Corey Sevier.
11:05: M6 kid.
12:05: Cosby show.
Telesaila.
12:35: Docteur Quinn, femme medecin.
Telesaila.
13:35: Telefilma:
Orage sur la tour de contrôle
Zuz: Paul Wendkos. Akt: Jeff Yagher 1998.
15:15: Telefilma.
La forêt de tous les dangers
Zuz: Mark Soulard. Akt: Alan Thicke. 1997.
16:55: Drôle de scène.
17:15: E=M6 special.
19:00: Loft story.
19:54: 6 minutes.
Meteo.
20:05: Une nounou d'enfer.
Telesaila.
20:40: Loft Story.
20:50: Loft story.
23:20: Toutes les télés.
Thomas Hervék zuzendutako saioa.
00:35: Drôle de scène.
01:05: Bandits a 15 ans.
02:50: M comme musique.
04:50: Eurockéennes.
Blondie.

CANAL + [e]

07:55: CNN+. Noticias. 08:20: NBA en accion. 08:45: Birdie. 09:10: Lo + Plus. 10:00: Zinema: Disparo al corazón. 11:48: Zinema: Solas. 13:30: Los 40 principales.14:00: Mas deporte. 14:55:: CNN Noticias 15:00:: Friends. Telesaila 15:30: Lo + Plus..16:30: Zinema:Cookie's fortune.18:30 El planeta de los toros.19:25: Previo futbol. 19:30: Transworld Sport. 20:30: Contrarreloj. 20:45: Previo baloncesto. 21:00: ACB+. 23:00: Zinema:Dick Tracy 00:45: Zinema: Locos en Alabama. 02:34: Zinema: Place Vendome. 04:28: Zinema:Operación Fangio.

CANAL + [f]

05:05: Errugbia. 06:45: Teletubbies. 07:15: Nulle part ailleurs. 08:30: Zinema: Passé virtuel. 10:10: La legende des animaux 10:40: Zinema: Wild, wild, west. 12:20: Le journal de l'emploi. 12:25: Flash info 12:40: Nulle part ailleurs. 13:45:: Ben Harper, live in Paris. 14:25: Le prof. 16:00: Zinema: Instinct. 18:00: Spy groove. 18:50: C+ clasique. 19:00: Nulle part ailleurs. 20:35: Zinema: Un coup d'enfer. 22:05: Zinema: Le cygne du destin. 00:20: Zinema: Vincent, François, Paul et les autres. 02:10 Izotz hokeia. 04:15: Zinema: Moloch.

LA CINQ

05:30: Les amphis de la cinquième. 06:30: Méthode Victor. 06:45: Celulo. 07:10: Debout les zouzous. 08:10: Le journal de l'histoire. 09:00: Les écrans du savoir.. 10:00: Arret sur images. 10:55: Pi=3,14. 11:20: Parants modeles, parents indigenes . 11:55: Terres de légendes.. 12:20: Celulo. 12:50: Decouverte. 13:45: Le journal de la santé. 14:05: En quete d'art. 14:35: Le feu des alchimistes. 15:30: Les intrus. 16:00: Fait main 16:35: Les écrans du savoir. 17:30: 100% question. 18:05: Animaux rescapes. 18:40: Le journal de la santé. 18:55: Meteo.

ARTE

19:00: L'angleterre du sud. 19:50: Arte info. 20:15: Fulham. 20:45: Ralentir ecole. 22:05: Toy boys. 22:25: Trois sur mille. 23:10: Zinema: Un été a toute épreuve. 00:25 Telefilma: Les alsaciens ou les deux Mathilde.

OSTEGUNA
Egunkaria
euskaldunon
egunkaria@egunkaria.com
www.egunkaria.com
2001eko maiatzaren 24a – XII. urtea – 3.249. zenbakia

zakilixut

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

ATZEKOZ AURRERA

MIREN SAEZ

Bernardo Atxaga idazlea hitzaldia hasi aurretik.

Gaztetxea, kultur etxea


MIREN SAEZ

Hiru mila ale bildu dituzte gaztetxeko kideek.

Atxagak hitzaldia eman du Gasteizko etxe okupatuko liburutegia inauguratzeko eratu Literatura Astean

Hiru mila ale inguru daude, baina oraindik ez dituzte denak apaletan jarri. Bi urte aritu dira liburutegia moldatzeko lanetan, baina merezi izan du. Txikia, txukuna, baita bitxi samarra ere: Giocconda Belliren fintasunaren parean, J.J. Benitezen xelebrekeriak baitaude, eta, gertu-gertu, Joseba Sarrionandiaren ipuin apartak... Alabaina, irakurtzeko gela du arraroena, eta, aldi berean, ederrena: suhiltzaileak erenekez igoko duten eskuko eskailera batetik pare bat metro eskalatuta, terraza bat dago. Gasteizko toki gutxitatik ez bezala, handik ikusten den paisaia egundokoa da, benetan polita. Teilatuko leiho horietako batzuk daude inguruetan, baina, hauek ere, ezohikoak. «Bai, Dyane-6 zahar batetik hartu genituen... Udan irakurtzeko leku aproposa, eh?», esan dio Gazte Asanbladako Jonek kazetari nahigabetuari.

Gaztetxea paraje ezin hobean dago Gasteizen, hiriko tontorrean, harro-harro, duela 13 urtetik. Ez da harrigarria, hortaz, PP-UAren Udalak lokala lurrera eraitsi eta Dorre-Begiratoki turistikoa eraiki nahi izatea. «Gaztetxea ez da Gazte Asanbladarena. Gasteizko gizartearena da, etxeon urtetan diharduten taldeek ematen dioten bizitzari esker. Zuzen ibil deitezen!», adierazi digu Zigorrek, Jon Benito eta Gari Berasaluzeren saioa hastear delarik.

Atxagaren koadernoak, gazteei zabal-zabalik

«Baina nola liteke Udalak suntsitu nahi izatea honelako Literatura Aste mardula antolatu duena?», galdetu du batek, liburutegia inauguratzeko antolatutako egitarau mardulari begira. «Egin al dute antzekorik noizbait hemengo erakundeek?», erantsi du, haserre samar, lokalera sartu aurretik. Barruan gazte ugari dago, denak ere, Bernardo Atxagaren xarmak harrapaturik. Idazleak mikroa laga du; ziztu batean, gazteek koadernoak ireki, eta, hegan doaz gogoetak arratsalde ederreko zeruaren bila.

Atzo Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi aritu ziren, Laura Mintegi gaur, hamaika lagun biharko irakurraldi antzeztuan, eta Kirmen Uribe nahiz Mikel Urdangarinen ikuskaria igandean. Tailer, kontzertu nahiz ikastaro dezente datozen asteetan. Baina Udaletxean gizon grisen bat nola bota burutaziotan dabil...

Radiohead
Oxfordetik Bilbora

barkatu ama

aste honetan

- **Cannes**-eko zinema jaialdia



- **Abel Barriola** pilotaria

- **Mark Eitzel** Donostian

- **Non Demontre**



Internet en irristatzen

irristatzen@egunkaria.com

jabi zabala

Iparraldeko musika

Taldeen eta kontzertuen informazioa sarean

Euskal Herrian Iparraldea eta Hegoaldea banatzen dituen muga hor dago eta zentzu askotan gainera. Telefonoz komunikatu nahi izanez gero nazioarteko deia agertuko zaigu fakturan, gure operatzailea bertokoa izanda ere. Baina Interneten mugak desagertzen dira eta hori baliatu dute Iparraldeko musika talde askok euren produkzioa Hegoaldeari eta munduari begira jartzeko, mugak gainditzeko.

Esaterako, Iparkor webgune sortu berrian 16 hardcore talde biltzen dira oso modu txukunean, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Bakoitzaren gaineko informazioa aurkituko dugu, audio laginak eta guzti, eta eurekin kontaktua egiteko modua.

Beste talde batzurekin horrelako lana egiten Kultulan dago aspalditxotik sarean eta hainbat talderi buruzko informazioa aurki dezakegu euren webgunean: Txo, Irrintzina, Zaund, Skunk, Zapozain, Mister Saguak eta Zpeizurdiak. Haietako batzuek euren webgune propioa dute, Hendaiako Skunk kasu. Honek webgune txukuna eta nahiko handia edukitzeaz gain, bere Skunk Diskak disketxearen webgunea ere ezarri du sarean. Beste disketxe bat, askoz lasaiagoa berau, Agorila dugu eta bere katalogoa online jarri du salgai, frantsesez eta ingelesez, hainbat kantu entzuteko aukerarekin.

Emanaldiei dagokienez, bogaboga.com edo beste atari batean informazioa aurki badezakegu ere, zehazki musikari buruzkoa nahi badugu, Iparraldean egiten diren kontzertuen agenda aurkituko dugu agenda64.com webgunean. Agendaz gain, musika taldeen informazioa, kontzertuak programatzen dituzten lokalen gida bat eta musika tresnen salerosketa gunea kausituko ditugu bertan.



- **Skunk** http://skunkdiskak.free.fr
- **Agorila** www.agorila.com
- **Amanita Records** www.amanitarecords.com
- **Kultulan** perso.wanadoo.fr/kultulan
- **Iparkor** www.iparkor.ht.st
- **Agenda 64** www.agenda64.com

Lehiaketak

Udalaren logotipoa ■ Tolosa. Udalaren irudi korporatiboa azaltzen duen logotipoa nahi du Tolosako Udalak. *Tolosako Udala* testua eraman beharko du irudiak. Proiektuak orijinala nahiz kolore bakarrekoa, DIN A3 neurrian eta kartoi mehe edo antzeko formatuan aurkeztu behar da. Lana aurkezteko epea ekainaren 8a artekoa da. Antonio Maria Labaien kultur etxean aurkezte behar dira proiektuak.

Kazetari gazteak ■ Andoain. Rikardo Arregi Kazetaritza sariarekin batera, Kazetari Berria lehiaketa antolatzen du Andaingo Udalak. 25 urtez azpiko kazetariek parte hartu ahal izango dute. Hauek euren lanak bidali beharko dituzte, betiere euskarazkoak eta edozein tankeratako komunikabideetan argitaratutakoak edo emititutakoak, Andoaingo udaletxera. Saria 400.000 pezetakoa izango da. Bihar da lanak aurkezteko azken eguna.

Liburutegiari ongietorria

Gasteizko Gaztetxeak azkenean badu liburutegia. Urteetako ametsa izan da Gazte Asanbladarentzat, eta azkenean lortu dute liburutegi txukun bat egitea. Gainera, literatur aste oparoa antolatu duten inaugurazio horren harira. Gaur, esate baterako, Laura Mintegik hitzaldia emango du, *Literatura eta Generoa* izenburupean, 19:30ean. Ostiralean, inaugurazio ekitaldia egingo da, 21:30ean, errezitaldi antzeztu batekin. Bertan parte hartuko dute, besteak beste, Karmele Jaiok, Gerardo Markuluetak, Iban Zalduak, Patxi Zubizarretak, Jon Arretxek… Igandean, berriz, 21:00etan, Mikel Urdangarinek eta Kirmen Uribek *Bar Puerto* euren saio berria eskainiko dute.

Erakusketak

Euskadi-Kuba ■ Getxo. Erromoko erakusketa aretoan Euskadi-Kuba harremanaren arteko erakusketa irekiko da astelehenean. Ekainaren 3a arte egongo da zabalik.

197 Gernika ■ Leioa. Unibertsitateko liburutegi nagusiaren erakusketa aretoan, *197 Gernika* erakusketa dago ikusgai, gaur hasi eta ekainaren 13a bitartean.

Ingurugiroaren hezkuntza ■ Lasarte. Astelehenetik aurrera ingurugiroari buruzko erakusketa izango da Manuel Lekuona kultur etxean.

Argazkiak ■ Zarautz. Ekainaren 17a arte zabalik dago Pedro Zarrabeitiaren *Los colores del pueblo* argazki erakusketa. Photomuseumen dago ikusgai.

Hitzaldiak

Kooperazioa ■ Bilbo. *Kolonbias* izeneko plangintza eta kooperazioak dituen erronkak eta zailtasunak izango dira mintzagai, gaur, 09:30ean, Burtsaren egoitzan.

Eritrea ■ Mutriku. Eritreako herriaren aldeko kooperazio hastearen baitan antolatu da hitzaldia, bertan dituzten beharrak, bizi duten egoera eta abar aztertzeko. Mintzaldia gaur izango da, Zabiel kultur etxean, 19:00etan. Itziar Arana izango da hizlaria.

Botikarik gabe sendatzeko ■ Bera. *Botikaren arriskurik gabe nork bere burua zaintzea* hitzaldia emango du Eneko Landaburuk ostiralean, 19:00etan, Kultur Etxean.

Bestelakoak.

Gaztetxearen urtemuga ■ Arrasate. Hamargarren urtemuga dela eta festa eguna antolatu dute larunbaterako. 12:00etan hasita txalapartariak, trikipoteoa, bazkaria *Torni show* ikuskizuna, kalejira eta kontzertua izango dira iluntzera arte.

Irakurketa dramatizatuak ■ Getxo. Astearte eta asteazkenean, *El Conde Dracula tiene Sida* eta *Los ojos de la noche* lanen irakurketa egingo dute Teatro Independiente taldeak eta Barakaldoko Antzerki Eskolak. Bi saiak Algortako San Nikolas kultur etxean egingo dira, 19:30ean.

Diapositibak ■ Bilbo. Justo Ezenarro bidaiariak Argentinari buruzko diapositibak erakutsiko ditu bihar, 21:30ean, Sarea kulturgunean.

Gaztetxea ■ Deba. Astebururako zenbait saio antolatu ditu Gazte Asanbladak. Bihar, David bateria jole gazteak emanaldia eskainiko du, 22:00etan, eta larunbatean, Macrea Clarke Ipar Irlandako barre eragilearen eskutik, kafe antzokia izango da, 22:00etan.

Antzerki astea ■ Deba. Bihar hasi eta ekainaren 3a bitartean, antzerki saio mordoa egingo dira Deban. Bederen 1, Gilkitxaro, Kasketa Kabareta...Egunero izango dira saioak.

Olerkiak ■ Abadiño. *Norberaren olerkien emanaldia* deiturikoan, Honorio Cadarsok, Peru Magdalenak eta Jose Mari Gomezek irakurriko dituzte euren olerkiak. Asteazkenean izango da, 19:30ean, Kultur Etxean.

Euskal Jaia ■ Bilbo. Igandean jai eguna izango da La Viejan. Izan ere, amnistiaren aldeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hala txosnak, trikitixa eta erromeria izango da.

Ibiltarixanak ■ Zarautz. Igandean, 19:30ean, Gaztelekuan eskainiko dute *Ibiltarixanak* ikuskizuna. Bertan, musika, errezitaldia eta irudiak uztartzen dira.

Bertsolaritza

Bertso astea ■ Ciartzun. Ekitaldi mordoa antolatu dituzte bihar hasi eta ekainaren 3ra bitartean.Esate baterako, udaletxeko areto nagusian bertsolaritzarekin lotutako erakusketa izango da ikusgai. Bestalde, gaur *20 urteren buruan* hitzaldia egingo da, 19:30etan, liburutegian.



elkarrizketa

Milagros Rubio

• Bardeako tiro eremuaren aurkako asanbladako bozeramailea

Mende erdia igaro da Bardea tiro eremu bezala erabiltzen hasi zirenetik. Herritarren erresistentzia gogorra izan da urteetan, eta tiro eremuaren erabilera ezbaian jarri dute. Hala ere, poligonoak beste zortzi urtez jarraituko du Bardean.

jon maya

Frankismo garaian hitzartu zen Bardeako tiro eremua eraikitzea. Hogeita bost urteko kontratua sinatu zuten orduan, eta garaia amaitu zenean, beste hogeita bost urte luzatu zuten, eta ekainaren 9an amaitzen da hori. Herritarrek, Nafarroako udalek zein alderdi politikoek tiro eremua ixtearen alde egin duten arren, Nafarroako eta Madrilgo gobernuek beste zortzi urtez luzatu dute Bardearen erabilpen militarra.

Milagros Rubiok tiro eremuaren aurkako asanblada sortu zenetik jardun du gogor lanean. Oraindik ere bertan dirau, eta urte hauetan guztietan eginiko lanaz mintzatu gara berarekin—Batzarreko kidea ere bada—. Kontratua luzatzeko erabakia saminduraz bizi izan duen arren, harro dago eginiko lanarekin, eta harro begiratzen die belaunaldi berriei. Aste honetarako, Tuteran, antolatu dituzten jardunaldiei buruz ere mintzatu zaigu.

■ **Noiz sortzen da tiro eremuaren aurkako herri mugimendua?**

Lehenengo azalpenak 1979. urtean hasi ziren. Ordea, Gladys Delestal hil zutenean hasi zen sortzen mugimendurik indartsuena. Hilketa hark jendea piztu zuen, eta tiro eremuaren aurkako ekintzak areagotuz joan ziren. Hasierako aldarrikapena, batez ere, *yankien* kontrakoa zen. 1991. urtean, berriz, estatubatuarrek alde egin zuten —Espainia NATOn sartu zenean—, eta ordutik beste herrialde pila bateko hegazkinak etorri dira.

■ ***2001. urterako batere ez geratzea* zen zuen leloa.**

Aurtengo ekainaren 9an amaitzen da Bardea entsegu militarretarako erabiltzeko kontratua. Beraz, kontratu hau amaitzean, berriro ere ez berritzea zen gure helburua. Atxikimenduak jaso ditugu, udaletan hainbat mozio onartu dira, alderdi politikoek horren alde egin dute —UPNk izan ezik—... Azkenean, beste zortzi urterako berritu dute hitzarmena, eta azkena izango dela diote. Orain, guk, eseri eta estrategia berri bat eztabaidatu behar dugu denbora horretarako. Izan ere, tiro eremua hor dagoen bitartean hor egongo da jendearen borroka.

▲ joxe lacalle

■ **Zein da zuen salaketa nagusia?**

Argi eta garbi, defentsa arazoei norbanakoaren eskubideei baino garrantzi gehiago ematea. Hori oso larria da, eta hori bera izan zen Miguel Sanz Nafarroako lehendakariak iazko istripuaren ostean esan zuena, harentzat defentsa beste ezer baino garrantzitsuagoa da.

■ **Eguneroko bizimoduan nola igartzen da tiro eremua hor dagoela?**

Sarritan sumatzen dira dardarak; iaz bi hegazkinek istripua izan zuten herrixka batetik oso gertu... Zarata da gehien antzematen dena, handia dago beti. Pentsa, Bardea bonbak leherraratzeko, tiro probetarako, hegazkinen mugimenduen entseguetarako eta abar erabiltzen dela.

■ **Kontratua berritu izana porrota da asanbladarentzat?**

Samindura sortu digu, baina harro egon gaitezke lorpen batzuk egin ditugulako. Borroka horrengatik izan ez balitz, ziur kontratu berria beste hogeita bost urterako izango zela, Espainiak gure eskualdeari egiten dion alokairu ordaina hirurogeita bost milioitik seiehunera igo da, eta gobernuak tentuz jokatzera behartu ditugu.

■ **Zein taldek osatzen duzue orain asanblada?**

Kolektibo bezala jarduten dugu, gizabanakoen batura eginez, ez taldeena. Hala ere, hastapenetan asanblada osatu zuten talde eta alderdi politikoen laguntza izaten jarraitzen dugu.

■ **Eta jendea biltzen da aldarrikapen horretara?**

Atxikimenduak pila bat jasotzen ditugu. Eta lanean jarduteko garaian, orain gazte batzuk hasi dira indar handiz lanean. Jardunaldietan, esate baterako, ia guztia beraiek antolatu dute.

Jardunaldiak Tuteran

- **Larunbata 26: Kontzertua.** La Polla, Hechos Contra El Decoro, Buitraker eta Fragile. Elola kiroldegian, 21:30ean.
- **Osteguna 31: Antzerkia.** *Comeme el punto* (Legaleon Taldea). ETI zaharrean, 20:00etan.
- **Ekainaren 1: Mahai ingurua.** *Eta orain zer?* galderari erantzuteko, alderdi politikoetako ordezkariak bilduko dira. RUA gizarte egoitzan, 20:00etan.
- **Ekainaren 2a: Kale animazioa**. Adardunak taldea, txistor jana, txalaparta, graffitiak, sorpresak...
- **Ekainaren 3a: Gladysi omenaldia** eta Aguilaresen elkarretaratzea.

«Tiro eremuak hor jarraitzen duen bitartean hor egongo da jendearen borroka»

Cannes estrainio hori

Cannesko jaialdia igandean amaitu zen. Nanni Morettiren 'La stanza di figlio' filmak eraman zuen urrezko palmorria. Baina Cannesek hori baino askozaz gehiago eman zigun. Zinema askea kasu askotan.

begoña del teso

Nortzuk suertatu ziren irabazle aspaldi jakin genuen; beraz, ez dago horren inguruan bueltaka eta jiraka ibili beharrik. Baina helduko diogu epaimahaiaren saria eskuratu zuen horri, Cannesko giltzarria suertatu zen eta. Hanekeren *La pianiste*ri darion ausardia, darion muga guztien gainetik ibiltzeko libertatea hain da izugarria, ezen batzuk pelikula bat ere ez dela aldarrikatu baitute. Litekeena da filma ez izatea, baina horrek inporta al du? Inork ba al daki zinema nolakoa den egun? Nola, nondik, norantz joko duen datozen garaietan?

Sail Nagusian bertan, eta are gehiago askatasun handiagoz jokatzen duten beste zine bilkuretan, erakutsi izan diguten zeluloideak ez du banderarik, ez du pasaporterik, eta momentu asko eta askotan ez da zeluloidea ere, bideoa baizik, lehengai digitalizatua baizik.

Gera zaitezte irmo, tente, erne, atezuan pantailetara so, ez baita egungo, biharko zinema orain arte ikusi duguna. Edo arbasoek kontatu digutena. Formatu txikian edo handian, postaletako forma harturik edo lepoan harturiko kameraz filmaturik. Luze edo motz kontaturik. Amorruz edo gozo-gozo. Zinemak ez du mugarik. Ez dauka gainditukо ez duen oztoporik. Ez du inolako enbarazurik sentitzen soinean azaldu nahi duena azaltzeko.

Horrek ez du esan nahi datozen garaietako zinema egundokoa izango denik. Bai, ordea, kristorena izango dela. Agian ez da ona izango, Baina kristorena bai. Mundiala. Berezia. Espezial espeziala. Gaztea zein zaharra. Horrek berdin du, baina zabiltzate adi. Aspaldiko maisuek ere gur egiten diote teknologia berriari. Eric Rohmerrek berak digitalizazioa erabili izan du bere azken filmean, joandako garaietan kokatua. Badator mila deabruk hartua, badator jakinduriaz blai, eta begirune faltsurik gabe. Minutu gutxi irauten duen zinema (*Central*, 600 segundo, lur ezezagunetatik bidalitako gutuna) orduak eta orduak irauten duen zinema (*Atanarjuat*, *The fast runner*, Kanadako Inuit etniakoek eginiko lehendabiziko filma, lautada batean gertatzen dena, urrezko Kamerak irabazi zuena, hiru ordukoa).

Badator zinema estrainioa, teknologia berrien gainetik eta zeluloidezko tradizio aberatsaren azpitik aise ibiltzen dena. Badator. Eta gu, lekuko.

Michael Hanekeren *La pianiste* filmari ausardia eta libertatea dario.

Aspaldiko maisuek ere gur egiten diote teknologiari. Rohmerrek berak digitalizazioa erabili du bere azken filmean

Teknologia berriek Cannes hartu dute. Irudian, *Shrek* filma.

Kosta Urdin belztua

Mestizoa. Odol nahastua. Esan, esango dizute Cannesen eta inguruotan, Mediterraneo itsasoak musu ematen dien leku, hondartza eta terraza horietan, luxua dela jaun, dirua dela jabe eta urreak dir-dir egiten duela. Esan, idatziko dizuete eta zuek sinistu behar. Bai, halaxe da Cannes horri, Cap d'Antibes horri gainbegirako arrunta botatzen badiezue. Halaxe da La Croisetten baino ez bazabiltzate paseoan. Barrurago joanez gero, etorritako jendetzarengandik alde egin bezain pronto, fite, agudo, aurkituko dituzue arabiarrez mintzatzen den Kosta Urdina, Filipinetatik ekarritako jangauzak, Ekialdeko etorkin pobreak eta beltz harroak. Aurkituko dituzue eskean diharduten behartsuak eta lapur dotoreak. Cannes eta bere inguru ospetsuak badira egungo gizarte, lur, planeta gurearen ispilu. Italia hurbilean da. Baita Balkanak ere, distantziarik ez baita ihesari emanda den horrentzat. Ez, Kosta Urdina ez da soil-soilik urdina. Lur honetako kolore guztiak dabiltza dantzan merkatuetan, non Provenzako limoi eta laranjaz gain, Boli Kostako piperrak salgai diren. Ehunka dira, gaur, Kosta Urdineko usainak, Marseillako Pastis edaria eta absenta arriskutsu bezain deliziosoaren gustuarekin nahasten direnak. Mestizoa da, zinemaren antz eta islaz, Cannes. Jainko eta deabru guztiei esker.

Morettirenak ez diren hainbat

Jendea, jende fina, zinema leuna, xuabe-xuabea gustuko duena zoratu zen Cannes aldean *La stanza di figlio* filmarekin, nahiz eta ez ahaztu denok kontent uzteko egindako filma dela. Jendea maila altuko hori amorrurik gabeko, ironiarik gabeko zeluloide zati horrekin zoratzen zen bitartean, guk honako film hauekin egin genuen amets edo amesgaizto:

The man that wasn't there

Coen anaien azkenaurreneko joko maltzurra. Zuri-beltzean. Zuri-beltz arraro eta estrainioan. Hitz gutxi dialogoetan, eta duela hamarkada asko benetako Hollywooden egiten zen zinema beltzarekiko lotura gazia. Mapetan agertzen ez diren herri horietako bateko ile apantzailearen istorioa da. Coen anaiek ez dute errukirik beraiek sorturiko pertsonaiekin.

Tears of the black tiger



Ahaztu Moretti, arren, otoitz. Ahaztu nahi duzuen guztia, baina izan ezazue gogoan Hong Kongetik etorritako marabila hau. Koloretsu-koloretsua. Ganberro-ganberroa. Makarra. Postalez eta kartel zaharrez (eta txarrez) egina, mendebaldekoa dirudi, baina ekialdekoa da. Denon ahotan izan da zinemaldian.

R-Xmas

Abel Ferrarraren azkenak az du oinarri sendorik, ez eta ardatz irmorik, baina Gabonetako ipuin ia benetako ia gezurretazko den lan honetan, istorioak sortarazten dituen teknika izugarria da. Kamera emeki-emeki dabil kaleetan zehar, luxuzko kotxeetako kristaletan zehar, sos asko balio duten etxeetako geletan droga eta Gabon kantak nahasten diren bitartean.



Lovers-eko Elodie Bouchezek berriro ere Barr eta Arnolden zuzendaritzapean lan egin du.

Storytelling

Solondozen lehendabiziko bi filmak, *Wellcome to the Dollhouse* eta *Happiness*, nolakoak ziren badakizue. Ba jolas berean, antzeko jokoan, festa parekoan, dihardu orain ere EEBBetako lizeo batean. Mezua, betikoa: izan zaitezte erne etorkizunak ez baitu itxaropenik.

Kandahar

Mosen Makhmalbaf irandarrak Afganistango emakumeen bizimodua azaltzen du. Doluz bai, penaz, bai. Amorruz, bai baina baita hamaika punta dituen begirada zorrotzez. Gerran gaude, beldurrak, gorrotoak harrapaturik. Hil edo biziko kontuak dira areetan izaten direnak. Hemen ez dago gizaki zintzorik. Hemen ez da gizaki gaiztorik. Denek dute jainko eta deabruek izan ohi duten aurpegi bikoitza. Ez zaitezte inorekin fido. Ezta zinemaekin ere.

1 eta 1 IKUSI

ANTZERKIA

La averia. ■ (Trapu Zaharra). Gaur, Gasteizko EHUko kanpusean, 12:00etan.

Arrabalera zuzen. ■ (Arrabalera). Gaur, Donostiako Beti Boga tabernan, 21:30ean.

La raya del pelo de... ■ (J. S. Sinesterra). Ostiralean, larunbatean eta igandean. Barakaldo Antzokian 20:30etan.

The Queen is dead. ■ (Matarile Teatro). Larunbatean, Biloboko La Fundición aretoan 20:00etan.

Hor dago koxka. ■ (Ttanttaka). Igandean, Errenteriako Kulturgunean, 20:00etan.

Noveccento, ozeanoko pianista. ■ (Ttanttaka). Asteartean, Hendaiako Les Varétés aretoan, 21:00etan.

DANTZA

Koreografo gazteen V. erakusketa. ■ Gaur, Gasteizko Garcia Lorca aretoan, 19:30etan.

Zoom. ■ (Lapsus). Ostiralean eta larunbatean, Zizurko Kultur Etxean, 22:00etan (ostiralean) eta 20:00etan (larunbatean).

La ronda. ■ (A. Schnitzler). Larunbatean eta igandean, Iruñeako E.N.T aretoan.

Tango tiempo. ■ . Igandean, Elorrioko kukutza Gaztetxean, 20:00etan.

La dama de las camelias ■ (Praga Balogh Ballet klasikoa). Asteartean, 20:30etan, Gasteizko Principal Antzokian.

ZINEMA

Con faldas y a lo loco. ■ (Zuz:Billy Wilder). Gaur, 21:30ean, Beasaingo Usurbe Antzokian.

La novia de Frankenstein. ■ Gaur, 22:30etan Basauriko Social Antzokian.

Ni uno menos. ■ (Larry Klark). Gaur, Santuttxuko Sorgintxulo gaztetxean 20:00etan.

Radiohead Epika drama

Talde gutxik eragin dute Radioheadek adina iritzi. Maitatuak bezain gorrotatuak, Oxfordekoak pop ingelesaren ordezkari nagusi bihurtu dira. Epika eta dramatismoa uztartzen dituzten talde ugarik dute eredu Radiohead. Launbatean Bilboko zezen-plazan joko dute.

mikel lizarralde

Azkenean, ez dirudi Radioheadek Bilboko zezen-plaza beteko duenik. Ikusmina sortu du Thom Yorke eta bere taldekideek eskainiko duten kontzertuak, eta sarrerak ondo saldu dira, baina, hala ere, dirudienez, sarrera batzuk eskuratzeko aukera badago oraindik. Dena dela, Ingalaterrako taldeak oso emanaldi gutxi eman behar ditu *Amnesiac* bere azken lana aurkezteko, eta Europan, Bilboz gain, bospasei hiritan baino ez dute jardungo. Horren ondorioz, Espainiako hainbat lekutatik ere iritsi dira sarrera eskaerak Bilbora.

Izan ere, Erresuma Batuko popak behar zuen taldea da Radiohead azken urteotan. Esparru alternatiboa eta komertziala uztartzen jakin du, eta pop musikak sakontasuna izan behar duela uste dutenen ametsa bete du.

Hori lortzeko, hala ere, ahalegin eta lan handia egin behar izan du Radioheadek. Taldea ezagutzera eman zenean, U2ren itzalean sortutako talde huts gisa ikusi zuten askok, eta *OK Computer* hirugarren disko arrakastatsua kaleratu zuen arte, ez zuen onespen handirik erdietsi. Harrezkero, ordea, komunikabideen talde kutun bihurtu da, eta dramatismoz eta epikaz gainezka egiten duen bere popak talde ugari ekarri ditu bere atzean. Bitxia da, baina taldeak ezarri dituen ezaugarriak beste talde askorentzat eredu direnean, Radiohead eskema horietatik ihes egin nahian ari da.











Buckleyren eta Radioheaden oinordetza

Radioheaden lehenengo pausoek U2ren lehenengo diskoetara eramaten bagaituzte ere, denborarekin, Thom Yorke bera bihurtu da talde askoren eredu. Ahots sakon eta sentikor baten jabe, dramatismoa eta sentimendu hanpatuak helarazi nahi dituzten abeslari eta taldeen eredu nagusia izatera iritsi da. Jeff Buckley zenarekin batera —*Grace* bere lehenengo disko bikaina 90eko hamarkadako aipatuena da musikari askoren artean—, Yorkek —eta Radioheadek, jakina— bide berriak ireki dizkiote hainbat talderi. Britpoparen garaia pasatuta —Oasis eta Blurrek zeresan gutxi dute gaur egun—, Ingalaterrako komunikabideak Radioheaden eskolako taldeak goraipatzera igaro dira. Asko abiatu dira bide horretatik, baina gutxik lortu dute Radioheaden intentsitatea nolabait gogoraraztea. Travis —*The man who* bere diskoa kantu ederrez beteta dago—, Coldplay, Doves eta Six By Seven jarri dira tropeleko lehenengo postuetan, baina beste asko datoz atzetik (Muse da aldizkari ingelesek saldu nahi diguten azkena). Bitartean, Radioheadek, sortu duen estiloari nolabait bizkarra emanez, technoz eta joera berriz jantzi nahi du bere musika. U2 iraganean utzita, post-rocka dute Yorkek eta taldekideek orain begietan. Nora eramango ditu?

Oxfordeko unibertsitarioak

Radiohead osatzen duten bost musikariak Oxford hiritik datoz, eta handik oso gertura dagoen Abingdon herrian ezagutu zuten elkar, 80ko hamarkadaren erdialdean. Thom Yorke (ahotsa, gitarra, konpositorea), Jon Greenwood (gitarra), Ed O'Brien (gitarra), Colin Greenwood (baxua) eta Phil Selwayk (bateria) unibertsitate ikasketak egin zituzten —Oxforden batzuek eta beste unibertsitate batzuetan besteek—, baina haiek amaitu baino lehen abian jarria zuten taldea. Hasieran On a Friday izena zuten, baina laster aldatu zuten izena, eta Talking Heads taldearen *Radio Head* abestia bere egin zuten.

'OK Computer' hirugarren disko arrakastatsua kaleratu zuen arte, taldeak ez zuen onespen kritiko handirik erdietsi

The Drill EParekin estreinatu zen taldea, 1992an, baina *Pablo Honey* (93) lehendabiziko LPan jasotako *Creep* singleak eman zion ospea Radioheadi. Nirvanaren eta REMen intentsitatea biltzen zituen kantu hark, eta hasiera batean oharkabean igaro bazen ere, EEBBetan egin zioten harrera onaren ondoren, *hit* bihurtu zen Erresuma Batuan. *Pablo Honey* diskoak, berriz, agerian uzten zituen taldeak U2rekiko eta stadium-rockarekiko zituen loturak.

Taldearen disko berria, 'Amnesiac' —'Kid A'-ren sesioetan grabatu zuten—, ekainean iritsiko da dendetara

Creep-ek izugarrizko arrakasta lortu zuen arren, inork gutxik uste zuen orduan denborarekin Radiohead talde ingeles garrantzitikoek talde
dute— *Kid A*
ra irekia da
karen eta B
behin baino
la zuzena d
jo zuten dis
mentalena
aurretik—,
hen postuet

Taldeare
ren sesioeta
tsiko da den

Radiohe

Bilboko zezen-
Larunbatean,

dramatikoa

ria,
'-ren
n—,
ndetara

ten harrera
n Erresuma
berriz, age-
tiko eta sta-
k.
a lortu zuen
luan denbo-
s garrantzi-

tsuenetakoa izango zela. *The bends* bigarren diskoak, ordea, erakutsi zuen Radiohead ez zela single bakarreko taldea. Lan horrek ez dio bizkarra ematen epikari, baina abesti batzuen dramatismoari esker (*Street spirit, High and dry, Fake plastic trees...*) oso atzean uzten du *Pablo Honey*. Diskoak oso kritika onak jaso zituen, baina kritikek ez dute salmentarik ziurtatzen, eta *The bends* nolabaiteko porrota izan zen.

The bends-en dramatismotik ihesi, Thom Yorkek hirugarren disko alaiago bat iragarri zuen berehala, baina *OK Computer* (97) ez da irrati-formulen jarraitzaile batek espero dezakeen lana. Taldearen musikak dramatikoa izaten segitzen du, eta Yorkeren hitzek sistemak ezartzen dizkigun eginbeharrei aurre egiten diete. Hala ere, *OK Computer* lan ezberdina da. Gitarren marrazki etengabeetan oinarritua, elektronikaren abantailez baliatzen da melodia handiak aurrera eramateko. *OK Computer* 1997ko disko izendatu zuten hainbat musika kazetak, eta batzuk historiako onena zela esatera ere ausartu ziren. Halako gehiegikerietan erori gabe, *OK Computer* 90eko hamarkadako disko esanguratsuena dela esan daiteke, ez baita nolanahikoa eragin duen musika uholdea.

Belaunaldi baten ikur bihurtuta, azkenaldian sortu duten munstro horrengandik ihes egin nahian ari dira Yorke, Greenwood eta abar. Abeslariak PJ Harveyren eta Björken azken lanetan parte hartu zuen iaz, eta taldearen laugarren diskoa ezberdina eta apurtzailea izango zela iragarri zuen. Eta halaxe da. Taldearen izaera ukatu gabe —garapen epiko eta dramatikoek taldearen ezaugarri izaten jarraitzen dute— *Kid A* (2000) erritmo elektronikoetara irekia dago. Yorkek Autechren, post-rockaren eta Brian Enoren eragina aipatu du behin baino gehiagotan, eta *Kid A* horren isla zuzena da. Askok suizidio komertzialtzat jo zuten diskoa —taldearen lanik esperimentalena da eta ez zuten singlerik kaleratu aurretik—, baina hala ere zerrendetako lehen postuetara iritsi zen berehala.

Taldearen lan berria, *Amnesiac* —*Kid A*-ren sesioetan grabatu zuten—, ekainean iritsiko da dendetara.

Radiohead eta Christophe de Babalon

Bilboko zezen-plazan

Larunbatean, 21:00etan

Bihotzaren sufrimenduaz hitz egiten duten talde ugari sortu da azken urteotan.
Rockaren eta folkaren ildoak erabilita, giro triste eta malenkoniatsuak landu dituzte.
Mark Eitzel, igandean Donostian izango den musikaria, guztien eredu izan da.

Mark Eitzel

Musika zauritua

mikel lizarralde

American Music Club taldeko burua zela, Mark Eitzel saminduraren eta musika mingarriaren ordezkari nagusi bihurtu zen. Ez zuen inoiz entzule askoren onespena jaso, baina taldearekin grabatu zituen diskoak musikari askoren ezinbesteko erreferentzia bihurtu dira urteekin, eta gaur egun talde miretsia eta maitatua da American Music Club. Horren adibide gisa, orain dela gutxi hainbat talde interesgarrik (Calexico, Lambchop, Steve Wynn, Dakota Suite...) Eitzelen taldea omendu zuten, *Come on beautiful* bertsio diskoarekin.

Amerikar Musikaren Elkartea 1995ean desegin zen, atzean zazpi disko eder bezain ilun eta triste utzita, baina Eitzelek aurrera segitu du bere sentimendu latzenak musikaren bidez islatzen. Artean American Music Club bizirik zegoela kaleratu zuen bere lehendabiziko diskoa –*Songs of love.Live* zuzenean grabaturiko lan gordin ikaragarria–, baina taldea desegin ondoren heldu dio erabat bakarkako bideari.

Ibilbide horren azken emaitza *The invisible man* deitzen da, eta Eitzelek hiru urtetan grabatu duen lehenengo diskoa da. Albuma egunotan jarriko dute dendetan; eta, Eitzelek berak azaldu duenez, azken urteotan elektronikarekiko eta ekoizpen teknika berriekiko piztu zaion zaletasunak zerikusi zuzena izan du bere grabazioan. Ez dirudi, ordea, maitasunaz, gorrotoaz eta sentimendu latzenez molde ederren bidez hitz egiteari utzi dionik.

Igandekoa izango da Mark Eitzelek Euskal Herrian joko duen lehenengo aldia, baina orain dela bost urte Pradejoneko Serie B jaialdian ikusteko aukera izan genuen, Errioxan. Teklatu jole batekin eta gitarraren laguntza hutsarekin atera zen orduan Eitzel taula gainera, eta, giroa egokiena ez izan arren, oilo ipurdia jartzeko moduko kontzertua eskaini zuen –entzule batzuekin haserretuta joan zen arte behintzat–. Igandean, berriz, beste hiru musikari hauek izango ditu lagun Eitzelek: Andrew Plourde (samplerra eta loopak), Brian Gregory (gitarra, baxua eta ahotsak) eta Kristin Sobditch (teklatua eta baxua).

Bakardadera lotutako ibilbidea

Eitzel 1959an jaio zen, Kaliforniako Walnut Creek herrian, eta giro erlijioso itxi batean hazi bazen ere, 16 urterekin bizkarra eman zion kristautasunari, eta alkoholez bustiriko abestiak egiteari ekin zion. Naked Skinnies taldearekin aritu ondoren, 1983an American Music Club sortu zuen, San Frantziskon. Vudi gitarra jole leialarekin batera, bapore etilikoetan eta etsipen giroetan bustitako disko bilduma ederra egin zuen. Batez ere, *California* eta *United Kingdom* lan izugarriak dira.

AMC deseginda, *60 watt silver lining* estudioko lana argitaratu zuen Eitzelek, eta *West* hurrengo lanerako –bere ibilbideko alaiena– Peter Buck REM taldeko gitarra jolearen laguntza izan zuen. *Caught in a trap and I can't back out 'cause I love you too much, baby* izenburu amaigabeko lanean, berriz, soinu lehor eta gordinera itzuli zen.

Diskografia

American Music Clubekin
- **The restless stranger** (Grifter-Frontie, 1985)
- **Engine** (Grifter-Frontier-Zippo, 1987)
- **California** (Grifter-Frontier-Demon, 1988)
- **United Kingdom** (Grifter-Frontier-Demon, 1989)
- **Everclear** (Alias, 1991)
- **Mercury** (Virgin, 1993)
- **San Francisco** (Virgin, 1994)

Bakarlari gisa
- **Songs of love. Live** (Demon, 1991)
- **60 watt silver lining** (Warner, 1996))
- **West** (Warner, 1997)
- **Caught in a trap and I can't back out 'cause I love you too much, baby** (Matador, 1998)
- **The invisible man** (Matador, 2001)

Damon & Naomi

Mark Eitzelen aurretik, Damon Krukowskik eta Naomi Yang estatubatuarrek osatutako bikotea ariko da Donostiako Gasteszena aretoan, eta, beraiekin batera, Michio Kurihara Ghost talde japoniarreko kideak joko du. Izan ere, Ghostekin batera kaleratu dute euren azken diskoa.
Damon & Naomi Galaxie 500 taldeko kide zirela egin ziren ezagun. Dean Wareham gitarra jolearekin batera –gerora Luna taldea sortu zuen–, 80ko hamarkadaren amaierako eta hurrengoaren hasierako disko ederrenetakoak egin zituzten –*On fire* bikaina eta *This is our music* bereziki–, eta edertasun kontzeptuari esanahi berria eman zioten.
Galaxie 500 1991n desegin zen, baina Damonek eta Naomik elkarrekin jarraitu dute. Orain arte, Incredible String Band, Soft Machine eta psikodelia garaiko beste talde batzuen eragina erakusten duten lau disko kaleratu dituzte.

Mark Eitzel eta Damon & Naomi

Donostiako Gasteszena aretoan

Igandean, 20:00etan

▼ xouse simal

Non Demontre Musika elkareragilea

Non Demontre taldeak bere lehendabiziko diskoa kaleratu du orain dela gutxi Gaztelupeko Hotsak disketxearen eskutik. CDa Logela kolektiboak sortutako CD-Rom elkareragile batez lagundua dator. Bihar, ostirala, CD-Rom hori aurkezteko multimedia ikuskizuna eskainiko dute Elorrioko Arriola aretoan.

mikel lizarralde

Jon Abat (ahotsa), Gorka (gitarra eta ahotsa), Migel (baxua) eta Ander (bateria eta ahotsa) buru-belarri egon dira prestatzen bihar Elorrioko Arriola ateneoan aurkeztuko duten multimedia ikuskizuna. Beren lehenengo CDari, erabiltzaileari hiru istorio sortzeko aukera ematen dion bideo-klip ikusgarria eta kantu bisual bat gordetzen dituen CD-Roma gehitu diote, eta bihar zuzenean ikusteko aukera emango dute. CD-Romaren taularatzea baino gehiago izango da ikuskizuna; bideo-proiekzioa, zuzeneko musika, eszenografia, antzerkia, poesia, argiikuskizuna eta elkareragina eskainiko baitio ikus-entzuleari. Horren eta diskoaren gainean gehiago jakin asmoz, Anderrekin bildu gara.

■ Egingo diguzu taldearen orain arteko ibilbidearen laburpentxo bat?

Taldea 1995ean hasi zen boskote moduan, eta kantuak egiten hasi ahala, kontzertuak egiten hasi ginen. Zortzi kantu genuen momentutik hasi ginen zuzenean jotzen. Taldearen lehendabiziko lau urteak boskote moduan jardun genuen eta ehun kontzertu inguru eman genituen. Grabatu, berriz, gutxi grabatu dugu orain arte. Maketa bat grabatu genuen, eta gero pare bat bildumatan parte hartu dugu. Orain dela bi urte Ikerrek taldea utzi zuen, eta laukote moduan geldituta, Cd hau prestatzen hasi ginen. Grabatu, berriz, iaz grabatu genuen. Bitarte honetan, iaztik hona, ikuskizuna prestatzen eta kantu berriak egiten eman dugu denbora.

■ Boskote izatetik laukote izatera pasatzeak nola eragin du taldearengan?

Aldaketa nabarmena izan da. Taldean lau izanda, sinpletasuna nagusitu da musikan, eta tresna bakoitza besteei begira jarri da. Hau da, tresna bat edo bestea ez da nagusitzen besteen gainetik, eta guztien helburua soinu konpaktu bat lortzea da. Horretaz gain, musikalki ere aldatu egin da taldearen kontzeptua. Musika ezberdinetara ireki gara, eta hori ere diskoan nabaritzen da. Lehen mugatuago geunden. Gainera, hasieran talde askotan egoten da nabarmentzeko gogoa, baina gero, hori galdu egiten da. Talde baten partea izanik, taldeari eman behar diozu zure lana, zeure burua nabarmendu ordez. Taldeari ematea eta taldeak eskaintzen dizuna hartzen jakitea da garrantzitsuena.

■ Horrek lan handia eskatzen du?

Ez, talde kontzeptua barneratzea da funtsezkoena. Gehiago entzuten diozu ondoan dagoenari, eta konturatzen zara ondoan dagoenaren lana beharrezkoa dela zu ondo funtzionatzeko. Elkar-ulertzea da garrantzitsua, eta ados jartzeko orduan ere errazagoa da.

■ Hasi zinetenean zertan oinarritzen zineten?

Orduan zegoen musika mugimenduan. 18 bat urte genituen, eta orduan jotzen zuten taldeen eragina jasotzen genuen. Bap, Negu Gorriak eta abar oso erreferentzia hurbilak genituen. Urteak pasatzean, gure zaletasunak zabaldu egin dira beste musika mota batzuetara, eta orain denetik entzuten dugu. Hardcorea, hip-hopa, rocka... gauza askok eragiten dute Non Demontrerengan.

■ Eta zer eragin nahi du Non Demontrek entzulearengan?

Sentimendu batzuk helarazi nahi ditugu; ez aurrikusitako sentsazioa batzuk, baizik eta sortzen direnak. Kantu batek hitz bat edo intentzio bat badu, forma bat edo beste bat hartuko du. Baina ez gara pentsatzen hasten zein sentimen sortarazi nahi dugun. Gure musikan une lasaiak egon daitezke, baina baita hegalariak eta kañeroak ere. Hiru une horiek dira guretzat garrantzitsuenak. Hori gero eta gehiago nabaritzen da Non demontreren musikan. Kantuak nahiko zuzenak dira, eta denok ematen dugu gure onena horretara heltzeko.

■ Zuen musikan, une lasaiak eta oldarkorrak tartekatzen dituzue eta baretasunetik erritmo indartsuetara egiten duzue jauzi. Dut bezalako talde batek eragin zuzena izan du zuengan?

Dut oso talde garrantzitsua izan da. Talde batzuek jakin izan dute bide berriak zabaltzen, eta multzo horretan sartu behar dugu Dut, baina baita Ama Say ere. Kanpoan egiten den musikatik edan dute, baina euskarara moldatu ondoren, euskarak beste bide bat eman die. Ama Say, Dut, Bap!... esan daiteke eskolak sortu dituztela. Gu, adibidez, horien bidetik sartu gara, baina horrek ez du esan nahi horien kopia garenik.

■ Sei urte dira taldea sortu zenetik, eta orain kaleratu duzue zuen lehenengo diskoa. Luzea izan da bidea?

Bai, luzea izan da. Gure erritmoa ez da beste talde batzuen erritmoa izan. Askoz geldoagoa izan da, eta beste asmo batzuk izan ditugu. Gainera, boskotetik laukote izatera pasatu gineneanean, zerotik hasi ginen. Ordura arteko kantuak utzi, eta hasiera-hasieratik hasi ginen.

Multimedia ikuskizuna bihar Elorrion

Gure artean pareko gutxi dituen CD-Rom bikaina prestatu du Non Demontre taldeak Logela ikus-entzunezko kolektiboarekin batera. *Kaxa hermetikoa* kantuaren bideo-klip elkareragilea –ikusleak protagonisten pausoak gida ditzake– eta kantu bisual bat bildu dute CD-Rom horretan.

Lan horren balioaz jabetuta, orain zuzeneko emanaldira eramango dute CD-Romean landutako egoera horiek. Ordenadore batek kudeatuko du *Belarritakora sartu* ikuskizuna, eta Logela kolektiboak zein Non Demontrek bideo-proiekzioa, zuzeneko musika, poesia, antzezpen lanak eta elkarekintza erabiliko dituzte ikus-entzuleari sentsazio ezberdinak helarazteko. Beraz, ikuskizuna ez da CD-Romaren taularatze hutsa izango. «Ordubete iraungo du ikuskizunak,eta guk CD-Romaren jarraipen gisa ulertzen dugu». Ikuskizun berritzaile eta ausart hori Elorrioko Arriola aretoan aurkeztuko dute bihar 22:30etatik aurrera, eta ondoren kontzertua izango da Arriolako ateneoan. Non Demontrez gain, Satiba, Elorrioko laukote gazteak eta Lisabö Irungo taldeak joko dute.

▼ logela

ZOZKETA

Belarritakora sartu ikuskizunerako hamar gonbidapen ditugu zozketatzeko.
Egileak: Non Demontre eta Logela. **Lekua:** Elorrioko Arriola aretoa. **Data:** Ostirala 25, 22:30ean
Deitu ostiral eguerdia baino lehen 943-300222 telefono zenbakira.

Arab Strap

Sentimendu gordinak

mikel lizarralde

Orain dela urtebete eta erdi Tindersticks taldeak Donostiako Victoria Eugenia antzokian eskainitako kontzertua ireki ondoren, Arab Strap talde eskoziarrak bigarrenez joko du Euskal Herrian hurrengo igandean. Oraingoan *The red thread* bere laugarren diskoa aurkeztuko du taldeak.

Aidan Moffatek (ahotsa) eta Malcolm Middletonek (gitarra) osatzen dute Arab Strap eta sei bat urte daramatzate sentimendu gordinenen eremuan arakatzen. Mark Eitzelek, Will Oldhamek eta saminaren beste poeta batzuek irekitako bidetik abiatuta, goibeltasunez eta iluntasunez beteriko musika eskaini du hasieratik Arab Strapek. Horretaz gain, doinuen gordintasuna hitzetara ere eraman du. Besteek bezala, sentimenduen munduan arakatu dute Moffatek eta Middletonek, baina haiek ez bezala, gordintasun sexuala eta emozionala izan dute hasieratik hizpide. Geldotasun eta tristura ikaragarriko melodiek lagunduta, Moffatek bere historioak kontatzen ditu, letaniak izango balira bezala. Nolanahi ere, hitzek taldearen zati garrantzitsu izanda ere, Arab Strapen musikak berez transmititzen ditu sentimendurik triste eta hunkigarrienak.

The week never starts around here (96) disko ilunarekin estreinatu zen taldea, baina lan hark ez zuen inolako oihartzunik izan. *Philophobia* (98) bigarrenak, ordea, kritikaren erabateko oniritzia jaso zuen, nahiz eta gaur egun, Moffatek ez duen hain interesgarri ikusten: «Hitz gehiegi du. Ez dago orekarik hitzen eta musikaren artean». *Elefant shoe* (99) kaleratzeko Go-Beat disketxera joan ziren, baina zigiluaren nahien kontra, ordura arteko diskorik ilunena eta zailena grabatu zuten Moffatek eta Middletonek, eta porrot komertzial ikaragarria izan zen.

The red thread bikotearen azken lanak orain arteko bidetik segitzen du, baina izpi alaiagoei ere tartea uzten die.

Igandean Bergarako Jam aretoan izango dira eskoziarrak Bright Eyes taldearekin batera.

Arab Strap eta Bright Eyes
Bergarako Jam aretoan
Igandean, 21:00etan

The Gee Strings

70. hamarkadako punk-rocka

jon maya

Akisgrango eta Koloniako lau musikarik osatzen dute The Gee Strings. Alemaniarrak dira, beraz. Sex Pistols, Ramones eta Heartbreakers bezalako taldeen eraginpean elkartu ziren Jac (bateria eta ahotsa), Psycho Eye (baxua eta ahotsa), Bernadette (gitarra) eta Ingi (ahots nagusia). Euren estiloa punk-rock zaharra da, eta 70eko hamarkadako taldeak ekartzen dizkigu gogora. Kantu indartsuak egiten dituzte, melodiakoak, eta entzulea azkar harrapatzen ditu. Formula sinplea da, baina orain arte oso emaitza onak eman dizkie. Alemanian eta Belgikan makina bat kontzertu eman ondoren, Europan zehar ere beren musika hedatzen ari dira azken urteetan.

Beren lehenengo diskoa 1997. urtean argitaratu zuten. Eta, orduz geroztik, urtero sartu dira estudiora grabatzera. Bosgarren emaitza da azken hilabeteetan aurkezten ari direna: *Viva la Vinyl No.4*.

Euskal Herrira ere euren azken lan hori aurkeztera heldu dira. 70eko hamarkadako punk-rocka eta independentzia dira beren ezaugarri nagusiak. Hala diote beraiek.

The Gee Strings
Gaur, Donostiako Bukowski tabernan, 20:30etan.
Bihar, Beasainen, txosnetan.

Nomeansno

Komunikatzeko grina

jon maya

Nomeansno, ezetzak ezetz esan nahi du. Taldearen izenak jada taldearen izaera adierazten du. Emakumeen eskubideen aldeko izen bat jarri nahi zioten taldeari, eta hau aukeratu zuten. Mezu garbia, komunikatzeko erraza eta gogorra aukeratu zuten. Izan ere, izaera indartsuko taldea da Kanadatik heldu den hau.

Wright anaiak dira taldearen buru, Rob eta John. Laurogehiko hamarkadarekin batera sortu ziren talde bezala. Ordutik hona bide luzea egin dute. Euren lanak uztea eta musikaren unibertsoan sartzea erabaki zutenetik, bederatzi disko grabatu dituzte. Azkena, azken egunotan ari dira aurkezten, No one. Hirurogeita hiru minutuko diskoa da, zortzi kantuz osatua, eta horien artean Ramones zein Miles Davisen bi bertsio.

Euren musika sailkatzea ez da batere erraza. Batez ere, beraiek ere definitu nahi ez dutelako. Rob Wrightek berak orain urte batzuk esandakoa horren adierazle garbia da: «Ez zaizkigu asko interesatzen musika estiloak, entzuten ditugun kantuetatik zatiak lapurtzen ditugu, eta gero gure musika izango balitz bezala erabiltzen dugu gure kantuetan. Musika ona egitea bakarrik interesatzen zaigu, ez estilo zehatzik». Haatik, esan daiteke post-hardcore modernoa egiten dutela, alaia eta indartsua.

Euskal Herrian Nomeansnorekin jardungo duen taldea Removal da. 1997. urtean sortu zen hirukotea rockeroa da hau. Orijinalak dira, independenteak eta indartsuak, eta grabatutako soinu zein sanplerrekin jarduten dute kontzertuetan.

Nomeansno eta Removal
Gaur, 21:00etan
Oiartzungo Pagoa aretoan

Quique Gonzalez

Pasarte biluziak

Quique Gonzalez
Gaur, Donostian
Caledonia pubean

jon maya

Quique Gonzalezek bere bigarren diskoa kaleratu berri du. *Salitre48* izena jarri dio, eta hainbat konturengatik bitxia da disko honen historia. *Personal* izeneko bere lehenengo lana Universal disketxearekin grabatu zuen, baina horren ondoren karta zuria eman zioten. Quiquek, ordea, kantuak egiten jarraitu zuen, eta Carlos Rayaren etxean hamasei kantuko maketa grabatu zuen. Maketa hori disko bihurtu da orain, estudiotik pasatu ere egin gabe, etxean eginiko grabaketa berarekin. Norekin eta Universal disketxearekin, gainera. Abeslari madrildarrak gogo onez hartu du itzulera hau, «honek erakusten baitu lehenengo erabakian atzera egin dutela, eta nik prestatutakoa benetan gustatu zaiela». Etxean grabatutako hura diskora eramatea ere ideia ona iruditu zaio: «Orijinala da, eta, aldi berean, aukera bat irekitzen du, arruntagoa, primitiboagoa eta zenbait kasutan aproposagoa musikaren benetako muina jasotzeko».

Londresen bizi izandako zazpi hilabeteek bultzatu zuten musikara, eta hasiera hartako estiloari eusten dio oraindik. Oinarrizko doinuak, ahots garbiak eta biluztasuna. Zintzoak dira Quiqueren kantuak, «barrutik kanpora eginikoak». Emozioetatik abiatzen dela dio beti, eta horien ondotik etortzen dena handikeriarik gabekoa izaten da, «oinarrizkoa batik bat». Biluzte hori, ordea, ez dela pentsatutako ezer deritzo: «Biluzik agertzen naiz horrela ateratzen zaidalako, zerbait naturala da, eta ez dakit benetan horretaz jabetzen naizen».

> «Disko bat etxean grabatzea ideia ona iruditzen zait; oinarrizkoagoa eta primitiboagoa da soinua»

Bigarren diskora hiru urtetako bizipenak bilduz heldu da. Bere kantuak kontakizunak dira. Mallorcan turisten animatzaile zenekoa kontatzen du *Cuando eramos reyes*-en, *Se nos iba la vida*-n ostatu batean jazotako gertakari bitxia azaltzen du…: «Ez da bilatutako disko bat, hiru urtetan jazotakoa bilduz heldu naiz honaino». «Bidaiaria» da bere ustez *Salitre48*, «irudi asko ikus daitezke, hamasei kantu, hamasei gertakari, hamasei irudi dira, eta zinemarekiko dudan zaletasuna ere igartzen da».

Bi diskoek ildo berari jarraitzen diote. Bigarrena estudioan grabatu izan balitz oraindik ere antzekoagoa izango liratekeela dio berak. Hala ere, igarri da madrildarra musikalki sendotu egin dela, eta testuak ere mamitsuagoak direla.

Salitre48 diskoaren aurkezpenean murgildu da Euskal Herrian. Iruñean, Gasteizen eta Bilbon izan ostean, gaur Donostian eskainiko du emanaldia. Ekaina bitartean kontzertu akustikoak emango ditu, areto txikietan, Carlos Raya bere laguntzaile nagusi eta lagunarekin. Eta irailetik aurrera, berriz, beste bira bat egiteko asmoa du, talde bat lagun duela eta areto handiagoetara jauzi eginez.

Stereoskop

Elektronika rockeroa

Talde berri samarra da Stereoskop. Alex Brujasek 1997. urtean hasi zituen taldearen lehenengo urratsak, baina iaz osatu zen Stereoskop gaur egungo kideekin.

Hastapenetan Alexek Portishead edo Massive Attack taldeen eraginpean jardun zuen, betiere musika instrumentala eginez. 1998. urtean, berriz, Susana Egea bildu zitzaion, eta haren eraginez gehiago jo zuen melodiak eta bide berritzaileagoak bilatzera. Iaz Juan Luis Navarroa (baxua) eta Luis E. Diaz (DJa) sartu ziren taldean.

Lau taldekideak elkartu zirenetik oinarri elektronikoan sakondu nahian jardun du Stereoskopek. Euskarri elektroniko horretatik abiatuta, rock produkzio garrantzitsua egiten du taldeak, trip-hop estiloaren eta Europako doinu ilun zein dentsoen hurrengo urratsa bilatu eta izan nahian.

Asteburu honetan bi kontzertu eskainiko ditu Espainiako taldeak Euskal Herrian. ■ jon maya

Stereoskop

Gaur, Bilboko Azkena aretoan, 22:00etan

Bihar, Gasteizko Tapioca aretoan, 22:00etan

Larunbatean, Lasarteko Zulo aretoan, 22:00etan

diskoak



Rabih Abou-Khalil

The Cactus of Knowledge ■ Enja / Resistencia

Gero eta maizago topatzen dugu *oud* instrumentua, hau da, arabiar lautea, musika garaikidean, jazzean esaterako. Orain dela gutxi Anouar Brahem tunisiarraren kasua izan zen, eta orain Beiruten jaio eta Munichen bizi den Rabih Abou-Khalil musikariaren garaia dugu. Kultura ugari sartzen du gizon honek bere soinuan: Arabiakoa, Europakoa eta Estatu Batuetakoa, eta horiei esker soinu propioa mantentzen du. Rabiheren indarra konposaketan datza: *oud*-a ere primeran jotzen du, baina ez du birtuosoen moduan egiten. Pieza bakoitzak mila aurpegi erakusten du: soloak badaude, baina oinarrian ere nahasketa sendoa eta orijinala topatzen dugu: Arabiako aireak sortzen dira melodian, baina haize sekzioak —zortzi musikari daude atal honetan— Balkanetako edo New Orleansko oihartzuna dakarkigu noizean behin. Zerrenda honen barruan puntako musikariak topatzen ditugu: Gabriele Mirabassi italiarra, klarinete jole onenetariko bat; Berklee eskolako Antonio Hart saxo alto jole famatua; Dave Bargeron (Blood, Sweat & Tears); edo antzinako laguna den Nabil Khaiat siriar perkusio jolea. Beraz, benetako munduko orkestra bildu du Libanoko musikariak bere lan handinahienean. Zortzi pieza dira guztira, baina luzeak direnez —zortzi minutukoak , batez beste— guztiek espazioa dute beren sinadura uzteko. Entzun, bestela, *The Lewisnky march* alaia, *Fraises et creme fraîche, Oum Saïd* eta batez ere agurreko *Pont Neuf* lasaia. Rabih Abou-Khalilek, Europan atera duen hamaikagarren album honetan, ongi daki erakusten zer den kulturak gehitzea. Anouar Brahemen diskoa intimista zen, eta honek, mende berriaren *big band* baten soinu leherketa argi eta garbi dakarkigu. ■ joseba martin



Tortoise

Standards ■ Warp

Zer gertatu zaie?…Zer da hau?…Hainbeste denbora honetarako?…Horrelako galderak egin dizkiot *Standars* honi, erantzunaren zain egotearen arrazoia aurreko diskoetan murgiltzean aurki daitekeelako gehienbat. Urteetan taldearen jarraipen bat egin ondoren, arazo bat aurkitu diot disko honi. Ez dut uste aurreko diskoek eman zuten aurrerapausoen itzalik ageri denik hemen, ez konposizio aldetik behintzat. Egia da ekoizpen aldetik zainduagoa dagoela esan daitekeela (?), arrazoituz gainera, baina hala ere, Tortoise soinuak Tortoise taldea irentsi duela uste dut. Beste norabide batzuk bilatzen ahalegintzea norberak ezarri dituen eskemak puskatu gabe, utopia hutsa dela deritzot eta hau berbera gertatu zaio Chicagoko kolektibo (talde?) famatuenari; aurreko diskoek «berria» irentsi egin dutela alegia. Bestalde, *Standars* honek momentu ederrak ere badituela esan beharra dago, konposizioak zaindu ordez soinuen tratamendua zaintzearen ondorio zuzena alegia. Argi dago nik gehiago eskatuko niekeela, baina, hala ere, normala dela deritzot, honelako talde batek duen estatusa ikusiz gero urrutiko intxaurrak balira bezala tratatzea. Warp zigiluan argitaratu duela?…eta zer, gainera amorruz ikusten dut nola kontzeptuak taldea akabatu duen. Nork duen errua?… Guk noski, nork bestela? ■ iban urizar

KAFE ANTZOKIA

• BAR PUERTO, bazterreko ahotsak
Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen ikuskizuna.
2001/05/24 osteguna
Arratsaldeko 22:00etan
Sarrera: 600 pta.
Zenbat Gararen LAGUNAK: 300 pta.

Gabriel Aresti Euskaltegiko Udaberri jaia
Jokuak, musika, dantzak, antzerkia, kantak, paella lehiaketa eta mus txapelketa Albia loirategian.
Eta ondoren erromeria Kafe antzokian.

• TAPIA eta LETURIA
2001/05/25 ostirala
Gaueko 21:30etan
Sarrera: 800 pta. LAGUNAK: 400 pta.

• SKALARIAK
"En la kalle" disko berriaren aurkezpen kontzertua.
2001/05/31 osteguna
Gaueko 22:00etan
Aurresalmenta: 800 pta.
Txarteldegian: 1.000 pta.
Zenbat Gararen LAGUNAK: 500 pta.

• JUAN CARLOS PEREZ
• Petti
Pettiren "Arrazoiak" disko berriaren aurkezpen kontzertua.
2001/06/01 ostirala
Gaueko 22:00etan
Sarrera: 1.000 pta. (K. Antzokia eta P. Records).
Zenbat Gararen LAGUNAK: 500 pta.

SAN VICENTE 2 48001 BILBO TEL: 94 424 46 25

Kontzertuen agenda

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko

Abisua astearte eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren

Tel.: 943 30 02 22 / Faxa: 943 30 02 55
E-posta: barkatu_ama@ egunkaria.com

Gilah Monster (Bilbo), Hack Mack Jackson (Düsseldorf) eta Free Yourself (Düsseldorf).

zuzenean

Maiatzaren 17a.Bilbo Hiriko XIII. Pop-Rock Lehiaketa

Arazoz beteriko gaua

joseba martin

Gilah Monster laukoteak gonbidatu moduan bete zuen bere ekitaldia. Bere musika ez zen inoiz gelditu, eta giro ilun batean rock progresiboan eta psikodelikoan aritu ziren. Kantuak luzeak izan ziren, eta garrantzi gehiena musikari eman zitzaion, ahotsen gainetik. Sintonizatu gabeko monitore bat eta lurrean jarritako flash txiki bat ere erabili zituzten, gitarra pare horretatik joko astunak eta sendoak azpimarratzeko, efektu ugari eta oihartzun nabarmenarekin. Talde berri honen barruan Bilbo aldeko musikari ezagunak daude, lehen La Sectan edo Lovercraften ibiliak. Mermaidekin alderatu ahal dugu, baina ez dira hain urrun ailegatzen.

Ondoren Alemaniako bi talderen txanda izan zen. Arazoz beteriko gaua izan zuten, baina azkenean, nola edo hala, beren musika eskaintzea lortu zuten. Dirudienez, Free Yourself taldea berandu heldu zen bi banden ekipoekin eta, beraz, ez zuten denborarik behar den moduan soinu froga egiteko. Dena den, agertokian bertan, hamar minutuan prest zeuden Hack Mack Jackson taldearen kideak, Vivravoiden ordez etorriak. *Rockabilly, country* eta *garaje*-a nahasten dituzte bost lagun hauek, eta kantari nagusia —beste gitarrista bat ere horretan aritzen da— ahots apurtu batez baliatzen da erritmo bizi hauek emateko. Bitxiak izan ziren: bi *cowboy* kapelarekin, country alkandorak eta, bateria jolearen kasuan, maskara beltz bat buruan.

Alemaniatik etorritako bigarren taldea, Free Yourself laukotea, interesgarriagoa gertatu zen nolabait. Hauek ere soinua frogatu gabe agertu ziren, eta bost minutu behar izan zuten gitarrak, baxua, bateria eta ahotsak sasoian jartzeko. Hardcore klasikoa egiten dute, eta garrantzi handia ematen diote melodiari. Sendoak dira eta ez arinegiak; horrela, gitarren jokoak egiteko lekua aurkitu zuten; era berean gitarren planoak azpimarratzeko trebezia erakusteko gai izan ziren edo, noizean behin, solo arinak tartekatzeko, abiadura galdu gabe. Oso txalotuak izan ziren; beharbada banda gazte honek barruko energia eta indarra kanporatzeko erraztasun nahikoa adierazi zuelako.

Osteguna 24

- BERA • **Petti.** Kultur etxean, 13:30etan.
- BILBO • **Stereoskop.** Azkena aretoan, 22:00etan. 700 pezetan.
- **Bar Puerto, bazterreko ahotsak: Mikel Urdangarin** eta **Kirmen Uribe.** Kafe Antzokian, 22:00etan.
- **The Painkillers, Gurus** eta **Very Ape.** Bilborock aretoan, 20:00etan. Bilbo Hiria pop-rock lehiaketa.
- DONOSTIA • **Ray Anderson.** Gasteszena aretoan, 20:30ean.
- **The Gee Strings.** Egiako Bukowski tabernan, 20:30ean.
- **Quique Gonzalez.** Caledonian puben.
- **DJ Kigo.** Etxekalte danz kluben, 00:30ean.
- DURANGO • **Labrit.** Berbaro tabernan, 20:30ean.
- ERRENTERIA • **Eztanda.** De Cine Reyna tabernan, 22:30ean.
- GASTEIZ • **Ahava.** Dendaraba aretoan, 19:30ean.
- GORDEXOLA • **Oskorri & The pub ibiltaria 5.** Institutuan, 20:30ean.
- IRUÑEA • **Anari.** Erraldoien txokoan.
- LEGORRETA • **Txapelpunk** eta **Guda Garaia.** Harripila kiroldegian, 23:00etan.
- OIARTZUN • **No Means No** eta **Removal.** Pagoa aretoan, 21:30ean.
- SANTIAGO DE COMPOSTELA (GALIZIA) • **Skalariak.** La Nasa aretoan.
- SORALUZE • **Mikel Artieda Trio.** Gaztelupe tabernan, 22:30ean.
- VIGO (GALIZIA) • **Tonino Carotone.**

Ostirala 25

- ALONSOTEGI • **Oskorri.** 22:00etan.
- ARETXABALETA • **Ken-7.** Ezkutu tabernan
- Azkoitian • **Batzuk** eta **Humus.** Mataderoan, 22:30etan.
- BARAKALDO • **M.D.H.** Mendigo pubean, 21:00etan.
- BEASAIN • **The Gee Strings, Obligaciones, Vincent Von Reverb** eta **Grupo Salvaje .** Txosnetan, 22:30ean.
- BERA • **Mal de Ojo.** Pui ostatuan, 22:30ean.
- BILBO • **Tapia eta Leturia.** Kafe Antzokian, 21:30ean. 800 pezetan.
- BILLABONA • **Bide Ertzean.** Zineman, 22:30etan.
- BORDELE • **Zapozain.** Foire expo jaialdian.
- DONOSTIA • **Joaquin Sabina.** Kursaal jauregian, 21:00etan.
- **MCD, Odio** eta **Reptil.** Bidebietako biq 1-en, 23:00etan.
- **DJ Chico.** Etxekalte danz kluben, 00:30ean.
- DURANGO • **Elfo Negro, Zakurren Putze** eta **La Corchea Roja y Negra.** Gaztetxean, 20:00etan.
- EIBAR • **Sagarroi** eta **Txapelpunk.** Plazan, 22:30ean.
- ELORRIO • **Non Demontre, Satiba** eta **Lisabö.** Arriola ateneoan. Ikusentzunezko saioa (22:30etan) eta kontzertua (23:30ean)
- GORLIZ • **The Lirium** eta **Pog Mo Thon.** Xurrut aretoan, 21:00etan.
- IRUN • **Obus** eta **Overlife.** Tunk! aretoan, 23:00etan.
- LASARTE • **DJ Xavier** eta **DJ David Delor.** Zulo aretoan, 01:00etan.
- LAS CARRERAS • **Urtz** eta trikitixa taldea. 22:30ean.
- OIARTZUN • **Freenetic** eta **Mixil.** Pagoa aretoan, 23:00etan.
- ORDIZIA • **Pottor's** eta **Parasma.**
- ORMAIZTEGI • **Arakajun.** Itsune tabernan, 22:00etan.
- OURENSE (GALIZIA) • **Tonino Carotone.**
- PONFERRADA (LEON) • **Marea** eta **Flitter.** Blue aretoan.
- TUTERA • **Keltiar-Aldea.** Number Sixty garagardotegian, 00:00etan.
- VIENA (AUSTRIA) • **Camping Gaz & Digi Random.** Sunshine club aretoan.
- VIGO (GALIZIA) • **Skalariak.** Anoeta aretoan, 23:00etan.
- VILLABONA • **Bide Ertzean.** Zineman, 22:30ean.
- ZAMUDIO • **Labrit.** Dorretxean, 22:30ean.

Larunbata 26

- ANDOAIN • **Ras** eta **Unabomber.** Gaztetxean, 22:00etan.
- ANOETA • **Lif** eta **Erre.** Gaztetxean.
- ARRASATE • **Discipulos de Dionisos** eta **Snobs.** Gaztetxean, 22:00etan.
- ARTZINIEGA • **Gozategi.** Plazan.
- BASAURI • **Suspenders, Non Servium, Pozo Septiko, Kaos Urbano** eta **Takikardia.** Gaztetxean, 00:00etan. 500 pezetan.
- BERMEO • **Oskorri.** 22:30ean.
- BILBO • **Radiohead.** Zezen plazan, 21:00etan.
- **Obus** eta **Overlife.** Bilborock aretoan, 21:00etan.
- **La Broma de Ssatan, Berlin 80** eta **Punkarraoke.** Errekaldeko Kukutza gaztetxean, 20:30ean. 500 pezetan.
- **Estirpe** eta **Soda.** Azkena aretoan, 22:00etan. 700 / 1.000 pezetan.
- BURLATA • **Reverb** eta **Khamül.** Euskalherria peñan, 22:30ean.
- DONOSTIA • **DJ Araña.** Etxekalte danz kluben, 00:30ean.
- HERRERA DE PISUERGA (PALENCIA) • **Marea** eta **Flitter.**
- IDOATE • **Soblind.** Jaietan. 22:30ean.
- IRUN • **Sagarroi, Dut** eta **Lisabö.** Pilotalekuan.
- **Señor No** eta **Rip KC.** Tunk! aretoan, 23:00etan.
- LASARTE • **Stereoskop.** Zulo aretoan, 23:00etan. Ondoren, **M&M** eta **Kigo** (DJak).
- LEGORRETA • **Egan.** 23:30ean.
- OIARTZUN • **Pottor's, Eraso** eta **Kaotiko.** Pagoa aretoan, 23:00etan.
- PALMA DE MALLORCA • **Su Ta Gar.**
- PONTEVEDRA (GALIZIA) • **Skalariak.** Camawey aretoan.
- REUS (BARTZELONA) • **Betagarri, Trimelon** eta **Monstruacion.** La Palman.
- SANTURTZI • **Biok, Esklerosis** eta **Fallen.** Lakelo gaztetxean, 21:00etan. 400 pezetan.
- TUTERA • **La Polla, Hechos Contra El Decoro, Buitraker** eta **Fragile.** Bardeetako poligonoaren aurkako jaialdia.
- ZAMUDIO • **Mikel Urdangarin.** Kiroldegian, 22:30ean.

Igandea 27

- AGOITZ • **Oskorri & The pub ibiltaria 5.** Toki Eder pilotalekuan, 20:00etan.
- BERGARA • **Arab Strap** eta **Bright Eyes.** Jam aretoan, 21:00etan. 1.500 pezetan.
- BILBO • **Joaquin Sabina.** Euskalduna jauregian.
- **Ibilaldia: Idi Bihotz...** Abusun.
- BUEU (PONTEVEDRA) • **Skalariak.** Aturuxo aretoan, 22:00etan.
- DONOSTIA • **Mark Eitzel** eta **Damon & Naomi.** Gasteszena aretoan, 20:00etan. 800 pezetan.
- **Calloused** (EEBB) eta **System Horror** (Bartzelona). Intxaurrondoko gaztetxean, 20:00etan.
- ZARAUTZ • **Ibiltarixanak saioa.** Gaztelekuan, 19:30ean.

Astelehena 28

- OVIEDO • **Lisabo.**

Asteartea 29

- BURLATA • **Makuru.** Black Rose aretoan, 20:30ean.
- IRUÑEA • **Toto La Momposina.** Gotorlekuan, 20:00etan.

Asteazkena 30

- AMURRIO • **Oskorri & The pub ibiltaria 5.** Pilotalekuan, 20:00etan.

ZOZKETAK

Hauek dira Gaztemaniak-Musika Gidaren kamisetak irabazi dituzten irakurleak:

- **Josu Elizondo**
- **Uxue Zabaleta Arin**
- **Marian de la Fuente Pampliega**
- **Xabier Larrañaga Aranburu**
- **Aitor Duñabeitia**
- **Juan Osa Amilibia**
- **Aitor San Pedro Beraza**
- **Olatz Bordagarai Irastorza**
- **Ekain Ogando Ubiria**
- **Elorri Arin-Elizagoien.**

Su Ta Gar taldearen 10 Cdak eskuratu dituztenak, berriz, hauek dira:

- **Xabier Irigibel Uriz**
- **Mikel Marin Irurozki**
- **Maite Arrizabala**
- **Ion Iturbe Beristain**
- **Itxaso Quincoces**
- **Mikel Ensunza Landeta**
- **Arantza Atxurra Aranguren**
- **Beñat Ralla Yusta**
- **Josu Elizondo**
- **Xabier Uranga Salbide.**

azken portuko tabernan

jon maya

Abel Barriola

«Koadrila oso batua da gurea»

Ruben Belokirekin jokatutako partidaren biharamunean mintzatu gara berarekin. Galdu egin du (baina izugarrizko txapelketa egin du). Eta nola dagoen... Triste, irabazteko aukerak ere ikusi baitzituen markagailuan aurretik zihoala, «eta nekatu samarra eta eztarria urratu samarrarekin ere bai, lagunekin parranda pixka bat egin baitut». Izan ere, bazuen zer ospatu: urtebetetzeak eta txapelketa. Eta aspaldiko parranda falta. Azkena abenduaren hasieran egin zuen. Gustatzen zaizkio, gustuz hartzen ditu, eta beharrezkoak direla ere pentsatzen du, «baina pilotari profesionala izanda...». Penarekin, baina pozik dago.

Frontoia ikusita, argi dago lagunik ez zaiola falta. «Eskertzekoa da bai, beti nirekin etorri da jendea, eta horrek asko animatzen zaitu». «Leitzan horrelakoak gara, guztiek harreman ona dugu gure artean, nahiz eta haserre batzuk egon daitezkeen batzuetan; horrelakoetan frogatzen da oso elkartuta gaudela».

Eta elkartuta egoteaz gain, lehengo batean lankide batek esaten zuena: «Lau katu dira, eta ospetsu ugari dituzte herrian». «Bai egia da. Orain kazetari batzuek eta hasi dira ateratzen, baina kirolari pilo bat daude goi mailakoak». Kirol zaletasun oso handia dagoela deritzo. Gazteria sano eta kirolaria, beraz, Leitzakoa. «Eta kirolariak ez diren beste gazteek ere zaletasun handia dute; herrian beti daude txapelketak futbolean, pilotan... eta herriko gazteek pila bat parte hartzen dute bertan».

Udaberriak baino lore gehiago jaso ditu azken asteetan. Pilotari ona dela, oso elegantea, mutil fina... Guztia ona («seinale ona da, eta poza ematen du»). Betiko lagunek zer deritzote, ordea? «Koadrila oso batua gara, oso gutxitan haserretzen gara gure artean, eta uste dut guztiek ditugula hitz onak bestearentzako». Eta zuk zer diozu? «Jatorra izaten saiatzen naiz, hitz egitea gustatzen zait, lagunen lagun ona naiz, eta ustez, zintzoa naiz, nahiz eta askotan kostatzen den hori ere».

Ehiza eta mendia dira bere gauzarik gustukoenak. Oilagorrak ehizatzera joaten da txakurrarekin, eta horren aitzakian, mendian ibiltzera: «Gustura sentitzen naiz inguru ne horretan». Ahal duen guztietan joaten da. Batzuetan lagunekin, baina bakarrik ere bai: «Bakarrik joatea eta isiltasunaren sentsazio hori jasotzea atsegin dut».

Atseden pixka bat hartu behar duela dio. Baina, ez pentsa, hiru edo lau egun bakarrik hartzeko asmoa du orain, eta hori ere eskuak apur bat sendatzeko. Ondoren, bikotekako jokoan hobetzen jarraitzera, lanean jarraitzera... Eta oporrak? «Ilusio handia dut bikotekako txapelketetan, udan jaialdi ugari daude eta ilusio handia dut bertan gauzak ondo egiteko». Beraz, oporrak? «Oporrik ez aurten...».

Eta hori guztia bere erara esanda. Lasai-lasai, patxadaz, fin-fin, umil-umil... Lanean jarraitzeko gogoz. Ez da pattaldu, indartu egin du txapelketak. Zorionak!

▲ mikel saiz

Nortasun agiria

23 urte bete zituen iragan astean, maiatzaren 18an, Leitzan, hazten ikusi duen herri berean. Ikasketak BBBko 3. maila arte egin zituen. Batxilergoko urteetan, Tolosan jardun zuen, eta UBI garaian Iruñean (baina hori ez zuen gainditu). Pilotan herrian hasi zen, zortzi urte zituela, duela hiru urtez geroztik profesionala da, eta aurtengo buruz buruko txapelketan mutur-muturrean ibili da. Finalaurrekoan gainditu du Ruben Belokik.

bat-batean

- **Zer atsegin duzu gehien?** Mendia.
- **Eta gutxien?** Zarata.
- **Desio bat?** Buruz buruko txapelduna izatea.
- **Musika talde bat?** Manu Chao.
- **Liburu bat?** *El testamento de Judas.*
- **Pilotari bat?** Julian Retegi.
- **Zer eramango zenuke uharte batera?** Ez dakit, baina zoriontsu izaten saiatuko nintzateke.
- **Parrandarako leku bat?** Leitza eta Iruñeko sanferminak.
- **Eta edateko?** Garagardoa limoiarekin.
- **Pertsonaia bat?** Manu Chao bera.
- **Zeini egingo zenioke elkarrizketa hau?** Koadrilakoren bati.

zirika



amets arzallus

Politika antzua

Maiatzaren 14a. Bi eskale karriketan gaindi ibilki ziren, joan-jinak egiten zubi batetik besterat. Anartean, batak besteari milaka galdera pausatzen zizkion. Besteak, galdera ororentzat arrapostu bat atxemaiten zuen. Nork irabazi duela diozu? Ibarretxek. Eta galdu ? Bizardunak. Eta...

Izan ere, batek fitsik ez zekien. Hamaika urterekin umezurtz gelditu zen. Ikastolara lehendik guti joaiten bazen ere, hortik harat ez zen gehiago itzuli. Lurrean atxemaniko Ducados mutxikinak, eta sakelan erdi eroririk zuen ardo botila lagun, bere sorterritik Euskal Herrirako bidaia, kasualitatez harrapatutako tren zahar batean egin zuen. Portugesa zen.

Besteak, dena zekien. Hamabost urterekin, ikastolatik bidali zuten sobera zekielako. Hala ere, ikasten segitu nahi izan zuen. Beraz, autodidaktikoki, alkoholiko, drogazale, eta ohoin karrerak egin zituen, hiru diplomak batu eta eskaletzan lan bat atxeman arte. Tesia burutua zuen, tren geltokiko eta zubi azpiko tenperatura aldaketak aztertuz. Eta hori gutti balitz bezala, hogeita hamar urteko esperientzia lan horretan. Artista handi bat egina zegoen.

Egun hartako galdeketa hauteskundeen harira joan zen. Bi zubiren arteko joan-jinak egitean emazte baten argazkia ikusi zuten, «nazio berri bat jaiotzera doa», eta ondoan haur tipi baina lodi bat. «Zein alderditakoa da afixa hori ? EHrena. Eta, haurra sortua dea? Ez, ez da oraino jina. Eta kariotipoa egin dakote? Bai, menturaz. Nolakoa heldu da? Iduriz, bikiak izanen dira. Bat Hegoa deituko da, bestea Iparra. Biki orotan bezala, bada bat menperatzailea eta bestea menperatua. Baina ez zen atzo sortzekoa? Bai, baina ez dira arribatu ateratzerat. Nor dira erizainak? Bizardun belarri handi bat, eta mustatxadun bat. Orain abortatzea ez denetz egokia pentsaketan ari dira. Zendako? Iduriz, azken mementoko arazoak agertu dira. Haurrek ez omen zuten ez hanka eta ez buru. Eta gainera, beste hipotesi bat da, haurdunaldia ez zenetz psikologikoa. A bon, ze domaia! Guk gauero haur horren gainean lo egin dugu, eta azkenean ezagutzeko gogoa sartua zitzautan. Ez dugu, beraz, sekulan ezagutuko? Lasai, ez da instantean egina izanen, baina denborak mundurat emanen du.

Bizkaia
Egunkaria
EGUENA
2001eko maiatzaren 24a

BILBO

200 etxebizitza eregiko ditue Errekalde auzoko Elejabarrin

Udal Etxebizitzak alkarteak 200 etxebizitza barri egingo ditu Errekalde auzoan. Erabagia, martitzeneko batzarrean hartu eben alkartearen Administrazino Kontseiluan parte hartzen daben ordezkari politikoek. Azken hamabi urteetan ez zan horrelakorik gertatzen Bilbon. Etxeak Elejabarrin egingo ditue, aterpea eta Errekalde artean dagozan etxe zaharrak bota ostean. Bertan sartuko ditue gaur egun bertan bizi diran 30 familiak.

2

SANTURTZI

ABRA kolektiboak energia proiektuen kutsadura mailea salatu dau

Abrako ingurunean eregiko dituen Bizkaia Badia Gasa bergasifikadoreak eta hiru zentral termikoek (Bizkaia Badia Elektrizitatea, Iberdrola Santurtzi III eta Petronorreko ziklo konbinatua) 10-12 miloi tona anhidrido karboniko (CO_2) ekoiztuko ditue urtero, ABRA kolektiboen esanetan. Kontsumitzen danaren hiru aldiz gehiagoko kopurua ekoiztu gura dabe multinazionalek, kolektiboko kideek erabilten dituen datuen arabera.

2

IGORRE

Arratia errekea bideratuko dabe, uriol arriskuei aurre egiteko

Arratia ibaia bideratuko dabe Igorretik igaroten dan tartean. Uholde arriskua dala eta sortutako arazoa konponduko dabe bideratze honegaz. Ibaiertzak aisialdirako lekutzat erabilteko aukerea eskainiko dabe egitasmoa gauzatuko daben Jaurlaritzako Herrilan Sailak eta Igorreko Udalak. 34 milioi pezeta erabiliko ditue.

7

ZULOKO-IBARRETA. Mobilizazinoak

Hezegunearen aldeko Ezpitsua taldeko beste sei kide atxilotu ditue

Ertzaintzak Ezpitsua taldeko sei kide atxilotu zituan, atzo goizean, Zuloko-Ibarrako hezegunea lehortzeko beharrak galerazoten ahalegindu ziralako. Martitzenean beste zortzi ekologista atxilotu zituen. Euren buruak kamioien aurrean ipinteaz ganera, Ezpitsua taldeko kideek udal agintarien kontrako salaketea ipini eben, atzo goizean, Barakaldoko epaitegian. Istiluak barikuan hasi ziran. Egun horretan jakin zan martitzena ezkero dozenaka kamioi eta hainbat indusmakina hezegunean sartu zirala. Ekologisten ustetan, beharrak ez dira legezkoak, eta, horregaititik, obrak bertan behera itzi behar dirala uste dabe. Horixe da epaileari, Espainiako Kostalde Sailari, eta arazo horretan eragina daukien erakunde guztiei eskatu deutsieena: Hezegunea eta bizi diran animalientzat beluegi izan baino lehenago, obrak geldituarazotea.

Padurea lehortzeko beharrak galerazoten egozan

3

BILBO. Udabarri giroa

XOUSE SIMAL

Berandu baina... ailegau da!

Heltzen ez dan udaberria, pop talde ospetsu baten abestiak errealidadeagaz bat egin eban aurtengo udaberriaren etorrerearen atzerapena dala eta. Negua emoten eban udabarri honek azkenean agertu ditu benetako jantziak: bizidun gehienen onuran; alergikoek ez dabe pentsakera berbera eukiko. Irudiko bikoteak patxadaz hartu dau abisurik bako etorrerea. Egunkaria irakurten emon dau goiza, ederto baten: eguraldi aldaketearen ganeko albisteren bat irakurteko ez bada be. Berotegi efektu madarikatuari eskatu beharko deutsiez egile eskubideak, kantuaren letra egileek. Artea errealidadearen aurretik joan da oraingoan.

UDAL ETXEBIZITZAK. Otxarkoagan etxeak saltzeko operazinoa bertan behera itxi eben, martitzeneko batzarrean

IÑIGO AZKONA
Udal Etxebizitzak alkarteak 5.000 etxe inguru kudeatzen ditu.

Udalak berrehun etxebizitza eregiko ditu Elejabarrin

Udal Etxebizitza alkartearen parkea sendotzeko balio izango dabe

I. B.

Udal Etxebizitzak alkarteak 200 etxebizitza barri egingo ditu Errekalde auzoan. Erabagia, martitzeneko batzarrean hartu eben alkartearen Administrazino Kontseiluan parte hartzen daben ordezkari politikariek. Azken hamabi urteotan ez zan holakorik gertatzen, eta erabagia, beraz, garrantzitsua da.

Etxeak Elejabarrin egingo ditue, aterpea eta Errekalde artean dagozan etxe zaharrak bota ostean. Han sartuko ditue gaur egun bertan bizi diran 30 familiak. Obrearen aurrekontua 4.000 milioi pezetakoa izango da, eta, ezustekorik gertatzen ez bada, behintzat, obrak urtebete barru hasiko ditue.

Etxe gehienak alkarteak berak kudeatuko ditu, preminea daukien bilbotarrei alokatzeko. Dana dala, obra nagusiagaz hasi aurretik, 20 etxebizitzako eraikin txiki bat altzauko dabe. Etxe horreek saltzeko izango dira, eta alokatzeko izango diran beste 180 etxeetatik aparte egingo ditue.

PPko zinegotzia izan ezik, proposamen horren alde bozkatu eben ganerako ordezkari politiko guztiek. Ordezkari popularra abstenidu egin zan.

Otxarkoagako operazinoa

Obrea egiteko, Otxarkoagako etxebizitzen salmentatik lortutako dirua erabili ahal izango dau alkarteak. Gitxi gorabehera, 3.500 milioi pezeta irabazi zituan Udalak operazino horretan. Izan be, martitzeneko batzarrean hartu zan garrantzia handiko beste erabagia horren ingurukoa izan zan: amaitu da dagoaneko Otxarkoagako etxeen salmentea.

EAJ, EH eta ICVko zinegotziek horren alde bozkatu eben, eta PP eta PSEko ordezkariek kontra. 1997. urtean, operazinoa hasi zanean, udal alkarteak 3.564 etxebizitza zituen Otxarkoagan, eta, harrezkero, 2.073 etxe saldu dira. Salneurria, batenaz beste, 2.223.263 pezetakoa izan da. Jakina danez, laster beste operazino bat egingo dau Udalak, salgai jarriko ditu-eta ganerako auzoetan dituan etxebizitzak be.

Udal Etxebizitzak alkarteak, gaur egun, 5.200 etxebizitza inguru kudeatzen ditu; nahiz eta alkartearenak berarenak 2.479 baino ez diran, ganerako 2.644 beste erakundeakaz batera kudeatzen ditu eta.

Lehenengo moltzo horretan sartzen dira, besteak beste, Otxarkoagan saldu barik geratu diran 1.500 etxebizitzak. Orain, operazinoa zarratu danean, saldu gura baditue, Servatas enpreseak zehaztu barri dituan balio tasen kopuruen arabera saldu beharko dira horreek be.

Etxebizitzak saldu bai, baina barriak ez dira eregi azken hamabi urteotan. Joera hori aldatzea behar-beharrezkoa zan, oposizinoko taldeen ustez. Kontuan izan behar da, oraindino bi mila bilbotar inguru dagozala babespeko etxebizitza bat alokatzeko zain.

Mendebaldeko euskeran kazetaritza lanak argitara daitezan lagundu guran, BBK-k eta EUSKALDUN EGUNKARIAk idazle, kazetari zein herritarrentzat zabalik dagoen bigarren erreportaia lehiaketa gertatu dabe.

Bigarrengo EGUNKARIA-bbk erreportaia lehiaketa

"Izan zeu be kazetari"

OINARRIAK

Edozeinek parte hartu ahal dau lehiaketan. Erreportaia bat baino gehiago aurkeztu leitekez.
Bizkaieraz idatzia izan beharko dau erreportaiak, eta gaia libre izango da.
Erreportaiak 4.000 eta 5.000 karaktere bitartean euki beharko dauz, eta egileak argazkiak emon beharko dauz testuagaz batera. Argazkiek orijinalak izan beharko dabe; norberak edo beste batek egindakoak izan leitekez.
EUSKALDUNON EGUNKARIAren "Bizkaia" edizioan argitaratuko dira, domekaro. Lehiaketaren antolatzaileen esku dago erreportaia argitaratuko dan erabagitea. Erreportaia ez argitaratzeak esan gurako dau ez dala onartu. Argitaratu bako orijinalak ez jakoz bueltatuko egileari.
Epaimahai batek erabagiko dau nor saritu. Hiru sari izango dira.

500.000 pta. SARIETAN

Irabazlea: 300.000 pezeta (12.000 libera).
Bigarrena: 150.000 pezeta (6.000 libera).
Hirugarrena: 50.000 pezeta (2.000 libera).
Epaimahaiaren erabagia aldaezina izango da.

NORA BIALDU
ERREPORTAIA LEHIAKETA.
EGUNKARIA-BIZKAIA
Egia Jenerala 3, behea. 48010 BILBO
E-maila: bizkaia@egunkaria.com
*Erreportaiak postaz, posta elektronikoz edo eskura ekar daitekez.

EPEA
Erreportaiak aurtengo abendua bitartean argitaratuko dira.
Halandabe, albait arinen bidaltzea gomendatzen dogu.

ANTOLATZAILEAK bbk Egunkaria
www.egunkaria.com

SANTURTZI. Manifestazinoa egingo dabe zapatuan

ABRA kolektiboak energia proiektuen «zentzugabekeria» kritikau dau

Hasier Rekondo

Abrako ingurunean eregiko dituen Bizkaia Badia Gasa bergasifikadoreak eta hiru zentral termikoek (Bizkaia Badia Elektrizitatea, Iberdrola Santurtzi III eta Petronorreko ziklo konbinatua)10-12 miloi tona anhidrido karboniko (CO_2) botako ditue urtero, ABRA kolektiboko Iñaki Urrestazuren esanetan.

«Gas honeek berotegi efektua eta klima aldaketea eragiteaz ganera, kalte handiak sortzen ditue jentearen osasunean» gehitu eban, atzo, Santurtzin emoniko prentsaurrean. Lemoizko nuklearrak bete gura eban lekua beteko dabe proiektuek, kolektibokoen eritxian. «Gas naturala, metanoa, ez da energia iturri garbia; ganera, bergasifikadoreak edozein momentutan eztanda egiteko arriskua dauka: Hiroshiman botatako lehergailuak baino 66 bidar gehiagoko indarra dauka».

Energia preminearen % 300

Urrestarazuk azaldutakoaren arabera, «ekoiztuko daben energia ez dabe erabiliko gizartearen beharrizanak asebeteteko: kontsumitzen dogunaren hiru aldiz gehiagoko kopurua aitortu dabe, negozioa besterik gura daben, multinazionalek».

Honezaz ganera, ABRAkoek erabilten dituen datuen arabera inbertsinoak oso handiak diran arren, —300.000 milioi pezeta baino gehiago— hirurehun lanpostu besterik ez ditue sortuko.

Manifestazinorako deia egin dabe plataformakoek —«kutsatzen ez eben kartelak kendu deuskuez udal langileek»— datorren zapaturako. Arratsaldeko 17:30ean urtengo dabe Santurtziko Parketik.

ZULOKO-IBARRETA. Ekologisten ordezkariak gaur batzartuko dira, Madrilen, Kostalde Saileko arduradunakaz

Ertzaintzak Ezpitsua taldeko beste sei kide atxilotu zituan atzo goizean

Bezperan zortzi ekologista atxilotu zituen, hezegunea lehortzeko beharrak galerazoteagaitik

Iñigo Bilbao

Ertzaintzak Ezpitsua taldeko sei kide atxilotu zituan, atzo goizean, Zuloko-Ibarrako hezegunea lehortzeko beharrak galerazoten ahalegindu ziralako. Martitzenean, beste zortzi ekologista atxilotu zituen. Euren buruak kamioien aurrean ipinteaz ganera, Ezpitsua taldeko kideek udal agintarien kontrako salaketea ipini eben, atzo goizean, Barakaldoko epaitegian.

Istiluak barikuan hasi ziran. Egun horretan jakin zan, martitzena ezkero, dozenaka kamioi eta hainbat indusmakina hezegunean sartu zirana. Ekologisten ustetan, beharrak ez dira legezkoak, eta, horregaitik, obrak bertan behera itxi behar dirala uste dabe. Horixe da epaileari, Espainiako Kostalde Sailari, eta arazo horretan eragina daukien erakunde guztiei eskatu deutsieena: hezegunea eta animalientzat beluegi izan baino lehenago, obrak gelditzarazotea.

«Nahiz eta gaizkile lez salatu; nahiz eta atxilotu, jipoitu eta gartzelan sartu, ez gaitue kikilduko, eta hezegunean izango gaitue egunero-egunero, herri honen ondare natural horreek babesten». Javier Vazquez taldeko bozeroaleak berba gogorrak erabili zituan, atzo eguerdian, udal agintarien portaerea salatzeko: «Paduran egiten dagozan obrak ingurumenaren kontrako delitutzat hartu leitekez; eta hori larria bada, are larriagoa da ikustea zelan ondare naturalak babestu behar dituen erakundeek begiak zarratzen dituen hondamendi horren aurrean», salatu eban Vazquezek.

Madrilen izango dira gaur

Ezpitsua taldeko kide batzuk hezegunerako bidean, euren gorputzak lurrera bota eta barrikadea egiten daben bitartean, beste batzuk Madrilen izango dira gaur. Bertan, Espainiako Kostalde Saileko arduradunakaz batzartuko dira, eta padurako lurren sailkapen beharrak ahalik eta lasterren hasi daitezala eskatuko deutsiee.

Arduratuta dagoz, uste dabelako neurriak laster hartzen ez badira, Zuloko-Ibarretan ez dala egongo zer aztertu. Txikizioa galerazoteko egin behar daben ahalegina hain da handia, ze ekologistek laguntzea eskatu deutsiee Barakaldoko herritarrei. «Guztiona dan ondare historiko naturala jagotea danon ardurea izan behar dala uste dogu», nabarmendu eben.

Ez da hori izan egin daben dei bakarra. Herritarrei ez eze, bertan diran polizia indarrei be dei berezia egin eutsieen ekologistek: «Euren esku hartzea onartzen dogu, borroka horretan sartu ginanean bagenkian-eta zein zan arriskua. Baina gehiegikeria gehiagorik ez deutsegu onartuko». Vazquezek eta beste kide batzuk martitzenean atxilotutakoek «tratu txarrak» jasan zituela salatu eben.

«Baten bat atxilotu behar badabe, eroan daiezala komisaldegira gorbata baten atzean Udaletxe honetan ezkutetan diran benetako gaizkileak», ganeratu eban Vazquezek.

Hurrengo deia epaileari egindakoa izan zan. Gogoratu eutsien, Gasteizko Uren Zuzendaritzearen eta Madrilgo Kostalde Sailaren ustetan, badagozala arrazoi sendoak hezegunea babestu beharreko eremutzat hartzeko, eta, beraz, euren salaketeari ahalik eta lasterren erantzuteko eskatu eutsien.

Ibarretxeri deia

Azken deia Juan Jose Ibarretxeri egindakoa izan zan. Izan be, Barakaldon alkarrizketea baztertu, eta obrak inposatzen dagozan politikoei —horreen artean EAJ-EAko zinegotziak— bidea zein dan erakusteko eskatu deutsie Lehendakariari. Ez hori bakarrik. Ingurumena Giza Eskubide izateko ekimenagaz Ibarretxek bat egin ebala gogoratuz, eskubideak beteteko dirala, eta ez «tiradera baten gordeteko» esan eutsien lehendakariari. «Guk ez doguz eskubide horreek aldarrikatzen, guk betearazo egiten doguz, eta horregaitik gaizkile lez tratatzen gaitue», salatu eben.

JAVIER VAZQUEZ
Ezpitsua taldeko bozeroalea

«Baten bat atxilotu behar badabe, eroan daiezala gorbata baten atzean ezkutetan diran benetako gaizkile horreek»

«Guk ez doguz eskubide horreek aldarrikatzen, guk betearazo egiten doguz, eta horregaitik gara gaizkileak»

JOSU ETXEBARRIOSTE
EH eta EBko zinegotziek ekologisten salaketak babestu zituen.

LEIOA. Arropea eta maskara guztiak aldatu dabez aurton, ikuskizuna hobetzeko asmoz

Lamiakoko Maskaradea antzeztuko dabe, bihar arrastian, auzoko jaietan

Antzezpena hiru zatitan egingo dabe, urtero lez, arrastiko 17:00etatik gaua amaitu arte

LAMINA KULTUR ALKARTEA

Lamiakoko Maskaradea 1978 urtean antzeztu eben, lehenengoz; Leioako auzoan tradizino handia lortu dau ikuskizunak, azken urteotan.

Veronica Muñoz

San Maximo jaiak ospatuko dabez, bihartik aurrera, Leioako Lamiako auzoan. Txupinazoaren ostean, arrastiko 17:00etan, Lamiakoko Maskaradea agertuko dabe, urtero lez. Ikuskizunak tradizino handia lortu dau herrian, eta, duda barik, jaietako ekitaldi nagusia bihurtu da. 1978 urtean agertu eban maskaradea, lehenengoz, auzoko 14 eta 20 urte arteko gazte talde batek. Euskal mitologia eta kulturea ezeze, Lamiakoko historia be gogoratzeko asmoz sortu eben ikuskizun hori.

Arropea eta maskarak, barriak

Aurton, ganera, ilusino berezia ipini dabe proiektuan. Izan be, Lamiakoko Maskaradea osotzen daben 40 lagunak arropea, eta maskarak be aldatu dabez, Udalak emondako laguntzeari esker. Beraz, ikuskizuna inoiz baino ederragoa izango dala itxaroten dabe antolatzaileek.

Maskaradea hiru zatitan egingo dabe. Lehenengoa arrastiko 17:00etan hasiko da, Gazteluetan; fanfarriek, erraldoiek, Maiatza izeneko pertsonaiak, eta herritarrek kalejirea egingo dabe, musikeak lagunduta. Bigarren zatian, 18:00etatik aurrera, euskal mitologiako beste hainbat pertsonaia agertuko dira. Mari eta Sugar herriko kaleetatik ibiliko dira, jenteari iluntzerako gertau daben akelarrera joateko gonbidapena luzatzeko asmoz. Eurakaz batera, Prudentzi, Basajaun, Aker eta euskal mitologiako beste hainbat lagun ikusteko aukerea ziango da.

Koadrilen jaitsiera 20:00etan izango da; horren ostean, 22:30etik aurrera, Maskaradearen hirugarren zatia antzeztuko dabe; akelarrea izango da, metro geltokiaren inguruetan. Antzezpena amaitu ostean, barriz, Drakkar orkestreak musikea ipiniko dau, eta 1:30erako karaokea izango da, txosnan.

Umeentzako tailerrak ipiniko dabez, zapatuan, auzoko frontoietan. Eguerdian, barriz, herriko tabernetan poteetako ordua helduko jake Lamiakokoei. Irudimena ederto landu dabe jaietako antolatzaileek, eta ekitaldi bitxiak antolatu dabez: neska ezkonduek neskazaharren kontra jokatuko daben partidua, Iparraldeko herri kirolak, sardina erreak, kaleko dantzak, eta antzerkia be izango dira, arrastian zehar, Lamiako auzoan.

Kaleko antzerkia, ikuskizunak, eta pop-rock kontzertuak

Iluntzeko 23:30ean, barriz, Asier Bilbao Show ikuskizuna izango da; horren segidan, Leioako pop-rock lehiaketea irabazi dauen taldeak kontzertua emongo dau.

Domekea kalejira bategaz hasiko da, 9:30etik aurrera. Goizeko 11:00etan, Lamiako Antzokian, Leioako Musika Bandeak joko dau. Umeentzako parkea ez da faltako, frontoietan, eta *Txapitel* izeneko umeentzako ikuskizuna prestatu dabe, txikienentzat. Eguerdian meza nagusia izango da.

Tortilla txapelketea egingo dabe, urtero lez, arrastian, txosnearen inguruetan. Herritarrek artista ezagunen abestiak kantetako aukerea izango dabe, txapelketearen ostean, *Playback* lehiaketan. Gauean, azkenik, berbenaldia izango da; urtero lez, aurtongo jaiei agurra esateko musikea erabiliko dabe. Oraingoan, Haizea Trio orkestreak joko dau.

EGITARAUA

MAIATZAK 25, BARIKUA

17:00etan: Txupinazoa, eta maskaradearen lehen zatia.
18:00etan: Lamiakoko Maskaradearen bigarren zatia.
20:00etan: Koadrilen jaitsiera.
22:30etan: Maskaradearen hirugarren zatia, eta kontzertua, Drakkar taldeagaz.

MAIATZAK 26, ZAPATUA

9:30-13:00: kalejirea, umeentzako jolasak, eta herri poteoa.
16:00-21:00: Futbol partiduak, herri kirolak, dantzaldia, sardina erreak, berbenaldia...
22:30etik aurrera: Antzerkia, Asier Bilbao Show ikuskizuna, kontzertua, eta karaokea.

MAIATZAK 27, DOMEKEA

11:00-18:00: Musika Bandearen kontzertua, meza nagusia, tortilla eta playback txapelketak...
19:00: Berbenaldia, Haizea Trio-gaz.

AGENDEA

GETXO

Zine Kluba: Nacional 7 titulupeko filma botako dabe, 20:00etan, Areetako Gran Cineman. Sarrerea 250 pezetan dago.
Getxoarte: Getxoarte, arte barrien azokea inaugurauko dabe, 11:00etan, Areetako Metro geltokiaren ondoan.

BERANGO

Pelota txapelketea: Pelota txapelketa izango da, arrastian, pelotalekuan.

GORLIZ

Sahararen jardunaldiak: *Fatimetu*, Jon Anduezaren bideoa botako dabe, 19:00etatik aurrera, Gorlizko erakusketa gelan. Ostean, Gurutze Irizar *Fatimetu* erizainak Saharako kanpamentuetan bizi dan egoerearen ganean berba egingo dau.

ZAMUDIO

Berbaldia: *Herri kirolden bilakaerea* izeneko berbaldia emongo dau Iñaki Perurenak, 20:00etan hasita, Zamudio Torrean. Sarrerea doan izango da.

LABURREAN

GETXO

Getxoko Behargintzako bost ikastarotan izena emoteko epea zabaldu dabe

Behargintzak heziketarako bost ikastarotan parte hartzeko epea zabaldu dau. Getxon erroldatuta dagozan lanbakoentzako ikastaroak dira, eta izena emoteko epea bagilaren 22an amaituko da. Ikastaroak iraila eta urria bitartean izango dira, eta ondorengoak izango dira: arrindegietan behar egiteko ikastaroa, eraikinen zaindaria, dendaren arduraduna, enplegurako agentea, eta aditua teledokumentazino digitalean. Informazinoa Algortako Behargintza zentroan lortu leiteke.

BARRIKA

Barrikabason obrakaz jarraitzen dabela salatu dau Gorlizko EHk

Barrikabasoko (Barrika) San Telmo eta Muriola ingueruetako lurretan urbanizetea debekatzeko behin betiko erabagia hartu barri dau EAEko Auzitegi Nagusiak. Horren barri emoteko idatzia bidali deutsie Barrikako EHko zinegotziek Aldundiko Urigintza buruari. Zinegotziek aitatu dabenez, Barrikabasoko inguru horretan «obrak aurrera doaz, inoiz baino arinago, beharrak legez kanpo egon arren». Inguru horretako obrak geldiarazoteko eskatu deutso EHk Aldundiari.

LEIOA

Kandelazubietako etxebizitzea konponduko dabe

Leioako Kandelazubieta kaleko 21. zenbakian dagoan etxebizitzearen arazoak konpontzeko ikerketea egin dau Leioako Udalak. Izan be, orain dala hamar urtetik, etxebizitza horrek arazo larriak euki dauz bere egituran. Azken sei urteotan, ganera, arazoak handitu dira, eta arraildurak agertu dira hormetan, beste arazo batzuen artean. Garajean be arazo larriak euki dabez auzokideek. Egindako ikerketearen arabera, arazoak konpontzeko 30 milioi pezeta inguru gastau behar izango dabe. Karmelo Sainz de la Maza alkatearen azalpenetan, diru hori ordaintzeko hitzarmena lortu gura dau Leioako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz eta etxebizitzearen auzokideakaz.

GERNIKA. Talde kulturalen, gazte taldeen eta zerbitzu publikoen barri emoten da bertan

ONINTZA ENBEITA

Gidearen azalean uriko erlojurik garrantzitsuenak agertzen dira, argazkian Eriako lorategietako ordularia.

Zerbitzu eta harreman gidea barriztauta argitaratu dabe

Gitxi gorabehera bost mila ale bananduko dabez etxerik etxe

Onintza Enbeita

Gernika-Lumoko Udalak uriko zerbitzuen gida barria argitaratu dau. Gidea 60 orrik osotzen dabe, eta hainbat komertzioren publizidadetik aparte, uriko argazkiak, zerbitzuak eta taldeakaz hartu-emonetan jarteko telefonoak dakarz.

Azalean Gernika-Lumoko 7 ordulari daukaz gideak: Lumoko elizakoa, epaitegikoa, Eriako lorategietakoa, Foruen plazakoa, tren geltokikoa, Batzar Etxea eta Euskal Herria museokoa. Udaleko ordezkariek azaldu ebenez, mende barriaren etorrerea azaldu gura izan da ordulariakaz. Egia esan, argazkietan igarten da ez dirala erloju guztiak sasoi berekoak.

Lehen be argitaratu eben gidea Gernikan. Halandabe, gida barrian zaharrean egondako akatsak zuzendu dira. Gehienak inprenta hutsak edo akatsak izan ziran. Oraingo gidan, zerbitzu gehiagoren barri emoten da eta uriaren ganeko informazino gehiago sartu dabe. Argazkiak be barriak dira. Gehienak, oraintsu atarata. Esate baterako, Elai Alai aretoa apirilean zabaldu zan, eta bertako argazkiak be badagoz gidan.

Uri guztian bananduko da gidea buzoiz buzoi. Danetara, 10.000 ale kaleratu dira eta horreetatik erdiak zabalduko dira etxeetara gitxi gora behera. Besteak, turismo bulegoaren esku itxiko dabez.

Alkatearen agurraren ondoren, aurkitu leike informazinoa liburuska barrian. Uriaren ganeko datu orokorrakaz hasi eta apurka-apurka taldeka zehazten doa informazinoa. Talde kulturalen artean, esate baterako, izan dira aldaketak liburuskearen barruan. Lehen agertzen ziran talde batzuk, orain ez dagoz, eta alderantziz. Ganera, gidea inprentan dagoala sortu diran taldeak kanpoan geratu dira.

Ibilbideak

Holakoetan beti emoten diran datuak kenduta, beste batzuk be sartu dauz Gernika-Lumoko Udalak gidearen barruan. Monumentuak, jauregiak, museoak, eta abarregaz batera, uritik hasita egin leitekezane ibilbideen barri emoten dau liburuskeak.

Lehenago Errege Bidea zana, itsasadarraren hegaletik Muruetarainoko paseoa eta Lumorako bidea zelan egin azaltzen dira gidan. Esan behar da, gidan aitatu ez arren, Forurako bidea be jente askok erabilten dauela ibiltelekutzat. Halandabe, udabarri eta uda partean, itsasadarraren hegaleko bidea da, jente gehienak aukeratzen dauena.

Beste alde batetik, bonbaketearen inguruko hainbat gomutakiren barri agiri da gidako orrietan: Gernika gudarostearen oroimenezko harria, Picassoren *Guernica* koadroaren kopia eta bonbaketan hil ziranen aldeko harrizko esteela besteak beste.

Kaleen planoa

Zerbitzuen liburuskeak uriko kaleen planoa dauka erdiko orrialdeetan. Halandabe, gidatik kanpo, beste 5.000 plano argitaratu dira. Batez be turismo bulegoan bananduko dira. Bisitariengan pentsauta argitaratu da izan be, kaleen ganeko gidea.

Kaleak auzoka bananduta dagoz, eta kale bakotxa zein dan zenbaki bidez azaltzen da. Planoan zenbakiak dagoz, eta ondoan zenbaki bakotxari jagokon kaleen zerrendea dago. Planoaren beste atal baten, Gernika-Lumo Europako, Euskal Herriko eta Urdaibaiko mapetan kokatzen da.

Laburmetraien emonaldia eskainiko dabe, bihar arratsaldean, Elai Alain

O. E.

Aurton egingo da seigarrenez *Kaspa Hutsa* laburmetraia emonaldia. Bihar arratsaldeko 19:00etan hasita, zazpi laburmetraia ikusi ahal izango dira Elai Alai aretoan.

Sarrerarik ez da ordaindu behar izango, eta honeeaxek izango dira laburmetraiak: *Psicoman contra Superzorra*, *Para espectadores indiscretos*, *Espiderman ya no vive aqui* + *El imperio de La Sandez*, *Donosti horror freak show*, *Tres tristes traumas*, *Kit sorpresa* eta *Bizarro*.

Freak izeneko estiloa jorratzen dabe laburmetraia gehienek. Antolatzaileek azaldu dabenez, nazkea emoten daben eskenak eta barre eragiten daben puntuak nahasten dauz modan dagoan estilo barri horrek.

MUXIKA

Bagilaren hamarrean ospatuko dau bertso eskoleak bere eguna

O. E.

Muxikako Garriko bertso eskoleak urtero antolatzen dau bere jaialditxoa. Aurtongoa, bagilaren 10ean izango da, eta urteroko moduan bertso idatzien sariketea izango da.

Sariketea goizeko 11:00etan hasiko da eta 12:00etarako egin beharko dabez parte hartzaileek euren bertsoak. 11 urtera artekoek bertso bat egin beharko dabe, 12 eta 13 urte daukiezanek bina eta 14 urtetik 18 urtera artekoek hiruna. Denporea, barriz, danentzat izango da ordu betekoa. Gaia ezbardina izango da talde bakotxarentzat, eta bertan egunean emongo da.

Bizkaiko bertsolari gazte guztiei zabalduta dago lehiaketea, eta bagilaren 3a baino arinago emon beharko da izena.

Sariketearen barri inguruko eskola eta ikastoletan zabalduko da. Orduan, askok izango dabe izena ikastetxean emoteko aukerea. Halandabe, 94 625 32 49 (Xabier) edo 94 625 36 02 (Zihara) telefonoetara deituta be, emon ahal izango da izena. Osterantzean Garriko bertso eskolan apuntau leike zuzenean. Normalean, bariku iluntzeko 19:30etik 21:00ak ingurura arte egoten da jentea bertan.

Sariak

Maila bakotxeko txapeldunari garrikoa emongo jako. Bertso eskolearen izena jakinda, logikoa be bada. Irabazle gazteenari garriko berdea emoten jako, ertainari gorria eta nagusienari baltza. Maila bakotxean bigarren geratzen diranek garaikur bana jasoko dabe.

Sari bereziak be zozketatuko dabez parte hartzaile guztien artean. Izena emon ahala, zenbakia emoten jake parte hartzaileei, eta horrek zozketarako balio izaten dau.

Bestela be, izaten dira sai bereziak. Normalean, lehenengo eta bigarren saria emon ondoren, atean geratu diranak izaten dira sari hori jasoten dabenak.


EGUNKARIA
Mende hasierako itsasontziek gatx eukien galarrenei aurre egitea. Argazkian, antxoa sasoain despiskan.

Itsasoak eroandakoak

LANBIDE GOGORRA. Gaurko lakoxe egun baten galarrena sartu eta hamairu arrantzale galdu ziran, 1909an. Mende hasieran asko izan ziran itsasoan hildako ondarrutarrak.

Lore Bengoetxea

Sasoi haretako bertso batek emoten dau itsasoan jazotako gertaera latzaren barri. *Mayatzaren ogei ta laugarren arratsian, urrengo egunian galerna sartu zan; kontu txarrak zian, txaluparen granorik etzala etxian, zer pentsa izango zan askon biyotzian.* Halantxe hasten dira Fermin Imazek sinatutako bertsoak.

Igeldoko talaiatik ekaitzaren barri emoteko telegramea bidaldu baeben be, berandu heldu zan. Astelehena zan. Iluntzerako herriko itsasontzi gehienak itsasora joan ziran, eta Ondarroako talaieroak mezua jakin izan ebanean, putzotsean, sutargi bat biztu eban, begiohar lez, arrainetan urtenda egozanentzat. Mutrikuarrek laster jo eben euren kairuntz, eta Ondarroako beste hamar batelek eureneruntz.

Hurrengo egunean herriko alkateak telegramea bialdu eutsan gobernadore zibilari. Bost lagun ito zirala esaten eutsan, eta urduri egozala arrantza ontzi asko falta ziralako. Beste telegrama bat igorri eutsan iluntzean. Ordurako argitasun gehiago eukiezan. Lau itsasontzi ziran falta ziranak, eta eurakin batera, 18-20 lagun. Artean, beste askoren barririk euki barik jarraitzen eben. Ondarroa eta Bermeokoak ziran, batez be, gau hartan antxoatan ebilzan baporeak, danetara larogeitik gora, kronikek dinoenez.

Lekuko baten berbak

Patriarca San Jose zan euretako bat. Handik, bakar-bakarrik Feliciano Aspiazuk urten eban bizirik. Lekuko zuzena izanda, gertaerearen barri emon eban. «Galarrena sartu zanean Debaruntz ginoazan. Bat-batean olatu handi bat sartu zala konturatu ginan, eta haize oihala jaitsi egin behar izan genduan, ahal zanik eta arinen. Barriro be altzau arren, laster batu behar izan genduan, haize oihalagaz aurreruntz jotea ezinezkoa zalako», azaldu eban Aspiazuk.

Une gogorrak izan ziran *Patriarca San Jose* txalupakoentzat. «Halako baten ur mendi bat etorri jakun ganera, eta itsasontziaren karela uraren azaletik hurrago geratu zan, bigarren ur horma baten laguntzeagaz».

Arrantzaleak ordu lauren egon ziran dingili-dongolo itsasontziaren barruan, orekea galdu eta gilaz gora jarri zan arte. «Sei lagun gengozan, eta seirok itsasontziaren hegalari eutsita jarraitu genduan ur azalean, bakotxak ahal eban eran».

Egunsentia ailegau bitartean, hondora joan ziran Aspiazuren kideak, banan-banan, «eta ni neu be joango nintzan, kortxodun sare batzuen goiko hegalak gerrian zehar ipini ez banituan, euskarri lez».

Indarrak gero eta makalago eukazala, *Aingeru Guardakoa* baporak hartu eban itsasoan galdutako gizona. Orion sartu ziran, eta, bien bitartean, beste 150 itsasontzitik gora Getariako kaian. Bapor, txalopa eta batelen artean, 80 Ondarroakoak ziran, 50 Lekeitiokoak, 20 Mutrikukoak, Zumaiakoak bi, eta Orio eta Zarauzko bana.

Agirietan jasota geratu danez, aitatzekoa izan zan *San Ignacio* Getariako txalupeak egindako ahalegina. Lau arrantzale batu eta Getarian lehorreratu ondoren, barriro be itsasora urten eta hamazortzi sare eta itsasontzi bat batuta egin eben buelta. Esteban eta Bartolome Uranga ziran txalupearen jabeak. Azken horrek etxean hartu zituan itsasoan jasotako lau arrantzale lekeitiarrak.

Biharamonean 60 lagun eroan zituen Getariatik Mutriku eta Ondarroako portuetara. Euren herrietan beso zabalik eta pozik hartu zituen arrantzaleak. Txil eginda, baina bizirik etozan. Batzuen pozari kontrajarrita, besteen etsipena. Senide eta lagunak behin betiko itsasoan galdu zituenek ezin izan eutsien negarrari laga.

Hurrengo egunetan ondarrutarrek gogoan euki zituen itsasoak eroandako herritarrak. Maiatzaren 27an, itsaso baltzean ito eta galdutako hamairu ondarrutarren oroimenez hiletak ospatu ziran elizan. Itsasontzi txiki bat egoan altarearen aurrean ipinita, haize-oihal, arraun, sare eta antzerako arrantza tresnekin.

Udalak be bat egin eban senideen doluagaz. Hori dala eta, 500 pezetagaz harpidetzea zabaldu eban kaltetu guztien alde. Beste alde batetik, pazko egunen ostean Udal Musika Bandeak eskaini behar zituan emonaldiak kentzea erabagi eban.

ITSASOKO HONDAMENDIAK

Joan zan mende hasierako gertaera latzak

Asko izan ziran joan zan mendearen hasieran itsasoan hildako arrantzaleak. Gertaera batzuk beste batzuk baino entzute handiagoa euki eben, kaltetuak gehiago izan ziralako. Holan, 1901eko maiatzaren 7an *Joven Josefina*ko patroia eta bederatzi marinel hil ziran; 1902ko abenduaren 29an *Nuestra Señora de Iciar* txalupako hamar lagun galde ziran; 25 pertsona 1908ko garagarrilaren 12ko ezbehar latzean; *Virgen del Puerto*ko hiru, 1912an; lagun bi, 1916an; bederatzi, 1922an eta *Virgen de la Antigua*ko beste bi, 1932ko udan. Sarritan itsaso baltzari aurre egin beharra besterik ez jaken gelditzen arrantzaleei. Liburuetan agertzen danez, eguraldi eskasagaitik arrainetan egiteari laga behar izaten eutsienean be gabezian bizi behar izaten ziran, Kofradiaren laguntzen bila.

EKAITZAREN GANEAN

Igeldoko talaiatik galarrenaren barri emoteko telegramea bialdu baeben be, berandu heldu zan

LEKUKOA

«Kortxodun sare batzuen goiko aldeak gerrian ipini, eta ez nintzan hondora joan»

OGIBIDE GOGORRA

Joan zan mendearen hasieretan, ezbehar ugari egon ziran itsasoan; arrantzale asko bertan hil ziran

AGENDEA

LEKEITIO
Osasun zikloa: Osasunaren eta elikadurearen ganeko zikloaren barruan, berbaldia egongo da gaur, 19:00etan, Barandiaran aretoan. Arantxa Arrien eta Enrike Gisasolak (EHNEko partaideak) *Nekazaritza ekologikoa eta produktu transgenikoak* gaiaren ganean egingo dabe berba.

ONDARROA
Eguenetan pelikuli: *Cuando un hombre ama a una mujer* botako dabe, drogamenpekotasunaren ganeko zikloaren barruan. Ekimena iluntzeko 21:30ean izango da, Guzur Etxean.

IGORRE. Ibaiertzak aisialdirako lekutzat erabilteko aukerea be eskaini gura dabe

Uriol arriskuari aurre egiteko, bideratu egingo dabe Arratia errekea

Lanak udazkenean dira hasteko, eta ia 34 milioi pezetako inbertsinoa eukiko dabe

AITZIBER BASAURI

Igorreko alkatea eta Alvaro Amann, Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio sailburua, akordioa sinatzerakoan.

ESANAK

ALVARO AMANN
(Herri Lan eta Garraio sailburua)

«Ingurumena errespetauta, uriolen aurka segurtasun handia eskainiko da»

JOSEBA IPIÑAZAR
(Igorreko alkatea)

«Oso garrantzitsua da akordioa. Izan be, uriol arriskuagaitik ez genduan etxebizitzarik eregiterik»

JON BUESA
(Ur Batzordearen zuzendaria)

«Teknika aitzindaria erabiliko dogu, ingeniaritza biologikoaren teknikak»

Aitziber Basauri

Arratia ibaia bideratuko dabe Igorretik igaroten dan tartean. Halan, batez be herri barruan, uholde arriskua dala-eta sortutako arazoa konponduko dabe. Eusko Jaurlaritzako Herri Lan Sailak eta Igorreko Udalak egitasmoa aurrera eroateko akordioa sinatu barri dabe.

Arratia errekearen tarte bitan egingo dira lanak: Indusi errekatik zubi barrirainokoan, batetik; bestetik, oinezkoendako zubitik Arantzazura arte —Indusi eta Arratia ibaiek bat egiten daben tartean—. Guztira, ia 34 milioi pezetako aurrekontua eukiko dabe. Jaurlaritzak inbertsinoaren % 75 egingo dau, eta Udalak ganerako % 25. Uholde gehien sortzen dabezan puntu bietan egingo diran errekea bideratzeko lanak. Udazkenean hasi ahal izango diralakoan dago Alvaro Amann, Herri Lan eta Garraio sailburua. Gertu egongo dira 4 hiletan.

Erreka bideratu eta uholde arriskuari urtenbidea emoteko urte bi daroe alkarlanean Udalak eta Jaurlaritzak. «Ibaiertzen trataera guztiak ingurumenagaz bat etorri daian lan egin da. Hasikeran, 200 milioi pezetatik gorako aurrekontua eukan egitasmoa gertau zan. Halandabe, naturalagoa dan tratamentua landu da. Igorrerendako onuragarriagoa, eta segurtasun handiagoa eskainiko deutsana. Inbertsinoa be txikiagoa izango da, ganera», dino Amannek.

Lurra, landaretzea eta Arratia errekea babestu gura dabez

Ingeniaritza biologikoaren teknikak erabiliko dira. Lurra, landaretzea eta errekea bera babestea da helburua.«Dagoan landaretzea errespetauko da. Izan be, erreka bideratu ostean, lurrok orain daukien erabailera bera eukitea gura da. Era berean, bertokoak diran arbola eta landarak ereingo dira. Bizkaiko Arrantza Alkarteagaz alkarlanean errekako biziari be eusten ahaleginguko gara», azaldu dau Jon Buesa Ur Batzordeko zuzendariak.

Ibaiertzetako lurra eta landarek mogiduko dabez, errekea bideratzeko. Gero, barriro, bere lekuan ipiniko dabe. Landara barriak ereingo dira, sustraien bidez erosinoaren kontra egiteko sarea eratzea da helburua. «Urte gitxi barru, babes naturalean oinarritutako sistemea eukiko dogu», dino Buesak.

Teknologia barri hori goratu dau Herri Lan eta Garraio sailburuak: «Herritarrak hormigoiz egindako horma gogorrera dagoz ohituta, seguruagoak diralakoan dagoz. Halandabe, aitatzekoa da sistema barri horrek be segurtasun bera edo handiagoa bermatzen dauana. Ganera, beharrezkoa da ingurumenareriko errespetua, uholdeen aurrean bermea eskaintzeagaz eta uriaren erabilera egokia emoteagaz bateratzea».

EAE aitzindaria da teknika barri hori erabilten. Guztira, 6-7 kasutan eroan da aurrera. Igorren egingo dana da garrantzitsuenetakoa, Buesak dinoanez.

Igorreko alkatearen ustez «oso garrantzitsua da lortutako akordioa. Izan be, uholde arriksuagatik ez geunkan etxebizitzarik eregiterik».

ARRATIA ERREKEA BIDERATZEKOLANAK

Bidegorria, oinezkoendako pasealekua eta aisialdi eremua

Arratia errekearen 485 metro bideratuko dabez. Futbol zelaiaren ingurutik igaroten dan ubidearen zatian, ez da sestra aldatuko. Halandabe, bertan egiten dauen estugunea desagertu eragingo dabe. Horrek aukerea emongo dau urek hartzeko moduko berma barria ipinteko. Etorkizunera begira, 6 metroko zabalerako bidegorria egin gura dabe bertan.Ganera, landara errenkadea be izango dau. Era berean, 4 metroko bigarren berma be jarriko da. Hori, oinezkoendako bidea bihurtuko da. Soberan dagoan harri-lubeta be kendu egingo da. Hidroereitea eta landareak jarriko dira. Arantzazurako bidera daroan tartean, Indusi ibaiak Arratia errekagaz bat egiten dauen puntuan dagoan presea 1,85 metrora jaitsiko da, besteak beste. Asmoa da ibaiertzak aisialdi eremurako be erabili ahal izatea, beti be, errekea ur handiagaz datorrenean, horreek baretzeko funtzinoa eukita.

LABURREAN

ABADIÑO

Mendiolan ur saneamentuko hodiak jarteko egitasmoa eskatuko dabe

Mendiola auzoan ur saneamentuko sarea jarteko egitasmoa eskatuko dau Udalak, epe laburrean. Halantxe, azaldu dau Jabier Uriarte alkateak. Lanok 30 milioi pezetako aurrekontua daukie. Mendiolarako kaminoa asfaltau baino lehen amaitu gura dabez beharrok. «Aldundiak bidea asfaltetako lanak, aurton, atarako dauz lehieketara. Halandaze, lanak hainbat lasterren hastea gura geunke. Aldi berean, bidebazterrak be egingo dabez, eta guk aurretik saneamenturako hodia eta argiteria ipinten hasteko instalazinoa jarriko dogu».

Aldundiak harrobien aurretiko tartera arte asfaltatuko dau bidea, 3 bat kilometro. Halandabe, Udalak, aitatutako azken tartea be atondu daian presinoa egingo dau, Uriartek dinoanez. Irailerako saneamenturako egitasmoa gertu egongo dalakoan dago Uriarte. Halan, lanakaz jarraian hasteko.

DURANGO

'El territorio guipuzcoano en los albores de la Historia' berbaldia, gaur

El territorio guipuzcoano en los albores de la Historia izango dabe berbagai, gaur, Durangoko Arte eta Historia Museoan, 19:30ean. Deustuko Unibertsidadean irakaslea dan Milagros Esteban izango da hizlaria. *Garai erromatarra Euskal Herrian* izenburuagaz antolatutako Historiari buruzko II. Jardunaldien barruan sartzen da gaurko berbaldia.

AGENDEA

ABADIÑO
Olerki emonaldia: Olerki emonaldia, euskeraz eta erderaz, Kultur Etxean, gaur 19:30ean. Honorio Cadarsok (Zornotza) eta Vicente Morenok (Abadiño) gaztelaniaz jardungo dabe. Peru Magdalena (Durango), barriz, euskeraz.

DURANGO
Musikea: Kultur Errotearen egitarauan, Labritek kantaldia eskainiko dau gaur, Berbaro tabernan, 20:30ean.

Erakusketea: Martin Egiaren argazkiak ikusi leitekez Berbaro tabernan.

ZORNOTZA
Erakusketea: *Camboya entre el sufrimiento y la esperanza* argazki bildumea ikusi leiteke, Zornotza Aretoan.

Bizkaia
EGUENA 2001eko maiatzaren 24a
Egunkaria euskal dunon
BIZKAIA: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo. 944104046 Faxa: 944103715 DURANGO: 656-790774 Publizitate lokala: 946202984 GERNIKA: 656-790777 GETXO: 656-790778 ONDARROA: 656-790775
Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114 Posta elektronikoa: bizkaia@egunkaria.com


XOUSE SIMAL

SUKALDARI GAZTEA. Estatu Batuetan ez eutsien sinesten, hain gaztea izanda, Guggenheimeko sukaldari burua zanik.

ESANAK

JOXEAN MARTINEZ
(Guggenheimeko sukaldarien burua)

«Gero eta gitxiago jaten dogu etxean, eta jaten doguzanak latako jana eta pizzak dira»

«Gero eta gatxagoa da itsasoko generoa topetea. Putzua agortzen dabil»

«Hemen errespetau egiten da elementu nagusia. Zaporeak bereizten dira»

«New Yorken emon genduan afariaren ostean, zorionak emon euskuezan»

«Hemengo sukaldaritzea zintzoa da»

SUKALDARI BURU GAZTEA. Joxean Martinez 22 urteko Guggenheimeko sukaldariak, afaria prestatu eban joan dan astean, New Yorken, Gehryren erakusketearen inaugurazinoan

Iñigo Olabarri | **BILBO**

New Yorken egon barri da Joxean Martinez, Guggenheim Bilbao Museoko sukaldeko burua. Solomon R. Guggenheim museoan Frank Gehryren erakusketea zabaldu eben, eta horretarako galako afaria gertatu. «Frank Gehryk hiru jatetxe diseinau ditu bere lanen artean, eta hareetako sukaldariak joan ginen».

Urduritasunak jota joan zan, Silvia Pinedagaz eta Bixente Arrietagaz batera. «Arduratuta gengozan. Ez genkian produktuak zelangoak izango ete ziran; guk eskatutakoak eskura eukiko ete genduzan. Abioitik jaitsi, eta danak ikusi gura nebazala esan neutsen».

Eragozpena ez zan produktuena bakarrik izan. Hegazkinean joazala, afaltzen egongo ziranak aurreikusitakoen bikotxa izango zirala jakinarazo eutsien Joxean Martinezi. New Yorkeko *jet-set*eko 320 pertsonaren sabela bete behar izan eben. «Ez hori bakarrik, afaria leku baten prestatu, eta, gero, kamioietan eroan behar izan genduan museoraino».

«Eurak plater nagusia deritxen hori egin behar izan genduan, guretzat bigarren platera izango litzatekena», gaineratu eban sukaldariak. Patata semolearen ganean ipinitako lebatz errea, abakando gozokiagaz».

Azkenean, ederto urten eban danak, eta sukaldariek zorionak jaso zituen. «Batzuek *maitre*aren bitartez emon euskuezan, beste batzuek, geu gengozan hotel berean egozan, eta ondo jan ebela aitortu euskuen».

Sukaldari burua zanik sinestu ez

Estatu Batuetan egon danean ez eutsien sinesten Guggenheim Bilbao Museoko sukaldari burua zanik. «Izan be, 22 urte daukadaz eta Estatu Batuetan sukaldari buru gitxi dagoz 35 urtetik beherakoak». Joxeanek dinoanez ez da hain harrigarria, «hamalau urte nituanetik egin dot behar sukaldean».

Joxean Martinez ez da afari handiak prestatzen ohituta dagoan sukaldaria. Guggenheim Bilbao Museoko jatetxea ez da handiegia. «Egunero 50 edo 60 pertsonarentzat emoten dogu jaten. Kalidadeari eutsi gura izan ezkero, halantxe egin behar dogu. Astiro-astiro joan behar dau dan-danak. Ganera, hemen, Guggenheimen egiten doguzan platerek behar handia eskatzen dabe prestakuntzeari jagokonean».

Estatu Batuetan eta Euskal Herrian jaten emotea be ez da gauza bera izaten. Euskal Herrian produktu bakotxaren jatorrizko zaporea da eskatzen dana. «Estatu Batuetan produktu oso onak daukiez, baina hango janera ez gagoz bape ohituta. Hemen baino *light*agoa da. Han, mahaira aterateko orduan, jatekoak daukan itxureak garrantzi handia dauka. Jatetxeak eurak be, askozaz luxuzkoagoak dira».

Euskal Herrian be apurka-apurka bide horretaraxe hurreratu dira sukaldariak. «Baina ez hango moduan. Hemen errespetau egiten da plater baten elementurik garrantzitsuena. Zaporeak bata bestetik erraz bereizten dira. Sukaldaritzea oso zintzoa da. Ez dogu dana saltseagaz tapetan, jaten daueznak azpian zer dagoan ez daian jakin».

Barritzailea, baina tradizinoari eutsita

Hemen, sukaldean prestatzen diran jatekoen kalidadeari eutsi gura izan ezkero, tradizinoa ez dala alde baten itxi behar dino. «Guk zuztarrak sakon daukaguz; jaiak dirala, ospakizunak dirala... holan ikasten da dastatzen. Ondo egindako bakailoa jatea plazerra da. Sukaldaritza barritzailea egin leiteke, baina tradizinoari eutsita. Ni horren aldekoa naz».

Jateko orduan euki dogun tradizinoarekin jarraitu ahal izateko eragozpen handia bizitzaren erritmoan egon da aldaketea izan da, Joxeanen arabera. «Gero eta gitxiago jaten dogu etxean, eta etxean jaten dogunean, pizzak, latako indabak... eta antzerakoak. Sasoi batean amak prestatzen eustazan bazkarien falta handia igarten dot».

Ahal dauen bakotxean beste jatetxe batzuetara joateko ohiturea dauka Joxeanek. Hemengo jatetxeen maila benetan handia dala jakinarazo eutsan *Bizkaia*ri Joxean Martinezek.

Sukaldariek, eragozpen handienak, itsasoetako generoa topetako orduan daukiez. «Sasoi baten baegoan, baina jendeak ez eban ordaindu gura izaten. Orain, gura adina ordainduta be ez dago generorik. Putzua agortzen dago».

Bizkaiko Foru Aldundia
Lan eta Trebakuntza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Empleo y Formación
Azpiegitura

IRAGARKIA:

Hornitzaileak eta azpikontratariak homologatzeko deialdi publikoa

• **Eskaerak jaso eta emateko tokia:**
Azpiegitura, S.A.ren bulegoetan.
Sabino Arana, 8 • 48013 Bilbao
Tlf.: 944 393 561
www.azpiegitura.net

Iragarki hau argitaratu eta 30 egun pasa ondoren, Azpiegiturako hornitzailea edo azpikontrataria izan ahal izateko ezinbesteko beharkizuna izango da aldez aurretik homologatuta egotea.

Bilbon, 2001eko maiatzaren 22an